Gune bakoitzean, urak arrain-fauna izateko ahalmenik baduen aztertzen da, arrain-fauna bizitzeko hobetu edo babestu beharreko ur kontinentalen kalitateari buruzko 2006ko irailaren 6ko 2006/44/EE Zuzentarauak ezartzen duenari jarraituz. 2006/44/EE Zuzentarauak 1978ko uztailaren 18ko Zuzentaraua ordezkatzen du, eta, bertan ezartzen denez, uraren kalitatea nahitaezkoa da bizidun urtarrentzat. Zuzentarauak ur kontinentalei aplikagarri zaizkien kalitate-irizpide batzuk ezartzen ditu, arrain-populazioen garapena orekatua izango dela bermatzeko. Irizpide horiek betetzeak lagundu egiten du kutsatzaileak murrizten edo ezabatzen, bai eta zenbait espezie urtarren populazioak maila orekatuetan izaten ere.

Hala, Zuzentarau horretan, 14 parametro fisiko-kimikotarako balio gidariak eta derrigorrezko balioak ezartzen dira. Ondorengo taulan azaltzen dira:

	IZOKINKIDEEN URAK		ZIPRINIDOEN URAK	
PARAMETROAK	**Gida**	**Derrigorrez**	**Gida**	**Derrigorrez**
T ª		≤ 21,5º C		≤ 28º C
	Alabaina, tenperaturaren mugak denboraren %2an gainditu ahalko dira			
Ox. Disolbatua (mg/l O_2)	% 50 ≥ 9 % 100 ≥ 7	% 50 ≥ 9	% 50 ≥ 8 % 100 ≥ 5	% 50 ≥ 7
pHa		6 a 9 (1)		6 a 9 (1)
Materia esekiak (mg/l)	≤ 25		≤ 25	
DBO5 (mg/l O_2)	≤ 3		≤ 6	
Fosforoa guztira (mg/l P)	≤ 0,2		≤ 0,4	
Nitritoak (mg/l NO_2)	≤ 0,01		≤ 0,03	
Konposatu fenolikoak (mg/l C_6H_5OH)		(2)		(2)
	Dastamen-azterketa, soilik konposatu fenolikoak sumatuz gero.			
Petrolioa oinarri duten hidrokarburoak		(3)		(3)
	Ikerketa bisuala. Dastamen-azterketa, konposatu fenolikoak sumatuz gero.			

	IZOKINKIDEEN URAK		ZIPRINIDOEN URAK	
PARAMETROAK	**Gida**	**Derrigorrez**	**Gida**	**Derrigorrez**
Ionizatu gabeko amonioa (mg/l NH_3)	≤ 0,005	≤ 0,025	≤ 0,005	≤ 0,025
Amonioa guztira (mg/l NH_4)	$\leq 0{,}04$	$\leq 1^{(4)}$	$\leq 0{,}2$	$\leq 1^{(4)}$
Kloro hodakina guztira (mg/l HOCl)		≤ 0,005		≤ 0,005
Zinka guztira (mg/l Zn)		≤ 0,3		≤ 1,0
Kobre disolbagarria (mg/l Cu)	≤ 0,04		≤ 0,04	

(1) PHaren aldaketa artifizialek ezin dituzte ± 0,5 unitateak gainditu, balio konstanteei dagokienez, 6,0 eta 9,0 bitarteko mugetan, betiere aldaketa horiek ez badute uretan dauden beste substantzia batzuen kaltegarritasuna areagotzen.
(2) Konposatu fenolikoen kontzentrazioak ezin du arrainaren zaporea aldatu.
(3) Petrolioa oinarri duten produktuak ezingo dira uretan kantitate handietan egon, kasu hauetan:
— urazalean ikus litekeen geruza bat osatzen badute edo ur-lasterren eta lakuen hondoetan jalkitzen badira.
— arrainek hidrokarburo-zaporea hartzen badute.
— arrainetan eragin kaltegarriak sortzen badituzte.
(4) Europar Batasuneko estatu kideek 1 mg/l-tik gorako balioak ezar ditzakete egoera klimatologiko eta geologiko berezietan, eta bereziki uraren tenperatura baxuetan eta nitrifikazio murriztuko egoeretan, edo agintari eskudunak arrain-populazioaren garapen orekatuan ondorio kaltegarririk ez dagoela froga dezakeenean.

6. taula. 14 parametro fisiko-kimikoentzako derrigorrezko balio eta gida balioak.

4.1.3. NEURKETA JARRAITUKO ESTAZIOAK

Gaur egun, Gipuzkoan, uraren kalitatea aztertzeko neurketa jarraituko 14 estazio daude. Horiek guztiak ur-emaria neurtzeko estazioetan daude. Estazio bakoitzean parametro anitzeko neurgailu bat dago, eta uraren tenperatura (º C), erredox potentziala (mV), eroankortasun elektrikoa (µS/cm), oxigeno disolbatua (mg/l), pHa eta uhertasuna (UNF) neurtzen ditu. Kasu batzuetan, materia organikoa (254 nm-ko absortzio koefizientea), amonioa (mg/l), solido esekiak (mg/l) eta ortofosfatoak (mg/l) neurtzen dituzten autoanalizatzaileak jarri dira. Hurrengo taulan, neurketa jarraituko estazioen zerrenda azaltzen da, eta horietako bakoitzak zer parametro neurtzen dituen zehazten da:

Arroa	Ibaia	Neurkerta jarraituko estazioa	Parametroak
Oiartzun	Oiartzun	Oiartzun	pHa, Tª, Eroan., Ox.Dis., Uhert
Urumea	Urumea	Ereñotzu	pHa, Tª, Eroan., Ox.Dis., Uhert
Oria	Oria	Alegia	pHa, Tª, Eroan., Ox.Dis., Uhert., Mat.Org., Amonioa, Ortof.
Oria	Oria	Lasarte	pHa, Tª, Eroan., Ox.Dis., Uhert., Mat.Org., Amonioa, S.S, Ortof.
Oria	Estanda	Salbatore	pHa, Tª, Eroan., Ox.Dis., Uhert.
Oria	Araxes	Araxes	pHa, Tª, Eroan., Ox.Dis., Uhert.
Oria	Amundarain	Amundarain	pHa, Tª, Eroan., Ox.Dis., S.S, Uhert.
Oria	Berastegi	Berastegi	pHa, Tª, Eroan., Ox.Dis., Uhert.
Oria	Leitzaran	Olazar	pHa, Tª, Eroan., Ox.Dis., Uhert, S.S.
Urola	Urola	Aitzu	pHa, Tª, Eroan., Ox.Dis., Uhert., Mat.Org., Amonioa, Ortof.
Urola	Urola	Aizarnazabal	pHa, Tª, Eroan., Ox.Dis., Uhert., Mat.Org., Amonioa, S.S, Ortof.
Deba	Deba	San Prudentzio	pHa, Tª, Eroan., Ox.Dis., Uhert., Mat.Org., Amonioa, Ortof.
Deba	Deba	Altzola	pHa, Tª, Eroan., Ox.Dis., Uhert., Mat.Org., Amonioa, S.S, Ortof.
Deba	Oñati	Zubillaga	pHa, Tª, Eroan., Ox.Dis., Uhert.

7. taula. Neurketa jarraituko estazioak

San Prudentzioko kalitate-estazioa geldirik egon da 2011. urtera arte; izan ere, kutsadura handiegia zegoen eta horrek ez zion uzten behar bezala funtzionatzen. Epeleko ur-hondakinen araztegia martxan jarri izanari esker, uraren kalitatea hobetu da, eta, hala, estazioa berriro martxan jarri ahal izan da.

2. irudia. Kalitatea eta ur-emaria neurtzeko estazioa Oria ibaian (Alegia)

Estazio horiek 10 minutuz behin neurtzen dute parametro bakoitza, eta neurriok euskarri informatikoan gordetzen dira. 10 minutuz behin hartutako balio horiekin, zenbait datu estatistiko kalkulatzen dira: urteko, hilabeteko eta eguneko batez besteko balioak, maximoak, minimoak, desbiderapen tipikoa…

Informazio hori guztia kontuan izanda, parametro bakoitzak urtean zehar izan duen bilakaerari buruzko analisia egingo da. Horrela, gune bakoitzean urtean zehar bildutako uraren kalitate fisiko-kimikoari buruzko xehetasunezko informazioa izango da. Azterketa horiek bereziki interesgarriak dira saneamendu- eta arazketa-obrak egin diren ibai-tarteetan.
Halaber, garairik bero eta lehorrenean hamar minutuan behin hartutako datuak oinarri, oxigenoaren eta tenperaturaren portaera niktimeralaren analisia egiten da. Horrela, tenperatura altuko edo oxigenazio baxuko egoerarik baden atzeman liteke, halako egoerek arrainen heriotza ekar baitezakete. Jarduera hori lotuta dago ibaiertzeko basoaren kontserbazioarekin. Ondo kontserbatutako lekuetan, tenperatura- eta oxigeno-baldintzak egokiak izaten dira; morfologian aldaketa handiak jasan dituzten lekuetan, ostera, arazoak egon daitezke.

4.2. URAREN KALITATE BIOLOGIKOA

Makroornogabe bentonikoak talde biologiko oso erabiliak dira uraren kalitatea aztertzeko. Aniztasun handia dutenez eta eskakizun ekologiko askotarikoak dituztenez, ingurunearen ezaugarri eta baldintzen adierazle onak eta fidagarriak dira, eta, gainera, oso erabilgarriak dira epe luze eta ertaineko eraginak detektatzeko eta jarraipena egiteko. Organismo horien azterketak indize biotikoak kalkulatzen laguntzen du, eta, horrela, uraren kalitate biologikoaren araberako sailkapena ezar daiteke; halaber, fauna bentonikoaren eta ibaietako ekosisteman eragina duten presioen arteko erlazioa ulertzeko informazioa ematen digute.

Atal honetan, indarrean dauden CEN arauen zehaztapenak jarraituko dira. Bereziki, honako arau hauek:

- UNE-EN ISO 8689-1:2001: *Uraren kalitatea. Ibaien sailkapen biologikoa. 1. Zatia.* Makroornogabe bentikoen azterketak oinarri hartuta kalitate biologikoari buruzko datuak aurkezteko gida.

- UNE-EN ISO 8689-2:2001 *Uraren kalitatea. Ibaien sailkapen biologikoa. 2. Zatia.* Makroornogabe bentikoen azterketak oinarri hartuta kalitate biologikoari buruzko datuak aurkezteko gida.

- UNE-EN ISO 14996:2007: *Uraren kalitatea.* Ingurumen urtarrean ebaluazio biologiko eta ekologikoen kalitatea ziurtatzeko gida.

- UNE-EN ISO 10870:2012: *Uraren kalitatea. Ur gezetako makroornogabe bentikoen* laginketarako metodoak eta gailuak hautatzeko gidalerroak.

- UNE-EN-ISO 16150:2012: *Uraren kalitatea.* Ibitik igaro litekeen ibaietan makroornogabe bentonikoen laginketak egiteko orientabideak, dauden habitatak estaltzen dituzten azalerak hainbanatuta.

4.2.1. MAKROORNOGABEEN LAGINKETA

Laginketa-estazioek, beste ezaugarri batzuen artean, irisgarritasun eta adierazgarritasun ona izan behar dute. Makroornogabeen laginketa 20-40 metroko tartean egingo da, mikrohabitat bakoitzak duen adierazgarritasunaren arabera, habitat anitzeko laginketa baita.

Lagina Surber sareaz jasoko da (0,1 m^2-ko oin-azalera du). Hori jasotzeko, oin-azaleran dagoen substratua ur-lasterraren kontra garbituko da. Eragiketa hori 4-5 bider errepikatzen da, estazioaren ezaugarrien arabera; hortaz, 0,4-0,5 m^2-ko azaleraren lagina jasotzen da estazio bakoitzean. Sarean bildutako lagina polietilenozko ontzi batean jasotzen da, eta lagin hori finkatzeko % 4ko kontzentrazioan den formaldehidoa erabiltzen da.

3. irudia. Laginketen bilketa

Laginketa-estazio bakoitzean fitxa bat betetzen da, ezaugarri hauen inguruko datuak zehaztuta: data, kokapena, eguraldiaren baldintzak, baldintza hidrologikoak, oharrak, etab.

4.2.2. MAKROORNOGABEEN LAGINEN PROZESATUA

Laginak laborategian prozesatzen dira. Horretarako, lagin bakoitza 5 mm, 1 mm eta 0,5 mm-ko zuloak dituen zutabe batetik pasatzen da. Material iragazitik, organismoak bereizten dira; dentsitateak oso handiak badira, zati alikuotak bereizten dira, eta guztizkoarekiko dentsitateak zehazten dira. Edonola ere, lagin osoko edukia berrikusten da, informazioa gal ez dadin. Horrela, fidagarritasun handia lortzen da. Ondoren, begi biko lupa baten laguntzaz eta gako espezializatu batzuen laguntzaz, organismoak sailkatu eta zenbatzen dira. Indize biotiko bakoitzak duen eskakizunaren arabera, familia edo generoa ere sailkatzen da. Aztertutako taxon bakoitzaren zenbakizko proportzioa eta dentsitatea (1 m^2) kalkulatzen dira. Horrez gain, lagin bakoitzaren guztizko dentsitatea ere kalkulatzen da (m^2).

4. irudia. Makroornogabeen laginen prozesatua

4.2.3. INDIZE BIOTIKOAK

Uraren Esparru Zuzentarauak ezartzen du arroetako plan hidrologikoek ingurumen-helburuak zehaztu behar dituztela, Zuzentarau horren xedeak betetzeko, hau da, azaleko ur-masek egoera ona izatea 2015a baino lehen. Ingurumen-helburu horiek direla eta, egoeraren adierazleak ezin dira asko bereizi baldintza naturaletatik edo erreferentziako baldintzetatik. Helburu horiek lortzeko, helburu espezifikoak planteatzen dira ur-masen egoeraren adierazgarri diren adierazleetarako, kasu honetan makroornogabe bentonikoetarako.

Bestalde, UEZk ezartzen du ibaiei tipologiak esleitu behar zaizkiela, hau da, antzeko ezaugarriak dituzten ur-masak. Modu horretara, mota bakoitzeko, aldaketarik gabeko baldintzetan edo adierazle bakoitzeko erreferentzia-baldintzetan ezar litezke balioak. Ur-masa baten egoera ekologikoa kalkulatzeko, erreferentzia-baldintzak zenbateraino desbideratu diren zehaztu behar da.

Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoaren Plan Hidrologikoan, tipologiak zehaztuta datoz; hain zuzen, Kantauriko ibaietarako honako hauek dira:

23- Ibai eusko-piriniotarrak
29- Kantauriar-atlantiar ibai-ardatz nagusi karedunak
32- Kantauriar-atlantiar ibai-ardatz karedun txikiak
22- Kantauriar-atlantiar ibai karedunak
30- Kostaldeko kantauriar-atlantiar ibaiak
26- Ibai menditar heze karedunak

Hori oinarritzat hartuta kalkulatzen da aztertutako balioen eta tipologia bakoitzari dagokion adierazlearen erreferentziako balioen arteko diferentzia. EQR (Ecological Quality Ratio) deritzo

horri, eta 0 eta 1 bitartean ibili ohi da; ratio horri ester, bost egoera mota ezartzen dira (oso ona, ona, ertaina, eskasa eta txarra).

Azterketa honetan, IBMWP indizea kalkulatu da. Indize horren erabilera oso orokortua dago. Kalkulatzeko, makroornogabeen familia bakoitzak puntuazio bat dauka, kutsadurarekiko edo egoera aldatuekiko tolerantziaren arabera. Hala, puntuaziorik baxuenak baldintza zorrotzik eskatzen ez duten familiei dagozkie, eta altuenak, berriz, sentikorrenei. Indize biotikoaren balioa dauden familia guztien puntuazioen batura da. Indize horrek portaera ona, sentikortasun-maila handia eta hedadura nabarmena erakusten ditu; izan ere, abiapuntu gisa adierazlearen balio maximoak hartzen ditu, eta balio horiek modu konstantean eusten diote, presio handiagorik sortzen ez bada; ondoren, pixkanaka gutxitzen dira, presio-maila areagotu ahala.

Berriki *817/2015 Errege Dekretua* onartu da, *irailaren 11koa, zeinetan azaleko uren egoeraren jarraipena eta eboluzioaren eta ingurumen kalitatearen arauen irizpideak ezartzen diren*. Errege Dekretu hau lege-esparru egoki bat osatzeko asmoarekin sortu da, egoeraren ebaluazioaren prozedurari segurtasun juridikoa emateko, eta administrazio guztiek modu objetiboan, egiazkoan eta homogeneoan aplika dezaten; honela, uraren egoeraren ebaluazioa eta jarraipena egiteko metodoen kalitatea eta alderakuntza bermatzen da. Errege Dekretu honek lehenago tresna ezberdinek erregulatzen zituzten azaleko uren egoeraren ebaluaziorako beharrezko irizpide biologiko eta kimikoak arau bakar batean biltzen ditu.

Ondoren, aipatutako *irailaren 11ko 817/2015 ED*-an bildutako IBMWPrako eta tipologia bakoitzeko zehaztutako erreferentziako baldintzak azaltzen dira:

TIPOLOGIA					
23	**29**	**32**	**22**	**30**	**26**
195	180	194	202	225	204

8. taula. Erreferentziako balioa IBMWP indizerako. 817/2015 ED

Ondoko taulan, egoera oso ona, ona, ertaina, eskasa eta txarra adierazten duten IBMWP indizeko EQR (Ecological Quality Ratio) balioak azaltzen dira:

EQR IBMWP	TIPOLOGIA					
Egoera	**23**	**29**	**32**	**22**	**30**	**26**
Oso ona	0,76 - 1	0,89 - 1	0,93 - 1	0,85 - 1	0,80 - 1	0,88 - 1
Ona	0,47 - 0,76	0,54 – 0,89	0,57 - 0.93	0,51 - 0,85	0,49 - 0,80	0,53 – 0,88
Ertaina	0,28 - 0,47	0,32 – 0,54	0,34 - 0.57	0,31 - 0,51	0,29 - 0,49	0,31 – 0,53
Eskasa	0,11 - 0,28	0,13 - 0,32	0,14 - 0,34	0,13 - 0,31	0,12 – 0,29	0,13 – 0,31
Txarra	0 - 0,11	0 - 0,13	0 - 0,14	0 - 0,13	0 - 0,12	0 – 0,13

9. taula. EQR (Ecological Quality Ratio) BALIOAK IBMWP indizerako. 817/2015 ED

4.3. EKOIZLE PRIMARIOAK

Ibaiaren egoera trofikoa ekoizle primarioen bidez ezagut daiteke. Hasiera batean Kantauri aldeko ibaiek alga- eta makrofito-dentsitate baxuak dituzte. Hala ere, giza jarduerek mantenugaiak gehitu ditzakete ur-sisteman, eta horrekin ekoizle primarioen hazkundea eragin. Mantenugaien artean fosforoa nabarmentzen da (ortofosfatoak batik bat, landareek zuzenean asimila baititzakete), landaretza urtarraren garapenerako mugatzailea delako eta normalean ekosistema urtarretan presentzia eskasa duelako. Halaber, eguzki-erradiazioaren intentsitatea aipatu behar da, bi arrazoi direla eta: eguzki-erradiazioagatik beragatik (fotosintesian parte hartzen du), eta uraren tenperatura igotzen laguntzen duelako eta horrek erreakzio kimikoak katalizatzen dituelako.

Algen fotosintesiak eta arnasketa-prozesuak egunaren eta gauaren artean aldakuntza bat sortzen dute uretan disolbatua dagoen oxigeno-kontzentrazioari dagokionez. Fotosintesi-prozesuak oxigenoa ematen du, eta arnastean, ostera, kontsumitu egiten da. Bi prozesu horien formulak honako hauek dira:

$$CO_2 + 2H_2O + 114{,}3\ kcal{\cdot}mol^{-1} \rightarrow (CH_2O) + O_2$$

$$(CH_2O) + O_2 \rightarrow CO_2 + H_2O + 114{,}3\ kcal{\cdot}mol^{-1}$$

Baldintza naturaletan, gauaren eta egunaren artean dagoen oxigeno disolbatuaren aldakuntza oso txikia da. Halere, ekoizle primarioen presentzia handia baldin bada, oszilazioak oso handiak izan daitezke. Egunean zehar superasetasun-egoera batera irits daiteke, eta gauean, berriz, anoxia-egoera batera.

Lan honetan, klorofila bentonikoaren eta planktonikoaren kontzentrazioa neurtzen da; horrek, alga-biomasaren adierazlea izateaz gain, algen aktibitate-mailari eta ibaiak duen egoera trofikoari buruzko informazioa ematen du.

Halaber, alga planktonikoen komunitateen osaerak zerikusia du ibaiaren egoerarekin. Hala, ondo kontserbatutako lekuetan, organismo jakin batzuk dira nagusi, eta alde degradatuetan, berriz, alga-komunitatearen osaera aldatzen da eta baldintza berrietara egokitutako organismoak agertzen dira.

4.3.1. KLOROFILAREN ETA ALGEN LAGINAK HARTZEA. ARGITASUNAREN NEURKETA

Klorofila bentonikoaren azterketa 75 laginketa-estazioetan egiten da, eta klorofila planktonikoa, berriz, 20 gunetan neurtzen da. Algen laginak udan hartzen dira, agorraldi handieneko garaian, uztailaren bukaeran edo abuztuaren hasieran ziurrenik, tenperatura, intsolazioa eta algen hazkuntza maximoetan direnean.

Laginketa CEN TC 230 (Guidance for routine sampling of benthic algae in shallow swift running waters) arauaren arabera egiten da :

- UNE-EN ISO 16698:2016: *Uraren kalitatea. Barneko uretan fitoplaktonaren laginketa kuantitatibo eta kualitatiboa egiteko jarraibideak.*

- UNE-EN ISO 15204:2007: *Uraren kalitatea. Fitoplaktonaren mikroskopia bidezko zenbaketa burutzeko gida (Utermöhl teknika).*

- UNE-EN ISO 10260:1992: *Water quality. Measurement of biochemical parameters-Spectrometric determination of the chlorophyll-a concentration. (Uraren kalitatea. Parametro biokimikoen neurketa. A-klorofilaren kontzentrazioaren espektrometria bidezko zehaztapena.)*

Alga bentonikoen lagina hartzeko, 125 cm^2-ko substratu-azalera bat karrakatzen da, 25 cm^2-ko bost azaleratan banatuta. Alga planktonikoen kasuan, 2 litroko lagina hartzen da ur-lasterraren ardatz nagusian, 10 cm-ko sakoneran. Laginak hotzean eta ilunpetan gordetzen dira. Analisia EHUko Kimika Fakultatean egiten da, Donostian.

Halaber, luxometroaren laguntzaz, argitasun-baldintzen neurriak hartzen dira. Estazio bakoitzean, eguzki betean ibilgutik kanpo zenbateko intentsitatea dagoen neurtzen da; gainera,

hainbat neurri hartzen dira ibilgu barneko leku heterogeneoetan. Datu horiekin, argi-xurgatzearen koefizientea kalkulatzen da:

$$Xurgatze\text{-}koefizientea = 1 - I_e/I_i$$

I_e ibilguaren kanpoaldean dagoen argiaren intentsitatea da; I_i, berriz, ibilgu barneko intentsitatea. Koefiziente horrek 0 eta 1 zenbakien arteko balioak hartzen ditu. 0tik hurbil dauden balioek adierazten dute intentsitatea antzekoa dela barruan eta kanpoan; horrek esan nahi du ez dagoela ibaiertzeko landaretzarik edo ez duela itzal askorik ematen. Bestalde, 1etik hurbil dauden balioek adierazten dute itzal ona dagoela, ibaiko landaretzari esker.

5. irudia. Argi-intentsitatea

Bestalde, plankton-komunitateen analisia 10 gunetan egiten da.

ZK.	ESTAZIOA	EST. KOD.	IBAIA	ARROA
1	Endarlatsa	BID00000	Bidasoa	Bidasoa
6	Fanderia	OIA11000	Oiartzun	Oiartzun
13	Ergobia	URU40200	Urumea	Urumea
29	Araxes ib. gora	ORI34700	Oria	Oria
30	Irura	ORI40300	Oria	Oria
48	Leitzaran Andoain	LEI41600	Leitzaran	Oria
56	Azpeitia	URO35000	Urola	Urola
57	Araztegia ib. beh.	URO37500	Urola	Urola
64	Landeta	IED13700	Urola	Urola
75	Mendaro	DEB48100	Deba	Deba

10. taula. Plankton-komunitateen laginak hartzeko estazioak – 2015.urtea

Horretarako, laginketa-gune bakoitzean litro bat ur hartzen da lagin gisa. Lagina ur-lasterraren ardatz nagusian hartzen da, 10 cm-ko sakoneran, beti ur-emaria mantso doan edo are pilatuta dagoen leku batean. Lagina hartu bezain pronto, algak lugol azetikoarekin finkatzen dira.

4.3.2. EKOIZPEN PRIMARIOAREN ANALISIA

A klorofila erauzi eta aztertzeko, Lorenzenek (1967) proposatu eta Varelak (1981) aldatutako metodologia erabiliko da.

Alga planktonikoen kasuan, pigmentuak zelula-paretaren disoluziotik lortzen dira, azetonaren laguntzaz. Prozesu horretarako, lagin-bolumen jakin bat iragazten da (normalean litro bat ur). Ondoren, %90eko aberastasunean dagoen azetonaz klorofila erauzi eta hozkailuan uzten da 24 orduz, ilunpean. Klorofilaren irakurketarako, espektrofotometroa erabiltzen da, 430-665 eta 750 nm-etan. Kontzentrazioa g l^{-1} unitateetan adierazten da.

Emaitzen analisirako ELGAren (1982), Lee-Jones eta Rast-en (1978) eta Canfield-en (1983) ereduak erabiltzen dira. Eredu horien arabera, hauexek dira eutrofiaren sailkapenak (urtegietan):

Sailkapena:	ELGA (1982)	Lee-Jones eta Rast (1978)	Canfield (1983)
Oligotrofia	1.7-4.6	2	<3
Oligomesotrofia		2.1-2.9	
Mesotrofia	4.7-14.2	3-6.9	3-7
Mesoeutrofia		7-9.9	
Eutrofia	>14.2	>10	>7

11. taula. Urtegietako eutrofia-maila ezgutzeko erreferentziako balioak zenbait egileren arabera. Klorofila planktonikoaren kontzentrazioaren datuak µg l^{-1}-ko.

Eredu horiek ur-masa sakon eta egonkorragoetarako diseinatuak daude, non dinamika bertikalak horizontalak baino garrantzi handiagoa duen. Ibaietan kontrako egoera aurkitzen dugu; horregatik, emaitzak kontu handiz interpretatu behar dira.

Alga bentikoen kasuan, ur interstiziala kentzen da, iragazkian lehortuta, eta laginaren pisu hezea eta lehorra kalkulatzen da (labean 105 ºC-tan, lau orduz). Lagin hezetik pisu jakineko alikuota hartzen da, eduki pigmentarioa neurtzeko. Pigmentua erauzteko, %90eko aberastasunean dagoen azetona erabiltzen da, eta klorofila planktonikoaren kasuan azaldu den prozesu bera jarraitzen da, baita uhin-luzera berberak erabili ere. Klorofilaren irakurketarako espektrofotometroa erabiltzen da, eta mg m^{-2} unitateetan adierazten da.

A klorofilaren kontzentrazioa oinarritzat hartuta, ibaiaren egoera trofikoa neurtzen da. Horretarako, Dodds et al. (1998) sailkapena erabiltzen da, Ipar Amerika eta Zeelanda Berriko 200 ibai epelen datuetatik ezarritako sailkapena, alegia.Komunitate zientifikoak egokitzat jotzen du sailkapen hori. Egoera trofikoaren sailkapenerako balio-tarteak hauek dira:

Klorofila bentonikoa (mg m^{-2})	Egoera trofikoa
< 20 mg m^{-2}	Oligotrofia
20 – 70 mg m^{-2}	Mesotrofia
> 70 mg m^{-2}	Eutrofia

12. taula. Ibaien egoera trofikoa klorofila bentonikoaren kontzentrazioaren arabera (mg m^{-2}). (Dodds et al. 1998)

Halaber, D_{430}/D_{665} pigmentuen indizea kalkulatzen da (Margalef, 1954). Horren bidez, zer erlazio dagoen neurtzen da pigmentu guztien (karotenoak, xantofilak eta a, b, c, d klorofilak) kontzentrazioaren eta soilik klorofilen kontzentrazioaren artean. 3tik gorako balioek populazio helduak daudela adierazten dute, eta 2aren inguruko balioek edo baxuagoek hazteko fasean dauden populazio gazteak daudela.

4.3.3. PLANKTON-KOMUNITATEEN EZAUGARRIAK

Fito eta zooplankton aleak identifikatzeko eta zenbatzeko hurrengo prozesuak burutzen dira. Jalkitzea 24 orduz egiten da, ganbera berezietan, Utermöl-en (1931, 1958) ereduaren arabera. Jarraian, mikroskopio alderantzikatu baten laguntzaz, jalkitako lagina ikusten da, eta espezieak ezagutu eta organismoak zenbatzen dira.

Planktonaren osagaiak mikroskopio optiko alderantzikatuan behatuta identifikatzen dira, gako espezializatuak erabiliz.

Organismo adierazleen presentzia erabiltzen da; hain zuzen, organismo horien presentziak esan nahi du uren kalitateak betetzen dituela bizitzeko baldintzak (Streble eta Krauter, 1987). Ahalmen bioadierazle horren arabera, ur-masak lau taldetan sailkatu dira:

- **Polisaprobikoak** edo oxigeno-kontzentrazio baxua onartzen duten organismoak ur hipereutrofikoekin erlaziona daitezke.

- **α-mesosaprobikoak** edo ur araztu samarretan bizi diren organismoak ur eutrofikoekin lotzen dira.

- **β-mesosaprobikoak** materia organiko gutxiago duten eta bakterio-kontzentrazio txikiagoa duten uretan bizi dira, eta ur mesotrofikoekin lotzen dira.

- **Oligosaprobikoak** oxigenoan aberatsak diren uretan edo ur oligotrofikoetan bizi dira.

Eskatutako sailkapen-mailari dagokionez, normalean generoa bereizten da. Ahal den kasuetan, espeziea ere sailkatzen da.

4.4. DIATOMEOEN ANALISIA

2004. urtean hasi zen diatomeoen analisia Uraren Esparru Zuzentarauak ezarritako irizpideen arabera egiten. Zuzentarau horren arabera, adierazle biologikoen artean landaretza urtarraren osaera eta ugaritasuna erabili behar dira. Diatomeo bentonikoak aztertzen dira, kalitatea neurtzeko hainbat indize baitituzte garatuak.

Diatomeak bentikoak analizatzen dira, garatutako kalitatearen indize ugari eskeintzen baitituzte.

Diatomeoak siliziozko kanpo-eskeletoa duten organismo zelulabakarrak dira. Dituzten egiturei esker, zehaztasun handiz bereiz daitezke espezieak. Organismo horiek oso sentikorrak dira uraren eutrofizazioak, kutsadurak, gazitasunak eta azidifikazioak eragindako aldaketa fisiko-kimikoekiko eta uraren kalitatean aldaketak eragiten dituzte epe ertainean (2 hilabete gutxigorabehera). Aldiz, sentsibilitate baxua erakusten dute orokorrean presio hidromorfologikoei, besteak beste erregimen hidrologikoak, ibilguaren jarraitasunak eta hondoko baldintza hidromorfologikoek eragindakoak. Askotan, ibai-sisteman dauden alga guztien artean talde ugariena osatzen dute, eta horrek izugarrizko adierazgarritasuna ematen die uraren kalitatearen adierazle gisa. Espezie bakoitza baldintza fisiko-kimiko jakin batzuetan agertzen denez, ingurumen-baldintza nagusiak zein diren asma liteke diatomeoen komunitatea aztertuta.

Laginketa- eta analisi-prozesu osoan zehar CEN arauak jarraituko dira, zehazki hurrengoak :

- UNE-EN ISO 15708:2010: *Uraren kalitatea. Sakontasun gutxiko ur korronteetan fitobentosaren ikerketa, laginketa eta laborategiko analisia burutzeko argibideak.*

- UNE-EN ISO 13946:2014: *Uraren kalitatea. Ibai eta lakuetan diatomea bentonikoen laginketa errutina eta aurretratamentua egiteko gida.*

- UNE-EN ISO 14407:2015 *Uraren kalitatea. Ibai eta lakuetan diatomea bentonikoen identifikazioa eta laginen zenbaketa egiteko gida.*

4.4.1. LAGINKETA

Diatomeoen laginketak Urola ibaiaren arroko hiru puntutan egin dira; bi ardartz nagusian eta hirugarrena Ibaiederren:

ZK.	ESTAZIOA	EST. KOD.	IBAIA	ARROA
56	Azpeitia	URO35000	Urola	Urola
57	Araztegia ib. beh.	URO37500	Urola	Urola
64	Landeta	IED13700	Ibaieder	Urola

13. taula. Diatomeo bentonikoen laginketa-guneak – 2015.urtea

Diatomeoak analizatzeko laginak substratuaren gainaldeko algak bilduz hartzen dira. Horretarako, ahal izanez gero, ur-lasterretan dauden harrien azalera karrakatzen da. 5 harri aukeratu eta kuter bat erabiliz definitutako area bateko algak biltzen dira. Algen lagina ontzi batean jasotzen da eta % 4 formol duen disoluzio batean finkatzen da. Ondoren, laborategira eramaten dira, prozesatu eta aztertzeko.

4.4.2. LAGINEN PROZESATUA

Lagin horiei tratamendu kimiko bat egiten zaie, gai organikoak ezabatzeko eta diatomeoen frustulu garbiak lortzeko. Tratatutako laginak Napharxen (1,74 errefrakzio-indizea duen erretxina sintetikoa) muntatzen dira prestakin iraunkorra lortzeko, eta mikroskopio optikoan (Olympus BHT) behatzen dira, horiek aztertu eta kontatzeko. Lagin bakoitzeko, gutxienez 300 frustulu-ale eta gehienez 400 zenbatzen dira.

4.4.3. EMAITZEN INTERPRETAZIOA

IPS indizea, (Poluosentsibilitate Espezifikoaren Indizea) emaitzen interpretaziorako erabiltzen da; GIG-Zentral Baltikoko non Mediterraneoko indize interkalibratu batetan datza. Indize hau kutsadurarekiko sentsibilitatea, kutsaduraren balio indikatzailea eta espeziearen ugaritasun erlatiboaren batazbeste ponderatuaren balioetan oinarrituta kalkulatzen da. Kalkulua, Omnidia programaren oinarrietan egiten da.

Makroornogabe bentonikoen kasuan bezala, EAEko tipologien interkalibrazioaren gauzatzean, ondorioztatu da ezberdintasun esanguratsuak daudela tipologia ezberdinen erreferentzia baldintzetan.

Makroornogabeen kasuan bezala, *817/2015 Errege Dekretua*n, *irailaren 11koa, zeinetan azaleko uren egoeraren jarraipena eta eboluzioaren eta ingurumen kalitatearen arauen*

irizpideak ezartzen diren, definituak datozte IPS indizearen erreferentzia balioak, baita EQR (Ecological Quality Ratio) atalase-balioak ere.

TIPOLOGIA					
23	**29**	**32**	**22**	**30**	**26**
17,6	16,0	18,0	16,6	17,3	18,6

14. taula. Erreferentziako balioa IPS-rako. 817/2015 ED.

IPS	**TIPOLOGÍA**					
Estado	**23**	**29**	**32**	**22**	**30**	**26**
Oso Ona	0,95 – 1	0,92 - 1	0,96 - 1	0,95 – 1	0,94 – 1	0,93 – 1
Ona	0,71 – 0,95	0,69 – 0,92	0,72 – 0,96	0,71 – 0,95	0,71 – 0,94	0,70 – 0,93
Ertaina	0,48 – 0,71	0,46 – 0,69	0,48 – 0,72	0,48 – 0,71	0,47 – 0,71	0,47 – 0,70
Eskasa	0,24 – 0,48	0,23 – 0,46	0,24 – 0,48	0,23 – 0,48	0,24 – 0,47	0,23 – 0,47
Txarra	0 – 0,24	0 – 0,23	0 – 0,24	0 – 0,23	0 – 0,24	0 – 0,23

15. taula. EQR (Ecological Quality Ratio) BALIOAK IPS-rako. 817/2015 ED.

4.5. ARRAIN-FAUNA

Arrain-fauna leheneratzea da ur zikinak garbitzeko eta arazteko planek duten helburu nagusietariko bat. Hortik dator arrain-komunitateen egoera ezagutzeko premia.

Halaber, Uraren Esparru Zuzentarauak agerian jartzen du adierazle biologikoak gailentzen zaizkiela adierazle fisiko-kimikoei eta morfologikoei. Adierazle biologiko horien artean arrain-fauna dago, eta arrain-populazioen osaera, ugaritasuna eta egitura aztertzera behartzen du. Hau da, arrainak ibai-ekosistemaren kalitatearen adierazle oso garrantzitsuak dira.

Komunitatearen osaerak eta egiturak maila trofikoaren informazioa ematen dute (bereziki algen eta makroornogabeen informazioa), eta ibai-ekosistemaren kalitatearen egoera erakusten dute. Espezie batzuk luzaro bizi dira (20 urte edo gehiago), eta, hori dela eta, ur-masek jasan dituzten afekzio eta eragin historikoen lekuko izan litezke, nahiz eta eraginen jatorria jadanik desagerturik egon. Gainera, tamaina eta mugikortasun handiagoa dutenez, garrantzi handia dute ekosistemetan; izan ere, eragina dute energia-fluxuan zein substantzien eta elementuen garraioan.

4.5.1. ARRAIN-FAUNAREN LAGINKETAK

Arrain-fauna aztertzeko laginak arrantza elektrikoaren bidez hartzen dira. Laginketa-metodologia eta datu-bilketa CEN arauak kontuan hartuz burutu dira, zehazki :

- UNE-EN ISO 14962:2007: *Uraren kalitatea. Arrainen laginketarako aplikazio eremua eta metodoen aukeraketa burutzeko jarraibideak*
- UNE-EN ISO 14011:2003: *Uraren kalitatea. Arrainen laginketa elektrizitatea erabilita.*

6. irudia. Arrain-faunaren laginketak

1.000 m^2-ko azalera edo 110 metroko luzera duen ibai-zati bat aukeratzen da estazio bakoitzean. Estazioak ibai-zatiaren baldintza hidrodinamikoak izan behar ditu, bertan bizi diren arrain-espezieak aurkitu ahal izateko.

Arrantza ur-lasterraren kontra egiten da, eta, salabardoen laguntzaz, korronte elektrikoak erasandako arrain ahalik eta gehienak harrapatzen dira. Harrapatutako arrainak sarez egindako *bibarioetan* sartzen dira laginketa bukatu arte. Ondoren, arrain guztiak identifikatu eta horien datu biometrikoak hartzen dira. Ale bakoitzetik datu hauek jasotzen dira:

- Espeziearen identifikazioa
- Luzera furkala edo luzera guztira (mm)
- Pisua, gramoak zehaztuta
- Oharrak (sexua, markak, izan ditzakeen patologiak, etab.)

Lana errazteko eta animalien estresa gutxitzeko, arrainak anestesiatu egiten dira iltze-olioa erabilita. Arrainak identifikatu eta biometriak egin eta gero, suspertu eta ibaira itzultzen dira, ahalik eta nahasmendurik txikiena eraginez.

Arrain-faunaren laginketa 25 estaziotan egiten da. Horietatik bost estaziotan, laginketa erdikuantitatiboa egiten da (ondoz ondoko bi arrantza-saio). Gainontzeko 20 estazioetan laginketa kualitatiboa da (arrantza-saio bakarra). Ondorengo taulan, laginketa-estazioen zerrenda azaltzen da:

ZK.	ESTAZIOA	EST. KOD.	IBAIA	ARROA	LAGINKETA-MOTA
5	Ugaldetxo	OIA09500	Oiartzun	Oiartzun	Erdikualitatiboa
7	Arditurri	ARD02400	Arditurri	Oiartzun	Kualitatiboa
8	Lintzirin Desemb.	GAI02200	Lintzirin	Oiartzun	Kualitatiboa
10	Fagollaga	URU33800	Urumea	Urumea	Erdikualitatiboa
13	Ergobia	URU40200	Urumea	Urumea	Kualitatiboa
23	A.Arr. Beasain	ORI14000	Oria	Oria	Kualitatiboa
28	Ikaztegieta	ORI25000	Oria	Oria	Kualitatiboa
32	Andoain	ORI49000	Oria	Oria	Kualitatiboa
37	Ormaiztegi	EST10000	Estanda	Oria	Kualitatiboa
39	A.Ab. Arriaran	ARR03700	Arriaran	Oria	Kualitatiboa
41	Alegi	AME13200	Amezketa	Oria	Kualitatiboa
42	Arriba Bedaio	AME08200	Amezketa	Oria	Kualitatiboa
44	Araxes	ARA23700	Araxes	Oria	Kualitatiboa
46	Villabona	AST07900	Asteasu	Oria	Kualitatiboa
53	Urretxu	URO15700	Urola	Urola	Kualitatiboa
54	Aizpurutxo	URO21100	Urola	Urola	Erdikualitatiboa
56	Azpeitia	URO35000	Urola	Urola	Kualitatiboa
59	A.Ab. Zestoa	URO43800	Urola	Urola	Kualitatiboa
61	Oikina	URO51800	Urola	Urola	Kualitatiboa
63	A.Ab. Presa Ibai-Eder	IED07400	Ibai-Eder	Urola	Erdikualitatiboa
72	Soraluze	DEB34800	Deba	Deba	Kualitatiboa
75	Mendaro	DEB48100	Deba	Deba	Kualitatiboa
78	Zubillaga	OIN09500	Oñati	Deba	Kualitatiboa
81	Antzuola	ANL05500	Antzuola	Deba	Kualitatiboa
83	A.Ab. Aixola	AIX01100	Aixola	Deba	Erdikualitatiboa

16. taula. Arrain-faunaren laginak hartzeko estazioak – 2015.urtea

4.5.2. INFORMAZIOAREN TRATAMENDUA

Laginketa-gune bakoitzean arrain-komunitatearen eta populazioen parametro jakin batzuk kalkulatzen dira:

- **Arrain-komunitatearen osaera:** ageri diren espezieen zerrenda.
- **Arrain-espezie bakoitzaren maiztasun erlatiboa:** zenbakizko portzentajea.
- **Espezie bakoitzaren biomasa:** zenbakizko portzentajea.
- **Shannon – Weaver Dibertsitate Indizea:** formula honekin kalkulatzen da:
  - $H' = -\Sigma(p_i \log_2 p_i)$
  - Non p_i espezie bakoitzaren maiztasuna den.
- **Espezie bakoitzeko populazioaren egitura:** neurrien egitura 1 cm-ko klase bakoitzeko, neurri klase bakoitzeko ale-kopuruaren portzentajearen arabera adierazita.
- **Espeziearen datu biometrikoak:** batez besteko luzera (mm) eta pisua (g), baita luzeraren eta pisuaren aldakuntza-tarteak ere.

Inbentarioa egin den guneetan, ondoko hau ere kalkulatzen da espezie bakoitzeko:

- **Dentsitate probableena eta konfiantza-mugak** (α = 0,05)
- **Biomasa probableena eta konfiantza-mugak** (α = 0,05)

Parametroak kalkulatu ondoren, estazio bakoitzeko analisi xehatu bat egingo da, arrain-komunitatearen egoera ezagutzeko helburuarekin.

4.6. DATU-BASEA EGUNERATZEA

Lan honetan lortutako emaitza guztiak OBRA HIDRAULIKOETAKO ZUZENDARITZAK duen datu-basean jasoko dira.

5. EMAITZAK ETA EZTABAIDA

Kapitulu honek bi atal ditu:

- 2015ko kanpainako ibaien egoera
- Urtez urteko bilakaera

Eranskinetan xehekiago kontsulta daitezke laginketa-gune bakoitzaren datuak, atalburu bakoitzeko taulak eta grafikoak (kalitate fisiko-kimikoa eta biologikoa, ekoizpen primarioa eta arrain-fauna); baita kalitate fisiko-kimikoaren eta biologikoaren urtez urteko bilakaera ere.

Zebra muskuiluaren eta sedimentuen analisiaren txostenak eranskinetan jaso dira.

5.1. IBAIEN EGOERA 2015. URTEAN

Atal honetan, Gipuzkoako Lurralde Historikoko ibaiek 2015. urtean zuten egoera aztertzen da. Arro bakoitzeko analisia egiten da, ordena honetan:

- Bidasoa
- Oiartzun
- Urumea
- Oria
- Urola
- Deba

Arro bakoitzean atalburu hauek azaltzen dira:

- Deskribapen geografikoa
- Ur-emaria
- Uraren kalitate fisiko-kimikoa
- Uraren kalitate biologikoa
- Ekoizpen primarioa eta plankton-komunitateak
- Arrain-fauna
- Sintesia

5.1.1. BIDASOA IBAIAREN ARROA

5.1.1.1. DESKRIBAPEN GEOGRAFIKOA (BIDASOA)

Bidasoa ibaiaren arroa Gipuzkoako Lurralde Historikoko ekialde-ekialdean dago, eta 700-km² ditu. Azalera horren % 10a baizik ez da Gipuzkoa, ibaiaren ezkerraldea hain zuzen, Endarlatsatik hasi eta bokaleraino doana. Nazioarteko urak direnez, batzorde franko-espainiar batek kudeatzen du sektore hori,. Gainontzeko partea Nafarroako Foru Komunitateari dagokio. Geologiaren aldetik, Bortzirietako material paleozoikoak nagusitzen dira. Azken zatiak izaera granitikoa dauka, eta Aiako Harria nabarmentzen da. Bidasoako estuarioan, Irungo eta Hondarribiko herriak daude, eta biztanleak 70.000 inguru dira guztira. Nafarroako partean ez dago herri handirik Bidasoa ibaitik gertu. Bidasoa ibaiak ibaiadar-sare handi bat du, eta horien artean, beheko aldean, Endara eta Jaizubia errekak daude.

Endara errekaren azpiarroak 3,77 km_2-ko azalera dauka. Goiko aldean, San Antongo urtegia dago. Urtegiak 5,09 Hm_2-ko edukiera du, eta Irungo eta Hondarribiko herriak hornitzen ditu.

Bidasoa ibaiaren arroan, basogintza eta nekazaritza-abeltzaintza dira erabilera nagusiak. Horrez gain, bada industria-jarduera garrantzitsu bat ere Legasa, Lesaka eta Bera aldean, Nafarroako partean, bai eta Irunen eta Hondarribian ere, Gipuzkoako partean. Bidasoa ibaiak jauzi hidroelektriko ugari ditu. Presa gehienak arrain-eskaileraz hornituak daude. Ibaiko habitata, bai ardatzetakoa eta bai adarretakoa, kontserbazio-egoera onean dago. Gainera, esan behar da kudeaketa- eta saneamendu-planak ia amaiturik daudela. Egoera horri esker, Kantauriko migratzaile handi diren bost arrain-espezie kontserbatu ahal izan dira: kolaka, izokina, itsas amuarraina, aingira eta lanproia.

5.1.1.2. EMARIAK (BIDASOA)

Jarraian, laburki azaltzen dira Bidasoan Endarlatsako neurketa-estazioan lortutako emarien datuak:

Urria	6,749
Azaroa	14,147
Abendua	55,801
Urtarrila	48,350
Otsaila	110,271
Martxoa	66,114
Apirila	27,078
Maiatza	18,359
Ekaina	18,964
Uztaila	9,557
Abuztua	7,991
Iraila	9,243

17. taula. Bidasoa ibaiaren emariaren datuak (m^3/s) – 2014/15.urte hidrologikoa (Hileko batez bestekoak).

	Emaria (m3/s)	**Emari espezifikoa ($l/s/km^2$)**
Urteko batez b. emaria	32,719	47,028
Hileko maximoa	110,271	161,925
Hileko minimoa	6,749	9,910

18. taula. Bidasoa ibaiaren emariaren datuak. 2014/15 urte hidrologikoa.



7. irudia. Eguneko batez besteko ur-emaria. Endarlatsa. 2014/15 urte hidrologikoa.

2014-2015 urte hidrologikoak batazbesteko arrunta aurkezten du (32,719 m^3/s). Nabarmenki, otsaila izan da hilabeterik emaritsuena, ohikoak baino emari altuagoak lortuz. Era berean, abendua, urtarrila eta martxoa bereziki emaritsuak izan dira. Aldiz, urria izan da hilabeterik lehorrena, ohikoa baino emari baxuagoarekin. Gainontzekoan, uztaila, abuztua eta irailan emari baxuak erregistratu dira, agorraldian ohikoa den moduan.

5.1.1.3. URAREN KALITATE FISIKO-KIMIKOA (BIDASOA)

Ondoren, 2014-2015. urte hidrologikoan lortutako emaitza fisiko-kimiko nagusiak azaltzen dira:

ESTAZIOA	IBAIA	Lagin. Kop.	Tª (ºC)	pH	Ox. Dis (mg/l)	Eroan. (µS/cm)	NH_4 (mg/l)	PO_4 (mg/l)	NO_3 (mg/l)	Arrain Gait.
Endarlaza	Bidasoa	8	7,8 – 20,6	7,8 – 8,3	8,78– 12,30	75 – 234	<D.M	<D.M – 0,10	1,75– 5,73	Izokin.
Endara	Endara	8	8,6 – 18,5	7,3 – 7,7	8,99 – 11,79	38 – 167	<D.M	<D.M – 0,16	2,16 – 6,28	Izokin.

D.M.: Detekzio-muga.

19. taula. Bidasoa ibaiaren arroko datu fisiko-kimikoak-2014/15 urte hidrologikoa (balio minimo eta maximoak)

Bi estazioetan, emaitzek adierazten dute urak egokiak direla izokinkideentzat. Uraren tenperaturari dagokionez, behin ere ez da gainditu 21,5 ºC-ko muga. Bestalde, oxigenazio-baldintzak onak dira, 9 mg/l-tik gorako kontzentrazioak izan baitira, kasu guztietan. Ez da kutsadura organikorik atzeman; amonioa kuantifikazio-mugaren azpitik dago ia kasu guztietan. Era berean, nitratoak eta fosfatoak kontzentrazio baxuetan azaltzen dira. Metalek eragindako toxikotasunik ez da atzeman.

5.1.1.4. URAREN KALITATE BIOLOGIKOA (BIDASOA)

Ondorengo taulan, Bidasoa ibaian eta Endara errekan dauden laginketa-estazioetan IBMWP indize biotikoaren zer balio atzeman diren azaltzen da:

				UDABERRIA			AGORRALDIA		
Estazioa	**Kodea**	**Ibaia**	**Mota**	**IBMWP**	**EQR IBMWP**	**Egoera**	**IBMWP**	**EQR IBMWP**	**Egoera**
Endarlaza	BID00000	Bidasoa	29	170	0,94	Oso ona	164	0,91	Oso ona
Endara	END10200	Endara	23	184	0,94	Oso ona	182	0,93	Oso ona

20. taula. Bidasoa ibaiaren arroko uraren kalitate biologikoa. 2015.urtea.

Bai Bidasoa ibaiak, Endarlatsan, bai Endara errekak egoera biologiko oso ona dute udaberrian eta agorraldian, makroornogabeentzako indize biotikoen emaitzen arabera.

5.1.1.5. EKOIZPEN PRIMARIOA (BIDASOA)

Bidasoa ibaiak, Endarlatsa aldean, eta Endara errekak egoera trofiko hau dute:

		BENTOSA			PLANKTONA		
ESTAZIOAK	**IBAIA**	**Klorofila (mg/m^2)**	**Margalef indizea**	**Egoera trofikoa**	**Klorofila (µg/l)**	**Margalef indizea**	**Egoera trofikoa**
Endarlaza	Bidasoa	0,56	3,00	Oligotrofia	2,07	2,50	Oligotrofia
Endara	Endara	7,07	1,50	Oligotrofia			

21. taula. Bidasoa ibaiaren arroko ekoizpen primarioa – 2015.urtea.

Alga bentonikoei dagokienez, ez dira Endarlatsako estazioan atzeman. Bestalde, Endaran, oligotrofia dagoela ikusi da; eta populazio gazteak daude, hazkuntza fasean.

Bestalde, Endarlatsako estazioan egindako plankton-analisiaren emaitzek adierazten dute oligotrofia-egoera dagoela, eta alga-populazioa dagoela, heltze-fasean.

Plankton-osaeraren aldetik, Endarlatsako estazioan honako talde fitoplanktoniko hauek identifikatu dira: Diatomeoak, Klorofizeoak, Kryptofizeoak eta Konjugatuak. Alga-maiztasunak txiki samarrak izan dira; eta Diatomeoak, talderik ugariena. Diatomeoen barruan zortzi genero identifikatu dira, Navicula sp. izanik ugariena. Era berean, kalitate ekologikoaren zenbait indikatzaile identifikatu dira, besteak beste Melosira varians, espezie eutrofiloa eta α-mesosaprobikoa, hau da, materia organiko ugari duten eremu kutsatuetan bizi dena. *Gyrosigma sp.* eta *Rhoicosphenia curvata* behatu dira, biak eutrofilo eta β-mesosaprobikoak; eta *Tabellaria floculosa*, mesotrofiloa eta baita β-mesosaprobikoa ere (materia organiko maila moderatuko habitatak) (MAGRAMA, ID-TAX). Klorofizeoen artean, *Pediastrum boryanum* eta *Scenedesmus obliquus* identifikatu dira, biak β-mesosaprobikoak. Zianobakterioen maiztasuna oso baxua da, Merismopedia eta Oscillatoria generoak identifikatu direlarik. Era beran, alga konjugatuak behatu dira, kontzentrazio baxuetan, Cosmarium generoa nagusituz. Atzemandako zooplanktona oso urria izan da, hala nola Errotiferoak, Protozooak eta Nematodoak.

Intsolazioa handia da Bidasoa ibaiaren azken zatian (Endarlatsa), ibaiertzeko landaretza urria delako eta ibaia zabala delako. Kasu horretan, gainera, gertatzen da laginketa-tokian bertan harkaitz-azaleratzeak direla nagusi eskuinaldean, eta N-121 errepideko horma ezkerraldean. Aldiz, Endara errekaren azken tartean ibaiertzeko landaretzak itzal handia ematen du.

ESTAZIOA	ARGI-XURGATZEAREN KOEFIZIENTEA. BIDASOA IBAIAREN ARROA
Endarlaza	0,24
Endara	0,74

22. taula. Argi-xurgatzearen koefizientea. Bidasoa ibaiaren arroa.

5.1.1.6. SINTESIA (BIDASOA)

Bai Bidasoa ibaian, Endarlatsa parean, eta bai Endara errekan, emaitza fisiko-kimiko onak lortu dira, eta, beraz, ur horiek egokiak dira izokinkideentzat.

Bestalde, indize biotikoen emaitzak onak izan dira makroornogabeetan, eta horrek adierazten du nola Endarlatsan hala Endaran egoera biologikoa ona edo oso ona dela. Egoera trofikoari dagokionez, oligotrofia-egoera atzeman da bai bentosean bai planktonean.

Azken finean, lortutako emaitzek Bidasoa ibaia eta Endara erreka egoera onena daudela azaldu dute.

5.1.2. OIARTZUN IBAIAREN ARROA

5.1.2.1. DESKRIBAPEN GEOGRAFIKOA (OIARTZUN)

Oiartzun ibaiaren arroak du eremurik txikiena Gipuzkoan dauden sei arro handienen artetik: 86 km^2. Ekialdean kokaturik dago, eta Gipuzkoako Lurralde Historikoaren barruan sartuta dago oso-osorik. Normalean, prezipitazioak oso ugariak dira arro honetan. Oso erliebe malkartsua du, malda handikoa. Kontuan izan behar da 12 km baino gutxiagoan igarotzen dela 800-900 metroetatik itsasoaren mailara. Aiako Harriko material granitiko geologikoek eta horien aureola metamorfikoak material azidoak sortzen dituzte arroaren zati handi batean. Beheko aldean, hiri- eta industria-garapen handi bat dago. Pasaiako badiak herri hauek hartzen ditu: Donostia, Errenteria, Pasaia eta Lezo, eta guztira 120.000 biztanle inguru dituzte. Ibaiadar nagusiak Arditurri, Karrika, Sarobe eta Lintzirin edo Gaintxurizketa dira.

Añarbeko urtegiak hornitzen ditu arro honetan kokatuta dauden herriak, urtegia Oiartzun ibaiaren arrotik kanpo badago ere. Ibai-buruan, ur-hargune garrantzitsu bat kokatzen da, Oiartzun herria hornitzeko erabiltzen dena. Saneamendua ere ia amaitua dago. Isurketak kolektoreetan bilduta daude eta Loiolako hondakin-uren araztegian tratatzen dira.

Oro har, arroaren goiko aldea egoera onean dago.Inguru hauetan baso-erabilera da nagusi; izan ere, baso autoktonoen eremu handiak daude. Beheragoko guneetan, baso-landaketak, laborantzako eta belarra ebakitzeko zelaiak daude. Kasu honetan, ibaiko habitata zertxobait erasanda dago; halere, kontserbazio-maila ertaina du. Haranaren barrenean, elkarrekin nahasturik ageri dira laborantza-guneak, zelaiak, herriguneak, industrialdeak eta azpiegitura handiak. Gune honetan, habitataren kontserbazioa irregularra da. Bokalean presio antropiko handia dago, eta horrek izugarri narriatzen du ibaiko habitata. Gaur egun, goiko aldean, zentral hidroelektriko bat dago martxan; gainera, herrien eta industrien hornikuntzarako hainbat ur-hargune daude. Arditurriko garai bateko meategietatik datozen metalek kutsatu egiten dute erreka, zakartegietako lixibiatuen eta meatze-sarbideetako azaleratzeen ondorioz. Dena dela, azken urteetan, hainbat jarduketa egin dira meategi zaharretatik eratorritako metal-ekarpenak gutxitu nahian.

5.1.2.2. EMARIA (OIARTZUN)

Jarraian, laburki azaltzen dira Oiartzungo neurketa-estazioan lortutako emarien datuak:

Urria	0,430
Azaroa	1,327
Abendua	5,396
Urtarrila	3,798
Otsaila	8,959
Martxoa	5,828
Apirila	2,886
Maiatza	1,701
Ekaina	1,594
Uztaila	0,649
Abuztua	0,683
Iraila	0,831

23. taula. Oiartzun ibaiaren emariaren datuak – 2014/15. urte hidrologikoa. Hileko batez bestekoak (m3/s)

	Emaria (m3/s)	Emari espezifikoa (l/s/km^2)
Urteko batez b. emaria	2,840	49,749
Hileko maximoa	8,959	158,284
Hileko minimoa	0,430	7,604

24. taula. Oiartzun ibaiaren emariaren datuak – 2014/15.urte hidrologikoa.



8. irudia. Eguneko batezbesteko ur-emaria. Oiartzun. 2014-2015. urtea.

2014-2015 urte hidrologikoak batazbesteko arrunta aurkezten du (2,840 m3/s). Nabarmenki, otsaila izan da hilabeterik emaritsuena, ohikoak baino emari altuagoak lortuz. Era berean, abendua, urtarrila eta martxoa bereziki emaritsuak izan dira. Aldiz, urria izan da hilabeterik lehorrena, ohikoa baino emari baxuagoarekin, baita serie historikoaren batazbestekoarekin alderatuta ere. Gainontzekoan, uztaila, abuztua eta irailan emari baxuak erregistratu dira, agorraldian ohikoa den moduan.

5.1.2.3. URAREN KALITATE FISIKO-KIMIKOA (OIARTZUN)

Ondoren, Oiartzun ibaiaren arroko erreketan lortutako datu fisiko-kimiko nagusiak laburbiltzen dira:

ESTAZIOA	IBAIA	ZK.	Tª (ºC)	Ox.Dis. (mg/l)	pHa	NH_4 (mg/l)	Eroan. (µS/cm)	PO_4 (mg/l)	DQO (mg/l)	Zn (mg/l)	**Arrain Gait.**
Aritxulegi	Oiartzun	14	6,6 – 20,5	9,26 – 12,91	7,3 – 7,8	<D.M	71 – 91	<D.M – 0,05	<D.M - 16	<D.M	Izokin
Ergoien	Oiartzun	7	8,9 – 18,6	9,57 – 12,38	7,2 - 7,7	<D.M	82 - 118	<D.M	<D.M	0,21 - 0,50	Zipri
Ugaldetxo	Oiartzun	14	7,8 – 19,5	8,61 – 12,35	7,7 - 8,6	<D.M– 0,27	137 - 236	<D.M - 0,19	<D.M	0,07 - 0,21	Izokin
Fanderia	Oiartzun	14	8,3 – 19,5	8,71 – 12,36	8,0 – 8,3	<D.M – 0,39	211– 318	<D.M. - 0,21	<D.M	0,05 – 0,12	Izokin

D.M.: Detekzio-muga.

25. taula. Oiartzun arroko datu fisiko-kimikoak- 2014/15.urte hidrologikoa. (Balio máximo eta minimoak)

Kontuan hartu behar da estazio guztietan ez dela lagin-kopuru berbera egin, eta horrek eragina izan duela azken emaitzetan.

Oiartzun ibaiak, oro har, baldintza onak ditu tenperatura eta oxigeno aldetik. Inoiz ez da gainditzen 21,5 ºC-ko muga; tenperatura maximoa Aritxulegin erregistratu da, non 20,5 ºC lortu diren. Gainontzeko laginetan, tenperatura máximoak 19 ºC ingurukoak dira. Era berean, oxigenazioa egokia da, ia lagin guztietan 9 mg/l-tik gorako datuak lortu baitira. Bestetik, pHak lortu dituen balioak ur naturalei dagozkienak izan dira.

Kutsadura organikoari dagokionez, goi-ibarrean (Aritxulegi eta Ergoien) ez da amonioaren presentziarik detektatu. Erdi- eta behe-ibarretan, aldiz, bai detektatu dela nolabaiteko presentzia, baina balore oso baxuetan betiere; honela, Ugaldetxon 0,27-ko balio maximoa erregistratu da, eta 0,39-koa Fanderian. Bestalde, Fanderian lortutako DBO_5-aren emaitzek adierazten dute oro har egoera ona dela; erregistratu den balio maximoa 5mg/l-koa da. DQOaren emaitzek ez dute arazorik adierazten, detekzio-mailaren azpitik baitago kasu guztietan.

Mantenugaien presentziari dagokionez, ez da fosfatorik detektatu edo, gehienetan, kontzentrazio baxuetan daude; halere, Ugaldetxon eta Fanderian maila esanguratsuak lortu dira noizbait. Datu maximoa 0,19 mg/l-koa izan da Ugaldetxon, eta 0,21 mg/l-koa Fanderian. Bestalde, nitratoen presentzia urri samarra da, 4,53 mg/l eta 6,69 mg/l-ko maximoekin Aritxulegi eta Fanderian, hurrenez hurren.

Emaitza horiek guztiek adierazten dute egoera bateragarria dela izokinkide espezieen bizitzarekin. Alabaina, Ergoienen zink-kontzentrazio handiak detektatu dira Ergoienen, 0,32 mg/l-ko urteko batazbestekoekin, Arditurriko meategi zaharretatik etorriak, eta hori, arrainen babeserako 2006/44/EE Zuzentarauaren arabera, bateraezina da izokinkide espezieentzat, baina ez ziprinidoentzat. Ugaldetxon eta Fanderian ere zinka topatu da, baina kontzentrazio txikiagoetan (0,14 mg/l eta 0,08 mg/l-ko batazbestekoak, hurrenez hurren), eta ez da eragozpena izokinkideentzat.

Bestalde, arroaren izaera geologikoaren ondorioz, urak mineralizazio baxukoak dira. Hala, Aritxulegin (goi-ibarra) eroankortasunaren urteko batez bestekoa 79 μS/cm izan da, hots, mineralizazio-maila ahula; Fanderian (behe-ibarra), aldiz, batez besteko eroankortasun-maila 258 μS/cm da, hau da, maila ertain-ahula.



9. irudia. Oiartzun ibaiaren kalitate fisiko-kimikoak – 2014/15.urte hidrologikoa.

Ibaiadarrei dagikienez, lortutako emaitzak ondorengoak dira:

ESTAZIOA	IBAIA	ZK.	Tª (ºC)	Ox.Dis. (mg/l)	pHa	NH_4 (mg/l)	Eroan. (µS/cm)	PO_4 (mg/l)	DQO (mg/l)	Zn (mg/l)	**Arrain Gait.**
Arditurri	Arditurri	7	9,2 – 19,8	9,45 – 12,24	7,4 – 7,7	<D.M.	96 – 182	<D.M	<D.M	0,78 – 1,86	Ez gai
Lintzirin	Lintzirin	9	10,0 – 19,3	8,10 – 12,92	8,1 - 8,5	<D.M – 0,15	405– 551	0,07 - 0,24	<D.M- 21	<D.M – 0,02	Izokin

26. taula. Oiartzun ibairen ibaiadarren datu fisiko-kimikoak – 2014/15.urte hidrologikoa (balio máximo eta minimoak)

Arditurri errekan, zinkaren presentzia (Arditurriko meatzetatik dator) oso handia da, eta hori bateraezina da arrainen bizitzarekin. Gainera, kadmioaren eta berunaren presentzia eskasa da, eta hori ere lotuta dago bertan meategiak egotearekin. Gainontzeko parametroei dagokienez, uraren tenperatura eta oxigenazioa egokiak dira. Ez da jatorri organikoko kutsadurarik atzematen.

Lintzirin errekan oro har baldintza onak ikusi dira tenperatura eta oxigeno aldetik. Amonioaren presentzia eskasa da, 0,15 mg/l-ko balio maximoarekin. Era berean, DQOa detekzio-mailaren azpitik dago ia kasu guztietan. Mantenugaiei dagokienez, fosfato-kontzentrazio nabarmenak atzematen dira, 0,24 mg/l-ko datu maximoarekin. Nitratoen maila, ostera, eskasa da oro har. Metalek eragindako toxikotasunik ez da atzeman.

5.1.2.4. KALITATE FISIKO-KIMIKOAREN JARRAIKO AZTERKETA (OIARTZUN)

OIARTZUN ibaian kokatuta dagoen neurketa jarraituko estazioak datu hauek ematen ditu: pHa, uraren tenperatura, eroankortasuna, oxigeno disolbatua eta uhertasuna. Urteko egunen % 92etako datuak daude, parametro guztietakoak.

	pHa	**Uraren Tª (º C)**	**Eroan. (µS/cm)**	**Ox. Dis. (mg/l)**	**Uher. (UNF)**
BATEZ BEST.	7,5	13,9	237	10,12	8,8
DESB.TIP.	0,2	3,4	34	1,11	20,7
MAX.	8,1	21,3	328	12,36	183,3
MIN.	6,4	6,9	157	5,58	0,7
N	337	337	335	337	337
URRI. BAT. B	7,7	16,1	306	8,86	2,7
AZA. BAT. B.	7,6	13,3	285	10,06	8,7
AB. BAT. B.	7,4	11,0	209	10,92	11,3
URT. BAT. B.	7,4	9,5	225	11,55	11,6
OTSA. BAT. B.	7,2	9,3	195	11,83	25,7
MAR. BAT. B.	7,3	11,0	220	11,12	9,3
APIR. BAT. B.	7,5	13,4	234	10,35	11,1
MAI. BAT. B.	7,4	14,6	227	9,68	3,5
EKA. BAT. B.	7,3	16,5	233	8,94	6,4
UZT. BAT. B.	7,6	19,1	262	9,02	1,4
ABU. BAT. B.	7,6	18,5	257	9,07	5,2
IRA. BAT. B.	7,9	16,5	223	9,40	5,9

27. taula. Oiartzun ibaian kokatuta dagoen neurketa jarraituko estazioaren estatistika – 2014/15.urte hidrologikoa (eguneroko batezbestekoetan oinarritua)

pHak ur naturalei dagozkien balioak lortu ditu, eta urteko batez bestekoa 7,5 izan da. Eguneko batez bestekoak 6,4 eta 8,1 artean ibili dira. Eroankortasunari dagokionez, mineralizazioaren urteko batez bestekoak maila ertain-ahula adierazten du (237 µS/cm), eta eguneko batez bestekoen aldakuntza 157 eta 328 µS/cm artean ibili da. Hilabeteko batez besteko altuena urrikoa izan da, 306 µS/cm; eta txikiena, ostera, otsailekoa, 195 µS/cm. Uraren tenperaturari begiratuta, urteko batez bestekoa 19,9 ºC izan da. Hileko batez bestekorik handiena uztailean lortu da, 19,1 ºC; eta txikiena, berriz, otsailean, 9,3 ºC. Ez da gainditu 21,5 ºC-ko muga, izokinkideak izateko gaitasunaren muga-balioa. Oxigenazioari begiratuta, datuen % 85etan 9 mg/l-ak gainditu dira, eta % 1ean 7 mg/l-tik beherako datuak neurtu dira; laburbilduz, baldintza onak atzeman dira. Uhertasuna kontuan hartuta, jardunaldien % 9etan 30 UNF gainditu dira, eta horrek uraldiekin zerikusia dauka.

Laburbilduz, lortutako baldintza fisiko-kimikoak bateragarriak dira izokinkide-bizitzarekin, araudiaren arabera.



10. irudia. Kalitate fisiko-kimiko jarraitua Oiartzunen – 2014/15.urte hidrologikoa

Abuztuaren 28tik irailaren 1a bitartean hartutako hamar minutuan behingo datuak hautatu dira. Giroko tenperaturaren batez bestekoa 23,1 ºC-koa da. Lortutako maximoa 36,7 ºC izan da, eta minimoa, berriz, 14,9 ºC. Gauaren eta egunaren arteko aldakuntza 21,8 ºC-koa da. Oxigenoaren batez bestekoa apur bat eskasa da, 8,14 mg/l. Egunaren eta gauaren arteko aldakuntza altua da, 6,06 mg/l. Lortutako kontzentrazio maximoa 9,58 mg/l izan da eta minimoa, berriz, 3,42 mg/l soilik. Erregistroen ehuneko altua, hots, % 80, dago 9 mg/l-en azpitik. Uraren batez besteko tenperatura 20,0 ºC-koa da; balio maximoa 22,7 izan da eta minimoa 17,3 ºC (gauaren eta egunaren arteko aldea 5,4 ºC-koa da). Erregistroen % 13k gainditzen dute izokinkideentzako 21,5 ºC-ko muga-tenperatura.

	Ox.Dis. (mg/l)	Uraren Tª (º C)	Giro Tª (º C)
Batez bestekoa	8,14	20,0	23,1
Desb.Tip.	0,91	1,3	4,7
Max.	9,58	22,7	36,7
Min.	3,42	17,3	14,9
N	625	626	720
Diferentzia	6,16	5,4	21,8

28. taula. Estatitika niktimerala Oiartzunen (Oiartzun ibaia). 2015ko abuztua-iraila.



11. irudia. Oiartzun ibaiaren uraren kalitatearen eboluzioa. Hamar minuturoko datuak.

5.1.2.5. URAREN KALITATE BIOLOGIKOA (OIARTZUN)

Oiartzun ibaian egindako laginketetan emaitza hauek lortu dira:

				UDABERRIA			AGORRALDIA		
Estazioa	**Kodea**	**Ibaia**	**Mota**	**IBMWP**	**EQR IBMWP**	**Egoera**	**IBMWP**	**EQR IBMWP**	**Egoera**
Aritxulegi	OIA04200	Oiartzun	23	183	0,94	Oso ona	172	0,88	Oso ona
Ergoien	OIA05900	Oiartzun	23	160	0,82	Oso ona	151	0,77	Oso ona
Ugaldetxo	OIA09500	Oiartzun	23	132	0,68	Ona	127	0,65	Ona
Fanderia	OIA11000	Oiartzun	23	114	0,58	Ona	85	0,44	Ertaina

29. taula. Oiartzun arroko kalitate biologikoa. 2015.urtea

Aritxulegiko eta Ergoieneko estazioetan, IBMWP indizeak oso balio altuak lortu ditu bi laginketa-kanpainetan, eta horrek esan nahi du egoera biologikoa oso ona izan dela. Ugaldetxon indizearen puntuazioa apur bat baxuagoa da, eta egoera biologikoa ona dela esan nahi du. Azkenik, Fanderian egoera ona mantentzen da udaberrian, agorraldian indizearen balioak apur bat behera egin duelarik, alegia, egoera biologikoa ertaina izanik.



12. irudia. Oiartzungo ibaiaren kalitate biologikoaren eboluzio longitudinala. 2015. urtea.

Ondoren, 2015. urtean Arditurri eta Lintzirin erreketan lortutako emaitzak azaltzen dira:

				UDABERRIA			AGORRALDIA		
Estazioa	**Kodea**	**Ibaia**	**Estazioa**	**Kodea**	**Ibaia**	**Estazioa**	**Kodea**	**Ibaia**	**Estazioa**
Arditurri	ARD02400	Arditurri	23	108	0,55	Ona	111	0,57	Ona
Lintzirin desemb.	GAI03900	Lintzirin	23	32	0,16	Eskasa	26	0,13	Eskasa

30. taula. Oiartzun ibaiaren ibaiadarren kalitate biologikoa.- 2015. urtea.

Arditurri errekan, egoera ona lortu da bi laginketa-kanpainetan. Azken urteetan, ikusi da Arditurri errekaren egoerak hobera egin duela. Kontuan izan behar da erreka horrek zink asko duela, Arditurriko meategi zaharretatik baitator, eta elementu hori toxikoa dela organismo urtarrentzat.

Bestalde, Lintzirin ibaiaren behe-ibarrean egoera kaltegarria hauteman da. Indize biotikoaren emaitzek adierazten dute bai udaberrian bai agorraldian egoera biologikoa eskasa izan dela. 2004. urtetik aurrera, ikusi da kutsadurak behera egin duela, isurkin batzuk bildu direla-eta; dena dela, oraindik ere kutsadura handia du. Espero da egoerak hobera egitea alde horretako saneamenduan aurrera egin ahala.

5.1.2.6. EKOIZPEN PRIMARIOA (OIARTZUN)

Ondoren, Oiartzun ibaian lortutako ekoizpen primarioaren emaitzak azaltzen dira:

	BENTOSA			PLANKTONA		
ESTAZIOAK	**Klorofila (mg/m^2)**	**Margalef indizea**	**Egoera trofikoa**	**Korofila (μg/l)**	**Margalef indizea**	**Egoera trofikoa**
Aritxulegi	--	--	--			
Ergoien	--	--	--	0,71	2,38	Oligotrofia
Ugaldetxo	5,84	2,13	Oligotrofia			
Fanderia	27,64	2,04	Mesotrofia	1,14	2,69	Oligotrofia
Arditurri	0,14	4,00	Oligotrofia			
Lintzirin bokalea	60,78	2,08	Mesotrofia			

31. taula. Oiartzun ibaiaren arroko ekoizpen primarioa - 2015. urtea.

Oiratzun ibaiaren goi-arroan ez da algarik antzeman. Ugaldetxon oligotrofia behatu da, aldiz, Fanderian, klorofilaren analisiak mesotrofia adierazten dute. Alga populazioak hazkuntza-fasean aurkitzen dira.

Bestalde, Arditurrin ere oligrotrofia behatu da, heltze-fasean dauden populazioekin. Aldiz, LIntzirineko emaitzek mesotrofia adierazten dute, hazkuntza-fasean dauden alga populazioekin.

Klorofila planktonikoari dagokionez, emaitzek erakusten dute oligotrofia-egoera dagoela Ergoienen eta Fanderian, hazkuntza-fasean dauden alga-populazioekin.

Gainera, plankton-komunitatearen osaeraren analisia egin da Fanderian, hurrengo taldeak agertu direlarik: Diatomeoak, Klorofizeoak, Xantofizeoak, Dinofizeoak, Cryptofizeoak, eta Konjugatuak. Diatomeoak dira talde nagusia, non *Fragilaria sp*., *Melosira varians* (eutrofiloa eta α-mesosaprobikoa) eta *Tabellaria floculosa* (mesotrofiloa eta β-mesosaprobikoa) (MAGRAMA, ID-TAX) nabarmentzen direlarik. Klorofizeoei dagokionez, *Ankistrodesmus* eta *Chlamydomonas* detektatu dira maiztasun baxuan. Gainera, *Tetraediella quadrisetta* generoko Xantofizeoak identifikatu dira kontzentrazio ertainean. Era berean, *Ceratium* generoko Dinoflagelatuak eta alga Konjugatuak behatu dira maiztasun baxuarekin. Cryptofizeoak ugaritasun ertainean aurkitu dira. Zooplakton populazioa Rofifero, Akaro eta Kironomidoek osatuta dago, maiztasun baxuarekin.

Oiartzun ibaiaren ardatzean, ibaiertzeko landaretza zertxobait erasanda dago; horren ondorioz, bada halako intsolazio bat, % 50 ingurukoa. Arditurrin, behealdean, egoera nahikoa antzekoa da: badago ibaiertzeko landaretza, baina ez du estaltzen laginketa-tarteko ibilgu osoa. Lintzirin errekan, berriz, estaldura-maila handia da, eta ia denean ematen du itzala.

ESTAZIOA	
Aritxulegi	0,52
Ergoien	0,92
Ugaldetxo	0,44
Fanderia	0,56
Arditurri	0,43
Lintzirin	0,79

32. taula. Argi-xurgatzearen koefrizientea. Oiartzun arroa.

5.1.2.7. ARRAIN-FAUNA (OIARTZUN)

Arrantza elektrikoko laginketa erdikuantitatibo bat eta bi laginketa kualitatibo egin dira Oiartzungo arroan, Oiartzun ibaiko Ugaldetxo estazioan eta Arditurri eta Lintzirin erreketan, hurrenez hurren. Ondoren, lortutako emaitzak azaltzen dira.

IV. eranskinean, espezieen araberako neurrien banaketen grafikoak kontsulta daitezke.

Laginketa erdikuantitatiboa	DENTSITATEA (ALE KOP./ Ha)				
ESTAZIOA	IZOKINA	AMUARRAINA	EZKAILUA	MAZKARRA	AINGIRA
Ugaldetxo	234	925	8.004	2.086	782

33. taula. Ugaldetxoko arrain-komunitatea (Oiartzun ibaia) - 2015. urtea.



13. irudia. Ugaldetxoko arrain-komunitatearen osaketa (Oiartzun ibaia) - 2015. urtea.

UGALDETXOKO arrain-komunitatea 5 espeziek osatzen dute: izokina, amuarraina, ezkailua, mazkarra eta aingira. Amuarrainak dentsitatea baxua erakusten du (925 N/Ha), aurreko laginketan baino baxuago (1.209 N/Ha). Aingirari dagokionez, dentsitate ahula erakusten du (782 N/Ha), arinki altuagoa 2013 urtean burututako laginketarekin alderatuz (610 N/Ha). Aipatu behar da 2011 urtean beherakada nabarmena behatu zela aingiraren populazioan aurreko urteekin alderatuta, dentsitate ahula azalduz (473 N/Ha), 2009an dentsitate askoz altuagoa (1.544 N/Ha) lortu zen bitartean. Ezkailu eta mazkarrak ugariak dira (8.004 N/Ha eta 2.086 N/Ha, hurrenez hurren). Gainera, jatorri naturaleko izokin ugari arrantzatu dira, aurreko laginketan birpopulaketa-saioetako aleak arrantzatu ziren bitartean; hortaz, espezie honen egoera positiboaz hitz egin dezakegu. Laburbilduz, ibai-tarte honen egoera txarra ez baina eskasa dela esan daiteke, amuarrain, aingira eta izokinak ugariagoak izan beharko lukete eta.

Arditurri eta Lintzirin ibaiadarretan hurrengo emaitzak lortu dira:

Laginketa kualitatiboak	DENTSITATE MINIMOA (ALE KOP./ Ha)			
ESTAZIOA	AMUARRAINA	EZKAILUA	MAZKARRA	AINGIRA
Arditurri	826	2.803		
Lintzirin bokalea	82	299	626	163

34. taula. Arrain-komunitatearen osaketa Oiartzun ibaiaren ibaiadarretan - 2015. urtea.



14. irudia. Arditurriko arrain-komunitatea - 2015. urtea.

ARDITURRIKO arrain-komunitatea 2 espeziek osatzen dute: amuarraina eta ezkailua. Ibai-tarte honetan hobekuntza nabarmena behatu zen 2009 urtea geroztik, non amuarrain ale kopuru esanguratsua arrantzatu zen (1.339 N/Ha), normalean espezie honen ale gutxi edo bat ere ez agertu izan dela kontuan hartuta. 2011 urtean egoera berdintsua ikusten da eta 2013 urtean populazioaren ugaritze nabarmena ikusi zen (1.889 N/Ha). Aurten, aurreko urteekin alderatuta, beherakada eman da, 826 N/Ha-ko emaitza lortuz. Ezkailuari dagokionez, dentsitatea altua da (2.803 N/Ha). Kontuan hartu behar da errekasto honetan zink-aren presentzia handia dela antzineko meategien ondorioz, eta bizitza piszikolarentzako elementu toxikoa dela. Hortaz, egoera egoki samarra da.



15. irudia. Lintzirineko arrain-komunitatea - 2015. urtea.

LINTZIRINEKO arrain-komunitatea 4 espeziek osatzen dute: amuarraina, ezkailua, mazkarra eta aingira. Guztiek dentsitate ahulak edo oso ahulak erakusten dituzte. Mazkarra da espezie ugariena (626 N/Ha), amuarrainak duelarik dentsitate baxuena, ale bakanak atzeman baitira (82 N/Ha). Egoera ez da pozgarria. Aipatu behar da puntu honetan garrantzizko hobekuntza eman dela 2005 urteaz geroztik, uraren kalitatearen hobekuntza dela eta, nahiz eta oraindik kutsadura maila altua den.

5.1.2.8. SINTESIA (OIARTZUN)

Kalitate fisiko-kimikoari dagokionez, Oiartzun ibaiak orokorrean egoera ona du tenperatura eta oxigeno aldetik. Jatorri organikoko kutsadurari dagokionez, adierazleak, oro har, detekzio-mailaren azpitik edo oso kontzentrazio txikietan ageri dira. Mantenugaiei dagokienez, oro har fosfatorik ez da atzeman, noizbait Ugaldetxon eta Fanderian izan ezik; nitratoak ere oso maila txikietan ageri dira. Metalei dagokienez, Ergoienen zink-kontzentrazio handiak detektatu dira, Arditurriko meategi zaharretatik etorriak, eta hori, arrainen babeserako 2006/44/EE Zuzentarauaren arabera, bateraezina da izokinkide espezieentzat, baina ez ziprinidoentzat. Ugaldetxon eta Fanderian ere zinka topatu da, baina kontzentrazio txikiagoetan, eta ez da eragozpena izokinkideentzat. Azkenik, Aritxulegin, egoera ona erregistratu da, eta, beraz, urak egokiak dira izokinkideentzat.

Bestalde, egoera biologikoa oso ona edo ona da ia kasu guztietan; Fanderian agorraldian egindako laginketan izan ezik, egoera ertaina ikusi baita. Ekoizpen primarioari dagokionez, Oiartzun ibaian, Klorofila bentonikoaren analisian oligotrofia adierazi du, kasu guztietan Fanderian salbu, non mesotrofia behatu den. Bestalde, Klorofila planktonikoaren analisiek oligotrofia adierazi dute.

Arrain-faunari dagokionez, Ugaldetxon amuarrain eta aingira populazio ahulak behatu dira; aldiz, ezkailu eta mazkarrak dentsitate altuan daude. Gainera, gehienak jatorri naturalekoak ziren hainbat izokin-ale atzeman ziren, datu positiboa delarik. Egoera on samarra dela esan dezakegu.

Ibaiadarretan, Arditurri errekan, meategi zaharretatik datozen zink-kontzentrazio handiak ez dira bateragarriak arrainen bizitzarekin, arrain-gaitasunari buruzko Zuzentarauaren arabera. Gainontzeko parametroek balio egokiak hartu dituzte. Bere aldetik, IBMWP-ak egoera ekologiko ertaina erakutsi du bai udaberrian baita agorraldian ere. Ekoizpen primarioaren analisiak oligotrofia adierazi du.

Lintzirin errekan, kutsadura organikoaren adierazleak kontzentrazio txikietan daude oro har, izokinkideentzako gaitasuna erakutsiz. Bestalde, emaitza biologikoek islatzen dute egoera txarra izan dela bi kanpainetan. Aipatu beharra dago, 2004. urtetik aurrera, kutsadurak behera egin duela, isurkin batzuk bildu direla-eta; dena dela, oraindik ere kutsadura handia du. Klorofila bentonikoaren analisiak mesotrofia dagoela adierazten du.

Arrain-faunari dagokionez, Arditurrin amuarrain populazio ahula da, aldiz, espezie honen egoerak hobera egin du azken urteotan eremu honetan. Gainera, ezkailu populazio sendoa atzeman da. Bestalde, Lintzirin errekan, arrain-komunitatea 4 espeziek osatzen dute: amuarraina, ezkailua, mazkarra eta aingira, guzitan dentsitate ahul edo oso ahuletan.

5.1.3. URUMEA IBAIAREN ARROA

5.1.3.1. DESKRIBAPEN GEOGRAFIKOA (URUMEA)

Urumea ibaiaren arroak 272 km^2-ko eremua dauka; horietatik 108 km^2 Gipuzkoari dagozkio, eta gainerakoa, 164 km^2, Nafarroari. Urumea ibaia Goizuetan jaio eta Donostian itsasoratzen da. Geologiari dagokionez, goiko aldean material azidoak gailentzen dira; Landarbaso ibaiadarrean, berriz, kaliza motako azaleratzeak dira nagusi. Beheko aldean, Urnieta, Hernani, Astigarraga eta Donostiako herriak daude, eta guztien artean 140.000 biztanleko kopurua osatzen dute. Urumea ibaiaren adar garrantzitsuenak Añarbe, Urruzuno, Latxe eta Landarbaso dira.

Añarbeko urtegiak 49 Hm^3-ko edukiera du, eta Gipuzkoako handiena da. Urumearen beheko aldea eta inguruko herriak (Oiartzun ibaiaren arroa, Lasarte, Usurbil eta Añorga-Ibaeta) hornitzen ditu. Urtegi hori Artikutzako urtegiak (1,6 Hm^3) erregulatzen du. Saneamendua amaitua dago ia; ur zikinak kolektoreetan biltzen dira eta Loiolako HUAn tratatzen dira.

Arro honetan gailentzen diren erabilerak basogintza eta abeltzaintza dira; laborantza beheko aldean bakarrik da garrantzitsua. Hernani herritik behera, herriguneak, industrialdeak eta azpiegiturak dira nagusi. Hala, goiko aldean ibaiko habitata kontserbazio-egoera onean dago oro har, eta jarraitutasun onargarria du. Beheko aldean, ordea, hiri- eta industria-garapenek ibaiertzak hartu dituztenetik, narriatu edo ia erabat galdu da galeria-basoa. Alde horretan ohikoa da ibai-tarteak bideratuta egotea eta jatorrizko basoaren ordez platano-lerrokadurak aurkitzea.

Beste alde batetik, Urumea ibaiaren aprobetxamendu hidroelektrikoak garrantzi handia du: 6 zentral hidroelektriko daude martxan ardatz nagusian eta Añarbe ibaiadarrean. Horrez gain, hainbat ur-hargune daude industrien hornikuntzarako.

5.1.3.2. EMARIA (URUMEA)

Jarraian, laburki azaltzen da zer emaitza lortu diren Urumea ibaian, Ereñotzuko neurketa-estazioan:

Urria	1,704
Azaroa	4,264
Abendua	17,605
Urtarrila	16,508
Otsaila	50,862
Martxoa	25,657
Apirila	9,657
Maiatza	8,552
Ekaina	6,693
Uztaila	2,959
Abuztua	2,407
Iraila	2,092

35. taula. Urumea ibaiko emariaren datuak - 2014/15. urte hidrologikoa. Hilabeteko datuak (m3/s)

	Emaria (m3/s)	**Emari espezifikoa ($l/s/km^2$)**
Urteko batez b. emaria	12,413	55,724
Hileko max.	50,862	232,864
Hileko min.	1,704	7,800

36. taula. Urumea ibaiko emariaren datuak - 2014/15. urte hidrologikoa.



16. irudia. Eguneko batez besteko ur-emaria. Ereñozun, Urumea. 2014/15. urtea.

2014-2015 urte hidrologikoa ohi baino hezeagoa izan da (12,413 m3/s). Nabarmenki, otsaila izan da hilabeterik emaritsuena, ohikoak baino emari nabarmenki altuagoak lortuz. Era berean, abendua, urtarrila eta martxoa bereziki emaritsuak izan dira. Aldiz, urria izan da hilabeterik lehorrena, ohikoa baino emari askoz baxuagoekin. Azaroan ere ohi baino emari baxuagoak erregistratu dira. Uztailak batazbestekoaren azpitik dauden emariak bildu ditu, abuztuak eta irailak agorraldian ohikoak direnak bildu dituzten bitartean.

5.1.3.3. URAREN KALITATE FISIKO-KIMIKOA (URUMEA)

Urumea ibaian datu fisiko-kimiko hauek lortu dira:

ESTAZIOA	IBAIA	Laginк. kop.	Tª (ºC)	pHa	Eroan. (µS/cm)	Ox.Dis. (mg/l)	PO_4 (mg/l)	DQO (mg/l)	NH_4 (mg/l)	Arrain gait.
Pagoaga	Urumea	2	16,0 – 17,7	7,6 – 7,7	80 – 90	9,60 – 10,05	<D.M	–	<D.M	Izok
Fagollaga	Urumea	14	7,5 – 19,3	7,5 – 8,0	54 – 96	9,07 – 12,97	<D.M	<D.M	<D.M	Cipri
Lastaola	Urumea	14	7,4 – 19,5	7,5 – 8,1	59 – 106	9,54 – 13,26	<D.M	<D.M	<D.M	Cipri
Karabel	Urumea	14	7,6 – 19,5	7,6 – 8,1	67 – 160	8,49 – 13,09	<D.M – 0,28	<D.M	<D.M– 0,65	Izok
Ergobia	Urumea	14	7,6 – 19,8	7,6 – 7,9	72 – 155	8,06 – 12,82	<D.M – 0,11	<D.M	<D.M– 0,22	Izok

D.M.: Detekzio-muga.

37. taula. Urumea ibaiko datu fisiko-kimikoak – 2014-2015. Urte hidrologikoa (balio minimo eta maximoak)

Urumea ibaiak, bere luzera guztian zehar, baldintza egokiak ditu izokinkideak bizitzeko. Ura fresko egoten da eskuarki, 21,5 ºC-ko mugaren azpitik. Horrez gain, oxigenazioa ere egokia da; 9 mg/l-tik gorako kontzentrazioak izan dira ia kasu guztietan.

Amonioari dagokionez, detekzio-mailaren azpitik dago kasurik gehienetan. Halere, Karabelen 0,65 mg/l-ko datu maximoa lortu da; Ergobian, aldiz, datu maximoa 0,22 mg/l izan da.

Modu berean, ez da fosfatorik detektatu ia gehienetan; inoiz Karabelen eta Ergobian jaso dira, 0,28 mg/l-ko eta 0,11 mg/l-ko datu maximoekin, hurrenez hurren. Nitratoei dagokienez, kontzentrazio baxuetan azaltzen dira. Metalek eragindako toxikotasunik ez da atzeman.

Bestalde, mineralizazioa maila ahul-oso ahuletan dago; datu minimoa 54 µS/cm da (Fagollaga), eta maximoa 160 µS/cm (Karabel).



17. irudia. Urumea ibaiko kalitate fisiko-kimikoa – 2014-2015. urte hidrologikoa.

Ondoren, Urumea ibaiko ibaiadarretan lorturiko emaitza fisiko-kimikoak ageri dira.

ESTAZIOA	IBAIA	Laginк. kop.	Tª (ºC)	pHa	Eroan. (µS/cm)	Ox.Dis. (mg/l)	PO_4 (mg/l)	DQO (mg/l)	NH_4 (mg/l)	Arrain gait.
Landarbaso	Landarbaso	7	8,9 – 18,9	8,1 – 8,7	238– 353	8,01 – 12,34	<D.M – 0,08	<D.M	<D.M– 0,11	Izok
Igara cabecera	Igara	2	16,9 – 21,1	8,3 – 8,4	508 - 526	8,35 – 9,40	0,05 – 0,17	--	<D.M – 0,12	Izok
Añorga Errotaburu	Añorga	2	18,8 – 21,7	8,3 – 8,4	594 - 651	7,79 – 8,91	0,06 – 0,15	--	<D.M – 0,05	Zipri
Añorga	Añorga	8	8,1 – 20,8	8,2 – 8,7	485 - 798	8,70 – 12,04	0,08 – 0,34	--	<D.M – 0,20	Izok
Antziola	Antziola	3	12,6 – 18,3	7,7 – 8,1	494 - 671	3,65 – 10,58	0,25 – 1,50	<D.M - 31	0,29 – 5,60	Ez gai
Latxe4	Latxe	3	10,9 – 15,8	7,5 – 7,7	70 - 101	9,89 – 11,66	<D.M	<D.M	<D.M	Izok
Desembocadura	Urnieta	3	12,0 – 17,5	7,9 – 8,2	455 - 768	3,70 – 10,77	0,50 – 3,83	<D.M - 45	0,65 – 9,70	Ez gai
Urruzona	Urruzono	3	8,2 – 18,6	7,3 – 7,7	57 - 78	9,59 – 12,55	<D.M	<D.M	<D.M	Izok

38. taula. Urumea ibaiko ibaiadarren datu fisiko-kimikoak – 2014-2015. urte hidrologikoa (balio maximo eta minimoak)

Laginketa kopurua eskasa izan dela kontuan hartu beharra dago emaitzak ulertu eta arrain gaitasuna sailkatzeko garaian.

Landarbaso errekako urek ere kalitate fisiko-kimiko ona dute; beraz, izokinkideak bizitzeko ur egokitzat har daitezke. Baldintza onak ikusi dira tenperatura eta oxigeno aldetik. Ez da amoniorik detektatu edo kontzentrazio minimotan daude. Halaber, mantenugaiak urriak dira oro har.

Era berean, katitate fisikokimiko ona erakusten dute Igara iturburuak, Añorga, Urruzuno eta Latxe errekek, modu honetan Izokinentzako egokiak izanik.

Añorga ibaiaren beheko aldeak (ANI05499) baldintza egokiak ditu ziprinidoentzat, baina ez izokinkideentzat; izan ere, oxigeno-urritasuna dago, 9 mg/l-tik behera kasu guztietan. Bestalde,

tenperaturak 21,5 ºC-ko muga gainditzen du, izokinentzako egokia den muga gainditzuz. Amonioa kontzentrazio txikietan dago aurreko urtean bezala, non kutsadura organikoa murriztu baitzen 2012arekin alderatuta. Fosfatoen mailak, aldiz, altuak dira. Metalek eragindako toxikotasunik ez da atzeman. Joan den urtean, 2012arekin alderatuz, detektatu zen hobekuntza lotuta dago erreka horren saneamendu-lanak amaitu izanarekin.

Azkenik, Antziola eta Urnietako errekak ez dira egokiak arrain bizitarako, erakusten duten kutsadura maila altua dela eta. Hala, amonioak 1 mg/l-ko muga gainditzen du ia kasu guztietan. Era berean, DQOaren balioak altuak dira. Gainera, oxigenazioa kontzentrazio oso baxuak eta fosfato kontzentrazio oso altuak erregsitratu dira.

5.1.3.4. KALITATE FISIKO-KIMIKOAREN JARRAIKO AZTERKETA (URUMEA)

EREÑOTZUn kokatuta dagoen neurketa jarraituko estazioak parametro hauek neurtzen ditu: pHa, uraren tenperatura, eroankortasuna, oxigeno disolbatua eta uhertasuna. Urteko egunen % 96etako datuak daude, parametro guztietakoak.

	pHa	Uraren T^{a} (º C)	Eroan. (µS/cm)	Ox. Dis. (mg/l)	Uhert. (UNF)
BATEZ BEST.	7,1	14,0	70	10,57	8
DESB.TIP.	0,2	4,0	10	0,98	21
MAX.	7,7	21,9	87	12,83	227
MIN.	6,3	6,4	46	8,89	1
N	353	353	353	353	353
URR. BATEZ B.	6,9	16,4	80	9,84	2
AZA. BATEZ B.	7,4	12,9	74	10,57	4
ABE. BATEZ B.	7,2	10,4	60	11,55	8
URT. BATEZ B.	7,1	8,7	65	11,75	7
OTSA. BATEZ B.	7,0	8,2	57	12,31	27
MAR. BATEZ B.	7,2	10,1	57	11,61	23
APIR. BATEZ B.	7,3	13,1	66	10,60	6
MAIA. BATEZ B.	7,2	14,0	66	10,25	4
EKA. BATZ B.	7,1	16,6	69	10,20	8
UZT. BATEZ B.	7,2	20,1	81	9,31	2
ABU. BATEZ B.	6,9	19,4	84	9,46	6
IRA. BATEZ B.	7,0	16,8	83	9,75	2

39. taula. Ereñozun kokatuta dagoen neurketa jarraituko estazioaren estatistika, Urumea ibaian – 2014/15.urte hidrologikoa (eguneroko batezbestekoetan oinarritua).

Uraren tenperaturaren urteko batez bestekoa 14,0 ºC-koa izan da. Eguneko batez besteko maximoa 21,9 ºC izan da, izokinkideak izateko gaitasun-muga (21,5 ºC) gainditzen du kasuen % 1ean. Hileko batez bestekorik handiena uztailean lortu da, 20,1 ºC, eta txikiena, berriz, otsailean, 8,2 ºC. Oxigeno aldetik, eguneko batez besteko balioak 8,89 eta 12,83 mg/l bitartean dabiltza, eta urteko batez bestekoa 10,57 mg/l da. Ia kasu guztietan (% 98) gainditu dira 9 mg/l-ak; beraz, ur egokiak dira izokinkideentzat. Eroankortasunaren urteko batez bestekoa 70 µS/cm da, hots, mineralizazioa oso ahula da. Muturreko balioak 46 eta 87 µS/cm bitartean dabiltza. Hileko batez besteko altuena abuztukoa izan da (84 µS/cm), eta txikiena, ostera, otsaila eta martxokoa (57 µS/cm). Uhertasunaren urteko batez bestekoa 8 UNFkoa izan da. 19 saiotan (% 5) detektatu dira 30 UNFtik gorako balioak. Eguneko batez besteko maximoa otsailean izan da, 227 UNF lortu baitira. Uhertasunaren areagotze hori, batik bat, uraldiak izan direnean gertatu da.

Laburbilduz, uraren baldintza fisiko-kimikoak egokiak dira izokinkideak bizitzeko, araudiaren arabera.



18. irudia. Kalitate fisiko-kimiko jarraitua Ereñozun – 2014-2015. urte hidrologikoa.

Uztailaren 17tik 21era, hamar minutuan behin jaso dira datuak. Giro-tenperaturaren batez bestekoa 22,4 ºC da, eta balioak 16,6 ºC eta 31,1 ºC artean dabiltza. Beraz, gauaren eta egunaren arteko aldea 14,5 ºC-koa da. Oxigeno disolbatuaren batez bestekoa egokia da, 9,07 mg/l. Maximoa 9,64 mg/l dira, eta minimoa 8,71 mg/l; aldakuntza-tartea 0,93 mg/l-koa da. Erregistro ugari, % 40, dago 9 mg/l-en azpitik. Uraren tenperatura 23,3 eta 19,1 ºC artean dabil, eta batez bestekoa 21,3 ºC dira. Kasuen % 40etan gainditu da 21,5 ºC-ko muga.

	Ox.Dis. (mg/l)	Uraren Tª (º C)	Giro Tª (º C)
Batez bestekoa	9,07	21,3	22,4
Desb.tip.	0,24	0,9	3,3
Max.	9,64	23,3	31,1
Min.	8,71	19,1	16,6
N	693	693	720
Diferentzia	0,93	4,2	14,5

40. taula. Estatistika niktimerala Ereñozun (Urumea ibaia). 2015ko uztaila.



19. irudia. Urumea ibaiaren uraren kalitatearen eboluzioa, Ereñozun. Hamar minuturoko datuak.

5.1.3.5. URAREN KALITATE BIOLOGIKOA (URUMEA)

Ondoko taulan, Urumea ibaian egindako makroornogabeen laginketetan zer emaitza lortu diren azaltzen da:

				UDABERRIA			AGORRALDIA		
Estazioa	**Kodea**	**Ibaia**	**Mota**	**IBMWP**	**EQR IBMWP**	**Egoera**	**IBMWP**	**EQR IBMWP**	**Egoera**
Pagoaga	URU28800	Urumea	32	172	0,89	Ona	202	1,04	Oso ona
Fagollaga	URU33800	Urumea	32	193	0,99	Oso ona	175	0,90	Ona
Lastaola	URU35400	Urumea	32	151	0,78	Ona	157	0,81	Ona
Karabel	URU38800	Urumea	32	137	0,71	Ona	174	0,90	Ona
Ergobia	URU40200	Urumea	32	148	0,76	Ona	112	0,58	Ona

41. taula. Urumea ibaiaren arroko kalitate biologikoa - 2015. urtea.

Urumea ibaiak IBMWP puntuazio oso altuak lortu ditu ardatz guztian zehar, egoera oso ona edo ona azalduz kasu guztietan.



20. irudia. Urumea ibaiaren kalitate biologikoaren eboluzio longitudinala. 2015. urtea.

Bestalde, Landarbaso errekan, emaitza hauek lortu dira:

				UDABERRIA			AGORRALDIA		
Estazioa	**Kodea**	**Ibaia**	**Mota**	**IBMWP**	**EQR IBMWP**	**Egoera**	**IBMWP**	**EQR IBMWP**	**Egoera**
Landarbaso	LAN06100	Landarbaso	32	185	0,95	Oso ona	166	0,86	Ona

42. taula. Urumea ibaiaren ibaiadarren kalitate biologikoa – 2015. urtea.

Landarbason, egoera ona hauteman da; izan ere, IBMWP balio altuak erregistratu dira, egoera oso ona izanik udaberrian eta ona agorraldian.

Aurten, gainera, laginketa espezifikoak egin dira Añorga eta Igara ibaietan. Hona hemen lortutako emaitzak:

				UDABERRIA			AGORRALDIA		
Estazioa	**Kodea**	**Ibaia**	**Mota**	**IBMWP**	**EQR IBMWP**	**Egoera**	**IBMWP**	**EQR IBMWP**	**Egoera**
Añorga Errotaburu	AÑO00350	Añorga	30	47	0,21	Eskasa	43	0,19	Eskasa
Igara Iturburua	IGA00030	Igara	30	135	0,60	Ona	114	0,51	Ona

43. taula. Urumea arroko laginketa espezifikoen kalitate biologikoa – 2015. urtea.

Añorga errekan emaitza urriak lortu dira, eta laginketa-kanpaina bietan egoera eskasa dela adierazten dute. Saneamenduari esker 2013an nolabaiteko hobekuntza sumatu zen 2012arekin alderatuz; hala ere, kalitate eskaseko tartearen barruan mantentzen da, 2014 eta 2015 urteetan egoerak berdin jarraitu duelarik.

Bestalde, Igara errekan egoera ona hautematen da, baldintza onak adierazten dituzten emaitzak lortuz udaberrian eta agorraldian.

5.1.3.6. EKOIZPEN PRIMARIOA (URUMEA)

Urumea ibaiaren arroan, 7 estaziotan hartu dira klorofila bentonikoaren laginak eta 2tan klorofila planktonikoarenak. Gainera, alga-komunitateen osaera ere aztertu da estazio batean: Ergobian.

		BENTOSA			PLANKTONA		
ESTAZIOAK	**IBAIA**	**Klorofila (mg/m^2)**	**Margalef indizea**	**Egoera trofikoa**	**Klorofila (µg/l)**	**Margalef indizea**	**Egoera trofikoa**
Pagoaga	Urumea	5,75	1,20	Oligotrofia			
Fagollaga	Urumea	3,37	2,50	Oligotrofia	0,24	2,43	Oligotrofia
Lastaola	Urumea	3,73	1,50	Oligotrofia			
Karabel	Urumea	1,97	2,00	Oligotrofia			
Ergobia	Urumea	6,12	2,22	Oligotrofia	0,69	3,94	Oligotrofia
Landarbaso	Landarbaso	--	--	--			
Añorga Errotaburu	Añorga	1,89	2,11	Oligotrofia			

44. taula. Urumea ibaiko arroaren ekoizpen primarioa - 2015. urtea.

Klorofila bentonikoari dagokionez, lortutako emaitzak oligotrofia adierazten dute ardatz guztian zehar, baita Añorga ibaian ere. Alga-gazteek osatutako populazioak dira, hazkuntza-fasean daudenak. Landarbasoko errekan ez da algen presentziarik antzeman.

Klorofila planktonikoaren aldetik ere, Fagollagan eta Ergobian oligotrofia-egoera ere hauteman da, populazioak heltze-fasean baitaude.

Ergobian, planktonaren osaerari dagokionez, talde fitoplanktoniko hauek soilik ikusi dira bertan: Diatomeoak, Klorofizeoak, Xantofizeoak eta Konjugatuak. Diatomeoak dira talde nagusia eta 10 genero identifikatu dira, hurrengoak nabarmenduz ugaritasunaren arabera: *Nitzchia sp., Fragilaria sp.* eta *Navicula sp*.. ID-TAX-aren (MAGRAMA) arabera identifikatutako kalitatearen indikatzaileen arabera *Nitzchia linearis* (mesotrofiloa eta β-mesosaprobikoa) da aipatzekoa; era berean, *Rhoicosphenia curvata* (β- mesosaprobikoa) eta *Melosira varians* (α- mesosaprobikoa) behatu dira, eutrofiloak biak. *Tabellaria floculosa* ere identifikatu da, mesotrofiloa y β-mesosaprobikoa. Klorofizeoetan bi genero soilik agertu dira: *Ankistrodesmus* eta *Chaetophora.* Era berean, Xantofizeoen barruan *Tetraedriella quadrisetta* behatu da, maiztasun ertainean. Alga Konjugatuen presentzia ez-ohikoa izan da, eta bi genero identifikatu dira: *Cosmarium* eta *Spyrogira*. Azkenik, zooplaktonaren presentzia oso murritza izan da, Rotifero eta Tardigrado populazio txikiekin, maiztasun oso baxuan.

Urumea ibaiaren ardatzean itzal asko dago; izan ere, badu ibaiertzeko landaretza, eta horrek, oro har, zuhaitz-estaldura handia ematen du. Dena den, ibilguaren zabalerak galarazi egiten du estaldura handiagoa izatea. Bestalde, Karabelgo tartea bideratua dago; beraz, eguzki-erradiaziorekiko esposizioa handia da. Landarbaso errekak argi-xurgatzearen koefiziente handia du, zuhaitz-estaldura oso handia baitu, baita Añorga ibaian ere.

ESTAZIOA	
Pagoaga	0,14
Fagollaga	0,64
Lastaola	0,50
Karabel	0,03
Ergobia	0,56
Landarbaso	0,85
Añorga Errotaburu	0,77

45. taula. Argi-xurgatzearen koefiziente. Urumea arroa.

5.1.3.7. ARRAIN-FAUNA (URUMEA)

Urumea ibaiaren arroan, arrantza elektriko bidezko laginketa erdikuantitatibo bat egin da Fagollagan eta laginketa kualitatibo bat Ergobian. Hona hemen lortutako emaitzak:

IV. eranskinean, espezieen araberako neurrien banaketen grafikoak kontsulta daitezke.

Laginketa erdikuantitatiboa	DENTSITATEA (ALE KOP./ Ha)				
ESTAZIOA	IZOKINA	AMUARRAINA	EZKAILUA	MAZKARRA	AINGIRA
Fagollaga	827	218	392	18	1.291

46. taula. Arrain-komunitatearen osaketa Fagollaga (Urumea ibaia) - 2015. urtea.



21. irudia. Arrain-komunitatea Fagollagan (Urumea ibaia) - 2015. urtea.

FAGOLLAGAN 5 espezietako aleak atzeman dira: izokina, amuarraina, ezkailua, mazkarra eta aingira. Aingira da espezie ugariena eta dentsitate garrantzitsua lortu da (1.291 N/Ha), aurreko laginketan lortutakoa baino altuagoa (905 N/Ha). Izokinaren presentzia ere nabarmena da (827 N/Ha), aurreko laginketan lortutakoa baino altuagoa (324 N/Ha), jatorri naturaleko aleekin. Amuarrainak dentsitate ahula azaldu du (218 N/Ha), aurreko laginketan lez (133 N/Ha). Ezkailu populazioa oso ahula da (392 N/Ha), are gehiago mazkarrarena (18 N/Ha). Egoera ez da guztiz ona.

Laginketa kualitatiboa	DENTSITATE MINIMOA (ALE KOP./ Ha)				
ESTAZIOA	AMUARRAINA	EZKAILUA	AINGIRA	KORKOIA	PLATUXA
Ergobia	32	619	667	32	746

47. taula. Arrain-komunitatearen osaketa Ergobian (Urumea ibaia) - 2015. urtea.



22. irudia. Arrain-komunitatea Ergobian - 2015. urtea.

ERGOBIAN 5 espezietako aleak atzeman dira: amuarraina, ezkailua, aingira, korrokoia eta platuxa. Aingiraren pupolazioak dentsitate baxua dauka (667 N/Ha), baina aurreko laginketa baino leunki altuagoa (483 N/Ha). Platuxa eta ezkailuak dentsitate baxuak erakusten dituzte baita ere, 600-700 N/Ha inguru. Amuarrainari dagokionez, ale solteak atzeman dira (32 N/Ha). Azkenik, korrokoiak dentsitate ahula erakusten du (32 N/Ha), hala ere, kontuan hartu behar da espezie hau arrantzatzeko zailtasuna. Aurreko laginketetan izokin aleak arrantzatu diren arren, aurten ez da izokinik atzeman. Egoera ez da oso ona.

5.1.3.8. SINTESIA (URUMEA)

Urumea ibaian lortutako emaitza fisiko-kimikoek adierazten dute ibaiaren luzera osoan direla urak egokiak izokinkideentzat. Uraren tenperatura fresko dago, eta inoiz ere ez da iristen 21,5 ºC baino gehiagoko tenperaturetara. Oxigenazio-baldintzak onak dira orokorrean. Ia ez da kutsadura organikoren aztarnarik sumatu. Oro har, mantenugaien presentzia oso urria da, eta ez da metalek eragindako toxikotasunik atzeman.

Kalitate biologikoa ere handia da ardatz guztian zehar, indize biotikoaren puntuazioak oso altuak dira, eta egoera biologikoa oso ona/ona da ia beti. Bestalde, ekoizpen primarioari dagokionez, oligotrofia erregistratu da beti.

Arrain-faunari begiratuz gero, Fagollagako egoera on samarra da. Aingira da espezie nagusia, dentsitate altuak lortuz. Era berean, jatorri naturaleko izokinaren presentzia nabarmentzekoa da; aldiz, amuarrain, ezkailu eta mazkarra dentsitate ahuletan behatu da. Bere aldetik, Ergobian 5 espezie piszikola atzeman dira, amuarraina, ezkailua, aingira, korrokoia eta platuxa; guzitak dentsitate baxuan. Egoera ez da oso ona.

Landarbaso ibaiadarrean, bai emaitza fisiko-kimikoek eta bai biologikoek uraren kalitatea handia dela erakusten dute, eta egoera biologiko oso ona/ona lortu da. Oligotrofia-egoera atzeman da.

Aurten, gainera, laginketa espezifikoak egin dira Añorga eta Antziola ibaietan. Añorga erreka egokia da ziprinidoentzat, baina ez izokinkideentzat; izan ere, oxigeno-urritasuna dago. Amonioa kontzentrazio txikietan dago aurreko urtean bezala, non 2013 urtetik nabarmen murriztu baitzen saneamenduaren ondorioz. Emaitza biologikoek egoera guztiz ona ez dela adierazi dute, egoera eskasa azalduz.

Igarako iturburuari dagokionez, egoera fisiko-kimikoa ona da, izokinkideentzako gaitasuna erakutsiz. Emaitza biologikoek egoera biologiko ona erakutsi dute.

Azkenik, Antzuola eta Urnieta erreketan kutsadura organiko altua ikusi da, aldiz, Latxe eta Urruzuno errekek uraren kalitate fisiko-kimiko ona erakutsi dute.

5.1.4. ORIA IBAIAREN ARROA

5.1.4.1. DESKRIBAPEN GEOGRAFIKOA (ORIA)

Oria ibaiaren arroa da, 882 km^2-rekin, Gipuzkoako Lurralde Historikoko garrantzitsuena. Azaleraren zati bat Nafarroako Foru Komunitatearen barnean kokatzen da, hain zuzen ere, Araxeseko eta Leitzarango ibai-buruak. Gainerakoa, 749 km^2, Gipuzkoari dagokio. Arro guztian zehar, hainbat material geologiko daude, baina kareharria gailentzen da.

Oria ibaia Otzaurteko magaletan jaiotzen da eta Orion itsasoratzen da. Ibaiaren luzera guztian zehar, herri garrantzitsu asko kokatu dira, hala nola Beasain, Ordizia, Tolosa, Andoain eta Lasarte. Biztanleak 126.000 inguru dira. Arro hau ibaiadar ugariz osatua dago, baina garrantzitsuenak, eskuinaldean, Urtsuaran, Agauntza, Zaldibia, Ibiur, Amezketa, Araxes, Zelai eta Leitzaran dira, eta ezkerraldean, Estanda, Zubiri, Salubita, Alkiza, Asteasu, Abalotz, Santiago eta Altxerri.

Lareoko urtegiak (2,1 Hm^3) eta Arriarangoak (3,2 Hm^3) hornitzen dute Goierri aldea. Lareoko urtegiak, gainera, emaria dakarkio Agauntza ibaiari. Beste alde batetik, Ibiurko urtegiak (7,6 Hm^3), berriki egindakoak, Tolosaldea hornitzen du. Lasarte eta Usurbilgo herriak Añarbeko urez hornitzen dira. Saneamenduari dagokionez, Goierriko herri gehienak jasota daude, eta isurkinak Legorretako Gaikao hondakin-uren araztegian tratatzen dira; kolektore hori 2003. urtean jarri zen martxan. Tolosaldean, kolektoreak ia amaiturik daude, eta Adunako HUA 2011. urtean jarri zen martxan.

Ibaiko habitatari dagokionez, Aralar eta Aizkorriko mendilerroetatik igarotzen diren guneak kontserbazio-egoera onean daude. Ardatz nagusiaren eta ibaiadar batzuen beheko ibarrak erasanda daude, herriguneak, industrialdeak nahiz azpiegiturak ezarri baitira. Isurketek, ibai-bideratzeek eta aprobetxamendu hidroelektrikoek larri degradatu dute ibaiko habitata. Aprobetxamendu hidrauliko ugariak nabarmentzen dira; zehazki, 50 baino gehiago daude erroldatuta, eta 30 inguruk dute aprobetxamendu hidroelektrikoa. Leitzaran ibaia da gehien erasandakoa, era horretako aprobetxamenduen kopuruagatik eta tamainagatik.

5.1.4.2. EMARIA (ORIA)

Jarraian, laburki azaltzen dira Oria ibaian Lasarteko neurketa-estazioan lortutako emarien datuak:

Urria	4,376
Azaroa	11,357
Abendua	55,668
Urtarrila	49,023
Otsaila	118,394
Martxoa	58,215
Apirila	16,665
Maiatza	14,225
Ekaina	10,436
Uztaila	5,174
Abuztua	5,047
Iraila	4,947

48. taula. Oria ibaiaren ur-emariaren datuak - 2014/15. urtea. Hilabeteko batez bestekoak (m3/s).

	Ur emaria (m3/s)	Emari espezifikoa (l/s/km^2)
Urteko batez b. emaria	29,460	36,326
Hileko max.	118,394	148,643
Hileko min.	4,376	5,494

49. taula. Oria ibaiko ur-emariaren datuak - 2014/15. urte hidrologikoa.



23. irudia. Lasarte-Oriako batez eguneko batez besteko ur-emaria, 2014/15. urtea.

2014-2015 urte hidrologikoa ohikoa baino hezeagoa izan da (29,460 m3/s). Otsaila izan da hilabeterik emaritsuena, alde handiz; ohi baino emari nabarmen handiagoak izan dira. Modu berean, abendua, urtarrila eta martxoa bereziki emaritsuak izan dira. Bestalde, ohi baino lehorragoa izan da udaberria. Urria hilabeterik sikuena izan da; ohi baino emari askoz txikiagoekin. Azaroan ere ohi baino emari baxuagoak bildu dira. Gainontzekoan, uztaila, abuztua eta irailan ohikoa baino agorraldi lehorragoa pairatu da.

5.1.4.3. URAREN KALITATE FISIKO-KIMIKOA (ORIA)

Ondorengo taulan, laburki azaltzen da Oria ibaian eginiko laginketetan zer emaitza fisiko-kimiko lortu diren nagusiki:

ESTAZIOA	IBAIA	Lagink. Kop.	Tª (ºC)	pHa	Eroan. (µS/cm)	Ox.Dis. (mg/l)	PO_4 (mg/l)	DQO (mg/l)	NH_4 (mg/l)	Arrain gait.
Zegama	Oria	2	17,0 – 18,4	8,2 – 8,3	574 - 1096	9,12 – 9,51	<D.M	-	<D.M – 0,08	Izokin
Segura	Oria	14	8,3 – 23,2	8,1 – 8,6	263 - 1046	9,16 – 12,48	<D.M – 0,18	<D.M – 32	<D.M – 0,07	Zipri
Beasain ib. gora	Oria	7	8,2 – 21,3	8,3 – 8,8	317 - 805	9,61 – 12,32	<D.M– 0,15	<D.M – 22	<D.M – 0,10	Izokin
Beasain Igartza	Oria	2	19,2 – 22,9	8,4 – 8,5	551 - 622	9,18 – 9,30	0,08 – 0,12	-	0,08 – 0,11	Zipri
Ordizia	Oria	14	9,0 – 23,0	8,1 – 8,7	254 - 520	8,63 – 12,33	<D.M– 0,20	<D.M – 39	<D.M – 0,95	Zipri
Legorreta HUA Beh	Oria	2	19,3 – 23,0	8,1 – 8,4	425 - 487	8,81 – 9,51	0,25 – 0,39	-	0,06 – 0,66	Zipri
Ikaztegieta	Oria	14	8,9 – 22,5	8,1 – 8,6	254 - 610	8,64 – 12,85	0,06– 1,18	<D.M – 47	<D.M – 0,48	Zipri
Araxes ib. gora	Oria	14	7,8 – 21,9	8,1 – 8,8	261 - 620	9,04 – 12,45	<D.M– 0,66	<D.M – 44	<D.M – 0,66	Zipri
Irura	Oria	14	8,4 – 20,7	8,2 – 8,5	284 - 618	8,60 – 12,28	<D.M– 0,24	<D.M – 28	<D.M – 0,17	Izokin
Andoain	Oria	14	8,2 – 20,6	8,0 – 8,3	271 - 533	8,55 – 12,46	0,05– 0,30	<D.M – 32	<D.M – 0,18	Izokin
Usurbil	Oria	14	7,8 – 21,0	7,9 – 8,3	251 - 522	7,40 – 13,26	0,06 – 0,49	<D.M – 38	<D.M – 0,60	Izokin

50. taula. Oria ibaiko datu fisiko-kimikoak – 2014-2015. urte hidrologikoa (balio minimo eta maximoak)

Datuak interpretatzeko garaian, kontuan hartu behar da bi lagin bakarrik hartu direla Zegaman, Beasain Igartzan eta Legorretako HUAn ibaian behera dauden estazioetan. Beasainen, ibaian gora, 7 laginketa egin dira, eta gainerako estazioetan, berriz, 14.

Uraren tenperatura altuak izan dira Oriaren ardatzean, eta behin baino gehiagotan gainditu da 21,5 ºC-ko muga, zehazki Segura, Beasain Igartza, Ordizia, Legorretan ibaian behera dagoen HUAn, Ikaztegieta eta Araxes ibaian gora; beraz, egokiak dira ziprinidoentzat, baina ez izokinkideentzat. Gainerako estazioetan ere tenperatura maximo handiak lortu dira, baina izokinkideak izateko gaitasun-mugaren azpitik hala ere.

Bestalde, oxigenazio-baldintzak egokiak dira oro har; beraz, ez da faktore mugatzailea arrainen bizitzarentzat. Hala ere, Usurbilen agorraldian nolabaiteko oxigeno-urritasuna dago, 7,40 mg/l-ko balio minimoekin.

Amonioari dagokionez, egoerak nabarmen egin du hobera azken urteotan saneamendu- eta arazketa-azpiegituren gauzatzean emandako aurrerapausoei esker. Izan ere, Oria ibaiaren ardatzean lehen aldiz, behin ere ez da amonioa mugatzailea izan arrainen bizitzarentzat 2014 urtean. Hala, goi-ibarrean, parametro hau ez da atzeman edo oso kontzentrazio txikietan topatu da. Ordiziatik aurrera, nolabaiteko igoera atzeman da; orokorrean kontzentrazio baxuetan agertu arren, puntualki balio altuak behatzen dira, Irura eta Andoainen salbu, non balio baxuak erregistratu diren. Balio maximoak Ordizia eta Ikaztegietan erregistratu dira, 0,95 mg/l eta 0,84 mg/l, hurrenez hurren.

2011n Adunako HUA abiarazi zenetik, kutsadura murriztu da behe-ibarrean. Horri esker, 2012an kutsadura organikoa nabarmen jaitsi zen Iruran aurreko urteekin alderatuta; aurten Andoainen egoera hobea da. Bestalde, goi-ibarrean, Legorretako Gaiako HUA 2003 abian jarri zenetik, hobekuntza nabaria da, are gehiago saneamendu-azpiegiturak gauzatzen doazen heinean. Hala, 2008an, kutsadura nabarmen murriztu zen Ordizian eta Ikaztegietan.

Fosfatoei dagokienez, eutrofizazio-maila handia detektatu da Legorreta HUA behetik hasi eta bokaleraino. Aldiz, azken urteetan kontzentrazioen beherakada nabarmena behatu da; honela, aurten, aurreko urteko datuekin alderatuta beherakada ikusten da. Balio máximoak Irura eta

Ikaztegietan hauteman dira, 0,24 mg/l eta 1,18 mg/l, hurrenez hurren. Bestalde, nitratoak kontzentrazio baxuetan aurkitzen dira orokorrean.

Azkenik, metalen presentzia oso txikia da, eta ez da toxikotasunik atzeman.

Oro har, mineralizazio-maila ertaina da; kasuren batean eroankortasunak 1000 µS/cm-tik gorakoak izan dira ibai-buruetan, arro drainatzailearen izaera geologikoaren ondorioz. Urteko batez bestekoak 367 µS/cm (Usurbil) eta 835 µS/cm (Zegama) bitartean dabiltza. Bestalde, pHaren balioak ur naturalei dagozkienak izan dira laginketa-estazio guztietan.

Laburbilduz, Oriaren ardatza egokia da izokinkideentzat, 5 estazioetan salbu, Oria ibaiaren goi- eta beher-ibarretan; erdi-ibarrak gaitasuna erakusten du Ziprinidoentzako, tenperaturak zuzentarauak ezartzen duen 21,5º C-ko muga gainditzen baitu. Gainerakoan, oxigenazioa egokia da oro har, nahiz eta agorraldian nolabaiteko urritasuna egon, batik bat Usurbilen. Amonioari dagokionez, behin ere ez da mugatzailea. Mantenugaiei dagokienez, fosfato dezente dago Legorreta HUAtik behera, nahiz eta azken urteotan murriztu. Nitratoak kontzentrazio baxuetan daude.



24. irudia. Oria ibaiko kalitate fisiko-kimikoa – 2014-2015. urte hidrologikoa.

Oriaren ibaiadarrei dagokienez, hauexek dira daturik esanguratsuenak:

ESTAZIOA	IBAIA	Lagin. Kop.	Tª (ºC)	pHa	Eroan. (µS/cm)	Ox.Dis. (mg/l)	PO_4 (mg/l)	DQO (mg/l)	NH_4 (mg/l)	Arrain gait.
Urtsuaran bokalea	Urtsuaran	3	10,6 – 19,2	8,5 – 8,6	388 - 493	9,66 – 12,05	<D.M. – 0,29	<D.M – 16	0,08 – 0,19	Izokin
Lazkao zubia	Agauntza	7	9,1 – 22,4	8,2 – 8,5	232 – 343	9,26 – 12,06	<D.M – 0,07	<D.M - 23	<D.M	Zipri
Troia mea. Ib beh.	Estanda	2	20,0 – 24,2	8,3- 8,4	706 - 791	8,12 – 8,67	0,13 – 0,15	-	0,14 – 0,31	Zipri
Ormaiztegi	Estanda	7	9,3 – 22,6	8,1 – 8,5	296 - 810	8,79 – 12,06	<D.M – 0,19	<D.M - 31	<D.M – 0,19	Zipri
Sta.Lutzia	Santa Lutzia	2	19,6 – 22,8	8,3 – 8,5	584 - 589	8,98 – 10,56	0,06 – 0,08	-	0,07 – 0,12	Zipri
Arriaran ib. beh.	Arriaran	2	17,3 – 21,8	8,4 – 8,6	379 - 389	9,69 – 9,91	0,05 – 0,06	-	<D.M	Izokin
Zaldibia ib. beh.	Amundarain	7	9,5 – 20,3	8,2 – 8,7	231 - 329	10,10 -12,10	<D.M – 0,15	<D.M	<D.M – 0,37	Zipri
Alegi	Amezketa	7	9,8 – 18,5	8,1 – 8,5	251 - 559	9,80 – 11,77	<D.M – 0,22	<D.M - 15	<D.M – 0,21	Izokin
Salubita	Salubita	3	11,7 – 13,6	8,0 – 8,1	307 - 374	10,43 – 11,73	0,05 – 0,08	<D.M	<D.M	Izokin
Araxes	Araxes	7	10,0 – 19,7	8,3 - 8,6	330 - 592	9,55 - 11,81	<D.M – 0,06	<D.M	<D.M – 0,06	Izokin
Berastegi	Berastegi	7	11,2 – 18,5	8,3 – 8,6	466 - 909	9,81 – 11,83	<D.M – 0,25	<D.M	<D.M – 0,08	Izokin
Billabona	Asteasu	7	9,5 – 17,3	8,2 – 8,5	326 - 521	9,62 – 11,83	0,06 – 0,15	<D.M - 18	<D.M – 0,06	Izokin
Leitz. Andoain	Leitzaran	7	8,7 – 19,3	7,9 – 8,2	125 - 203	9,13 – 12,27	<D.M – 0,08	<D.M - 17	<D.M – 0,09	Izokin

51. taula. Oria ibaiko ibaiadarren datu fisiko-kimikoak – 2014-2015 (balio maximo eta minimoak).

Ursuaran ibaiak emaitza onak izan ditu orokorrean, Izokinentzako egokiak diren urak direlarik.

Agauntza ibaia, Lazkao zubian, egokia da ziprinidoentzat, baina ez izokinkideentzat. Izan ere, tenperatura-muga gainditzen du, 22,4 ºC-ko balioarekin. Gainerakoan, parametro guztiek dituzte balio egokiak eta uraren kalitate fisiko-kimikoa ona dela adierazten dute.

Estanda ibaian, Troya meategian behera dagoen estazioan eta Ormaiztegikoan, uraren tenperatura oso altua da, hortaz, mugatzailea da izokinkideentzat. Era berean, oxigenazioa ez da nahikoa izokinkideentzat. Gainerakoan, amonio eta fosfatoen halako presentzia ageri da.

Santa Lutzia ibaiadarraren bokalean, adierazi behar da 2 lagin bakarrik hartu direla. Emaitzek adierazten dute ur egokiak direla ziprinidoentzat, tenperaturak 21,5 ºC-ko muga gainditu baitu (datu maximoa 22,8 ºC izan da). Amonio- eta fosfato-kontzentrazio baxuak daude.

Arriaran ibaiko urek kalitate fisiko-kimiko ona dute, eta, beraz, izokinkideak bizitzeko ur egokitzat hartzen dira, Salubita ibaia lez.

Amundarain ibaia, Zaldibian behera, kutsadura organikoaren beherakada nabarmena behatu da, hortaz, aurreko laginketetan ez bezala, kasu honetan ez da arrain-biziarentzako mugagarria. Honela, aurten, ibai-tarte hau Izokinarentzako gai dela adierazten du. Tenperaturari dagokionez, apur bat altua dela esan daiteke, baina ez du izokinentzako muga den balio gainditzen. Fosfatoaren nolabaiteko presentzia detektatu da.

Amezketa ibaia, Alegian, egokia da izokinkideentzat. Parametro guztiek dituzte balio gutxi-asko egokiak. Amonio- eta fosfato-kontzentrazio txikiak detektatu dira. Salubitan lortutako balio egokiek izokinentzako eremu egokia dela adierazten du.

Araxes ibaiak, bokalean, baldintza egokiak ditu izokinkideak bizitzeko. Tenperatura- eta oxigeno-baldintza egokiak ikusi dira. Ez da detektatu jatorri organikoa duen kutsadurarik, ez eta mantenugaiek eragindakorik ere. Tarte horretan, 2011. urtetik aurrera, jaitsiera nabarmena sumatu da kutsadura-mailetan; eta aurten, kasu guztietan, detekzio-mailaren azpitik egon da. Hortaz, ur egokiak dira izokinkideak bizitzeko. Amaroz auzoko ur zikinak kolektore nagusira eta, beraz, Adunako HUAra bildu izanak uraren kalitate hobekuntza honetan zerikusia izan du.

Berastegi eta Asteasu ibaietan lortutako datu fisiko-kimikoek adierazten dute ur egokiak direla izokinkideentzat. Parametroek, oro har, balio egokiak dituzte. Amonioaren presentzia minimoa da, baina fosfatoen presentzia apur bat detektatu da.

Era berean, Leitzaran ibaiaren bokalean lortutako emaitzek adierazten dute kalitate fisiko-kimiko ona duela, eta, beraz, ur egokiak direla izokinkideak bizitzeko.

Gainera, aurten, laginketa espezifikoak egin dira Oria, Amezketa eta Asteasu ibaietan:

ESTAZIOA	IBAIA	Lagink. kop.	Tª (ºC)	pHa	Eroan. (µS/cm)	Ox.Dis. (mg/l)	PO_4 (mg/l)	DQO (mg/l)	NH_4 (mg/l)	Arrain. Gait.
Aduna HUA ib. beh	Oria	2	18,9 – 20,8	8,1 – 8,2	403 - 529	8,14 – 8,62	0,12	--	0,10 – 0,11	Zipri
Estanda elkargunetik gora	Oria	7	8,3 – 21,6	8,3 – 8,8	378 - 910	8,34 – 12,31	<D.M – 0,38	<D.M - 18	<D.M – 0,10	Zipri
Bedaio ib. g.	Amezketa	2	13,0 – 19,7	8,3 – 8,4	294 - 565	9,21 – 10,68	0,05 – 0,16	--	<D.M – 0,14	Izokin.
Olentzo elkargunetik gora	Asteasu	2	17,0 – 17,9	8,3 – 8,4	457 - 482	9,37 – 9,66	0,09 – 0,10	--	<D.M	Izokin.

D.M.: Detekzio-muga

52. taula. Oria arroko datu fisiko-kimikoak – 2014-2015. urtea. Laginketa-espezifikoak (balio minimo eta maximoak)

Estazio bakoitzerako dauden laginketa eskasak direla eta, arduraz egin behar da emaitzen interpretazioa eta arrainaren gaitasunaren sailkapena.

Oria ibaia, Adunako HUAn behera dagoen gunean, egokia da ziprinidoen bizitzarako, oxigenoaren eskasia dela eta. Tenperaturak apur bat altuak izan dira, baina ez du 21,5 ºCko muga gainditzen. Gainerakoan, kutsadura jaitsi egin da, amonio kontzentrazio baxuekin. Fosfatoen nolabaiteko presentzia behatu da.

Oria ibaian, Estanda ibaiaren bateratzea baino lehen, tenperatura altua erregistratu da, hortaz, ziprinidoentzako egoki moduan sailkatu da, ez ordea salmonidoentzako. Gainontzekoan, kutsadura organikoaren indikatzaileen kontzentrazio baxuak erregistratu dira, baita mantenugaien kasuan ere.

Amezketa ibaiak, Bedaioren bateratzean baino lehen, izokinkideentzako urak aurkezten ditu. Kutsadura organiko nahiz mantenugaiak kontzentrazio baxuetan mantendu dira.

Azkenik, Asteasu ibaiak, Olentzo bateratzetik behera, izokinkideentzako egokiak diren urak aurkezten ditu lortutako emaitza onak direla eta.

5.1.4.4. KALITATE FISIKO-KIMIKOAREN JARRAIKO AZTERKETA (ORIA)

Oria ibaiaren arroan 7 estazio iraunkor daude, zeintzuek etengabe ematen baitituzte uraren kalitateari buruzko datuak: Alegin eta Lasarten, ardatz nagusian; eta gainontzeko 5ak Estanda, Araxes, Amundarain, Berastegi eta Leitzaran ibaiadarretan.

ALEGIAKO neurketa jarraituko estazioak datu hauek ematen ditu: pHa, uraren tenperatura, eroankortasuna, oxigeno disolbatua, uhertasuna, materia organikoa, amonioa eta ortofosfatoak. Funtzionamendua ona da, eta datu-eskuragarritasuna handia da, egunen % 90 eta 99 artean.

	pHa	Uraren T[a]	Eroan. (µS/cm)	Ox. Dis. (mg/l)	Uhert. (UNF)	Mat Org (m-1)	NH_4+ (mg/l)	Ortofosfatoak (mg/l)
BATEZ BES.	7,8	15,7	448	9,91	26	5,3	0,10	0,14
DESB.TIP.	0,2	5,1	95	1,72	50	1,9	0,07	0,23
MAX.	8,3	26,7	631	12,94	423	12,5	0,48	2,17
MIN.	7,2	5,6	240	4,52	3	1,7	0,01	0,00
N	365	331	364	363	363	335	359	358
URRI. BAT.B.	7,8	17,3	577	9,07	11	7,8	0,07	0,44
AZ. BAT.B.	8,0	13,0	458	10,37	24	6,7	0,12	0,14
ABE. BAT. B.	7,9	10,4	353	11,60	41	4,9	0,08	0,08
URT. BAT. B.	7,9	8,6	399	12,07	40	4,3	0,18	0,10
OTS. BAT. B.	7,9	8,7	357	12,09	49	4,4	0,14	0,06
MAR. BAT. B.	7,9	13,9	350	11,25	29	4,4	0,04	0,03
API. BAT. B.	8,0	14,3	381	10,63	11	3,3	0,07	0,12
MAI. BAT. B.	7,9	16,3	421	9,45	8	4,6	0,11	0,39
EKA. BAT. B.	7,7	19,9	463	8,62	35	4,6	0,08	0,07
UZT. BAT. B.	7,6	23,6	557	7,08	12	6,6	0,07	0,13
ABU. BAT. B.	7,6	21,6	497	7,91	37	5,7	0,08	0,04
IRA. BAT. B.	7,7	18,4	548	9,07	18	6,0	0,11	0,11

53. taula. Alegin kokatuta dagoen neurketa jarraituko estazioaren estatistika, Oria ibaia – 2014/15.urte hidrologikoa (eguneroko batezbestekoetan oinarritua).

pHaren balioak ur naturalei dagozkienak izan dira, eta urteko batez bestekoa 7,8 izan da. Uraren tenperaturari dagokionez, eguneko batez besteko balio maximoa handia izan da, 26,7 ºC, eta minimoa, berriz, 5,6 ºC. 52 egunetan gainditu da 21,5 ºC-ko muga, hau da, erregistroen %16. Beraz, ezin dira jo ur egokitzat izokinkideentzat, baina bai ziprinidoentzat. Oxigenazio aldetik, eguneko batez bestekoak adierazten du oxigenazioa eskasa dela, 4,52 mg/l; datu maximoa, aldiz, 12,94 mg/l da. Kasuen %33an oxigeno disolbatua 9 mg/l-ren azpitik dago; ehuneko altua den arren ez da bateraezina izokinkide-bizitzarekin, arautegiaren arabera. Hileko batez bestekorik txikiena uztailean izan da, 7,08 mg/l; eta handiena, berriz, otsailean, 12,09 mg/l.

Eroankortasunaren urteko batez bestekoak, 448 µS/cm mineralizazio ertaina dagoela adierazten du. Eguneko batez bestekoak 240 eta 631 µS/cm bitartean dabiltza. Uhertasunaren batez bestekoa 26 UNF izan da, eta eguneko maximoa oso handia izan da, 423 UNF. Otsailak du batez bestekorik handiena, hots, 49 UNF. Uhertasuna areagotu izana uraldiekin lotuta dago normalean, baina baliteke egindako obra batzuen ondorio izatea ere bai. Detektatutako materia organikoari dagokionez, urteko batez bestekoa 5,3 m^{-1} da. Eguneko batez besteko maximoa 12,5 m^{-1} da (materia organiko asko dagoela esan nahi du), eta datu minimoa, berriz, 1,7 m^{-1}. Amonioari dagokionez, halako presentzia ageri da. Eguneko maximoa altu samarra da, 0,48 mg/l, eta urteko batez bestekoa, aldiz, 0,10 mg/l. Hileko batez bestekoak 0,04 mg/l (martxoa) eta 0,18 mg/l (urtarrila) artean dauden. Balio horiek bateragarriak dira izokinkide-bizitzarekin, behin ere ez baita gainditu 1 mg/l-ko muga. Azkenik, fosfatoen halako presentzia ageri da, eta eguneko balio maximoa 2,17mg/l-koa da. Hileko batez bestekorik handiena urrian izan da, 0,44 mg/l, eta horrek eutrofia dagoela adierazten du; hileko batez bestekorik txikiena aldiz martxoan izan da, 0,03 mg/l.

Laburbilduz, gune hau ez da egokia izokinkideentzat, baina bai ziprinidoentzat, tenperatura altuak direla-eta. Gainera, oxigeno-urritasuna atzeman da agorraldian; halere, ez da bateraezina izokinkide-bizitzarekin, arautegiaren arabera. Bestalde, kutsadura organiko pixka bat antzeman da, nahiz eta ez den mugatzailea arrainen bizitzarentzat.



25. irudia. Alegiko kalitate fisiko-kimiko jarraitua – 2014-2015. urte hidrologikoa.

Uztailaren 16tik 20era, hamar minutuan behin aztertu dira datuak. Batez beste 24,9 ºC-ko giro-tenperatura lortu da. 19,8 ºC eta 38,6 ºC bitarteko tenperaturak lortu dira. Oxigeno disolbatua, batez beste baxua da, 5,45 mg/l. Oxigenazioa oso urria da epealdi horretan, kasuen % 100ean 9 mg/l-tik behera egon baita, eta % 81an 7 mg/l-tik beherako datuak lortu dira. Gainera, uraren tenperaturak oso handiak dira, 24,1 ºC eta 28,2 ºC bitartean, eta batez bestekoa 25,8 ºC izan da. Kasu guztietan gainditu da 21,5 ºC-ko muga. Laburbilduz, tenperatura- eta oxigeno-baldintzak oso txarrak izan dira, batez ere izokinkideentzat, epealdi horretan.

	Ox.Dis. (mg/l)	Uraren Tª (º C)	Giro Tª (º C)
Batez best.	5,45	25,8	24,9
Desb.tip.	1,71	1,0	3,8
Max.	8,45	28,2	38,6
Min.	1,46	24,1	19,8
N	720	720	720
Diferentzia	6,99	4,1	18,8

54. taula. Estatistika niktimerala Alegin (Oria ibaia). 2015ko uztaila.



26. irudia. Oria ibaiko uraren kalitatearen eboluzioa, Alegin. Hamar minuturoko datuak.

LASARTEko neurketa jarraituko estazioak 9 parametro hauen datuak ematen ditu: pHa, uraren tenperatura, eroankortasuna, oxigeno disolbatua, uhertasuna, materia organikoa, amonioa, solido esekiak eta ortofosfatoak. Estazioaren funtzionamendua ona da; parametroek egunen % 93 baino gehiagotan lortu dituzte datuak.

	pHa	Uraren T^a	Eroan. (µS/cm)	Ox. Dis (mg/l)	Uhert. (UNF)	Mat. Org (m-1)	NH_4 + (mg/l)	Sol. esek. (mg/l)	Ortofosf. (mg/l)
BATEZ B.	7,7	15,2	404	10,46	17	4,6	0,13	29	0,06
DESB.TIP.	0,2	4,4	75	1,52	33	1,6	0,07	71	0,05
MAX.	8,2	24,2	590	15,04	231	12,0	0,43	722	0,45
MIN.	7,1	6,6	228	7,92	2	1,4	0,02	3	0,01
N	356	356	347	356	355	342	352	353	353
URRI. B.B.	7,8	17,6	511	9,07	5	5,6	0,16	6	0,10
AZ. B.B.	7,8	13,5	416	10,48	22	5,6	0,13	34	0,11
ABE. B. B.	7,9	10,8	315	12,46	41	4,2	0,11	61	0,04
URT. B. B.	7,9	9,3	373	12,62	20	3,7	0,14	64	0,05
OTS. B. B.	7,8	9,2	324	12,54	40	4,5	0,15	66	0,04
MAR. B. B.	7,7	11,2	332	11,85	26	4,1	0,08	38	0,05
API. B. B.	7,8	13,9	369	10,80	10	4,3	0,13	12	0,03
MAI. B. B.	7,6	15,7	383	9,92	10	3,8	0,05	10	0,04
EKA. B. B.	7,4	18,5	387	9,50	16	4,3	0,13	29	0,05
UZT. B. B.	7,5	22,2	482	8,65	5	5,3	0,19	5	0,11
ABU. B. B.	7,7	20,9	470	8,92	11	4,8	0,14	13	0,07
IRA. B. B.	7,7	18,1	458	9,31	9	4,3	0,11	11	0,07

55. taula. Lasarten kokatuta dagoen neurketa jarraituko estazioaren estatistika, Oria ibaian – 2014/15.urte hidrologikoa (eguneroko batezbestekoetan oinarritua)

pHaren eguneko batez bestekoak 7,1 eta 8,2 artean ibili dira, eta urteko batez bestekoa 7,7 izan da. Beraz, ur naturalei dagozkien balioak ditu. Uraren tenperaturari dagokionez, eguneko batez besteko maximoa altua da, 24,2 ºC, eta minimoa, berriz, 6,6 ºC izan da. 35 alditan (%10) gainditu da 21,5 ºC-ko muga; beraz, araudiaren arabera ez da bateragarria izokinkide-bizitzarekin, baina bai ziprinido-bizitzarekin. Tenperaturarik handienak uztailean izan dira, non hileko batez bestekorik altuena erregistratu den, 22,2 ºC. Hilabeterik freskoena, berriz, abendua izan da, batez beste 9,2 ºC.
Oxigenoari dagokionez, urteko batez bestekoa egokia izan da, 10,46 mg/l. Kasuen %81etan, 9 mg/l-ak gainditu dira; beraz, urak egokiak dira izokinkideentzat, parametro horren arabera. Oxigenazioa nahikoa egokia da urte osoan zehar; uztailean erregistratu dira daturik baxuenak, 7,92 mg/l-ko eguneko minimoarekin. Hileko batez bestekorik handiena urtarrilean izan da, 12,62 mg/l; eta txikiena, berriz, uztailean, 8,65 mg/l.

Eroankortasunaren urteko batez bestekoak (404 µS/cm) adierazten du mineralizazio ertaina dagoela. Eguneko batez bestekoak 228 eta 590 µS/cm bitartean dabiltza. Uhertasunaren urteko batez bestekoa 17 UNFkoa izan da. Kasuen % 13etan gainditu dira 30 UNFak. Uhertasunaren areagotzeak uraldiekin bat datoz, baina obrek eragindako uherraldiak ere egon daitezke, kasu honetan, AHTaren obrek eraginda. Datu maximoa oso altua da, 231 UNF, abenduan.

Bestalde, materia organikoaren urteko batez bestekoa 4,6 m^{-1} da, normala, beraz. Eguneko batez besteko maximoa altua da, 12,0 m^{-1}; eta minimoa, berriz, 1,4 m^{-1}. Hileko batez bestekoak 3,7 m^{-1} (urtarrila) eta 5,6 m^{-1} (urria-azaroa) artean daude. Amonioari dagokionez, halako presentzia dago eta urteko batez bestekoa 0,13 mg/l da. Eguneko batez bestekoak 0,02 eta 0,43 mg/l artean daude. Behin ere ez da gainditu 1 mg/l-ko muga; beraz, tarte hori egokia da arrainak bizitzeko, araudiaren arabera. Aipatu behar da, 2011an Adunan Uraldeko HUA martxan jarri zenetik, kutsadurak behera egin du, eta joera horrek bere hartan jarraitzen du gaur egun.

Ortofosfatoen datuei begiratuta, nolabaiteko presentzia detektatu da, nahiz eta orokorrean kontzentrazio baxuetan aurkitu. Nolabaiteko jaitsiera ikusten da, aurreko urteekin alderatuz gero. Eguneko batez besteko balioak 0,01 eta 0,45 mg/l artean dabiltza, eta urteko batez

bestekoa 0,06 mg/l da. Hileko batez bestekoak 0,03 mg/l eta 0,11 mg/l artean daude. Baliorik altuenek nolabaiteko eutrofia maila adierazten dute.

Solido esekien urteko batez bestekoa 29 mg/l da; parametro hori hertsiki lotuta dago uhertasunarekin, eta, beraz, uraldiekin edo ibilguari eragiten dioten obrekin. Hileko batez bestekorik handiena otsailean izan da, eta balio handia erregistratu da, 66 mg/l. Batez besteko minimoa, ostera, uztailean izan dira, 5 mg/l-ko balioa hain zuzen.

Laburbilduz, uraren tenperatura handia mugatzailea da izokinkideak bizitzeko, baina ez ziprinidoak bizitzeko, araudiaren arabera. Gainerako parametroak ez dira mugatzaileak. Oxigenazio-baldintzak egokiak dira orokorrean. Gainerakoan, kutsadura organiko pixka bat detektatu da; hala ere, ikusi da beherantz egin duela Adunako HUA abian jarri zenetik.



27. irudia. Lasarteko kalitate fisiko-kimiko jarraitua – 2014-2015. urte hidrologikoa.

Uztailaren 18tik 22ra, hamar minutuan behin erregistratutako datuak aztertu dira. Tarte horretako giro-tenperaturan 14,9 ºC-ko oszilazioa izan da egunetik gauera, 18,2 ºC eta 33,1 ºC bitartean ibili baita. Oxigeno disolbatuaren batez bestekoa 8,20 mg/l da; erregistratutako minimoa 7,30 mg/l da, eta maximoa 9,78 mg/l. Egunaren eta gauaren arteko diferentzia 2,48 mg/l-koa da. Balioen ehuneko handia, % 83, daude 9 mg/l-aren azpitik; ez da topatu 7 mg/l-tik beherako kontzentraziorik. Horrek esan nahi du oxigeno-gabezia handia dagoela. Uraren tenperatura, berriz, 21,9 ºC minimoaren eta 24,8 ºC maximoaren artean ibili da (2,9 ºC-ko aldakuntza). Batez besteko altua lortu da, 23,6 ºC. Erregistroen ehuneko handi batek (% 42) gainditu du izokinkideentzako 21,5 ºC-ko muga-tenperatura. Laburbilduz, tenperatura eta oxigeno aldetik arazo larria dago epealdi horretan.

	Ox. Dis. (mg/l)	Uraren Tª (º C)	Giro Tª (º C)
Batez best.	8,20	23,6	22,0
Desb.Tip.	0,67	0,7	3,0
Max.	9,78	24,8	33,1
Min.	7,30	21,9	18,2
N	706	707	720
Diferentzia	2,48	2,9	14,9

56. taula. Estatistika niktimerala Lasarten (Oria ibaia). 2015ko uztaila.



28. irudia. Oria ibaiko uraren kalitatearen eboluzioa, Lasarten. Hamar minuturoko datuak.

Estanda errekan, SALBATOREko estazio automatikoak bost parametroren informazioa ematen du: pHa, uraren tenperatura, eroankortasuna, oxigeno disolbatua eta uhertasuna. Erregistro-kopuru handia dago, egunen % 95tik gorakoa.

	pHa	Uraren Tª	Eroan. (µS/cm)	Ox. Dis. (mg/l)	Uhert. (UNF)
BATEZ B.	7,9	14,5	558	10,14	32
DESB.TIP.	0,1	4,6	120	1,13	56
MAX.	8,3	23,7	726	12,90	406
MIN.	7,6	5,5	208	7,00	2,6
N	351	351	350	351	350
URRI. BAT.B.	7,9	16,5	697	9,65	11
AZA. BAT.B.	7,9	12,6	623	9,88	45
ABE. BAT. B.	8,1	10,3	462	11,32	57
URT. BAT. B.	8,0	8,3	476	11,72	51
OTS. BAT. B.	8,0	8,3	407	11,75	86
MAR. BAT. B.	8,0	10,4	439	10,98	40
API. BAT. B.	7,9	13,5	531	9,82	16
MAI. BAT. B.	7,9	15,8	596	9,64	14
EKA. BAT. B.	7,9	18,5	563	9,37	28
UZT. BAT. B.	7,8	21,4	627	8,81	7
ABU. BAT. B.	7,8	20,2	642	8,99	11
IRA. BAT. B.	7,9	16,8	651	9,74	28

57. taula. Salbatoren kokatuta dagoen neurketa jarraituko estazioaren estatistika, Estanda ibaian – 2014/15.urte hidrologikoa (eguneroko batezbestekoetan oinarritua).

pHaren balioak ur naturalei dagozkienak izan dira, eta eguneko batez bestekoak 7,6 eta 8,3 artekoak izan da. Uraren tenperaturari dagokionez, urteko batez bestekoa 14,5 ºC da. Eguneko tenperatura maximoa altua izan da, eta 23,7 ºC-tara iritsi da; minimoa, aldiz, 5,5 ºC izan da. 15 alditan (% 8) gainditu da 21,5 ºC-ko muga; beraz, ez dira ur egokiak izokinkideentzat, baina bai ziprinidoentzat. Uda-sasoian tenperatura altuak izan dira, eta hileko maximoa uztailean izan da, 21,4 ºC.

Oxigenazioari begiratuta, eguneko batez besteko balioak 7,00 mg/l eta 12,90 mg/l artean dabiltza, eta urteko batez bestekoa 10,15 mg/l da. Kasuen % 85etan izan dira 9 mg/l-tik gorako kontzentrazioak; beraz, urak egokiak dira izokinkideentzat, parametro horren arabera. Nolabaiteko gabezia ikusi da uda-sasoian, baina eguneko batez besteko kontzentrazioak inoiz ez dira izan 7 mg/l-tik beherakoak. Uztailean izan da hileko batez besteko minimoa, 8,81 mg/l; balio maximoa, ostera, otsailean izan da, 11,75 mg/l.

Eroankortasunari dagokionez, urteko batez bestekoak (558 µS/cm) mineralizazio ertaina dagoela adierazten du; aldakuntza-tartea 208 eta 726 µS/cm artekoa izan da. Hileko batez besteko altuena urrikoa izan da (697 µS/cm), eta txikiena, ostera, otsailekoa (407 µS/cm). Uhertasunari dagokionez, urteko batez bestekoa 32 UNF da. 82 alditan gainditu dira 30 UNFak, egunen % 23an; hori lotuta dago unean uneko uraldiekin, bai eta ibilguari eragiten dioten obrak egitearekin ere.

Azkenik, tenperatura altuak mugatzaileak dira izokinkideentzat, baina ez ziprinidoentzat. Gainerakoan, uda-sasoian nolabaiteko oxigeno-gabezia hauteman da.



29. irudia. Salbatoreko kalitate fisiko-kimiko jarraitua – 2014-2015. urte hidrologikoa.

Uztailaren 17tik 21era, hamar minutuan behin aztertu dira datuak. Giro-tenperatura 17,9 ºC eta 35,6 ºC bitartean ibili da. Batez bestekoa 23,4 ºC-koa da. Oxigeno disolbatua 5,81 eta 11,36 mg/l artean ibili da, eta batez bestekoa 7,60 mg/l da. Erregistroen ehuneko handi bat (% 80) 9 mg/l-en azpitik dago, eta hori muga handia da izokinkideentzat; %41etan 7 mg/l-tik beherako datuak neurtu dira. Uraren tenperaturari dagokionez, minimoa 20,7 ºC izan da, eta maximoa 26,0 ºC. Beraz, aldakuntza-tartea 5,3 ºC-koa da. Erregistroen % 87ean gainditu dira 21,5 ºC-ak, eta baldintza horiek oso muturrekoak dira izokinkideentzat.

	Ox. Dis. (mg/l)	Uraren Tª (º C)	Giro Tª (º C)
Batez best.	7,60	23,0	23,4
Desb.Tip.	1,42	1,6	4,1
Max.	11,36	26,0	35,6
Min.	5,81	20,7	17,9
N	720	720	720
Diferentzia	5,55	5,3	17,7

58. taula. Estatistika niktimerala Salbatoren (Estanda ibaia). 2015eko uztaila.



30. irudia. Estanda ibaiko uraren kalitatearen eboluzioa, Salbatoren - hamar minuturoko datuak.

AMUNDARAINeko neurketa jarraituko estazioak 6 aldagai fisiko-kimikoen datuak eskaintzen ditu: pH, uraren tenperatura, eroankortasuna, oxigeno disolbatua, solido esekiak eta uhertasuna. Datu erabilgarrien kopurua oso altua da, egunen % 94a baino handiagoa. Jarraian, emaitzak aurkezten dira:

	pHa	Uraren Tª	Eroan. (µS/cm)	Ox. Dis. (mg/l)	Sol.esek. (mg/l)	Uhert. (UNF)
BATEZ B.	8,0	12,9	288	10,40	15	8
DESB.TIP.	0,1	3,2	34	1,01	20	15
MAX.	8,3	20,4	348	12,08	196	149
MIN.	7,7	7,1	198	8,22	5	1
N	361	361	361	361	347	361
URRI. BAT.B.	7,9	15,0	324	9,63	6	2
AZA. BAT.B.	8,2	11,7	294	10,61	16	8
ABE. BAT. B.	8,1	10,1	277	11,35	24	14
URT. BAT. B.	8,0	9,1	299	11,45	28	17
OTS. BAT. B.	8,0	9,2	266	11,52	29	18
MAR. BAT. B.	8,1	10,0	236	11,62	18	10
API. BAT. B.	8,2	11,4	240	10,98	11	4
MAI. BAT. B.	8,0	13,0	274	10,06	8	3
EKA. BAT. B.	8,0	14,8	299	9,82	10	4
UZT. BAT. B.	8,0	18,3	320	8,88	6	2
ABU. BAT. B.	8,0	16,9	314	9,20	11	7
IRA. BAT. B.	7,9	14,7	315	9,69	14	6

59. taula. Amundarain ibaiko neurketa jarraituko estazioaren estatistika – 2014/15.urte hidrologikoa (eguneroko batezbestekoetan oinarritua).

pHaren eguneko batez bestekoak 7,7 eta 8,3 artean ibili dira, eta urteko batez bestekoa 8,0 da. Balio horiek ur naturalei dagozkie. Uraren tenperaturari dagokionez, urteko batez bestekoa 12,9 ºC-koa izan da. Eguneko batez bestekoak 7,1 eta 20,4 ºC bitartean ibili dira. Kasuen % 100etan egon da tenperatura 21,5 ºC-tik behera; beraz, ur egokiak dira izokinkideentzat. Oxigeno disolbatuari dagokionez, urteko batez bestekoa 10,40 mg/l da, eta eguneko batez besteko balioak, berriz, 8,22 eta 12,08 mg/l artean ibili dira. Egunen % 90etan, 9 mg/l-ak gainditu dira;

beraz, urak egokiak dira izokinkideentzat, araudiaren arabera. Ez da izan 7 mg/l-tik beherako eguneko batez besteko baliorik. Uztailean izan da hileko batez besteko minimoa, 8,88 mg/l.

Eroankortasunari dagokionez, urteko batez bestekoak mineralizazio ertain-ahula dagoela adierazten du (288 µS/cm). Eguneko batez bestekoen aldakuntza-tartea 198 eta 348 µS/cm artekoa da. Solido esekiei dagokienez, urteko batez bestekoa 15 mg/l da; eta eguneko batez bestekoak 5 eta 196 mg/l artean daude. Uhertasunaren urteko bataztestekoa 8 UNFkoa da, eguneko bataz bestekoak 1 eta 149 UNF artean daudelarik. Solido esekien eta uhertasunaren areagotzea, oro har, uraldiekin dago lotuta.

Laburbilduz, parametro horien arabera, urak egokiak dira izokinkideentzat, tenperatura- eta oxigeno-baldintzak egokiak baitira oro har.



31. irudia. Amundaraineko kalitate fisiko-kimiko jarraitua – 2014-2015. urte hidrologikoa.

Abuztuaren 27tik 31ra, hamar minutuan behin aztertu dira datuak. Giro-tenperatura 13,9 ºC eta 35,9 ºC bitartean ibili da. Batez bestekoa 24,9 ºC-koa da. Oxigeno disolbatua 7,65 eta 9,92 mg/l artean ibili da, eta batez bestekoa 8,66 mg/l da. Erregistroen % 66a 9 mg/l-en azpitik dago, eta hori oxigenazio kondizio eskasa da. Uraren tenperaturari dagokionez, minimoa 16,4 ºC izan da, eta maximoa 21,7 ºC, kasuen %34an izokinkideentzako 21,5º C-ko muga gainditzen delarik.

	Ox.Dis. (mg/l)	Uraren Tª (º C)	Giro Tª (º C)
Batez best.	8,66	19,1	24,9
Desb.Tip.	0,65	1,3	6,1
Max.	9,92	21,7	35,9
Min.	7,65	16,4	13,9
N	720	720	720
Diferentzia	2,27	5,3	22,0

60. taula. Estatistika niktimerala Amundarain ibaian. 2015eko abuztua.



32. irudia. Amundarain ibaiko uraren kalitatearen eboluzioa - hamar minuturoko datuak.

Berastegi ibaian, BELAUNTZAko neurketa jarraituko estazioak 5 aldagai fisiko-kimikoen datuak eskaintzen ditu: pH, uraren tenperatura, konduktibitatea, oxigeno disolbatua eta uhertasuna. Datu erabilgarrien kopurua oso altua da, egunen % 99aren ingurukoa. Jarraian, emaitzak aurkezten dira:

	pHa	Uraren Tª	Eroan. (µS/cm)	Ox. Dis. (mg/l)	Uhert. (UNF)
BATEZ BEST.	7,8	13,8	751	10,41	6
DESB.TIP.	0,2	2,6	179	0,75	12
MAX.	8,2	18,7	1061	12,71	110
MIN.	7,4	8,7	269	8,64	1
N	363	363	363	363	363
URRI. BAT.B.	7,7	15,4	986	9,72	1
AZA. BAT.B.	7,8	13,3	819	10,24	4
ABE. BAT. B.	7,7	11,3	528	11,14	9
URT. BAT. B.	7,7	10,5	700	11,21	9
OTS. BAT. B.	7,9	9,9	515	11,62	18
MAR. BAT. B.	8,0	11,3	561	11,01	7
API. BAT. B.	8,1	13,2	753	10,49	4
MAI. BAT. B.	7,9	14,2	690	10,12	7
EKA. BAT. B.	7,8	15,7	781	9,81	7
UZT. BAT. B.	7,8	17,5	914	10,05	2
ABU. BAT. B.	7,6	17,0	889	10,41	1
IRA. BAT. B.	7,6	15,9	862	9,21	2

61. taula. Belauntzan kokatuta dagoen neurketa jarraituko estazioaren estatistika, Berastegi ibaian – 2014/15.urte hidrologikoa (eguneroko batezbestekoetan oinarritua).

pHaren eguneko batez bestekoak 7,4 eta 8,2 artean ibili dira, eta urteko batez bestekoa 7,8 da. Balio horiek ur naturalei dagozkie. Uraren tenperaturari dagokionez, urteko batez bestekoa 13,8 ºC-koa izan da. Eguneko batez bestekoak 8,7 eta 18,7 ºC bitartean ibili dira. Kasuen % 100etan egon da tenperatura 21,5 ºC-tik behera; beraz, ur egokiak dira izokinkideentzat. Oxigeno disolbatuari dagokionez, urteko batez bestekoa 10,41 mg/l da, eta eguneko batez besteko balioak, berriz, 8,64 eta 12,72 mg/l artean ibili dira. Egunen % 98n, 9 mg/l-ak gainditu dira; beraz, urak egokiak dira izokinkideentzat, araudiaren arabera. Ez da izan 7 mg/l-tik beherako eguneko batez besteko baliorik. Urrian izan da hileko batez besteko minimoa, 9,72 mg/l.

Eroankortasunari dagokionez, urteko batez bestekoak mineralizazio altua dagoela adierazten du (751 µS/cm). Eguneko batez bestekoen aldakuntza-tartea oso zabala da, 269 eta 1.061 µS/cm artekoa, arroaren izaera geologikoaren ondorioz. Uhertasunari dagokionez, urteko batez

bestekoa 6 UNF da; eta eguneko batez bestekoak 1 eta 110 UNF artean daude. Kasuen % 4etan gainditu dira 30 UNFak. Uhertasunaren areagotzea, oro har, uraldiekin dago lotuta.

Laburbilduz, parametro horien arabera, urak egokiak dira izokinkideentzat, tenperatura- eta oxigeno-baldintzak egokiak baitira oro har.



33. irudia. Belauntzako kalitate fisiko-kimiko jarraitua – 2014-2015. urte hidrologikoa.

Abnuztuaren 28tik irailaren 1era, hamar minutuan behin aztertu dira datuak. Giro-tenperatura maximoa 37,0 ºC da eta minimoa 12,9 ºC; 24,1 ºC-ko aldea dago, beraz. Oxigeno disolbatuaren batez bestekoa 9,50 mg/l da. Balio minimoa, 8,23 mg/l, kontzentrazio eskas samarrari dagokio, eta maximoa 11,38 mg/l da; 3,15 mg/l-ko aldea dago, beraz. Kasuen %33an ez da 9 mg/l-ko balioa gainditu. Bestalde, gauaren eta egunaren arteko aldakuntza 5,3 ºC da. Minimoa 16,2 ºC da eta maximoa, aldiz, 21,5 ºC. Bitan gainditu da 21,5 ºC-ko muga. Laburbilduz, baldintzak onargarriak dira izokinkideentzat epealdi horretan.

	Ox. Dis. (mg/l)	Uraren Tª (º C)	Giro Tª (º C)
batez best.	9,50	18,3	22,4
Desb. tip.	0,80	1,2	5,5
Max.	11,38	21,5	37,0
Min.	8,23	16,2	12,9
N	719	718	720
Diferentzia	3,15	5,3	24,1

62. taula. Estatistika niktimerala Belauntzan (Berastegi ibaian). 2015ko abuztua-iraila.



34. irudia. Berastegi ibaiko ur-kalitatearen eboluzioa, Belauntzan. Hamar minuturoko datuak.

Leitzaran ibaian, OLAZAR-reko neurketa jarraituko estazioak hurrengo aldagai fisiko-kimikoen datuak eskaintzen ditu: pH, uraren tenperatura, konduktibitatea, oxigeno disolbatua, solido esekiak eta uhertasuna. Datu erabilgarrien kopurua oso altua da, egunen % 92aren ingurukoa. Jarraian, emaitzak aurkezten dira:

	pHa	Uraren T^{a}	Eroan. (µS/cm)	Ox. Dis. (mg/l)	Uhert. (UNF)	Sol.esek. (mg/l)
BATEZ BEST.	7,7	14,2	174	10,45	11	26
DESB.TIP.	0,3	3,9	27	1,07	21	65
MAX.	8,3	21,9	222	13,92	230	817
MIN.	7,1	6,1	108	8,79	1	0
N	338	338	338	338	340	354
URRI. BAT.B.	7,6	16,1	209	9,55	3	6
AZA. BAT.B.	7,5	12,9	194	10,41	13	24
ABE. BAT. B.	7,4	10,6	179	11,92	24	70
URT. BAT. B.	7,4	8,6	172	12,05	11	47
OTS. BAT. B.	7,3	8,5	137	12,01	20	51
MAR. BAT. B.	7,5	10,2	139	11,35	22	53
API. BAT. B.	8,0	13,2	163	10,48	3	7
MAI. BAT. B.	7,9	14,2	157	10,16	3	8
EKA. BAT. B.	7,9	16,5	150	9,80	4	7
UZT. BAT. B.	7,9	20,1	187	9,45	2	5
ABU. BAT. B.	7,8	19,1	194	9,31	10	17
IRA. BAT. B.	7,9	16,4	181	9,82	15	23

63. taula. Olazarren kokatuta dagoen neurketa jarraituko estazioaren estatistika, Leitzaran ibaian – 2014/15.urte hidrologikoa (eguneroko batezbestekoetan oinarritua).

pHaren urteko batez bestekoa 7,7 izan da; eguneko batez besteko minimoa 7,1 izan da, eta maximoa 8,3. Balio horiek ur naturalei dagozkie. Tenperaturari begiratuta, eguneko batez bestekoak 6,1 ºC minimoaren eta 21,9 ºC maximoaren artean dabiltza. Tenperaturarik altuenak uztailean lortu dira, batez beste 20,1 ºC. Bestalde, hileko batez bestekorik txikiena otsailean izan da, 8,5 ºC. Bi kasutan gainditu da 21,5 ºC-ko muga, kasuen %1ari dagokiona; beraz, ur onak dira izokinkideak bizitzeko. Bestalde, oxigenazio-baldintzak onak dira. Oxigeno disolbatuaren eguneko batez bestekoak 8,79 eta 13,92 mg/l artean ibili dira. 5 alditan izan ezik (% 1), gainerako guztietan 9 mg/l-ak gainditu dira; parametro horren arabera, beraz, tarte hori egokia da izokinkideentzat.

Mineralizazioa, berriz, ahula da (174 µS/cm). Eguneko batez bestekoak 108 eta 222 µS/cm bitartean dabiltza. Hilabeteko batez besteko altuena urrikoa izan da (209 µS/cm); eta txikiena, ostera, otsailekoa (137 µS/cm). Uhertasunaren urteko batez bestekoa txikia da, 11 UNF. Eguneko batez bestekoak 1 eta 230 UNF bitartean ibili dira. 27 alditan gainditu da 30 UNFko muga, hau da, % 8etan. Azkenik, solido esekien urteko batez bestekoa onargarria da, 26 mg/l. Eguneko batez besteko maximoa oso altua da, 817 mg/l. Hileko batez bestekoei dagokienez, abenduan lortu dira daturik altuenak, alegia, 70 mg/l; batez besteko txikiena, aldiz, uztailean izan da, 5 mg/l. Uhertasuna eta solido esekien areagotzea lotuta dago uraldiekin, edo baliteke obrek eragina izatea ere kasuren batean; kasu honetan, Inturiako presaren eraispena hartu behar da kontuan, honek presan gora metatutako sedimentuen mugimendu nabarmena suposatzen du eta.

Laburbilduz, emaitzek adierazten dute uraren baldintza fisiko-kimikoak onak direla Leitzaran errekaren alde honetan, egokiak izokinkideak bizitzeko.



35. irudia. Kalitate fisiko-kimiko jarraitua, Olazarren - 2014-2015. urte hidrologikoa.

Abuztuaren 28tik irailaren 1era, hamar minutuan behin aztertu dira datuak. Giro-tenperatura 12,9 ºC minimoaren eta 36,3 ºC maximoaren bitartean ibili da. Beraz, 23,4 ºC-ko diferentzia dago. Bestalde, oxigeno disolbatuaren batez bestekoa 8,97 mg/l da. Datu minimoa apur bat eskasa da, 8,57 mg/l; eta datu maximoa, berriz, 9,55 mg/l; diferentzia, beraz, 0,98 mg/l-koa da. Kasuen % 52an 9 mg/l azpiko balioa lortu da, nahiz eta balio horretatik gertu egon; horrek adierazten du nolabaiteko oxigeno-gabezia dagoela. Ez da 7 mg/l-tik beherako kontzentraziorik neurtu. Uraren tenperaturari dagokionez, kasuen %12an gainditu da 21,5 ºC-ko muga, izokinkideentzat mugatzaile den tenperatura. Honela, 22,2º C-ko maximoa lortu da, eta 18,1º C-ko minimoa.

	Ox. Dis. (mg/l)	Uraren Tª (º C)	Giro Tª (º C)
Batez best.	8,97	20,3	22,4
Desb.tip.	0,23	1,0	5,3
Max.	9,55	22,2	36,3
Min.	8,57	18,1	12,9
N	720	719	720
Diferentzia	0,98	4,1	23,4

64. taula. Estatistika niktimerala Olazarren (Leitzaran ibaia). 2015ko abuztua-iraila.



36. irudia. Leitzaran ibaiko ur-kalitatearen eboluzioa, Olazarren. Hamar minuturoko datuak.

Araxes ibaiko LIZARTZAko neurketa jarraituko estazioak, pH, uraren tenperatura, eroankortasuna, oxigeno disolbatua eta uhertasuna neurtzen ditu. Estazio hau, 2011ko martxoaren bukaeran jarri zen martxan. Datuen portzentai altua eskaintzen du, 98%a baino altuagoa. Jarraian aurkezten dira emaitzak:

	pHa	Uraren Tª	Eroan. (µS/cm)	Ox. Dis. (mg/l)	Uhert. (UNF)
BATEZ BEST.	8,0	13,7	427	10,19	13
DESB.TIP.	0,1	3,6	100	1,24	25
MAX.	8,4	21,3	641	12,48	192
MIN.	7,7	6,2	211	7,75	2
N	362	362	360	362	362
URRI. BAT.B.	7,9	15,7	562	9,58	4
AZA. BAT.B.	7,9	12,6	448	10,64	16
ABE. BAT. B.	8,2	10,6	341	11,20	24
URT. BAT. B.	8,1	9,1	381	11,75	14
OTS. BAT. B.	8,1	8,9	316	11,86	36
MAR. BAT. B.	8,1	10,4	313	11,41	20
API. BAT. B.	8,2	12,7	346	10,73	6
MAI. BAT. B.	8,1	14,0	364	10,04	7
EKA. BAT. B.	7,9	16,2	427	9,33	7
UZT. BAT. B.	8,0	19,4	493	8,31	3
ABU. BAT. B.	7,9	18,9	540	8,32	11
IRA. BAT. B.	7,9	16,2	588	9,24	7

65. taula. Lizartzako neurketa jarraituko estazioaren estatistika, Araxes ibaian – 2014/15.urte hidrologikoa (eguneroko batezbestekoetan oinarritua).

pHaren urteko batez bestekoa 8,0 izan da; eguneko batez besteko minimoa 7,7 izan da, eta maximoa 8,4. Balio horiek normalak dira ur naturaletarako. Uraren tenperaturari dagokionez, eguneko batez bestekoak 6,2 ºC minimoaren eta 21,3 ºC maximoaren artean dabiltza. Uztailean lortu dira tenperaturarik altuenak, batez beste 19,4 ºC. Hileko batez besteko txikiena, ostera, otsailean izan da, 8,9 ºC. Behin ere ez da gainditu 21,5 ºC-ko muga, baina uda-sasoian tenperatura handiak izan dira zenbaitetan. Beraz, parametro horren arabera, ur egokiak dira izokinkideak bizitzeko. Bestalde, oxigenazioa ona da; kasuen % 80etan 9 mg/l-ak gainditu direnez, ibai-tarte hori egokia da izokinkideentzat, parametro horren arabera. Eguneko batez bestekoak 7,75 eta 12,48 mg/l bitartean dabiltza. Kontzentraziorik txikienak uztailean lortu dira, eta batez besteko minimoa 8,31 mg/l-koa izan da; batez bestekorik altuena, aldiz, otsailean lortu da, 11,86 mg/l.

Mineralizazioari dagokionez, urteko batez bestekoak eroankortasun ertaina adierazten du (427 µS/cm). Eguneko batez bestekoak 211 eta 641 µS/cm bitartean dabiltza. Hilabeteko batez besteko altuena irailekoa izan da (588 µS/cm); eta txikiena, ostera, martxokoa (313 µS/cm). Uhertasunaren urteko batez bestekoa 13 UNF da. Batez bestekoak 2 eta 192 UNF bitartean ibili dira. 38 alditan gainditu da 30 UNFko muga, hau da, egunen % 10etan. Uhertasun-maila altuak, oro har, uraldiekin daude lotuta, baina egindako obra batzuen ondorio ere badira batzuetan.

Azken batean, Araxes ibaiaren tarte honetan, jarraiko datuek adierazten dute urek kalitate fisiko-kimiko ona dutela oro har; beraz, izokinkideak bizitzeko ur egokiak dira.



37. irudia. Kalitate fisiko-kimikoa, Araxesen – 2014-2015. urte hidrologikoa.

Uztailaren 17tik 21era, hamar minutuan behin aztertu dira datuak. Giro-tenperatura 16,8 ºC minimoaren eta 35,7 ºC maximoaren artean ibili da. Beraz, 18,9 ºC-ko diferentzia dago. Oxigeno disolbatuaren batez bestekoa 8,07 mg/l da. Balioak 7,25 eta 9,44 artean mg/l ibili dira, eta diferentzia 2,19 mg/l-koa da. Kasu askotan (% 85) oxigeno-kontzentrazioa 9 mg/l-tik behera dago, baina inoiz ez da 7 mg/l baino txikiagoa izango. Uraren tenperaturari dagokionez, minimoa 18,5 ºC izan da, eta maximoa 23,8 ºC. 21,5 ºC-ko tenperatura muga gainditu da ehuneko altu batean (%30). Laburbilduz, oxigeno eta tenperatua baldintzak eskasak dira izokinkideentzako.

	Ox. Dis. (mg/l)	Uraren Tª (º C)	Giro Tª (º C)
Batez best.	8,07	20,8	22,3
Desb.tip.	0,66	1,3	3,8
Max.	9,44	23,8	35,7
Min.	7,25	18,5	16,8
N	720	720	720
Diferentzia	2,19	5,3	18,9

66. taula. Estatistika niktimerala Lizartzan (Araxes ibaia). 2015ko uztaila.



38. irudia. Araxes ibaiko ur-kalitatearen eboluzioa, Lizartzan. Hamar minuturoko datuak.

5.1.4.5. URAREN KALITATE BIOLOGIKOA (ORIA)

Ondoko taulan, Oria ibaian egindako laginketetan lortutako IBMWP indizearen balioak azaltzen dira:

				UDABERRIA			AGORRALDIA		
Estazioa	**Kodea**	**Ibaia**	**Mota**	**IBMWP**	**EQR IBMWP**	**Egoera**	**IBMWP**	**EQR IBMWP**	**Egoera**
Zegama	ORI05500	Oria	23	235	1,21	Oso ona	166	0,85	Oso ona
Segura	ORI11200	Oria	23	103	0,53	Ona	85	0,44	Ertaina
Beasain ib. gora	ORI14000	Oria	32	82	0,42	Ertaina	76	0,39	Ertaina
Beasain Igartza	ORI16500	Oria	32	121	0,62	Ona	79	0,41	Ertaina
Ordizia	ORI21800	Oria	32	110	0,57	Ertaina	103	0,53	Ertaina
Legorreta HUA ib. beh.	ORI24500	Oria	32	124	0,64	Ona	85	0,44	Ertaina
Ikaztegieta	ORI25000	Oria	32	114	0,59	Ona	86	0,44	Ertaina
Araxes ib. gora	ORI34700	Oria	29	87	0,48	Ertaina	97	0,54	Ertaina
Irura	ORI40300	Oria	29	134	0,74	Ona	98	0,54	Ona
Andoain	ORI49000	Oria	29	102	0,57	Ona	125	0,69	Ona
Usurbil	ORI57400	Oria	29	60	0,33	Ertaina	84	0,47	Ertaina

67. taula. Oria ibaiko arroaren kalitate biologikoa – 2015. urtea.

Udaberriko kanpainan IBMWP puntuazio altuak erregistratu dira kasu askotan, iturburuan egoera oso ona lortuz (Zegama) eta egoera ona 6 kasuetan (Sgura, Beasain Igartza, Legorreta HUA ib. beh., Ikaztegieta, Irura eta Andoain). 4 kasuetan egoera biologiko ertaina azaldu da (Beasain ib. gora, Ordizia, Araxes ib. gora eta Usurbil).

Agorraldian IBMWP indizeak puntuazio baxuagoak lortu ditu, espero daitekeen moduan. Zegama ondo mantentzen da, egoera oso ona azalduz. Andoain eta Iruran egoera ona mantendu da, gainontzeko kasuetan ertaina den bitartean. Azpimarratu nahi da 2014 urtean Oria ibaiak hobekuntza nabarmena erakutsi zuela ardatz guztian zehar aurreko urtearekin alderatuta; aurten lortutako emaitzak 2014 urtean lortutakoen antzekoak mantentu dira.

Oria arroko saneamenduko lanak amaituta daudela esan daiteke. 2003 urtean martxan jarri zen Legorretako Gaikao HUA, goi Oriako hondakin urak jasotzen dituenak. 2011 urtean Adunako HUA jarri zen martxan; honek erdi- eta behe-ibarreko isurketak jasotzen ditu, 2013 urtetik ona egoera biologikoaren egoeraren hobekuntza ekarri duelarik, 2014 eta 2015. urteetan dirauenak.





68. taula. Oria ibaiko kalitate biologikoaren eboluzio longitudinala. 2015. urtea.

Ibaiadarrei dagokienez, ondoko taulan agertzen dira lortutako emaitzak:

				UDABERRIA			AGORRALDIA		
Estazioa	**Kodea**	**Ibaia**	**Mota**	**IBMWP**	**EQR IBMWP**	**Egoera**	**IBMWP**	**EQR IBMWP**	**EGOERA**
Lazkao zubia	AGA20200	Agauntza	32	116	0,60	Ona	86	0,44	Ertaina
Troya meat. Ib. b.	EST03500	Estanda	23	132	0,68	Ona	140	0,72	Ona
Ormaiztegi	EST10000	Estanda	23	141	0,72	Ona	150	0,77	Oso ona
Sta. Lutzia bokalea	SLU08500	Santa Lutzia	23	92	0,47	Ona	88	0,45	Ertaina
Arriaran ib. beh.	ARR03700	Arriaran	23	159	0,82	Oso ona	153	0,78	Oso ona
Zaldibia ib. beh.	AMU09800	Amundarain	23	192	0,98	Oso ona	85	0,44	Ertaina
Alegi	AME13200	Amezketa	23	112	0,57	Ona	106	0,54	Ona
Araxes	ARA23700	Araxes	32	112	0,58	Ona	134	0,69	Ona
Berastegi	BER13200	Berastegi	23	107	0,55	Ona	120	0,62	Ona
Villabona	AST07900	Asteasu	23	82	0,42	Ertaina	108	0,55	Ona
Leitzaran Andoain	LEI41600	Leitzaran	32	158	0,81	Ona	126	0,65	Ona

69. taula. Oria ibaiko ibaiadarren kalitate biologikoa – 2015. urtea.

Agauntza ibaian, Lazkao zubian, emaitza onak lortu dira udaberrian, egoera biologiko ona erregistratuz. Aldiz, agorraldian, IBMWP indizeak balio baxuagoa lortu du, egoera ertaina azalduz.

Estanda ibaiak emaitzak oso onak lortu ditu, egoera ona eta oso ona erregistratuz kasu guztietan. Agorraldian lortutako IBMWP puntuazio altuak nabarmentzen dira, serieko balio máximoak azalduz. Troya meategitik behera, nabarmen egin du hobera azken urteetan; 2009 urtetik ona, zehaztearren. Bestalde, Ormaiztegin, hobekuntza nabarmena detektatu zen 2007an saneamendua egin zenetik.

Santa Lutzia ibaiko beheko tartean indize biotikoaren balioa ona izan da udaberrian, agorraldian ertaina izan den bitartean.

Arriaran errekan, urtegitik behera, IBMWParen puntuazioak altuak izan dira, eta horiek adierazten dute egoera oso ona izan dela.

Amundarain ibaian, Zaldibiatik behera, IBMWParen datu oso altuak antzeman dira, serie historikoaren balio máximoak lortuz eta egoera biologiko oso onari dagozkionak. Agorraldian, aldiz, indizearen puntuazioak beherakada apal bat jasan du, egoera ertaina azalduz. Aipatu, 2014 urtean Zaldibiako saneamendua amaitutzat jo zela, eta honek uraren kalitatearen hobekuntza diskretua ekarri duela.

Amezketa ibaiak, Alegian, aurreko urtekoak baino puntuazio altuagoak lortu ditu IBMWPan; horrek adierazten du egoera ona dela bai udaberrian baita agorraldian ere.

Araxes ibaiaren behealdean, Amarotzen parean, egoerak nabarmen egin zuen hobera 2013an, aurreko urteekin alderatuz. Hobekuntza hau mantendu egin da 2014 eta 2015 urteetan. Honela, aurten egoera biologiko ona erregistratu da bi kanpainatan. Amaroz auzoko ur zikinen saneamendu eta arazketari esker hobetu da uraren kalitatea.

Berastegi ibaian, Ibarran, halako hobekuntza ikusi zen 2013an, aurreko urteekin alderatuta; izan ere, egoera ona lortu zen udaberrian, eta ertaina agorraldian. 2014ko egoera ere oso antzekoa da. Aurten, egoera ona izan da bi kanpainatan.

Bestalde, Asteasu ibaian, Villabonan, emaitzek adierazten dute egoera biologiko ertaina izan dela udaberrian, aldiz, agorraldian, egoera ona izan da.

Azkenik, Leitzaran ibaiak, Andoain aldean, egoera onuragarria azaltzen du. IBMWPak lortutako balioek adierazten dute egoera ona izan dela bi kanpainatan.

Gainera, aurten laginketa espezifikoak egin dira Oriaren arroan, eta hauexek izan dira lortutako emaitzak:

				UDABERRIA			AGORRALDIA		
Estazioa	**Kodea**	**Ibaia**	**Mota**	**IBMWP**	**EQR IBMWP**	**Egoera**	**IBMWP**	**EQR IBMWP**	**Egoera**
Aduna HUA beh	ORI46600	Oria	29	143	0,79	Ona	86	0,48	Ertaina
Bedaio ib. g.	AME0808200	Amezketa	23	66	0,34	Ertaina	60	0,31	Ertaina
Asteasu industria behe.	AST06900	Asteau	23	117	0,60	Ona	100	0,51	Ona

70. taula. Oria ibaiko ibaiadarren kalitate biologikoa – 2015. urtea.

Oria ibaian, Adunako HUAn behera dagoen estazioan, emaitza onak lortu dira udaberrian, egoera ona lortuz. Agorraldian, aldiz, uraren kalitateak behera egin du, egoera ertaina lortuz. Aipatu 2014 urtean 2013 urtearekiko hobekuntza lortu dela.

Bedaio ibaian lortutako emaitzak apalak dira, egoera ertaina azaldu baita bi kanpainetan.

Azkenik, Asteasu ibaian egoera ona izan da udaberrian, baita agorraldian ere.

5.1.4.6. EKOIZPEN PRIMARIOA (ORIA)

Hona hemen Oria ibaiaren egoera trofikoa:

	BENTOSA			PLANKTONA		
ESTAZIOAK	**Klorofila (mg/m^2)**	**Margalef indizea**	**Egoera trofikoa**	**Klorofila (μg/l)**	**Margalef indizea**	**Egoera trofikoa**
Zegama	11,07	2,50	Oligotrofia			
Segura	10,10	2,00	Oligotrofia			
Beasain ib. gora	20,64	2,23	Mesotrofia			
Beasain Igartza	0,75	3,50	Oligotrofia			
Ordizia	1,64	2,44	Oligotrofia	1,40	2,06	Oligotrofia
Legorreta HUA beh.	1,61	3,00	Oligotrofia			
Ikaztegieta	3,76	2,30	Oligotrofia			
Araxes ibaian gora	3,02	2,70	Oligotrofia	1,40	2,72	Oligotrofia
Irura	8,45	3,50	Oligotrofia	3,37	2,50	Oligotrofia
Aduna HUA beh.	58,48	2,05	Mesotrofia			
Andoain	28,56	2,08	Mesotrofia			
Usurbil	17,52	2,56	Oligotrofia			

71. taula. Oria ibaiko ekoizpen primarioa – 2015. urtea.

Oria ibaiko ardatzaren gehiengoan oligotrofia behatu da, hiru estazioetan salbu, (Beasain ib. Gora, Aduna HUA beh. eta Andoain), non mesotrofia behatu den. Heltze-fasean dauden alga populazioak izan dira kasu guztietan.

Gainera, hiru estaziotan (Ordizia, Araxes ibaian gora eta Irura) ur-laginak hartu dira, horietako bakoitzean dagoen klorofila planktonikoa aztertzeko. Lortutako datuek adierazten dute oligotrofia dagoela 3 kasu horietan, eta alga-populazio helduak daudela.

Bestalde, planktonaren osaera aztertu da (fito eta zooplanktona) Araxes ibaian gora eta Iruran.

Araxes ibaian gora, 3 alga-talde soilik ikusi dira: Diatomeoak, Klorofizeoak eta Konjugatuak. Maiztasun fitoplaktonikoak baxuak izan dira, Diatomeoen taldea izanik ugariena, 8 genero ezberdinekin, non *Melosira varians* eta *Navicula sp.* diren nabarmentzekoak. Lehenengoa eutrofiloa eta α-mesosaprobikoa da, hau da, nahiago ditu habitat eutrofikoak eta materia organiko ugariak. Behatutako kalitate ekologikoaren beste indikatzaile batzuk *Amphora sp*. (eutrofiloa) eta *Tabellaria floculosa* (mesotrofiloa eta β-mesosaprobikoa) izan dira. Alga berde edo Klorofizeoei dagokionez, *Chlamydomonas sp*. soilik agertu da, presentzia oso baxuarekin. Era berean, Konjugatuen taldea oso maiztasun baxuan agertu da, *Spyrogira* eta *Cosmarium* generoak identifikatuz. Azkenik, zooplaktonari dagokionez, *Brachionus* generoko Rotiferoak eta *Tintinidium* eta *Vorticella* generoko protozoo ziliatuak identifikatu dira, kontzentrazio baxuetan.

Bestalde, Iruran talde fitoplanktoniko hauek topatu dira: Diatomeoak, Klorofizeoak, Xantofizeoak eta Konjugatuak. Diatomeoak izan dira talde nagusia, 10 generorekin, non kalitate ekologikoaren indikatzaileak diren hauek agertu diren: Melosira varians eta Melosira lineata, biak eutrofiloak eta α eta β–mesosaprobikoak, hurrenez hurren; Amphora sp., eutrofiloa baita ere, eta Tabellaria floculosa mesotrofiloa eta β-mesosaprobikoa (MAGRAMA, ID-TAX). Klorofizeo, Xantofizeo eta Konjugatuen gainontzeko taldeak genero bakarrarekin daude errepresentatuak. Xantofizeoak maiztasun ertainak adierazi dituzte, Klorofizeoak eta Konjugatuek, aldiz, maiztasun baxua. Zooplaktonari dagokionez, soilik Kopepodoak, Rotiferoak eta Kironomidoak behatu dira, maiztasun baxuetan.

Oriaren ibaiadarrei dagokienez, hauexek dira lortutako emaitzak:

		BENTOSA			PLANKTONA		
ESTAZIOAK	**IBAIA**	**Klorofila (mg/l)**	**Margalef indizea**	**Egoera trofikoa**	**Klorofila (µg/l)**	**Margalef indizea**	**Egoera trofikoa**
Lazkao zubia	Agauntza	0,44	2,07	Oligotrofia	2,89	2,60	Oligotrofia
Troya meat. ib. b.	Estanda	1,35	2,00	Oligotrofia			
Ormaiztegi	Estanda	3,52	2,83	Oligotrofia			
Sta. Lutzia bokalea	Sta. Lutzia	22,73	2,29	Mesotrofia			
Arriaran ib. behera	Arriaran	20,37	2,50	Mesotrofia			
Zaldibia ib. behera	Amundarain	2,56	2,18	Oligotrofia			
Alegi	Amezketa	3,32	1,88	Oligotrofia	4,70	2,67	Mesotrofia
Araxes	Araxes	11,59	2,75	Oligotrofia			
Berastegi	Berastegi	128,64	2,94	Eutrofia			
Villabona	Asteasu	292,45	2,40	Eutrofia			
Leitzaran Andoain	Leitzaran	12,24	2,26	Oligotrofia	1,18	2,05	Oligotrofia

72. taula. Oria ibaiko ibaiadarren ekoizpen primarioa – 2015. urtea.

7 ibaiadarretan, oligotrofia-egoera ikusi da: Lazkao zubian, Troya meategian ibaian behera, Ormaiztegin, Zaldibi ibaian behera, Alegian, Araxesen eta Leitzaran Andoainen. 2 estaziotan mesotrofia-egoera ikusi da: Santa Luzia bokalean eta Arriaran ibaian behera. Azkenik, gainerako 2 estazioetan eutrofia-egoera dago: Berastegin eta Villabonan. Alga-populazio helduak daude kasu guztietan, Alegin izan ezik, non populazioak hazte-fasean dauden.

Bestalde, fitoplanktonaren laginak hartu dira hiru estaziotan: Lazkao zubian eta Leitzaran Andoainen, non oligotrofia behatu den, eta Alegin, non mesotrofia antzeman den. Alga-populazio helduak atzeman dira.

Leitzaranen, gainera, planktonaren osaera aztertu da: Diatomeoak, Klorofizeoak, Zianofizeoak, Kryptofizeoak, Euglenofizeoak eta Konjugatuak antzeman dira. Diatomeoak izan dira ugarienak eta 8 genero identifikatu dira, horien artean *Melosira varians* espezie eutrofiloa eta α-mesosaprobikoa, *Nitzschia linearis* eta *Tabellaria floculosa,* biak mesoeutrofiloak eta β-mesosaprobikoak (MAGRAMA, ID-TAX). Gainontzeko alga taldeak ugaritasun baxua agertu dute. Klorofizeoak nohizbehinka behatu dira, zehazki *Pediastrum boryanum* espeziea. Berdina esan daiteke Zianobakterio, Euglenofizeo eta Konjugatuetan. Kryptofizeoak kontzentrazio leunki altuagoak lortu dituzte, baina murritzak era berean. Zooplaktona Kopepodo, Rotifero, Protozoo eta Nematodoek osatu dute. Guztien maiztasuna baxua izan da.

Oriaren ibaiertzak eta zenbait ibaiadar oro har oso eraldatuak daude, eta, horren ondorioz, eguzkiaren eragina izugarri pairatzen dute. Horrek eta mantenugaien presentzia handiak, batez ere fosfatoenak, eutrofizazio-arazoak ekar ditzake. Era berean, kontuan hartu behar dira ibilguak dituen ebakidura arazoak, ibaiertzeko landaretzaren degradazioa baitute ondorio. Ibai-buruko estazioetan, Zegaman eta Seguran, zuhaitz-estaldura ona da oraindik, eta, beraz, itzal handia dago. Tarte horretatik aurrera, ia estazio guztiek dute intsolazio handia, ibaia bideratzeko egin diren lanen ondorioz; izan ere, ur-geruza zabaldu behar izan da, eta bi ertzetako landare-estalkia kendu. Ikaztegieta da salbuespen bakarra; gune horretan, zuhaitz-masa bat dago, eta horrek itzal handia ematen dio Oria ibaiari. Ibaiadarren egoera oso desberdina da. Hainbat gunetan, hala nola Troya meategian ibaian behera, eta Ormaiztegin Estanda ibaian, Santa Lutzia bokalean, Arriaran errekan eta Zaldibian ibaian behera Amundarainen, argi-xurgatzearen koefizienteak handiak dira oro har. Alabaina, ibaiadarretako hainbat tartetan argiarekiko esposizioa handia da, hala nola Alegian, Araxesen, Berastegin,

Villabonan eta Leitzaranen. Oro har, hiri-tarteak dira, ibaia bideratua dute eta ia ez dute tamaina handiko landaretzarik.

ORIA IBAIKO ESTAZIOAK		IBAIADARRETAKO ESTAZIOAK	
Zegama	0,95	Lazkao zubia	0,36
Segura	0,93	Mina ibaian behera	0,76
Beasain ibaian gora	0,19	Ormaiztegi	0,65
Beasain Igartza	0,44	Sta. Lutzia bokalea	0,25
Ordizia	0,12	Arriaran ibaian behera	0,25
Legorreta HUA ib. behera	0,30	Zaldibia ibaian behera	0,69
Ikaztegieta	0,75	Alegi	0,00
Araxes ibaian gora	0,00	Araxes	0,32
Irura	0,01	Berastegi	0,07
Aduna HUA ib. beh.	0,00	Villabona (Ast.)	0,17
Andoain	0,13	Leit. Andoain	0,42
Usurbil	0,35		

73. taula. Argi-xurgatzearen koefiziente. Oria arroa.

5.1.4.7. ARRAIN-FAUNA (ORIA)

Oria ibaian, hiru estaziotan hartu dira arrain-laginak, arrantza elektrikoko laginketa kualitatiboetan: Beasain ibaian goran, Ikaztegietan eta Andoainen. Emaitza hauek lortu dira:

IV. eranskinean, espezieen araberako neurrien banaketaren grafikoak ikus daitezke.

Laginketa kualitatiboak	DENTSITATE MINIMOA (ALE KOP./Ha)						
ESTAZIOA	AMUARRAINA	BARBOA	LOINA	EZKAILUA	MAZKARRA	AINGIRA	ZARBOA
Beasain ib. gora	26		11.760	5.136	12.985		
Ikaztegieta		238	1.702	214	1.512	36	
Andoain	20	215	1.613	29	78	68	108

74. taula. Oria ibaiko arrain-faunaren egoera – 2015. urtea.



39. irudia. Arrain-komunitatea Beasain Ib.Goran (Oria ibaia) – 2015. urtea.

BEASAIN IBAIAN GORA estazioko arrain-komunitatea 4 espeziek osatzen dute: amuarraina, loina, ezkailua eta mazkarra. Loina eta mazkarra oso ugariak dira, 10.000 N/Ha-ko kopurua gaindituz. Ezkailuak dentsitate baxuagoa aurkezten du, baina altua baita ere (5.136 N/Ha). Gainera, amuarrain ale bat atzeman zen (26 N/Ha). Egoera on samarra da. Puntu honetako arrain faunak hobekuntza erakutsi ditu 2005 urteaz geroztik, burututako saneamenduari esker; Aipatutako urtea baino lehen arrain fauna oso ahula ez, edo ez zegoen.



40. irudia. Arrain-komunitatea Ikaztegietan (Oria ibaia) – 2015. urtea.

IKAZTEGIETAN 5 arrain espezie agertu dira: barboa, loina, ezkailua, mazkarra eta aingira. Loina eta mazkarra dira espezierik ugarienak, 1.000 N/Ha-ko kopurua gaindituz. Aldiz, barboa eta ezkailuak dentsitate oso ahulak erakusten dituzte, 200 N/Ha inguru. Gainera, aingira ale solteak atzeman dira (36 N/Ha). Ez dira amuarrain aleak harrapatu, aurreko laginketetan agertu egin izan diren arren. Egoera on samarra da kontuan hartuta ibai-tarte honetako baldintzak. 2003 urteaz geroztik hobera egin du eremu honetako egoerak, Legorretako HUA martxan jarri zenetik.



41. irudia. Arrain-komunitatea Andoainen (Oria ibaia) – 2015. urtea.

ANDOAINEKO estazioari dagokionez, arrain-komunitatea 7 espeziek osatzen dute: amuarraina, barboa, loina, ezkailua, mazkarra, aingira eta zarboa. Aurreko urteko laginketarekin alderatuz hobekuntza nabarmena da loinaren populazioan, dentsitate garrantzitsua lortu duelarik (1.613 N/Ha). Aldiz, gainontzeko espezieak urriak dira. Egoera ez da oso ona, kontuan hartu behar delarik ibai-tartearen baldintza eskasak.

Horrez gain, laginketa kualitatiboak egin dira Oriaren ibaiadar hauetan: Estanda Ormaizten, Arriaran (Arriaran presatik behera), Amezketa Alegin, Arexez Amarozen eta Asteasu Villabonan. Emaitza hauek lortu dira:

Laginketa kualitatiboak	DENTSITATE MINIMOA (ALE KOP./Ha)						
ESTAZIOA	**IBAIA**	**AMUARRAINA**	**BARBOA**	**LOINA**	**EZKAILUA**	**MAZKARRA**	**AINGIRA**
Ormaiztegi	Estanda		316	5.316	4.921	4.368	105
Arriaran ib. beh.	Arriaran	155			5.668	5.241	
Alegia	Amezketa	13			94	796	337
Amaroz	Araxes	188	235	31	800	78	31
Villabona	Asteasu	337			3.062	5.968	78

75. taula. Oria ibaiko ibaiadarren arrain-faunaren egoera – 2015. urtea.



42. irudia. Arrain komunitatea Ormaiztegin (Estanda ibaia)– 2015. urtea.

Estanda ibaian, ORMAIZTEGIN, 5 arrain espezie atzeman dira: barboa, loina, ezkailua, mazkarra eta aingira. Loina populazioak gora egin du aurreko laginketekin alderatuz, dentsitate altua lortuz (5.316 N/Ha). Mazkarraren dentsitateak gorakada txiki bat jasan du, dentsitate altua lortuz kasu honetan ere (4.368 N/Ha). Ezkailuak dentsitate altua lortu du, aurreko urtean lez (4.921 N/Ha). Barbo ale gutxi atzeman dira, dentsitate ahula erakutsiz (316 N/Ha); aurreko laginketan agertu ez arren, lehenagokoetan agertu izan da. Aingira aleak harrapatu dira (105 N/Ha), aldizka agertzen den espeziea izanik. Egoera nahiko ona da. Aipatu behar da 2007 urteaz geroztik ibai-tarte honen egoerak hobera egin duela Ormaiztegiko saneamenduari esker. Urte horretan ezkailu eta mazkar aleak atzeman ziren, beranduago bestelako espezieak agertu eta hauen dentsitateak hobetuz joan direlarik. Aurreko laginketetan arrain faunarik ez zen agertu kasu gehienetan.



43. irudia. Arriaran Ib.Beherako arrain komunitatea (Arriaran ibaia) – 2015. urtea.

ARRIARAN ibaian, ezkailu eta mazkar populazioek dentsitate altuak lortu dituzte, 5.000 N/Ha-ko kopurua gaindituz. Gainera, amuarrain ale solteak atzeman dira (155 N/Ha). Ez dira loina aleak harrapatu, aurreko laginketetan agertu ohi diren arren. Aingirarik ere ez da agertu, noizbehinka agertu izan diren arren. Egoera ez da oso ona, amuarrain eta aingira popoulazioak ugariagoak izan beharko lirateke eta.



44. irudia. Alegiko arrain komunitatea (Amezketa ibaia) – 2015. urtea.

Amezketa ibaian ALEGIN 4 espezie atzeman dira: amuarraina, ezkailua, mazkarra eta aingira. Mazkarra da espezie ugariena, baina dentsitate ahula erakusten du (796 N/Ha). Ezkailuaren populazioak beherakada jasan du aurreko laginketarekin alderatuz, soilik ale solteak arrantzatu baitira (94 N/Ha). Amuarrainari dagokoinez, bere presentzia oso urria da (13 N/Ha), aurreko laginketetan bezala. Azkenik, aingiraren dentsitate baxua erregistratu da (337 N/Ha). Ez dira barbo eta loina aleak atzeman, aurreko laginketetan presentzia garrantzitsua agertu arren. Egoera ez da ona kontuan hartuta arrain espezie gutxi eta populazio urriak agertu direla.



45. irudia. Araxes ibaiko arrain komunitatea Amarozen– 2015. urtea.

Araxez ibaian AMAROZEN 6 espezie agertu dira: amuarraina, barboa, loina, ezkailua, mazkarra eta aingira. Ezkailua da espezie ugariena, baina dentsitate ahul baten barruan (800 N/Ha). Barbo eta loinak dentsitate oso ahulak erakusten ditu (235 N/Ha eta 31 N/Ha, hurrenez hurren), aurreko laginketetan ez bezala, non dentsitate altuak erakutsi zituzten. Aingirari dagokionez, aurreko laginketekin alderatuta populazioak beherakada jasan zuen 2014 urtean, aurten egoera berdina mantendu delarik (31 N/Ha). Amuarrainari dagokionez, aurreko laginketan dentsitatearen gorakada detektatu zen uraren kalitatearen hobekuntzak eraginda; hala ere, aurten beherakada jasan du, dentsitate oso ahula aurkeztuz. Egoera ez da oso ona, populazio urritzak direla eta.



46. irudia. Billabonako arrain komunitatea (Asteasu ibaia) – 2015. urtea.

Amaitzeko, Asteasu ibaia VILLABONAN amuarrainak hobekuntza garrantzitsua pairatu zuen aurreko laginketan, populazioaren dentsitateak gorakada nabarmena erakutsiz (1.636 N/Ha), aurrekoetan oso urria zen bitartean. Aldiz, aurten beherakada jasan du (337 N/Ha). Ezkailu eta mazkarrak dentsitate altuak lortu dituzte (5.968 N/Ha eta 3.062 N/Ha, hurrenez hurren). Gainera, aingiraren ale solteak atzeman dira (78 N/Ha), aurreko laginketetan lez. Egoera ez da guztiz ona.

Gainera, aurten laginketa espezifiko bat egin da Amezketa ibaian Bedaiorekin bateratzen den puntutik gora. Honakoak dira bertan lortutako emaitzak:

Laginketa kualitatiboak	DENTSITATE MINIMOA (ALE KOP./Ha)				
ESTAZIOA	IBAIA	AMUARRAINA	EZKAILU	MAZKARRA	AINGIRA
Bedaio ib. gora	Amezketa	35	6.246	8.667	281



47. irudia. Bedaio ib. gorako arrain komunitatea (Asteasu ibaia) – 2015. urtea.

Amezketa ibaian, Bedaiorekin bateratzen den puntutik gora, aipatu behar da laginketa burutu baino lehenago isurketa bat egon zela, zeinak arrainen heriotza altua eragin zuen, hortaz, emaitzak ez dira onak. Honela, amuarrainaren presentzia oso ahula da; soilik ale bakarra atzeman zen, espezie hau oso murriztua geratu baitzen isurketaren ondorioz. Aingiraren presentzia ere eskasa da, aldiz, ezkailu eta mazkar populazioek dentsitate altuak lortu dituzte.

5.1.4.8. SINTESIA (ORIA)

Oria ibaiko emaitza fisiko-kimikoek adierazten dute 5 kasutan estazioak egokiak direla izokinkideentzako, Oria ibaiko goi eta behe-ibarretan lokalizatuak; erdi-ibarra ziprinidoentzako gaitasuna erakutsi du, izokinkideentzako muga den tenperatura (21,5º C) gainditzen baitu. Gainontzekoan, oxigenazioa egokia da orokorrean, agorraldian nolabaiteko urritasuna agertu arren, batez ere Usurbilen. Amonioari dagokionez, ez da mugagarria kasu batean erez. Mantenugaietan, fosfatoen presentzia nabari da Legorreta HUA-tik hasita ibaian behera, nahiz eta azken urteetan behera egin duen. Nitratoak kontzentrazio baxuetan behatu dira.

Kalitate biologikoari dagokionez, udaberriko kanpainan IBMWP puntuazio altuak antzeman dira kasu askotan, iturburuan egoera oso ona behatuz (Zegama), eta egoera ona 5 kasutan (Beasain Igartza, Ordizia, Legorreta HUA behera, Ikaztegieta eta Irura). 4 estazioetan egoera biologiko ertaina behatu da (Segura, Beasain ibaian gora, Araxes ibaian gora eta Andoain). Azkenik, Usurbilen lortu dira emaitzarik kaxkarrenak, egoera biologiko eskasa lortuz. Agorraldian, aldiz, espero den moduan, IBMWP indizeak puntuazio baxuagoak lortu ditu. Zegama egoera onean mantendu da, aldiz, gainontzeko kasuetan egoera ertaina lortu da, Andoainen salbu, egoera ona lortu delarik.

Klorofila bentonikoaren analisiaren emaitzek adierazten dute oligotrofia-egoera dagoela Oriaren ardatzean, 3 kasutan salbu, non mesotrofia-egoera behatu den. Klorofila planktonikoaren emaitzek oligotrofia erakutsi dute.

Oria ibaian, saneamendua amaitutzat jo daiteke, soilik nukleo txikiak falta baitira konektatzeko. 2003 urtean Legorratan dagoen Gaikao HUA jarri zen martxan, honek Oria ibaiaren goi-ibarreko egoeraren hobekuntza nabaria eragin zuelarik. 2011 urtean, Adunako HUA jarri zen martxan, erdi- eta behe-ibarretako isurketak jasotzen dituelarik, kasu honetan ere hobekuntza ekarriz.

Arrain-faunari dagokionez, Beasain ibaian gora loina, mazkar eta ezkailu populazio ugariak behatu dira, baita amuarrain populazio ahul bat ere. Ikaztegietan, loina eta mazkarrak dentsitate altua azaldu dute; aldiz, barbo, ezkailu eta aingirak urriak dira. Azkenik, Andoaineko arrain-komunitateak 7 espezie ditu: amuarraina, barboa, loina, ezkailua, mazkarra, aingira eta zarboa. Loina populazioen egoeraren hobekuntza nabaritu da aurreko laginketekin alderatuta, dentsitate garrantzitsua lortu baitu. Aldiz, gainontzeko espezieak urriak dira.

Ibaiadarrei dagokienez, **Agauntza** ibaian Lazkao zubian egindako analisien emaitza fisiko-kimikoek adierazten dute ur egokiak direla ziprinidoentzak, izokinkideentzako muga (21,5 ºC) gainditu baita. Gainerako parametroen balioak egokiak dira eta uraren kalitate fisiko-kimiko ona adierazten dute. Bestalde, emaitza biologikoak egoera ona adierazten dute udaberrian eta egoera biologiko onari dagozkiona, aldiz agorraldian kaxkartu egiten da, egoera ertaina lortuz. Ekoizpen primarioak adierazten du oligotrofia dagoela bai bentosean baita planktonean ere.

Estanda ibaian, Troya meategia, ibaian behera, mugatzailea da izokinkideentzat. Oxigeno urritasuna detektatu da, baita amonio eta fosfatoen halako presentzia ere. Emaitza biologikoek egoera ona edota oso ona adierazten dute. Ekoizoen primarioak oligotrofia erakutsi du bi kasuetan. Iktiofaunari dagokionez, Ormaiztegin loina eta mazkar populazioen gorakada behatu da, dentsitate altua lortuz. Era berean, ezkailuak dentsitate altua erakutsi du, barbo eta aingira urriak diren bitartean. Aipatu behar da eremu honetako egoerak hobera egin duela leunki, 2007an egin zen saneamenduari esker.

Santa Lutzia ibaiadarraren bokalean, tenperatura handiak izan dira, faktore mugatzailea izokinkideentzat, baina ez ziprinidoentzat. Kutsadura organikoaren adierazleak maila baxuetan daude. Emaitza biologikoei dagokienez, emaitza baxuak lortu dira, egoera ertainari dagozkionak. Ekoizpen primario bentonikoa mesotrofia-egoerari dagokio.

Arriaran errekak, urtegitik behera, kalitate fisiko-kimiko handia du; beraz, egokia da izokinkideak bizitzeko. Era berean, egoera biologiko oso ona du. Ekoizpen primarioak eutrofia dagoela adierazten du. Arrain-faunari dagokionez, ezkailu eta mazkar populazioek dentsitate altuak lortu dituzte, gainera, amuarrain ale solteak atzeman dira, aldiz, ez da loinarik arrantzatu, aurreko laginketetan agertu arren.

Amundarain ibaia, Zaldibian behera, aurreko urteetan ez bezala, amonioa ez da arran-bizitzaren mugatzailea izan, kutsadura organikoaren beherakada dela eta, gaitasuna erakutsiz

izokinkideentzako. Emaitza biologikoek egoera oso ona aurkeztu dute udaberrian, eta ertaina agorraldian. Klorofila bentonikoak oligotrofia azaldu du. Amundaraineko beheko aldean behatutako hobekuntza Zaldibian egin den saneamenduari esker izan da.

Bestalde, **Amezketa** ibaian, analisi fisiko-kimikoen emaitzek adierazten dute ur egokiak direla izokinkideentzat. Kalitate biologikoari dagokionez emaitza onak lortu dira udaberrian, aldiz, agorraldian egoera ertaina izan da. Ekoizpe primario bentonikoak oligotrofia adierazi du, aldiz, klorofila planktonikoak mesotrofia adierazi du.

Araxes ibaia, bokalean, egokia da izokinkideak bizitzeko. Gune horretan ikusi da kutsadura organikoak nabarmen egin duela behera azken urteotan Amaroz auzoan egindako saneamenduaren ondorioz, lehen amonioa mugatzailea baitzen arrainak bizitzeko. Era berean, emaitza biologikoek hobera egin dute azken urteetan; hortaz, egoera ona da 2015. urtean. Ekoizpen primarioa oligotrofia-egoerari dagokio. Iktiofaunari dagokionez, 6 espezie atzeman dira: amuarraina, barboa, loina, ezkailua, mazkarra eta aingira; ezkailua da espezierik ugariena, dentsitate maila ahularen barruan hala ere, eta gainontzeko espezieak oso urriak dira. Egoera ez da ona, populazioak murritzak baitira.

Berastegi ibaian, emaitza fisiko-kimikoek adierazten dute ur egokiak direla izokinkideentzat. Aspektu biologikoari dagokionez, udaberrian egoera ertaina da, aldiz agorraldian hobera egiten du egoerak, egoera ona lortu. Klorofila bentonikoak eutrofia adierazi du.

Asteasu ibaia, Villabona aldean, egokia da izokinkideak bizitzeko. Emaitza biologikoak, aldiz, nahikoa apalak dira eta egoera ertaina adierazten dute. Ekoizpen primarioak eutrofia dagoela adierazten du. Arrain-komunitateak ezkailu eta mazkar ugariz osatua da, baita amuarrain eta aingira ale solteez ere.

Azkenik, **Leitzaran** ibaiaren bokalean lortutako emaitza fisiko-kimikoek adierazten dute ur egokiak direla izokinkideak bizitzeko. Era berean, emaitza biologikoak aldekoak dira, eta egoera ona/oso ona. Bestalde, oligotrofia-egoera izan da bai bentosean eta bai planktonean.

Aurten, gainera, Oria, Amezketa eta Asteasu ibaietan laginketa **espezifikoak** egin dira.

Oria ibaia, Adunako HUAn behera dagoen estazioan, kutsadura organikoaren beherakada nabari da aurreko urtearekin alderatuta; aldiz, ziprinidoentzako gaitasuna agertu da oxigeno urritasuna dela eta. Emaitza biologikoei dagokionez, egoera oso ona lortu da udaberrian, aldiz, ertaina agorraldian.

Amezketa ibaian gora, Bedaiorekin bateratzen den puntutik gora, emaitza fisiko-kimikoak egokiak dira, izokinkideentzako gaitasuna azalduz. Aldiz, emaitza biologikoek arazoak azaldu dituzte, egoera eskasa behatu baita. Arrain-faunari dagokionez, amuarrainaren presentzia oso murritza da; honela, aingiraren populazioa eskasa da, ezkailu eta mazkarrak ugariak diren bitartean. Nabarmendu behar da ibai-tarte honetan isurketa bat egin zela, arrain-ale ugariren heriotza eragin zuena.

Asteasu ibaian, indutriagunetik ibaian behera, kalitate fisiko-kimikoa ona da; datu biologikoek egoera ona azaldu dute udaberrian eta ertaina agorraldian.

5.1.5. UROLA IBAIAREN ARROA

5.1.5.1. DESKRIBAPEN GEOGRAFIKOA (UROLA)

Urola ibaiaren arroak 342 km_2-ko eremua hartzen du eta Gipuzkoako Lurralde Historiko barnean dago oso-osorik. Urola ibaia Aizkorriko mendilerroaren iparraldean jaiotzen da eta Zumaian itsasoratzen da. Inguru horretako izaera geologikoa askotarikoa da, baina kareharri erako materialak gailentzen dira. Arroaren bereizgarria da oso estua dela eta kota handiak dituela ardatz nagusiaren goi-ibilguan, haran garai batean sarturik baitoa, ia ibaiadarrik ez duela. Tarte horretan, ibaiadarrak txikiak dira, eta horien artean Barrendiola eta Urtatza nabarmentzen dira. Azkoitira iristean, ibai-morfologia aldatu egiten da, ibarra zabaldu egiten da, eta beheko ibilguan ondoz ondoko hainbat meandro sortzen ditu. Tarte horretan, ibaiadarrak handiagoak dira; Ibaieder nabarmentzen da, arroko ibaiadar nagusia, eta, horrez gain, Errezil, Sastarrain, Altzolarats eta beste batzuk. Arro honetan herri handiak daude kokatuta, hala nola Legazpi, Zumarraga, Urretxu, Azkoitia, Azpeitia, Zestoa eta Zumaia.

Goiko aldean, Barrendiola urtegia dago, 1,4 Hm_3 har ditzakeen hornikuntzarako urtegia, bai eta Urtatza urtegia ere (0,7 Hm_3), industria-erabilerarako dena. Horrez gain, erdialdean, Ibaieder urtegia dago (10,7 Hm^3). Saneamendu-planak ia amaituta daude. Badiolegiko HUA 1991. urtetik dago martxan, eta han tratatzen dira Azkoitiko, Azpeitiko, Lasaoko eta Zestoako isurkinak. Halaber, 2001. urtean, Urola Garaiko HUA jarri zen martxan, eta han tratatzen dira Legazpiko, Urretxuko eta Zumarragako ur zikinak.

Ibaiko habitatari dagokionez, arroaren goiko aldeak egoera onean kontserbatzen dira, batez ere Aizkorri mendilerroa, han jatorrizko basoaren zati handi bat gordetzen baita. Hala ere, haran barruan hiri- eta industria-garapen izugarria dago; ondorioz, labore atlantiarrak eta sega-belardiak desagertzen joan dira gune lauenetatik, eta hiri- eta industria-erabilerak ezartzen joan dira; horrek ibaiko ekosistema larri narriatu du. Ibaiak bortizki bideratu dira, hein handi batean uholdeak prebenitzeko, eta horrek larri aldatu ditu ibaiertzak, kasu askotan ibaiertzeko landaredia suntsitzeraino.

Beste alde batetik, arroan aprobetxamendu elektrikoa dago, eta sei zentral hidroelektriko daude martxan. Gainera, hainbat hargune industrial garrantzitsu daude. Oztopo ugari daude, eta horietako asko ez dira erabiltzen. Azken urteotan, Gipuzkoako Foru Aldundia presa txikiak eraisteko edo iragazkor bihurtzeko plan bat egiten ari da, eta jadanik hainbat obra eta proiektu ugari burutu ditu.

5.1.5.2. EMARIA (UROLA)

Jarraian, laburki azaltzen dira Aizarnazabalen Urola ibaiaren emaria neurtzeko estazioan lortutako emarien datuak:

Urria	1,288
Azaroa	3,193

Abendua	17,208
Urtarrila	16,666
Otsaila	37,886
Martxoa	18,752
Apirila	5,259
Maiatza	4,234
Ekaina	4,072
Uztaila	1,805
Abuztua	1,527
Iraila	1,492

76. taula. Urola ibaiko ur-emariaren datuak - 2014/15. Urte hidrologikoa. Hilabeteko batez bestekoak (m3/s).

	Ur emaria (m3/s)	**Emari espezifikoa (l/s/km^2)**
Urteko batez b. emaria	9,449	34,399
Hileko max.	37,886	140,437
Hileko min.	1,288	4,773

77. taula. Urola ibaiko ur-emariaren datuak - 2014/15. urte hidrologikoa.



48. irudia. Urola ibaiko eguneko batez besteko ur-emaria, Aizarnazabalen, 2014/15. urtea.

2014-2015 urte hidrologikoa batez besteko historikoa baino apur bat hezeagoa izan da (9,446 m3/s). Otsaila izan da hilabeterik emaritsuena alde handiz; emaria ohikoa baino altuagoa izan da. Era berean, abendua, urtarrila eta martxoa bereziki emaritsuak izan dira. Aldiz, udaberria ohikoa baino lehorragoa izan da. Hilabeterik lehorrena urria izan da, batazbestekoak baino emari askoz baxuagoekin. Azaroan ere emari oso baxuak erregistratu dira, urte-sasoia kontuan hartuta. Uztaila, abuztua eta irailean seriearen batazbestekoak baino emari baxuagoak erregistratu dira.

5.1.5.3. URAREN KALITATE FISIKO-KIMIKOA (UROLA)

Ondorengo taulan, laburki azaltzen da Urola ibaian eginiko laginketetan zer emaitza fisiko-kimiko lortu diren:

ESTAZIOA	Lagink, kop.	Tª (ºC)	pHa	Eroan. (µS/cm)	Ox.Dis. (mg/l)	PO_4 (mg/l)	DQO (mg/l)	NH_4 (mg/l)	Arrain gaitasuna
Brinkola	14	5,5 – 18,6	8,0 – 8,5	155 - 356	4,89 – 12,46	<L.C	<L.C	<L.C	Izokinkideak
Legazpi ib. gora	14	5,6 – 20,4	8,0 – 8,7	139 - 298	8,37 - 12,76	<L.C – 0,05	<L.C – 17	<L.C	Izokinkideak
Legazpi ib. behera	14	6,3 – 21,9	8,0 – 8,4	124- 454	7,74 – 12,69	<L.C – 8,79	<L.C – 35	<L.C – 0,09	Zipri
Urretxu HUA ib. gora	2	21,2 – 22,6	8,5	378 - 405	8,61 – 9,40	0,11 – 0,18	-	0,11 – 0,34	Zipri
Urretxu	14	7,8 – 21,3	7,7- 8,7	186 - 583	7,90 – 12,9	0,07 – 5,67	<L.C – 32	<L.C – 0,52	Izokinkideak
Aizpurutxo	14	7,9 – 21,7	8,1 – 8,8	196 - 516	8,83 – 12,81	0,08 – 4,17	<L.C – 31	<L.C – 1,89	Ez gai
Azkoitia ibaian gora	14	8,2 – 21,7	8,0 – 8,8	202 - 437	9,12 – 13,66	0,07 – 1,54	<L.C – 38	<L.C – 0,09	Zipri
Azpeitia	14	8,7 – 20,6	8,1 – 8,6	244 – 596	9,14 – 13,96	<L.C – 0,34	<L.C - 43	<L.C – 0,74	Izokinkideak
Badiolegi HUA beh.	2	19,2 – 21,2	8,2 – 8,3	525 - 619	8,70 – 9,75	0,43 – 0,51	-	0,06– 0,23	Zipri
Lasao	14	8,5 – 21,9	7,9 – 8,5	251 – 616	7,35 – 13,69	<L.C – 0,99	<L.C - 80	<L.C – 1,40	Ez gai
Zestoa ibaian beh.	14	8,9 – 21,4	8,0 – 8,4	253 - 628	7,24 – 12,56	<L.C – 1,00	<L.C - 47	<L.C – 0,92	Izokinkideak
Aizarnazabal	2	20,7- 22,3	8,2 – 8,3	512 - 599	8,42 – 9,86	0,49 – 0,55	-	0,08	Zipri
Oikina	14	8,5 – 23,2	8,0 – 8,6	255 - 634	8,11 – 12,39	<L.C – 0,87	<L.C – 29	<L.C – 0,57	Zipri

D.M.: Detekzio-muga

78. taula. Urola ibaiko datu fisiko-kimikoak - 2014-2015. urte hidrologikoa (balio minimo eta maximoak).

Datuak interpretatzeko garaian, kontuan hartu behar da bi lagin bakarrik hartu direla Urretxun ibaian gora dagoen HUAn, Badiolegin ibaian behera dagoen HUAn eta Aizarnazabalen. Gainerako estazioetan, aldiz, 14 laginketa egin dira.

Uraren tenperatura izokinkideak izateko gaitasun-mugaren gainetik dago 13 estazioetatik 7tan, erregistratu diren tenperatura balio altuak direla eta. Gainontzeko 6 estazioetan ez da aipatutako muga gainditu, baina tenperatura altuak behatu dira baita ere, 20º C-ko balioak gaindituz ia kasu guztietan.

Oxigenazioari dagokionez, egoera ona da oro har; halere, batzuetan halako urritasuna atzeman da agorraldian. Brinkolako datu minimoa azpimarratu behar da, soilik 4,89 mg/l-koa. Gainontzekoan, datu minimoak Legazpi ibaian behera, Urretxu, Lasao eta Zestoa ibaian behera erregistratu dira, 7,24 mg/l eta 7,90 mg/l artean.

Amonioari dagokionez, aurtengo balioak altuagoak dira behin baino gehiagotan; hortaz, 2 estazio ez dira egokiak arrainen bizitzarako, 1 mg/l-ko muga gainditzen baitute: Aizpurutxo eta Lasao. Horietan kontzentrazio maximoak 1,89 mg/l eta 1,40 mg/l-koak izan dira, hurrenez hurren. Azpimarratzekoa da ere Urretxu Edar ibaian gora, Urretxu, Azpeitia, Zestoa ibaian behera eta Oikinan lortutako balio maximoak, 0,34 mg/L eta 0,92 mg/l balioen artean. Gainerako estazioei dagokienez, amonioa kontzentrazio baxuetan antzeman da, edo detekzio mugatik behera.

Mantenugaiei dagokienez, fosfato asko daude Urola ibaiaren ardatzean, Legazpitik ibaian behera bokaleraino. Ondorioz, eutrofizazio-arazoa dago hein handi edo txikiagoan. Azpeitian fosfato mailarik baxuenak atzeman dira, hala nola 0,34 mg/l-ko datu maximoa. Legazpi ibaian behera, aldiz, kontzentrazio handienak daude eta datu maximoa 8,79 mg/l izan da. Kontuan izan behar da Zuringoaingo (Urola Garaia) HUAko efluentea goiko aldera ponpatzen dela agorraldian, emari-gabezia hobetzeko, eta, horren ondorioz, mantenugai gehiago izaten dela goiko aldean.

Era beran, nitratoen presentzia nabaria da Urola ardatzean zehar, Azkoitia ibaian goran 11,19 mg/l eta Legazpi ibaian behera 33,44 mg/lko kontzentrazio maximoekin.

Azkenik, metalen presentziari dagokionez, burdinaz, manganesoaz eta aluminioaz gain, nikel-, zink- eta kromo-kontzentrazio minimoak detektatu dira Legazpin ibaian behera.



49. irudia. Urola ibaiko kalitate fisiko-kimikoa – 2014-2015. urte hidrologikoa.

Barrendiola ibaiadarreko urek kalitate fisiko-kimiko ona dute, eta, beraz, ur egokiak dira izokinkideentzat. Ibaiederreko egoera ere ona da presatik ibaian behera, aldiz Landetan, amonio kopuru ezohikoa erregistratu da, arrain-bizitzarako ezgaia bihurtzen delarik. Gainontzeko parametroak egokiak dira.

KODEA	ESTAZIOA	IBAIA	Lagink, kop.	Tª (ºC)	pHa	Eroan. (µS/cm)	Ox.Dis. (mg/l)	DQO (mg/l)	PO_4 (mg/l)	NH_4 (mg/l)	Arrain gaitasuna
BAR05800	Barrendiola beh.	Barrendiola	2	15,4 – 16,5	8,0 – 8,3	172 - 199	9,10 – 9,33	-	<L.C	<L.C - 0,05	Izok
IED07400	IE presa beh.	Ibai-Eder	2	15,4 – 17,9	8,1 – 8,3	277 - 284	9,23 – 9,60	-	<L.C	<L.C – 0,07	Izok
IED13700	Landeta	Ibai-Eder	14	8,7 – 20,3	8,2 – 8,6	260 - 684	9,13 – 13,79	<L.C - 20	<L.C – 0,26	<L.C – 1,60	Ez gai

D.M.: Detekzio-muga.

79. taula. Urola ibaiko ibaiadarren datu fisiko-kimikoak - 2014-2015. urte hidrologikoa (balio minimo eta maximoak)

5.1.5.4. KALITATE FISIKO-KIMIKOAREN JARRAIKO AZTERKETA (UROLA)

Urola ibaiaren arroan 2 estazio iraunkor daude, zeintzuek etengabe ematen baitituzte uraren kalitateari buruzko datuak: Aitzu eta Aizarnazabal, goi- eta behe-ibarrean, hurrenez hurren.

AITZUko neurketa jarraituko estazioak zortzi parametro hauen datuak ematen ditu: pHa, uraren tenperatura, eroankortasuna, oxigeno disolbatua, uhertasuna, materia organikoa, amonioa eta ortofosfatoak. Funtzionamendua ona da, eta datu-portzentajea egunen 96% bitartekoa da. Honako hauek dira emaitzak:

	pHa	Uraren Tª	Eroankor. (µS/cm)	Ox. Dis (mg/l)	Uhert. (UNF)	Mat org (m-1)	NH4 + (mg/l)	Ortofos (mg/l)
BATEZ BES.	7,8	13,9	376	9,95	19	6,9	0,11	0,20
DESB.TIP.	0,3	4,5	103	1,18	38	2,9	0,08	0,34
MAX.	8,5	22,6	598	12,50	438	18,5	0,54	1,47

MIN.	7,0	5,7	178	7,33	1	0,9	0,00	0,00
N	362	362	359	362	360	353	359	359
URRI. B.B.	7,8	16,8	529	8,76	8	9,8	0,09	0,98
AZA. B.B.	7,7	13,4	423	9,94	30	7,8	0,11	0,72
ABE. B.B.	7,6	10,5	273	10,94	29	6,3	0,10	0,07
URT. B.B.	7,8	8,2	321	11,37	39	5,0	0,09	0,12
OTSA. B.B.	7,8	7,4	275	11,65	42	7,2	0,08	0,03
MAR. B.B.	7,9	9,3	272	10,81	20	4,8	0,11	0,02
API. B.B.	8,2	12,4	300	10,60	18	5,1	0,14	0,16
MAI. B.B.	8,0	14,8	321	9,85	9	5,0	0,14	0,03
EKA. B.B.	7,8	17,6	389	9,26	10	6,0	0,09	0,02
UZT. B.B.	7,7	20,9	469	8,26	4	7,2	0,15	0,08
ABU. B.B.	7,9	19,5	471	8,51	13	10,2	0,12	0,07
IRA. B.B.	7,9	16,6	460	9,45	10	8,9	0,08	0,11

80. taula. Aitzuko neurketa jarraituko estazioaren estatistika, Urola ibaia – 2014/2015. urte hidrologikoa (eguneko batez bestekoetan oinarritua).

pHaren eguneko batez besteko balioak 7,0 eta 8,5 bitartean ibili dira, eta urteko batez bestekoa 7,8 izan da. Balio horiek ur naturalei dagozkie. Uraren tenperaturari dagokionez, urteko batez bestekoa 13,9 ºC izan da. Eguneko batez besteko maximoa altua izan da, 22,6 ºC, eta minimoa 5,7 ºC. Tenperaturarik altuenak uztailean bildu dira, 20,9º C-ko bataz bestekoarekin.

15 alditan (% 4) gainditu da 21,5 ºC-ko muga. Beraz, parametro horren arabera, urak egokiak dira ziprinidoentzat, baina ez izokinkideentzat. Oxigeno disolbatuari dagokionez, kasuen % 73etan gainditu dira 9 mg/l-ak; beraz, tarte hori egokia da izokinkideak bizitzeko, araudiaren arabera. Halere, uda-sasoian, halako oxigeno-urritasuna ikusi da, kontzentrazioak 9 mg/l-tik beherakoak baitira %27an. Hileko batez besteko minimoa uztailekoa da, 8,26 mg/l. Hileko batez besteko maximoa, aldiz, otsailean lortu da, 11,65 mg/l.

Eroankortasunaren urteko batez bestekoa 376 µS/cm izan da, eta balio hori mineralizazio ertainari dagokio. Eguneko batez besteko balioak 178 µS/cm eta 598 µS/cm artean dabiltza. Urrikoa izan da hileko batez bestekorik handiena (529 µS/cm), eta txikiena, ostera, martxokoa (272 µS/cm). Uhertasunari dagokionez, urteko batez bestekoa 19 UNF da, eta eguneko batez bestekoak 1 eta 438 UNF artean ibili dira. Kasuen % 15etan gainditu dira 30 UNFak; uhertasun-egoerak uraldiekin lotuta daude gehienetan, baina gerta liteke ibilguari erasan dioten obra edo jarduketa batzuen ondorio izatea ere bai.

Materia organikoaren halako presentzia dago abuztuan bereziki, zeinetan batez besteko altu samarrak lortu diren, 10,2 m^{-1}. Hileko batez besteko minimoa, aldiz, martxoan izan da, 4,8 m^{-1}. Bestalde, urteko batez bestekoa apala da, 6,9 m^{-1}.

Amonioaren presentzia aurreko urtean baino baxuagoa da. Urteko bataz bestekoa 0,11 mg/lkoa da eta eguneko batez bestekoak 0 eta 0,54 mg/l artean dabiltza. Hileko batez besteko maximoa 0,15 mg/l da, eta uztailean erregistratu da; minimoa, berriz, otsaila eta irailean jaso dira, 0,08 mg/l. Azkenik, ortofosfatoen kontzentrazioa 0, eta 1,47 mg/l artean ibili da. Urteko batez bestekoa 0,20 mg/l-koa da; horrek eutrofia dagoela adierazten du. Hileko batez bestekorik

altuena urrian izan da, 0,98 mg/l (eutrofia handia); eta minimoa, berriz, martxoa eta ekainean, 0,02 mg/l (eutrofia txikia).

Laburbilduz, Urola ibaiaren tarte hau egokia da ziprinidoentzako, ez ordea izokinkideentzako, 21,5º C-ko muga gainditzen baita. Nolabaiteko oxigeno-gabezia dago uda-sasoian, baita kutsadura organikoak ere.



50. irudia. Aitzuko kalitate fisiko-kimiko jarraitua – 2014/2015. urte hidrologikoa.

Gainera, analisi niktimerala egin da uztailaren 17tik 21era. Lortutako giro-tenperatura maximoa 31,2 ºC izan da, eta minimoa 14,8 ºC. Beraz, epealdi horretan 16,4 ºC-ko aldea dago gauaren eta egunaren artean. Oxigeno disolbatuaren batez bestekoa 7,66 mg/l da, eta 4,17 mg/l minimoaren eta 11,15 mg/l maximoaren arten ibili da; diferentzia, beraz, 6,98 mg/l da. Lortutako erregistroen % 85 daude 9 mg/l-en azpitik, hau da, izokinkideen garapen normalerako mugatzailearen azpitik, eta horrek adierazten du gabezia handia dagoela. Bestalde, uraren tenperatura minimoa 20,0 ºC izan da, eta maximoa 25,2 ºC. Epealdiko batez bestekoa 22,3 ºC da, eta aldakuntza-tartea, 5,2 ºC-koa. Kasuen % 62etan gainditu dira 21,5 ºC-ak, izokinkideentzako tenperatura mugatzailea. Laburbilduz, epealdi horretan tenperatura- eta oxigenazio-baldintzak nahikoa txarrak izan dira.

	Ox. Dis. (mg/l)	Uraren Tª (º C)	Giro Tª (º C)
Batez best.	7,66	22,3	21,0
Desb.tip.	1,08	1,4	4,2
Max.	11,15	25,2	31,2
Min.	4,17	20,0	14,8
N	719	719	720
Diferentzia	6,98	5,2	16,4

81. taula. Estatistika niktimerala Aitzun (Urola ibaia). 2015eko uztaila.



51. irudia. Urola ibaiko ur-kalitatearen eboluzioa, Aitzun. Hamar minuturoko datuak.

AIZARNAZABALgo estazioan parametro fisiko-kimiko hauek neurtzen dira: pHa, uraren tenperatura, eroankortasuna, oxigeno disolbatua, uhertasuna, materia organikoa, amonioa, solido esekiak eta ortofosfatoak. Funtzionamendua ona da, eta, ondorioz, datu asko bildu dira, egunen % 93 gorakoa da. Ondoko taulan azaltzen dira emaitzak:

	pHa	Uraren T^{a}	Eroankor. (µS/cm)	Ox Dis (mg/l)	Uhert. (UNF)	Mat Org (m-1)	NH_4 + (mg/l)	Solid. esek. (mg/l)	Ortof (mg/l)
BATEZ BES.	7,8	15,0	413	9,74	14	4,6	0,16	20	0,12
DESB.TIP.	0,2	3,9	115	1,09	27	1,9	0,16	50	0,14
MAX.	8,3	23,1	609	12,18	184	13,8	0,88	599	1,20
MIN.	7,3	7,5	171	7,77	2	1,2	0,00	6	0,01
N	356	356	355	356	356	341	350	356	358
URRI. B.B.	7,7	17,0	528	9,02	5	5,0	0,09	8	0,20
AZA. B.B.	7,9	13,6	459	9,73	12	4,8	0,16	17	0,20
ABE. B.B.	7,7	11,4	295	10,75	25	4,5	0,10	37	0,07
URT. B.B.	7,7	10,0	315	11,26	20	3,7	0,09	48	0,07
OTSA. B.B.	7,6	9,3	223	11,32	49	4,5	0,38	49	0,04
MAR. B.B.	7,7	10,9	275	10,82	15	3,8	0,19	16	0,04
API. B.B.	8,0	14,0	375	10,16	7	3,1	0,24	9	0,04
MAI. B.B.	7,9	15,6	420	9,24	8	4,4	0,30	8	0,23
EKA. B.B.	7,8	17,9	418	8,98	20	5,5	0,21	28	0,07
UZT. B.B.	7,9	21,0	520	8,69	4	3,7	0,07	6	0,13
ABU. B.B.	7,8	20,2	550	8,52	5	5,5	0,06	9	0,14
IRA. B.B.	7,8	17,4	526	8,84	4	6,4	0,09	6	0,15

82. taula. Aizarnazabaleko neurketa jarraituko estazioaren estatistika, Urola ibaian – 2014/2015. urte hidrologikoa (eguneko batez bestekoetan oinarritua)

pHaren urteko batez bestekoa 7,8 izan da, eta eguneko batez besteko balioak 7,3 eta 8,3 bitartean ibili dira. Balio horiek ur naturalei dagozkie. Uraren tenperaturaren urteko batez bestekoa 15,0 ºC izan da. Eguneko batez besteko minimoa 7,5 ºC izan da, eta maximoa altua izan da, 23,1 ºC. 13 alditan (% 4) gainditu da 21,5 ºC-ko muga; beraz, araudiaren arabera, urak ez dira egokiak dira izokinkideentzat, baina bai ziprinidoentzat. Hilabeterik beroenak uztaila eta abuztua izan dira, batez

beste 21,0 ºC eta 20,2 ºC artean. Oxigenazioari dagokionez, urteko batez bestekoa 9,74 mg/l da. Eguneko batez bestekoen aldakuntza 7,77 eta 12,18 mg/l artean ibili da. Egunen % 66etan gainditu dira 9 mg/l-ak; gainerako % 34etan, berriz, balio horren azpitik ibili da; ez da izan 7 mg/l-tik beherako baliorik. Parametro hori ez da mugatzailea izokinkideak bizitzeko, araudiaren arabera. Hala ere, ikusi da badela halako gabezia udako hilabeteetan, uztaila, abuztuan eta hain zuzen, zeintzuetan batez bestekoak 8,52 mg/l eta 8,84 mg/l artean dauden.

Mineralizazioa ertaina da (413 µS/cm), eta aldakuntza-tartea 171 eta 609 µS/cm artean dabil. Hileko batez besteko maximoa abuztukoa izan da (550 µS/cm), eta minimoa, ostera, otsailekoa (223 µS/cm). Uhertasunaren urteko batez bestekoa 14 UNFkoa izan da. Egunen % 12etan gainditu da 30 UNFko muga. Hileko batez bestekorik handiena otsailean izan da, 49 UNF, eta txikiena, berriz, uztaila eta irailean, 4 UNF. Uhertasuna areagotu izana uraldiekin lotuta dago normalean, baina baliteke batzuetan egindako obren ondorio izatea ere bai. Era berean, solido esekien urteko batez bestekoa apala izan da, 20 mg/l. Eguneko batez bestekoak 6 eta 599 mg/l artean ibili dira. Bestalde, hileko batez bestekorik handiena otsailean izan da, 49 mg/l; balio minimoa, ostera, uztaila eta irailean izan da, 6 mg/l.

Materia organikoaren urteko batez bestekoa onargarria da, 4,6 m^{-1}, eta eguneko batez bestekoak 1,2 m^{-1} (kontzentrazio txikia) eta 13,8 m^{-1} (kontzentrazio handia) artean ibili dira. Hileko batez bestekoak, berriz, 3,1 m^{-1} (apirila) eta 6,4 m^{-1} (iraila) artean ibili dira. Laburbilduz, bada materia organikoaren nolabaiteko presentzia. Bada amonioaren nolabaiteko presentzia eta eguneko batez bestekoak 0 eta 0,88 mg/l artean ibili dira. Maiatzean izan da hileko batez bestekorik handiena, 0,30 mg/l; balio minimoa, ostera, abuztuan izan da, 0,06 mg/l. Bestalde, urteko batez bestekoa apala izan da, 0,16 mg/l.

Azkenik, ortofosfatoen datuei begiratuta, eguneko batez besteko balioak 0,01 mg/l (oligotrofia) eta 1,20 mg/l (eutrofia altua) artean dabiltza, eta urteko batez bestekoa 0,12 mg/l da (eutrofia baxua). Mantenugaien karga handiena erregistratu diren hilabeteak urria, azaroa eta maiatza izan dira, 0,20 mg/l eta 0,23 mg/l-ko bataz bestekoekin.

Azken batean, araudiaren arabera, tartea ez da egokia izokinkideak bizitzeko, baina bai ziprinidoentzako; izan ere, tenperaturak altuak dira. Bestalde, nolabaiteko oxigeno-urritasuna atzeman da uda-sasoian, bai eta halako kutsadura organikoa ere.



52. irudia. Kalitate fisiko-kimiko jarraitua, Aizarnazabalen - 2014-2015. urte hidrologikoa.

Analisi niktimerala egin da irailaren 18tik 22ra. Batez besteko giro-tenperatura 21,5 ºC izan da. 17,4 ºC izan da balio minimoa, eta maximoa 33,1 ºC. Oxigeno disolbatuaren batez bestekoa 8,11 mg/l da, eta 7,14 eta 9,45 mg/l artean ibili da. Gauaren eta egunaren arteko diferentzia 2,31 mg/l izan da. Kasuen % 88tan oxigeno-kontzentrazioa 9 mg/l-tik behera egon da; beraz, epealdi horretan oxigenazio eskasa izan da, eta hori faktore mugatzailea da izokinkideentzat. Bestalde, uraren tenperaturaren batez bestekoa 22,2 ºC izan da. Datu minimoa 20,3 ºC izan da, eta maximoa 25,7 ºC. Erregistroen % 58k gainditu dute 21,5 ºC-ko muga; beraz, tenperatura altua da, eta hori faktore mugatzailea da izokinkideak bizitzeko.

	Ox. Dis. (mg/l)	Uraren Tª (º C)	Giro Tª (º C)
Batez best.	8,11	22,2	21,5
Desb.tip.	0,60	1,3	3,2
Max.	9,45	25,7	33,1
Min.	7,14	20,3	17,4
N	707	707	720
Diferentzia	2,31	5,4	15,7

83. taula. Estatistika niktimerala Aizarnazabalen (Urola ibaia). 2015eko uztaila.



53. irudia. Urola ibaiko ur-kalitatearen eboluzioa, Aizarnazabalen. Hamar minuturoko datuak.

5.1.5.5. URAREN KALITATE BIOLOGIKOA (UROLA)

Ondoko taulan, Urola ibaian egindako makroornogabeen laginketetan zer emaitza lortu diren azaltzen da:

				UDABERRIA			AGORRALDIA		
Estazioa	Kodea	Ibaia	Mota	IBMWP	EQR IBMWP	Egoera	IBMWP	EQR IBMWP	Egoera
Brinkola	URO03500	Urola	23	145	0,74	Ona	132	0,68	Ona
Legazpi ib. gora	URO06900	Urola	23	155	0,79	Oso ona	115	0,59	Ona
Legazpi ib. beh.	URO09800	Urola	23	73	0,37	Ertaina	30	0,15	Eskasa
Urretxu HUA ib. g.	URO14200	Urola	23	62	0,32	Ertaina	50	0,26	Eskasa
Urretxu	URO15700	Urola	23	78	0,40	Ertaina	48	0,25	Eskasa
Aizpurutxo	URO21100	Urola	23	81	0,42	Ertaina	76	0,39	Ertaina
Azkoitia ib. gora	URO27200	Urola	23	105	0,54	Ona	101	0,52	Ona
Azpeitia	URO35000	Urola	32	84	0,43	Ertaina	116	0,60	Ona
HUA ib. beh.	URO37500	Urola	32	79	0,41	Ertaina	70	0,36	Ertaina
Lasao	URO39600	Urola	32	138	0,71	Ona	107	0,55	Ertaina
Zestoa ib. beh.	URO43800	Urola	32	155	0,80	Ona	51	0,26	Eskasa
Aizarnazabal	URO48200	Urola	32	190	0,98	Oso ona	143	0,74	Ona
Oikina	URO51800	Urola	32	152	0,78	Ona	27	0,14	Txarra

84. taula. Urola ibaiko kalitate biologikoa – 2015. urtea.

Urola ibaiaren goi-ibarrean, Brinkolan eta Legazpi ibaian gora dauden estazioetan, IBMWP puntuazio altuak lortu dira eta egoera biologikoa oso ona/ona da.

Aldiz, Legazpin ibaian behera eta Urretxu artean dagoen tartean egoerak nabarmen egin du txarrera. Udaberriko kanpainan egoera ertaina lortu da, aldiz, agorraldian, egoerak okerrera egiten du, egoera eskasa erregistratuz.

Bestalde, Aizpurutxo eta Lasao arteko tartean hobekuntza behatu da, baina ez da nahikoa. Honela, udaberrrian egoera ertaina lortu da, Azkoitia ibaian gora eta Lasaon izan ezik, egoera ona delarik kasu hauetan. Agorraldian, egoera ertaina da kasu guztietan, Azkoitia ibaian goran eta Azpeitian izan ezik.

Lasaotik bokalera doan tarteak hobekuntza erakutsi du udaberrian, IBMWP balio altuak lortuz; honela egoera ona da Zestoa ibaian behera eta Oikinan eta oso ona Aizarnazabalen. Aldiz, agorraldian, kutsadura arazoak detektatu dira Zestoa ibaian behera eta Oikinan. Honela, Zestoa ibaian beheran egoera eskasa izan da abeltzaintza jatorriko kutsadura organikoa dela eta, Oikinan egoera hau papergintza-industriako isurketek eragin duten bitartean; azken puntu honetan, 2009an, hobekuntza nabarmena detektatu zen, isurketa horien tratamendua hobetu zela-eta; hala ere, ondoko urteetan lortutako emaitzak apalagoak izan dira. Bestalde, Aizarnazabalen udaberrian erregistratutako egoera ona mantendu egiten da.



54. irudia. Urola ibaiko kalitate biologikoaren eboluzio longitudinala – 2015. urtea.

Urolaren ibaiadarrei dagokienez, hauexek dira lortutako emaitzak:

				UDABERRIA			AGORRALDIA		
Estazioa	**Kodea**	**Ibaia**	**Egoera**	**IBMWP**	**EQR IBMWP**	**Egoera**	**IBMWP**	**EQR IBMWP**	**Egoera**
Barrendiola ib. beh.	BAR05800	Barrendiola	23	146	0,75	Ona	109	0,56	Ona
Ibaieder presa ib. beh.	IED07400	Ibai-Eder	23	135	0,69	Ona	141	0,72	Ona
Landeta	IED13700	Ibai-Eder	23	177	0,91	Oso ona	151	0,77	Oso ona

85. taula. Urola ibaiko ibaiadarren kalitate biologikoa – 2015. urtea.

Barrendiola errekan, urtegitik behera, egoera ona erregistratu da, egoera onurgarria delarik.

Bestalde, Ibaieder ibaiak emaitza onak lortu ditu, eta egoera biologiko ona erregistratu da Ibaieder presatik behera, eta oso ona Landetan.

5.1.5.6. EKOIZPEN PRIMARIOA (UROLA)

Alga bentonikoen eta planktonikoen laginak bildu dira estazio hauetan:

	BENTOSA			PLANKTONA		
ESTAZIOAK	**Klorofila (mg/l)**	**Margalef indizea**	**Egoera trofikoa**	**Klorofila (µg/l)**	**Margalef indizea**	**Egoera trofikoa**
Brinkola	--	--	--			
Legazpi ib. gora	9,46	2,67	Oligotrofia			
Legazpi ib. beh.	20,06	2,77	Mesotrofia	1,84	2,59	Oligotrofia
Urretxu HUA ib. g.	18,60	1,91	Oligotrofia			
Urretxu	29,56	2,46	Mesotrofia	3,89	2,57	Oligotrofia
Aizpurutxo	26,45	2,31	Mesotrofia			
Azkoitia ib. gora	5,60	2,69	Oligotrofia			
Azpeitia	210,35	2,43	Eutrofia	2,89	2,38	Oligotrofia
Badiolegi HUA ib. beh.	47,14	2,38	Mesotrofia	2,69	2,47	Oligotrofia
Lasao	48,31	2,40	Mesotrofia			
Zestoa ib. beh.	128,69	2,14	Eutrofia			
Aizarnazabal	60,44	2,50	Mesotrofia			
Oikina	24,43	2,25	Mesotrofia			

86. taula. Urola ibaiko ekoizpen primarioa - 2015. urtea.

Urola ibaiaren buruan, Brinkolan, ez da alga bentonikorik atzeman. Gainerakoetan, oligotrofia dago 3 kasutan, hala nola Legazpin ibaian gora, Urretxu HUA gora eta Azkoitian ibaian gora. 7 estaziotan mesotrofia-egoera ikusi da: Legazpi ibaian behera, Urretxu, Aizpurutxo, Badiolegin ibaian behera dagoen HUA, Lasao, Aizarnazabal eta Oikinan. Azkenik, gainerako 2 estaziotan eutrofia antzeman da, alegia, Azpeitian eta Zestoa ibaian behera. Kasu gehienetan alga-populazio helduak daude, Urretxun ibaian gora dagoen HUAn salbu, non populazioak hazte-fasean dauden.

Plankton-laginak 4 estaziotan hartu dira: Legazpin ibaian behera, Urretxun, Azpeitian eta Badiolegin ibaian behera dagoen HUAn; horietan guztietan emaitzek oligotrofia adierazten dute. Heltze- fasean dauden alga-populazio dira.

Gainera, planktonaren osaera aztertu da Azpeitian eta Azpeitiko HUAn ibaian behera.

Azpeitian, talde hauetako algak aurkitu dira: Diatomeoak, Klorofizeoak, Zianobakterioak, Kryptofizeoak eta Euglenofitoak. Diatomeoen taldea nagusitu da, 9 genero ezberdinekin identifikatu delarik. Ugaritasunagatik nabarmentzekoak dira *Navícula* eta *Nitzschia* generoak. Gainera, kalitatearen zenbait indikatzaile identifikatu dira: *Gyrosigma* eta *Rhoicosphenia curvata* biak eutrofiloak eta β-mesosaprobikoak (MAGRAMA, ID-TAX). Baita *Melosira varians* eta *Nitzschia acicularis,* eutrofilo eta α-mesosaprobikoak, hau da, gune eutrofikoak nahiago dituztenak, materia organiko ugarirekin. Klorofizeoei dagokionez, 5 genero identifikatu dira, *Scenedesmus* izanik behatuena. Zianobakterioen presentzia oso baxua da, zehazki *Aphanizomenon* eta *Oscillatoria* generoak. Kryptofizeo eta Konjugatuak kontzentrazio baxuetan antzeman dira. Zooplaktoari dagokionez, Kopepodo, Rotifero, Protozoo eta Nematodoez osatua dago, maiztasun baxuetan.

Azpeitian ibaian behera dagoen HUAn hurrengo alga taldeak identifikatu dira: Diatomeoak, Klorofizeoak, Xantofizeoak, Dinofizeoak, Zianobakteriak eta Kryptofizeoak. Talde nagusiak Diatomeoak dira, 9 genero identifikatuz, non *Navicula, Nitzschia* eta *Diatoma* diren aipatzekoak. Gainera, kalitate ekologikoaren indiaktzaile ugari behatu dira, besteak beste *Diatoma vulgaris* (β-mesosaprobikoa eta mesoeutrofiloa), *Gyrosigma* eta *Rhoicosphenia curvata* (eutrofiloa eta baita β-mesosaprobikoa) eta *Melosira varians* eta *Nitzschia linearis* (biak eutrofiloak eta α-mesosaprobikoak) (MAGRAMA, ID-TAX). Bestalde, Klorofizeoen 3 genero identifikatu dira, euren artean *Scenedesmus armatus*, ur β-mesosaprobikoen adierazlea, eta *Scenedesmus naegelii*, zeina mota guztietako ur mesosaprobioetan aurkitzen den. Gainontzeko alga taldeak maiztasun baxuetan aurkitu dira. Zooplaktonari dagokionez, Rotifero (*Proalak*), Protozoo (*Tintinidium* eta *Vorticella*) eta Nematodoez osatua dago.

Horrez gain, bentosaren eta planktonaren laginak hartu dira Urolaren ibaiadarretan, eta Barrendiola eta Ibaieder ibaietan:

		BENTOSA			PLANKTONA		
ESTAZIOAK	**IBAIA**	**Klorofila (mg/l)**	**Margalef indizea**	**Egoera trofikoa**	**Klorofila (µg/l)**	**Margalef indizea**	**Egoera trofikoa**
Barrendiola ib. b.	Barrendiola	**--**	--	--			
Presa ib. beh.	Ibaieder	18,85	2,29	Oligotrofia			
Landeta	Ibaieder	342,61	2,43	Eutrofia	1,20	2,52	Oligotrofia

87. taula. Urola ibaiko ibaiadarren ekoizpen primarioa - 2015. urtea.

Alga bentonikoei dagokienez, Barrendiola urtegian, ibaian behera, ez da ikusi bat ere. Bestalde, Ibaieder ibaian oligotrofia ikusi da presatik behera, eta eutrofia Landetan; kasu bietan heltze-prozesuan dauden alga-populazioak dira.

Landetan, gainera, planktonaren lagina hartu da; klorofila planktonikoaren edukia oligotrofia-egoerari dagokio, eta hazkuntza-fasean dagoen alga-populazioa da.

Gune horretan planktonaren osaera ere aztertu da. Fitoplankton-talde hauek ikusi dira: Diatomeoak, Klorofizeoak, Kryptofizeoak eta Konjugatuak. Diatomeoen taldea izan da ugariena eta genero-aniztasun handiena duena. Diatomeoen 10 genero aurkitu dira eta *Diatoma vulgaris* argiro da nagusi. Espezie hori ur mesotrofiko eta y β -mesosaprobikoen adierazlea da. Beste adierazle batzuk ere identifikatu dira, hala nola *Melosira varians* eta *Nitzschia acicularis* (eutrofilo eta α-mesosaprobikoak), *Rhoicosphenia curvata*, *Gyrosigma sp*. y *Amphora sp*. (eutrofilo eta β-mesosaprobikoak) (MAGRAMA, ID-TAX). Klorofizeoak maiztasun baxua dute eta 2 genero behatu dira: *Scenedesmus sp*. eta *Ulothrix sp*.. Kryptofizeoak maiztasun ertain-baxuan agertu dira eta Konjugatuak kontzentrazio oso baxuetan. Era berean, zooplaktonaren presentzia oso baxua da, Urola ibaiaren ardatzean, alde handia dago urte-sasoi batetik bestera eguzki-argiarekiko esposizioari dagokionez. Hala ibai-buruan nola bokaletik gertu dagoen aldean, itzal handia dago zenbait lekutan: Brinkolan, Legazpin ibaian gora, Legazpin ibaian behera, Azkoitian ibaian gora, Lasaon eta Aizarnazabalen. Alabaina, beste gune batzuk egoera okerragoan daude, kasu horietan ibaia bideratzeko lanen ondorioz zuhaitz-estalkia kendu delako. Urretxuko HUA ibaian gora, Urretxu, Aizpurutxo, Azpeitia, Badiolegi HUA ibaian behera, Zestoa ibaian behera eta Oikina. Tarte horietan, intsolazioa handia da. Bestalde, itzal handia dago Barrendiolan. Ibaiederren, presan behera bakarrik da garrantzitsua, eta Landetan, berriz, eguzki-argiarekiko esposizioa ia erabatekoa da.Rotifero eta Protozoo aleak behatuz.

ESTAZIOA	
Brinkola	0,88
Legazpi ib. gora	0,51
Legazpi ib. beh.	0,53
Urretxu HUA ib. g.	0,25
Urretxu	0,23
Aizpurutxo	0,00
Azkoitia ib. gora	0,63
Azpeitia	0,23
HUA ib. beh.	0,15
Lasao	0,75
Zestoa ib. beh.	0,25
Aizarnazabal	0,37
Oikina	0,43
Barrendiola ib. beh.	0,73
Ibaieder presa beh.	0,88
Landeta	0,21

88. taula. Argi-xurgatzearen koefiziente. Urola arroa.

5.1.5.7. DIATOMEOEN ANALISIA

Urola ibaian, Azpeitiko eta ibaian behera dagoen HUAko estazioetan, diatomeoen laginak hartzeko bi kanpaina egiten dira (udaberrian eta agorraldian). IPS indizerako lortutako emaitzak ondoko taulan azaltzen :

				UDABERRIA			AGORRALDIA		
Estazioa	Kodigoa	Ibaia	Tipo	IPS	EQR IPS	Egoera	IPS	EQR IPS	Egoera
Azpeitia	URO35000	Urola	32	15,4	0,86	Ona	14,3	0,79	Ona
Badiolegi HUA ib. beh.	URO37500	Urola	32	13,6	0,76	Ona	12,9	0,72	Ona

89. taula. Ur-kalitatea diatomeoen arabera. IPS indizea - 2015. urtea.

Azpeitiko estazioan baita Badiolegiko HUAn beherako estazioan ere emaitza onak lortu dira, egoera ona erregistratuz kasu guztietan. Iaz ikusitakoaren antzeko egoera atzeman da.

Horrez gain, Ibaieder ibaian ere, Landetan, laginak hartu dira, eta emaitzak honako hauek izan dira:

				UDABERRIA			AGORRALDIA		
Estazioa	**Kodigoa**	**Ibaia**	**Tipo**	**IPS**	**EQR IPS**	**Egoera**	**IPS**	**EQR IPS**	**Egoera**
Landeta	IED13700	Ibai-Eder	23	16,6	0,94	Ona	14,6	0,83	Ona

90. taula. Ur-kalitatea diatomeoen arabera. IPS indizea - 2015. urtea.

Landetan, emaitza onak lortu dira, egoera ona lortuz bi laginketa-kanpainatan.

Ondoren, Shannon-en aniztasun-indizearen balioak azaltzen dira:

Estazioa	Udaberria	Agorraldia
Azpeitia	3,92	3,78
Badiolegi HUA ib. beh.	4,36	4,75
Landeta	3,49	4,14

91. taula. Shannon indizearen balioak – 2015. urtea.

Landetan eta Badiolegi HUAn ibaian behera balio handiak lortu dira, eta horiek adierazten dute dibertsitate handia dagoela diatomeoen komunitateetan. Gainontzeko kasuetan diatomeoen komunitatea ez da hain anitza.

5.1.5.8. ARRAIN-FAUNA (UROLA)

Urola ibaian, 5 gunetan egin dira arrain-laginketak: Aizpurutxo, non laginketa erdikuantitatiboa egin den, eta Urretxu, Azpeitia, Zestoa behera eta Oikina, non laginketa kualitatiboak egin diren. Hona hemen lortutako emaitzak:

IV. eranskinean, espezieen araberako neurri banaketaren grafikoak ikus daitezke.

Laginketa erdikuantitatiboa	**DENTSITATEA (ALE KOP./ Ha)**			
ESTAZIOA	**AMUARRAINA**	**EZKAILUA**	**MAZKARRA**	**AINGIRA**
Aizpurutxo	405	13.480	5.144	42

92. taula. Aizpurutxo arrain komunitatearen osaera (Urola ibaia) - 2015. urte hidrologikoa.

Laginketa kualitatiboak	**DENTSITATE MINIMOA (ALE KOP./ Ha)**								
ESTAZIOA	**IZOKINA**	**AMUARRAIA**	**BARBO**	**LOINA**	**EZKAILU**	**MAZKARRA**	**AINGIRA**	**KORROKOIA**	**PLATUXA**
Urretxu		312			8.943	3.333			
Azpeitia		31	103	3.015	2.082	3.692	10		
Zestoa beh.		163	11	391	337	696	696		
Oikina	43	108	65	714	455	130	4.199	173	22

93. taula. Urolako arrain komunitatearen osaera - 2015. urte hidrologikoa.



55. irudia. Urretxuko arrain-komunitatearen osaera (Urola ibaia) - 2015. urte hidrologikoa.

URRETXUKO arrain-komunitatea 3 espeziek osatzen dute: amuarraina, ezkailua eta mazkarra. Ezkailua da espezie nagusia eta dentsitate oso altua erakusten du (8.943 N/Ha). Mazkarraren dentsitatea altua da (3.333 N/Ha). Aldiz, amuarrainaren presentzia murritza da (312 N/Ha), eta aurreko urtekoa baino baxuagoa (586 N/Ha). Ez da aingirarik atzeman, nahiz eta beste laginketetan agertu egin izan diren arren. Egoera ez da oso ona.



56. irudia. Aizpurutxoko arrain komunitatearen osaera (Urola ibaia) - 2015. urtea.

Urola ibaian AIZPURUTXON ezkailuaren presentzia da nabarmentzekoa, dentsitate oso altuak agertzen baititu (13.480 N/Ha). Mazkarrak ere dentsitate oso altua erakusten du (5.144 N/Ha). Aldiz, amuarrainaren populazioak beherakada nabarmena jasan du aurreko laginketekin alderatuta; honela, 405 N/Ha-ko dentsitatea lortu du aurten, 2013 urtean 1.922 N/Ha-ko balioa lortu zuen bitartean. Aingira ale solteak atzeman dira (42 N/Ha). Egoera ez da oso ona.



57. irudia. Azpeitiako arrain komunitatearen osaera (Urola ibaia) - 2015. urtea.

Urola ibaian AZPEITIAN 6 arrain espezie agertu dira: amuarraina, barboa, loina, ezkailua, mazkarra eta aingira. Loina espeziearen populazioa hobetu egin da nabarmenki, dentsitate altua lortuz (3.015 N/Ha); aurreko laginketan dentsitate ahula erregistratu zen (300 N/Ha). Ezkailuaren (2.082 N/Ha) eta mazkarraren (3.692 N/Ha) populazioak oso ugariak dira. Aldiz, amuarrainaren presentzia (31 N/Ha), barboarena (103 N/Ha) eta aingirarena (10 N/Ha) urria da. Egoera on samarra da. Urolak ibai-tarte honetan jasan duen ibarbasoen alterazioa hartu behar da kontuan.



58. irudia. Zestoa Ib.Beherako arrain komunitatearen osaera (Urola ibaia) - 2015. urtea.

ZESTOA IBAIAN BEHERAN 6 arrain espezie agertu dira: amuarraina, barboa, loina, ezkailua, mazkarra eta aingira. Aurreko laginketan loina populazioaren beherakada leuna detektatu zen, aurten mantendu egiten den egoera, dentsitate ahula agertuz (391 N/Ha). Barboaren presentzia minimoa da (11 N/Ha); soilik ale bakarra arrantzatu da. Ezkailu (337 N/Ha) eta mazkarraren (696 N/Ha) populazioak ahulak dira. Amuarrainari dagokionez, ale solteak arrantzatu dira soilik (163 N/Ha). Azkenik, aingirak ere dentsitate baxua aurkezten du (696 N/Ha), aldiz, aipatu behar da espezie honek 2007 urtetik hona eduki duen gorakada, urte hortatik atzera oso eskasa baitzen. Egoera ez da oso ona.



59. irudia. Oikinako arrain komunitatearen osaera (Urola ibaia) - 2015. urtea.

OIKINAN 9 arrain espezie behatu dira: izokina, amuarraina, barboa, loina, ezkailua, mazkarra, aingira, korrokoia eta platuxa. Aingira da nabarmenki nagusitzen den espeziea eta dentsitatea altua erakusten du (4.199 N/Ha). Loina (714 N/Ha) eta ezkailuak (455 N/Ha) dentsitatea ahulak azaldu ditu. Gainontzeko espezieak oso urriak dira. Aurreko laginketan bezala, aurten ere Altzolaratz errekan egindako birpopulaketa-saioetako izokinak atzeman dira. Egoera on samarra da.

Ibaiadarrei dagokienez, arrantza elektriko bidezko laginketa erdikuantitatiboa egin da Ibaieder ibaian, Presan ibaian behera. Lortutako emaitzak ondoko taulan azaltzen dira:

Laginnketa erdikuantitatiboa	**DENTSITATEA (ALE KOP./ Ha)**		
ESTAZIOA	AMUARRAINA	EZKAILUA	AINGIRA
Ibaieder Presa ib. beh.	1.684	303	316

94. taula. Ibaiederreko arrain komunitatearen osaera - 2015. urtea.



60. irudia. Ibai-Eder Presa Beherako arrain komunitatearen osaera (Urola ibaia) - 2015. urtea.

IBAIEDER PRESAN BEHERA amuarrainak dentsitate ugaria erakusten du (1.684 N/Ha), aldiz, aurreko laginketan lortutako balioak baino baxuagoak izan dira (2.855 N/Ha). Ezkailu eta aingirak dentsitate baxuak erakusten dituzte, 300 N/Ha inguru, aurreko laginketetan bezala.

5.1.5.9. SINTESIA (UROLA)

Urola ibaian lortutako datu fisiko-kimikoek tenperatura altuak erakutsi dituzte, izokinkideentzako mugagarria delarik, ez ordea ziprinidoentzako, kasu guztietan Brinkola, Legazpi ibaian gora, Urretxu, Azpeitia eta Zestoa ibaian behera salbu, izokinkideentzako gaitasuna erakusten duten estazioak baitira. Gainera, nolabaiteko karga organikoa detektatu da; Aizpurutxo eta Lasaon 1 mg/l-ko muga gainditu da, arrain-bizitzarako gai ez diren urak bilakatuz. Agorraldian nolabaiteko oxigeno urritasuna detektatu da, baita fosfato kontzentrazio altuak ere Urolako ardatz guztian zehar.

Egoera biologikoari dagokionez, ibai-buruan aldeko emaitzak lortu dira eta egoera oso ona/ona da. Aldiz, Legazpi ibaian behera eta Urretxu artean dagoen tartean egoerak nabarmen egin du txarrera; ertain/eskasa da udaberrian, eta txarra/eskasa agorraldian. Erdiko tarteko emaitzak apalak dira oro har, egoera ertaina lortuz kasu askotan. Kasu gutxitan egoera ona eta eskasa lortu da. Lasao eta Aizarnazabal arteko tartean egoera egokia da udaberrian, egoera ona/oso ona lortuz. Aldiz, agorraldian kutsadura arazoak detektatu dira Zestoa ibaian behera eta Oikinan, nekazaritza eta abeltzaintzak eraginda lehenengo kasuan, eta papergintza industriak eragindakoa bigarren kasuan, egoera eskasa eta txarra lortuz, hurrenez hurren.

Bestalde, ekoizpen primario bentonikoaren emaitzek adierazten dute oligotrofia-egoera dagoela ibai-buruan, eta erdiko eta beheko tarteetan, berriz, mesotrofia-egoera dela nagusi; halere, kasu batzutan oligotrofia eta eutrofia ere atzeman da. Klorofila planktonikoaren emaitzak oligotrofiari dagozkio kasu guztietan.

Arrain-faunari dagokionez, Urretxun ezkailu eta mazkar populazio ugariak detektatu dira, baita amuarrain populazio ahul bat ere. Aizpurutxon ezkailu eta mazkarrak ugariak dira, amuarrainaren populazioa urria den bitartean, aurreko urteetan baino baxuagoa gainera. Azpeitian, loina, ezkailu eta mazkar dentsitateak altuak dira, aldiz, barbo, amuarrain eta aingiren presentzia eskasa da. Zestoa ibaian beheran espezie berdinak agertu dira, guztiak dentsitate baxuetan. Azkenik, Oikinan, 9 espezie piszikola detektatu dira: izokina (arrain-hazkuntzakoak), amuarraina, barboa, loina, ezkailua, mazkarra, aingira, korrokoia eta platuxa, aingira izanik ugariena, dentsitatea altua lortuz; gainontzeko espezieak nahiko urriak dira.

Ibaiadarrei dagokienez, Barrendiola errekako urak kalitate fisiko-kimiko ona du, eta, beraz, egokia da izokinkideentzat. Egoera biologikoari dagokionez, egoerak onera egin du aurreko urteekin alderatuta eta ertaina/ona da.

Bestalde, Ibaieder ibaia HUAtik behra egokia da izokinkideentzat, aldiz, Landetan ezohikoa den amonio datu altua detektatu da, beraz ez du izokinkideentzkao gaitasuna erakusten. Emaitza biologikoek egoera ona dela adierazten dute, eta egoera biologikoa oso ona/ona lortu da.

Ekoizpen primarioari dagokionez, bai Barrendiolan eta bai Ibaieder presan ibaian behera atzeman da oligotrofia dagoela bentosean. Landetan eutrofia dago, baina plankton-analisiak oligotrofia adierazten du.

Arrain-faunari dagokionez, Ibaieder presa ibaian behera amuarrainak dentsitate aipagarria lortu du, baina aurreko urtekoa baino baxuagoa, gainera ezkailu eta aingira dentsitate baxuak lortu dira.

5.1.6. DEBA IBAIAREN ARROA

5.1.6.1. DESKRIBAPEN GEOGRAFIKOA (DEBA)

Deba ibaiaren arroak 530 km^2-ko eremua hartzen du eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko mendebaldean kokatzen da. Arro ia guztia Gipuzkoan dago; Aramaio eta Ego ibaien buruak soilik daude Gipuzkoatik kanpo, Arabako eta Bizkaiko lurralde historikoetan, hurrenez hurren. Deba ibaia Leintz Gatzagan sortzen da eta Deba herrian itsasoratzen da. Kareharri motako materialak dira nagusi, eta, ondorioz, uretan mineralizazio handi bat sortzen da. Deba ibaiaren ardatzean, herri garrantzitsu asko kokatzen dira, hala nola Eskoriatza, Aretxabaleta, Arrasate, Bergara, Elgoibar eta Mendaro. Ibaiadarretan, berriz, Oñati herria nabarmentzen da Oñati Ibaian, eta Eibar-Ermua Egon. Ibaiadar nagusiak, ezkerraldean, Aramaio, Angiozar, Ubera eta Ego dira; eskuinaldean, berriz, Oñati, Antzuola, Sallobente eta Kilimoi.

Urkuluko urtegiak 10 Hm^3 har ditzake eta goiko aldea hornitzen du. Aixolako urtegiak, berriz, 2,6 Hm^3 har ditzake eta erdialdeko gunea hornitzen du. Beste alde batetik, Kilimoiko akuiferoak Elgoibar eta Mendaro herriguneei ematen die ura. Saneamendua amaitzear dago. 2012. urtean, Epeleko HUA martxan jarri zen, eta han tratatzen dira Oñati, Eskoriatza, Aretxabaleta eta Arrasateko ur zikinak. Gainera, Mekolaldeko HUA dago, Bergarako, Antzuola (konektatu gabe oraindik) eta Elgetako urak hartzen dituen araztegia, bai eta Apraizko HUA ere, Elgoibarko, Eibarko, Soraluzeko, Mendaroko, Ermua (konektatu gabe oraindik) eta Mallabia (konektatu gabe oraindik) isurkinak tratatzen dituen araztegia. Beste alde batetik, aipatu behar da azken urte hauetan industria jakin batzuetan hobetu egin dela hondakin toxikoen tratamendua.

Deba ibaiaren eta ibaiadarren buruak oso ondo kontserbatzen dira. Alde horietan, basogintza eta nekazaritza dira nagusi, batez ere. Aldiz, haran barruan, gizakiaren presentzia handia dago, eta hirigune eta industrialde garrantzitsuak eta azpiegitura handiak daude. Horrez gain, ibai-bideratzeak ugari dira, eta, horren ondorioz, ibaiko habitata izugarri narriatu da. Bestalde, ur-baliabideak oso ustiatuta daude; 11 jauzi hidroelektriko daude, eta ur-hargune ugari erabilera industrialetarako eta errotetarako. Erabiltzen ez diren presa txiki asko daude.

5.1.6.2. EMARIA (DEBA)

Jarraian, laburki azaltzen dira Deba ibaian Altzolako neurketa-estazioan lortutako emarien datuak:

Urria	1,510
Azaroa	4,792
Abendua	27,773
Urtarrila	30,165
Otsaila	66,043
Martxoa	30,655
Apirila	9,841
Maiatza	6,455
Ekaina	5,461
Uztaila	2,376
Abuztua	1,629
Iraila	1,919

95. taula. Deba ibaiko ur-emariaren datuak - 2014/15. urte hidrologikoa. Hilabeteko batez bestekoak (m3/s).

	Ur emaria (m3/s)	Emari espezifikoa (l/s/km^2)
Urteko batez b. emaria	15,718	33,208
Hileko max.	66,043	142,257
Hileko min.	1,510	3,253

96. taula. Deba ibaiko ur-emariaren datuak - 2014/15. urte hidrologikoa.



61. irudia. Eguneko batez besteko ur-emaria. Deba Altzolan, 2014/15. urtea.

2014-2015 urte hidrologikoa ohi baino apur bat hezeagoa izan da (15,718 m3/s). Otsaila hilabeterik emaritsuena izan da alde handiz, eta ohikoa baino emari nabarmenki altuagoak izan dira. Abendua, urtarrila eta martxoan ere emariak handiak izan dira. Udaberria, aldiz, lehor samarra izan da. Hilabeterik lehorrena urria izan da, batazbestekoa baino emari askoz baxuagoekin. Azaroan ere emari oso baxuak erregistratu dira urte-sasoia kontuan hartuta. Bere aldetik, uztaila, abuztua eta irailean emariak batez besteko historikoa baino nabarmen txikiagoak izan dira.

5.1.6.3. URAREN KALITATE FISIKO-KIMIKOA (DEBA)

Ondorengo taulan, Deba ibaian eginiko laginketetan lortu diren emaitza fisiko-kimiko nagusiak azaltzen dira:

KODEA	ESTAZIOA	Lagink. Kop.	Tª (ºC)	pHa	Eroan. (µS/cm)	Ox.Dis. (mg/l)	PO_4 (mg/l)	DQO (mg/l)	NH_4 (mg/l)	Arrain gaitasuna

KODEA	ESTAZIOA	Laginк. Kop.	Tª (ºC)	pHa	Eroan. (µS/cm)	Ox.Dis. (mg/l)	PO_4 (mg/l)	DQO (mg/l)	NH_4 (mg/l)	Arrain gaitasuna
DEB03100	Leintz	15	5,9 – 20,3	7,7 – 8,5	108 - 1136	8,63 – 12,49	<L.C	<L.C	<L.C	Izokinkideak
DEB12750	Aretxabaleta ib.g.	2	15,5 – 22,4	8,4 – 8,6	1622 - 1743	9,94 – 10,32	<L.C – 0,06	-	<L.C	Ziprinidoak
DEB14000	Arrasate	15	7,8 – 23,3	8,0 – 8,7	323 - 1991	9,29 – 12,50	<L.C – 0,17	<L.C – 40	<L.C – 0,10	Ziprinidoak
DEB20300	San Prudentzio	15	7,3 – 23,5	8,0 – 8,7	307 - 1038	9,66 – 12,46	0,05 – 1,13	<L.C – 63	<L.C – 0,20	Ziprinidoak
DEB27290	Matxiategi	2	14,9 – 23,5	8,3 – 8,6	581 – 763	10,01 – 11,68	0,20 – 0,24	-	<L.C – 0,08	Ziprinidoak
DEB28700	Bergara ib. beh.	15	7,4 – 24,1	8,0 – 8,9	235 - 851	8,38 – 12,83	0,06 – 1,33	<L.C – 69	<L.C – 1,52	Ez gai
DEB34800	Soraluze	15	7,6 – 24,9	8,0 – 9,1	236 - 705	9,69 – 13,19	0,07 – 0,99	<L.C – 74	<L.C – 0,17	Ziprinidoak
DEB38000	Maltzaga ib.beh.	15	7,9 – 23,3	8,1 – 9,6	241 - 664	8,72 – 13,07	0,05 – 0,77	<L.C – 70	<L.C – 0,26	Ziprinidoak
DEB44300	Elgoibar ib. beh.	15	7,7 – 23,8	8,1 – 9,2	242 – 640	8,49 – 12,60	0,07 – 0,72	<L.C – 54	<L.C – 0,15	Ziprinidoak
DEB48100	Mendaro	15	8,0 – 23,9	8,0 – 8,6	241 – 638	6,43 – 12,18	0,08 – 1,52	<L.C – 40	<L.C – 0,84	Ziprinidoak

97. taula. Deba ibaiko datu fisiko-kimikoak – 2014-2015. urte hidrologikoa (balio minimo eta maximoak)

Emaitzak interpretatzeko garaian, kontuan hartu behar da bi lagin bakarrik hartu direla Aretxabaletan ibaian gora eta Matxiategin; gainerakoetan 14 laginketa egin dira.

Uraren tenperaturari dagokionez, 21,5 ºC-ko muga gainditu da kasu guztietan, Leintzen salbu, hortaz, Debako adarra gune egokia da ziprinidoentzat, baina ez izokinkideentzat. Balio maximoa 20,3º C-koa da Leintzen eta 24,9º C-koa Soraluzen.

Oxigenazioari dagokionez, egokia da orokorrean, 9 mg/l-ko balioak gainditzen direlarik kasu guztietan, Mendaron salbu, non nolabaiteko gabezia ematen den uda aldian, 6,43 mg/l-ko datu minimoa erregistratuz. Gainontzeko estazioetan datu minimoa 8,38 eta 10,01 mg/l-koa da, Bergara ibaian behera eta Matxiategin, hurrenez hurren.

Amonioari dagokionez, behin, Bergara ibaian behera, gainditu da 1 mg/l-ko muga; hori dela eta ez da egokia arrainak bizitzeko, datua 1,52 mg/l-koa izanik. Mendaron ere datu maximo altua bildu da, 0,84 mg/l, nahiz eta honen ez duen muga gainditu. Gainerako estazioetan parametro hori ez da mugatzailea, aipatutako balioaren azpitik dagoelako. Honela, 2012. urtean hasi zen kutsatzaile organikoaren beherakadak dirau Deba ibaian, Epeleko HUA martxan jarri izanaren ondorioz.

Modu berean, DBO_5 eta DQO balioak baxuak dira oro har, aurreko urtean bezala, kutsadura organikoak behera egin baitu; halere, baina kasuren batean altu samarrak izan daitezke. Hala, DBO_5-aren balio maximoa 8 mg/l da Elgoibar ibaian behera; DQOaren datu maximoa, aldiz, 74 mg/l da Soraluzen.

Bestalde, fosfatoen kontzentrazio altuak atzeman dira San Prudentziotik aurrera eta ardatz osoan zehar; hori eutrofizazio maila altuekin loturik dago. Nitratoak kontzentrazio baxuetan daude.

Azkenik, metalei dagokienez, nikel-kontzentrazio minimoak atzeman dira, baita zinka, kromoa, boroa eta beruna kasuren batean ere.

Laburbilduz, kasu batean, Leintz, izokinkideentzako egokiak diren urak erregistratu dira. Gainontzeko estazioetan, ziprinidoentzako egokiak direla behatu dira, uraren tenperatura altuak direla eta. Bergara ibaian behera, gainera, amonio kontzentrazio altuak antzeman dira eta honek arrain bizitzarako egokia ez dela azaltzen du.

Azken urteetan Deba ibaiaren uraren kalitateak nabarmen egin du hobera, 2012ko udaberrian Epeleko HUA abiarazteari esker (Eskoriatzako, Aretxabaletako, Arrasateko eta Oñatiko ur zikinak arazten ditu); ondoren, urte horretako abenduan, Oñatiko kolektorera konektatu zen.

Ondorioz, kutsadura maila nabarmen jaitsi da. Epeleko HUA baino lehen, 2008an Mekolaldeko HUA abiarazi zen (Bergarako, Antzuolako eta Elgetako ur zikinak arazteko) eta urte berean ere Apraitzeko HUA (Elgoibarko, Eibarko, Soraluzeko, Mendaroko, Ermuko eta Mallabiko ur zikinak arazteko). Ondorioz, uraren kalitatea hobetu zen Deba ibaiaren erdi-behe ibarrean, are gehiago goi-ibarraren saneamendua egin eta gero.



62. irudia. Deba ibaiko kalitate fisiko-kimikoa – 2014/2015. urte hidrologikoa.

Ibaiadarrei dagokienez, ondoko taulan agertzen dira lortutako emaitzak:

CÓDIGO	ESTAZIOA	IBAIA	Kop.	Tª (ºC)	pHa	Eroan. (µS/cm)	Ox. Dis. (mg/l)	PO_4 (mg/l)	DQO (mg/l)	NH_4 (mg/l)	Arrain gait.
ARM07700	Aramaio	Aramaio	7	8,6 – 23,2	8,1 – 8,8	303 - 674	9,87 – 14,20	<L.C – 0,80	<L.C – 19	<L.C – 0,53	Zipri
OIN06700	Arantzazu ib.g.	Oñati	2	14,3 – 21,8	7,0 – 8,2	367 - 965	8,03 – 9,76	<L.C – 0,08	-	<L.C – 0,26	Zipri
OIN09500	Zubillaga	Oñati	8	7,5 – 19,4	8,1 – 8,6	200 - 323	8,83 – 12,67	<L.C – 0,18	<L.C - 38	<L.C – 0,06	Izok
OIN12500	Tabesa zubia	Oñati	15	7,4 – 22,5	8,0 – 8,8	171 - 334	8,87 – 12,63	<L.C – 0,23	<L.C – 47	<L.C – 0,09	Zipri
URK05300	Urkulu ib. beh.	Urkulu	2	13,0 – 17,2	8,3	293 - 309	8,89 – 10, 46	<L.C	-	<L.C	Zipri
ALN05500	Antzuola	Antzuola	7	8,4 – 23,1	8,1 – 8,3	237 - 462	7,38 – 12,15	0,08 – 1,01	<L.C – 19	<L.C – 1,88	Ez gai
UBE04000	Elgeta ib. beh.	Ubera	7	8,9 – 20,0	8,3 – 8,6	347 - 524	9,37 – 12,07	0,07 – 0,35	<L.C	<L.C – 0,10	Izok
AIX01100	Aixola ib. beh.	Aixola	2	13,0 – 17,5	8,3	359 - 368	9,47 – 10,31	<L.C	-	<L.C	Izok
EGO08800	Ego	Ego	8	8,4 – 22,0	8,1 – 8,5	253 - 504	8,26 – 12,32	0,25 – 1,66	<L.C – 66	0,14 – 4,28	Ez gai
SLO05000	San Lorenzo	San Lorenzo	3	8,4 – 18,2	8,1 – 9,0	260 - 397	10,35 – 12,63	<L.C – 0,09	<L.C	<L.C	Izok

98. taula. Deba ibaiko ibaiadarren datu fisiko-kimikoak – 2014/2015. urte hidrologikoa (balio minimo eta maximoak).

Datuak interpretatzeko garaian, kontuan hartu behar da bi lagin bakarrik hartu direla Arantzazun, Urkulu ibaian behera, eta Aixola ibaian behera. Gainerako estazioetan, berriz, 7-8 laginketa egin dira; Tabesa zubian izan ezik, 15 lagin hartu baitira.

Aramaio ibaia egokia da ziprinidoentzat, uraren tenperaturak izokinkideentzako mugak gainditzen baititu; honela, 23,2º C-ko maximoa erregistratu da. Gainontzeko parametroek emaitza onak lortu dituzte orokorrean. Amonio eta fosfato kontzentrazio altuak nabarmentzekoak dira, nohizbehinka erregistratu direnak 0,53 eta 0,80 mg/l-ko maximoekin, hurrenez hurren. Era berean, nolabaiteko boro kontzentrazioa ere erregistratu da, 0,13mg/l-koa.

Oñati ibaian gora, Arantzazu ibaiarekin bat egiten duen lekuan lortutako emaitza fisiko-kimikoek adierazten du ur egokiak direla ziprinidoentzat, baina ez izokinkideentzat; izan ere, oxigenazioa urria da eta uraren tenperatura altua. Gainontzeko parametroek balio egokiak dituzte. Bestalde, Zubillagan ur egokiak dira izokinkideetzat eta emaitza fisiko-kimikoak onak. Azkenik, Tabesa zubian uraren kalitate fisiko-kimikoa ona da, aurreko urtearen izandako hobekuntza nabarmenaren bidetik, Oñatiko kolektorea Epeleko HUAra konektatu baitzen 2012an. Aldiz, uraren tenperatura balio handia erregistratu da aurten, 22,5º C, beraz egokia da ziprinidoentzat,

baina ez izokinkideentzat. Gainera, materia organikoaren nolabaiteko presentzia detektatu da, baita zinc eta nikel kontzentrazio baxuak ere.

Urkulu errekak, ur-araztegitik behera, kalitate fisiko-kimiko ona du, nahiz eta oxigeno urritasun arin bat agertu; beraz, egokia da ziprinidoak bizitzeko.

Antzuola ibaiari dagokionez, amonio-kontzentrazio handiak dauzka eta hori ez da bateragarria arrainen bizitzarekin; datu maximoa 1,88 mg/l izan da. Fosfatoak ere kontzentrazio handietan ageri dira, eta urteko batez bestekoa 0,45 mg/l da. Nohizean behin oxigeno gabezia ere detektatu da, 7,38 mg/l-ko kontzentrazio minimoarekin. Gainerako parametroen balioak egokiak dira oro har.

Ubera ibaian emaitzek adierazten dute urak egokiak direla izokinkideentzat. Parametroek balio egokiak lortu dituzte. Zink- eta nikel-kontzentrazio minimoak atzeman dira, baita burdina eta manganesoa ere.

Aixola errekan, emaitza onak lortu dira, eta ur egokiak dira izokinkide-espezieentzat, baita San Lorenzo ibaian ere.

Azkenik, Ego ibaian ikusi da kutsadurak behera egin duela azken urteetan; hala ere, oraindik kutsadura handia dago eta hori bateraezina da arrainen bizitzarekin. Kutsadura organiko handia dago; hain zuzen, amonioaren urteko batez bestekoa 1,19 mg/l izan da, eta datu maximoa 4,28 mg/l. Era berean, fosfato-mailak handiak dira; maximoa 1,66 mg/l izan da. Gainera, zinka, kromoa eta nikela detektatu dira, kontzentrazio txikietan. Tenperaturak balio altuak hartu ditu, 22º C-ko datu maximoarekin.

Aurten, laginketa espezifikoak egin dira Deba ibaiaren arroan, zehazki Deba ibaiaren goiko aldean, Leintz Gatzagako herritik behera, Ego ibaian ere, Ermuko herritik behera eta Goikola errekan. Hona hemen lortutako emaitzak:

KODEA	ESTAZIOA	IBAIA	Laginк, kop.	Tª (ºC)	pHa	Eroan. (µS/cm)	Ox.Dis. (mg/l)	PO_4 (mg/l)	DQO (mg/l)	NH_4 (mg/l)	Arrain gait.
DEB04450	Leintz ibaian behera	Deba	2	15,8-20,6	8,1-8,2	4560-5210	8,39-9,32	<L.C	--	<L.C	Cipri
EGO03830	Ermua ibaian behera	Ego	2	13,8-19,6	8,1-8,2	428-463	7,61-9,45	0,57-0,62	--	0,96-1,45	No apto
GOI02600	Goikola	Goikola	2	14,5-19,6	8,2	245-263	9,07-10,04	<L.C	--	<L.C	Salm

99. taula. Deba arroko laginketa espezifikoen datu fisiko-kimikoak – 2014/2015. urte hidrologikoa (balio minimo eta maximoak).

Kontuan izan beha da kasu honetan 2 laginketa baino ez direla egin.

Leintz Gatzagan ibaian behera lortutako emaitzek adierazten dute urak egokiak direla ziprinidoentzat, oxigenazioa urria delako; halere, kontuan hartu behar da 2 laginketa baino ez direla egin. Gainerakoan, lortutako emaitzak egokiak dira. Eroankortasunek balio altuak lortu dituzte, inguruaren izaera geologikoa dela-eta.

Ego ibaian Ermuatik ibaian behera, kutsadura maila altua behatu da, non amonioak 1,45 mg/l-ko balio maximoa lortu duen. Hortaz, ez da egokia arrainen bizitzarako. Hala ere, kontuan hartu behar da ibai-tarte honek pairatu duen hobekuntza 2014. urtean Ermua udalerriko saneamendua burutu zenetik.

Era berean, fosfatoen presentzia aipagarria da, baita nikelarena ere. Nolabaiteko oxigeno gabezia ere erregistratu da.

Amaitzeko, Goikola errekan, emaitzak egokiak izan dira, izokinkideentzako eremua ona dela erakutsiz. Aipatu nikel eta berun kontzentrazio minimoa detektatu dela.

5.1.6.4. KALITATE FISIKO-KIMIKOAREN JARRAIKO AZTERKETA (DEBA)

Deba ibaiaren arroan 3 estazio iraunkor daude, zeintzuek etengabe ematen baitituzte uraren kalitateari buruzko datuak: San Prudentzio eta Altzola, Deba ibaian; eta Zubillaga, Oñati ibaian.

2012an jarri zuten abian SAN PRUDENTZIOko kalitate estazio automatikoa, ordura arte desgaitua, Deba ibaiaren tarte horretan zegoen kutsadura handiaren ondorioz. 2012ko udaberrian, Epeleko HUA jarri zuten abian, eta, horri esker, nabarmen gutxitu da kutsadura; hala, datuak hartzeko prestatu zen. Datu dezente daude, egunen % 87 eta 98 artetik gora. Hona hemen datuak:

	pHa	Uraren Tª	Eroankor. (µS/cm)	Ox Dis (mg/l)	Uhert. (UNF)	Mat Org (m-1)	NH_4 + (mg/l)	Ortof (mg/l)
BATEZ BES.	7,9	14,2	724	10,38	26	6,0	0,12	0,15
DESB.TIP.	0,2	4,6	254	1,33	45	2,8	0,10	0,14
MAX.	8,6	23,2	1.246	12,93	339	17,5	0,66	0,78
MIN.	7,5	5,9	265	7,65	3	0,6	0,00	0,01
N	360	360	355	360	355	320	360	361
URRI. B.B.	7,9	17,0	1.122	9,15	6	8,6	0,16	0,31
AZA. B.B.	7,8	12,9	854	10,15	33	8,7	0,13	0,30
ABE. B.B.	7,8	10,1	477	11,35	45	6,4	0,10	0,08
URT. B.B.	7,8	8,0	544	11,97	25	4,5	0,10	0,10
OTSA. B.B.	7,7	7,7	405	12,40	89	8,2	0,04	0,02
MAR. B.B.	7,9	9,6	403	12,09	49	4,3	0,10	0,05
API. B.B.	8,4	12,7	576	11,29	14	3,2	0,09	0,10
MAI. B.B.	8,0	15,1	654	10,04	12	5,1	0,16	0,09
EKA. B.B.	7,9	18,0	689	9,33	16	5,8	0,24	0,19
UZT. B.B.	8,1	21,2	946	8,87	7	5,8	0,04	0,16
ABU. B.B.	8,0	20,2	979	8,75	21	8,4	0,15	0,22
IRA. B.B.	8,0	17,3	974	9,39	12	5,3	0,17	0,14

100. taula. San Prudentzio neurketa jarraituko estazioaren estatistikak, Deba ibaian. 2014/2015. Urte hidrologikoa (eguneko batez bestekoetan oinarritua).

pHaren urteko batez bestekoa 7,9 da. Eguneko batez bestekoak 7,5 eta 8,6 artean dabiltza. Balio horiek ur naturalei dagozkie. Uraren tenperaturaren urteko batez bestekoa 14,2 ºC-koa izan da. Eguneko batez bestekoak 5,9 eta 23,2 ºC artean ibili dira. Tenperatura handienak uztaila eta abuztuan izan dira; hain zuzen, hileko batez bestekoak 21,2 ºC eta 20,2 ºC izan dira hurrenez hurren; minimoa, berriz, otsailean izan da, 7,7 ºC. 19 alditan gainditu da 21,5 ºC-ko muga, hau da, % 5etan; beraz, hori eragozpena da izokinkideak bizitzeko, baina ez ziprinidoentzako.

Oxigenazioari dagokionez, eguneko batez bestekoak 7,65 mg/l balio minimoaren eta 12,93 mg/ balio maximoaren artean ibili dira. Urteko batez bestekoa 10,38 mg/l da. Egunen % 83etan gainditu dira 9 mg/l-ak; gainerako % 17etan, berriz, balio horren azpitik ibili da. Ez da izan 7 mg/l-tik beherako kontzentraziorik. Hala, egoera bateragarria da izokinkide-bizitzarekin. Laburbilduz, oxigenazioa ona da oro har, baina agorraldiko hilabeteetan halako urritasuna dago. Oxigenazio-baldintzak modu ikusgarrian onbideratu dira Epeleko HUA abian jarri zutenetik; lehenago oxigenazioa oso eskasa zen, eta 2011ko azaroan 4,56 mg/l-ko batez bestekoa lortu zen.

Bestalde, eroankortasunak mineralizazio ertain-altua dagoela adierazten du (724 µS/cm); aldakuntza-tartea 265 eta 1.246 µS/cm artekoa izan da. Hileko batez besteko altuena urrikoa izan da (1.122 µS/cm), eta txikiena, ostera, martxokoa (403 µS/cm). Uhertasunaren aldetik,urteko batez bestekoa 26 UNF da, eta 3 eta 339 UNF artean ibili da. Kasuen % 20etan gainditu dira 30 UNFak. Uhertasun handiko aldiak uraldiekin lotuta daude nagusiki, baina isurketek eta obrek ere badute eragina.

Materia organikoaren urteko batez bestekoa 6,0 m^{-1} izan da. Eguneko batez bestekoak 0,6 eta 17,5 m^{-1} artean ibili dira (datu altua). Bestalde, hileko batez bestekoak 3,2 m^{-1} (apirila) eta 8,7 m^{-1} (azaroa) artean daude. Amonioa dagoen arren, ez da behin ere 1 mg/l muga gainditzen; beraz, parametro hori ez da mugatzailea arrainen bizitzarentzat. Urteko batez bestekoa 0,12 mg/l da eta eguneko batez besteko balioak 0 eta 0,66 mg/l artekoak. Bestalde, hileko batez bestekorik altuena ekainari dagokio, 0,24 mg/l, eta minimoa otsaila eta uztailari, 0,04 mg/l. Tarte horretan kutsadura organikoa nabarmen murriztu da Epeleko HUA abiarazi zenetik; izan ere, lehen kontzentrazio oso altuak zeuden eta ia kasu guztietan gainditzen zen 1 mg/l-ko balioa.

Azkenik, ortofosfatoei dagokienez, urteko batez bestekoa 0,15 mg/l da, eta horrek eutrofia txikia dagoela adierazten du. Eguneko batez bestekoak 0,01 eta 0,78 mg/l artean dabiltza (oso datu altua). Hileko batez bestekorik altuena urrian izan da, 0,31 mg/l; eutrofia dago, beraz. Otsailean, ostera, 0,02 mg/l-ko batez bestekoa lortu da, hau da, oligotrofia dago. Mantenugaiei dagokienez, egoerak nabarmen egin du hobera Epeleko HUA abiarazi zenetik; kontuan hartu behar da fosfatoak kentzeko prozesuak eskaintzen dituela.

Laburbilduz, Deba ibaiko urak, San Prudentzion, egokiak dira ziprinidoentzako, baina ez izokinkideentzat; izan ere, tenperatura altuak lortu dira. Oxigenazioari dagokionez, egokia da oro har, baina agorraldiko hilabeteetan halako urritasuna dago. Azkenik, halako kutsadura maila atzeman da. Nolanahi ere, nabarmendu beharra dago Epeleko HUA abiarazi zenetik tarte horretako egoera izugarri hobetu dela.



63. irudia. Kalitate fisiko-kimiko jarraitua San Prudentzion – 2014/2015. urte hidrologikoa.

Analisi niktimerala gauzatu da abuztuaren 27tik 31era. Giro-tenperaturaren batez bestekoa 24,2 ºC, eta balioak 15,5 ºC eta 37,0 ºC artean dabiltza. Oxigeno disolbatuari dagokionez, balio minimoa 6,78 mg/l izan da eta maximoa, 11,80 mg/l; gauaren eta egunaren arteko aldakuntza 5,02 mg/l-koa da. Erregistroen ehuneko altua, hots, % 68, dago 9 mg/l-en azpitik, eta %3a 7 mg/l-tik beherako kontzentrazioak izan dira. Uraren tenperatura 18,7 ºC eta 24,2 ºC artekoa izan da; batez beste 21,4 ºC. Erregistroen ehuneko altuan, hots, % 48etan gainditu dira 21,5 ºC-ak, izokinkideentzako tenperatura mugatzailea. Laburbilduz, oxigenazio- eta tenperatura baldintzak txarrak izan dira izokinkideentzat; halere, Debagoienan egindako saneamenduari esker, baldintza horiek nabarmen hobetu dira aurreko urteekin alderatuta.

	Ox.Dis. (mg/l)	Uraren Tª (º C)	Giro Tª (º C)
Batez best.	8,49	21,4	24,2
Desb.Tip.	1,32	1,4	6,0
Max.	11,8	24,2	37,0
Min.	6,78	18,7	15,5
N	720	720	720
Diferentzia	5,02	5,5	21,5

101. taula. Estatistika niktimerala San Prudentzion (Deba ibaia). 2015ko abuztua.



64. irudia. Ur-kalitatearen eboluzioa Deba ibaian, San Prudentzion.

ALTZOLAko neurketa jarraituko estazioan bederatzi aldagai fisiko-kimikoren datuak biltzen dira: pHa, uraren tenperatura, eroankortasuna, oxigeno disolbatua, uhertasuna, materia organikoa, amonioa, solido esekiak eta ortofosfatoak. Eskuragarri dauden datuak asko dira, egunen % 90 baino gehiagokoak. Ondoko taulan azaltzen dira emaitzak:

	pHa	Uraren Tª	Eroankor. (µS/cm)	Ox Dis (mg/l)	Uhert. (UNF)	Mat Org (m-1)	NH_4 + (mg/l)	Solid. esek. (mg/l)	Ortof (mg/l)
BATEZ BEST.	7,9	16,0	475	9,67	25	5,8	0,19	40	0,21
DESB.TIP.	0,2	5,0	121	1,47	43	2,9	0,12	99	0,30
MAX.	8,8	26,4	748	12,36	320	19,0	0,88	709	1,91
MIN.	7,4	6,7	210	6,35	4	0,2	0,00	2	0,01
N	352	352	345	352	344	314	352	332	350
URRI. B.B.	7,7	18,6	692	8,43	7	6,4	0,19	8	0,78
AZA. B.B.	7,9	14,0	542	9,60	29	6,8	0,24	34	0,33
ABE. B.B.	7,9	11,4	353	10,85	39	6,9	0,14	53	0,14
URT. B.B.	8,0	9,6	382	11,47	30	6,5	0,16	57	0,11
OTSA. B.B.	7,9	9,0	289	11,80	74	12,7	0,29	148	0,17
MAR. B.B.	8,0	11,0	388	11,39	31	2,9	0,16	40	0,13
API. B.B.	8,3	14,7	448	10,27	18	2,5	0,20	17	0,16
MAI. B.B.	8,0	17,1	421	9,36	11	5,3	0,21	6	0,07
EKA. B.B.	7,8	20,6	465	8,51	26	5,1	0,22	47	0,09
UZT. B.B.	7,7	24,3	594	7,84	6	5,0	0,13	4	0,16
ABU. B.B.	8,0	22,7	540	8,20	16	6,1	0,17	32	0,22
IRA. B.B.	7,7	19,2	565	8,36	11	7,1	0,22	10	0,10

102. taula. Altzolako neurketa jarraituko estazioaren estatistika, Deba ibaia. 2014/2015. urte hidrologikoa (eguneko batez bestekoetan oinarrita).

pHaren urteko batez bestekoa 7,9 da. Eguneko batez bestekoak 7,4 eta 8,8 artean dabiltza; hau da, balio horiek ur naturalei dagozkie. Uraren tenperaturari dagokionez, urteko batez bestekoa 16,0 ºC da eta eguneko batez bestekoak 6,7 ºC eta 26,4 ºC artean daude. Ekaina eta iraila artean tenperatura altuak lortu dira, eta 62 kasutan –hau da % 18etan– gainditu da araudiak ezarritako 21,5 ºC-ko muga. Hala, hileko batez bestekorik altuena uztailan lortu da, 24,3 ºC; minimoa, aldiz, otsailan, 9,0 ºC. Egoera hori bateraezina da izokinkideen bizitzarako, baina ez ziprinidoentzat. Oxigenazioari dagokionez, eguneko batez bestekoak 6,35 mg/l balio minimoaren eta 12,36 mg/ balio maximoaren artean ibili dira. Urteko batez bestekoa 9,67 mg/l

da. Egunen % 60etan 9 mg/l-ak gainditu dira; gainerako egunetan, kontzentrazio txikiagoak izan dira, eta 7 mg/l ere izan da kasuren batean. Ur egokiak dira izokinkideentzat, araudiaren arabera; hala ere, adierazi behar da uda-sasoian oxigeno-gabezia handia dagoela.

Bestalde, eroankortasunak mineralizazio ertaina dagoela adierazten du (475 µS/cm); aldakuntza-tartea 210 eta 748 µS/cm artekoa izan da. Hileko batez besteko altuena urrikoa izan da (692 µS/cm), eta txikiena, ostera, otsailekoa (289 µS/cm). Uhertasunaren aldetik,urteko batez bestekoa 25 UNF da, eta 4 eta 320 UNF artean ibili da. Kasuen % 18etan gainditu dira 30 UNFak. Uhertasun handiko aldiak uraldiekin lotuta daude oro har, baina isurketek eta obrek ere badute eragina.

Materia organikoaren urteko batez bestekoa 5,8 m^{-1} izan da. Eguneko batez bestekoak 0,2 eta 19,0 m^{-1} artean ibili dira (datu altua). Hileko batez bestekoak apirilean lortutako 2,5 m^{-1} balioaren (karga organiko txikia) eta otsailean lortutako 12,7 m^{-1} balioaren (karga organiko handia) artean ibili dira. Amonioari dagokionez, urteko batez bestekoak (0,19 mg/l) adierazten du halako kutsadura organikoa dagoela. Eguneko batez besteko balioak 0 eta 0,88 mg/l artean dabiltza. Hileko batez bestekorik handiena otsailan izan da (0,29 mg/l), eta minimoa uztailean (0,13 mg/l). Behin ere ez da gainditu 1 mg/l-aren muga. Hortaz, parametro hori ez da mugatzailea arrainen bizitzarako; halere, amonio-presentzia handia dago urte osoan.

Solido esekien urteko batez bestekoa 54 mg/l. Eguneko batez bestekoak 2 eta 709 mg/l artean dabiltza. Otsailean lortu dira batez bestekorik handienak, 148 mg/l; minimoa, berriz, uztailean, 4 mg/l. Solido esekiak hertsiki lotuta daude uraldiekin batez ere, bai eta isurketekin eta obrekin ere. Azkenik, ortofosfatoen urteko batez bestekoa 0,21 mg/l da, hau da, eutrofia-egoera apala dago. Eguneko batez bestekoak 0,01 eta 1,91 mg/l artean dabiltza (oso datu altua). Hileko batez bestekorik altuena urrian izan da, 0,78 mg/l (eutrofia); eta minimoa, berriz, maiatzean, 0,07 mg/l (produkzio txikia).

Laburbilduz, Deba ibaiaren tarte honetan, tenperatura altuen arazoa dago uda-sasoian, askotan gainditzen baita 21,5 ºC-ko muga; beraz, ez dira ur egokiak izokinkideentzat, baina bai ziprinidoentzat. Horrez gain, oxigeno-gabezia detektatu da agorraldian, bai eta kutsadura organiko handia ere urte guztian zehar.



65. irudia. Kalitate fisiko-kimiko jarraitua Altzolan – 2014/2015. urte hidrologikoa.

Abuztuaren 17tik 21era, hamar minutuan behin aztertu dira datuak. Batez besteko giro-tenperatura 21,9 ºC izan da. Balioak 16,8 ºC y 31,9 ºC artean dabiltza. Oxigeno disolbatuaren datu minimoa oso baxua izan da, 4,68 mg/l, eta maximoa, berriz, 9,70 mg/l; gauaren eta egunaren arteko diferentzia 4,84 mg/l izan da. Erregistroen % 90 daude 9 mg/l-en azpitik eta, gainera, % 58etan 7 mg/l-tik beherako balioak lortu dira. Uraren tenperaturari dagokionez, balioak 27,1 ºC eta 23,4 ºC artean dabiltza; batez bestekoa 25,7 ºC da. Erregistro guztietan, % 100etan, gainditu dira 21,5 ºC-ak, izokinkideentzako tenperatura mugatzailea. Laburbilduz, tarte horretan, oxigenazio- eta tenperatura-baldintza oso txarrak daude izokinkideentzat.

	Ox. Dis. (mg/l)	Uraren Tª (º C)	Giro Tª (º C)
Batez best.	7,01	25,7	21,9
Desb. tip.	1,30	1,0	3,1
Max.	9,70	27,1	31,9
Min.	4,86	23,4	16,8
N	616	616	720
Diferentzia	4,84	3,7	15,1

103. taula. Estatistika niktimerala Altzolan (Deba ibaian). 2015eko uztaila



66. irudia. Deba ibaiko ur-kalitatearen eboluzioa Altzolan.

ZUBILLAGAko neurketa jarraituko estazioak Oñati ibaiaren datuak ematen ditu, parametro hauenak hain zuzen: pHa, uraren tenperatura, eroankortasuna, oxigeno disolbatua eta uhertasuna. Erregistro-kopurua oso handia da, egunen % 96 baino gehiagokoak. Hona hemen lortutako emaitzak:

	pHa	Uraren Tª (º C)	Eroan. (µS/cm)	Ox. Dis. (mg/l)	Uhert. (UNF)
BATEZ BEST.	7,7	13,1	252	10,67	10
DESB.TIP.	0,2	4,2	72	1,26	19
MAX.	8,2	22,2	560	12,99	152
MIN.	7,2	6,2	118	7,96	1
N	357	357	355	357	353
URRI. B.B	7,9	15,8	361	9,26	2
AZA. B.B.	7,8	11,6	276	10,43	9
ABE. B.B.	7,8	9,7	181	11,73	16
URT. B.B.	7,7	8,0	209	12,13	19
OTSA. B.B.	7,5	7,8	187	12,67	30
MAR. B.B.	7,7	9,2	179	11,94	14
API. B.B.	7,9	11,8	201	11,13	8
MAI. B.B.	7,7	13,3	225	10,55	5
EKA. B.B.	7,6	15,6	237	9,90	8
UZT. B.B.	7,6	20,3	333	8,81	2
ABU. B.B.	7,7	19,2	314	9,41	12
IRA. B.B.	7,8	15,9	324	10,03	4

104. taula. Zubillagako neurketa jarraituko estazioaren estatistika (Oñati ibaian). 2014/2015. urte hidrologikoa (eguneko batez bestekoa).

pHaren eguneko batez besteko balioak 7,2 eta 8,2 bitartean ibili dira, eta urteko batez bestekoa 7,7 da. Balio horiek ur naturalei dagozkie. Uraren tenperaturari dagokionez, urteko batez bestekoa 13,1 ºC izan da. Eguneko batez bestekoak 6,2 ºC eta 22,2 ºC bitartean ibili dira. 7 alditan (% 2) gainditu da 21,5º C-ko muga; hala ere, egokia da izokinkideentzako. Oxigeno disolbatuari dagokionez, urteko batez bestekoa 10,67 mg/l izan da. Eguneko batez bestekoak 7,96 eta 12,99 mg/l bitartean dabiltza. Kasuen % 90etan 9 mg/l-ak gainditu dira; hortaz ur egokiak dira izokinkideentzat. Ez da izan 7 mg/l-tik beherako kontzentraziorik. Halako urritasuna atzeman da agorraldian, eta uztailean lortu da batez besteko minimoa, 8,81 mg/l.

Eroankortasunari dagokionez, urteko batez bestekoak mineralizazio ertain-ahula dagoela adierazten du (252 µS/cm). Eguneko batez besteko balioak 118 eta 560 µS/cm bitartean dabiltza. Bestalde, hileko batez bestekoak 179 µS/cm (martxoa) eta 361 µS/cm (urria) artekoak dira. Uhertasun aldetik, urteko batez bestekoa 10 UNF da; eguneko maximoa, 152 UNF, eta minimoa, 1 UNF. Kasuen % 8etan gainditu dira 30 UNFak. Uhertasun handiko aldiak uraldiekin lotuta daude nagusiki.

Laburbilduz, datu fisiko-kimikoek adierazten dute ur egokiak direla izokinkideak bizitzeko, araudiaren arabera. Halere, tenperatura apur bat altuak atzeman dira uda-sasoian, eta baita oxigeno-urritasuna agorraldian ere.



67. irudia. Kalitate fisiko-kimiko jarraitua Zubillagan – 2014/2015. urte hidrologikoa.

Niktimeroen portaera aztertu da uztailaren 1etik 5era. Airearen tenperaturaren batez bestekoa 21,9 ºC izan da. Balioak 36,0 ºC maximoaren eta 15,1 ºC minimoaren artean dabiltza. Oxigeno disolbatua, batez beste, 8,29 mg/l da. Datu minimoa 7,48 mg/l izan da, eta maximoa 9,28 mg/l. Oszilazioa 1,80 mg/l-koa da. Kasuen % 8etan, oxigeno-kontzentrazioa 9 mg/l-tik beherakoa da; beraz, oxigenazioa eskas samarra da izokinkideentzat; dena dela, ez da izan 7 mg/l-tik beherako kontzentraziorik. Tenperaturari dagokionez, kasuen % 38etan gainditu da izokinkideentzako 21,5 ºC-ko muga, eta hori ere ez da aldeko faktorea izokinkideentzat.

	Ox. Dis. (mg/l)	Uraren Tª (º C)	Giro Tª (º C)
Batez best.	8,29	20,4	21,9
Desb.tip.	0,49	0,8	5,2
Max.	9,28	22,6	36,0
Min.	7,48	18,9	15,1
N	720	720	720
Diferentzia	1,80	3,7	20,9

105. taula. Estatistika niktimerala Zubillagan (Oñati ibaian). 2015eko uztaila



68. irudia. Deba ibaiko ur-kalitatearen eboluzioa, Zubillagan.

5.1.6.5. URAREN KALITATE BIOLOGIKOA (DEBA)

Ondoko taulan, Deba ibaian egindako bi laginketa-kanpainetan lortutako emaitzak azaltzen dira:

				UDABERRIA			AGORRALDIA		
Estazioa	**Kodea**	**Ibaia**	**Mota**	**IBMWP**	**EQR IBMWP**	**Egoera**	**IBMWP**	**EQR IBMWP**	**Egoera**
Leintz	DEB03100	Deba	23	170	0,87	Oso ona	155	0,79	Oso ona
Aretxabaleta ib. gora	DEB12750	Deba	23	113	0,58	Ona	81	0,42	Ertaina
Arrasate	DEB14000	Deba	23	56	0,29	Ertaina	80	0,41	Ertaina
San Prudentzio	DEB20300	Deba	23	70	0,36	Ertaina	71	0,36	Ertaina
Matxiategi	DEB27290	Deba	32	118	0,61	Ona	112	0,58	Ona
Bergara ib. beh.	DEB28700	Deba	32	125	0,64	Ona	108	0,56	Ertaina
Soraluze	DEB34800	Deba	32	113	0,58	Ona	82	0,42	Ertaina
Maltzaga ib. beh.	DEB38000	Deba	29	117	0,65	Ona	126	0,70	Ona
Elgoibar ib. beh.	DEB44300	Deba	29	102	0,57	Ona	126	0,70	Ona
Mendaro	DEB48100	Deba	29	35	0,19	Eskasa	91	0,70	Ertaina

106. taula. Kalitate biologikoa Deba ibaian - 2015. urtea.

Deba ibaiaren burua (Leintz) kontserbazio-egoera onean dago, eta egoera biologiko oso ona izan du udaberrian eta ona agorraldian, aurreko kasuetan bezala.

Hurrengo gunean, Aretxabaletan, egoera asko aldatzen da aurreko urteekin alderatuta, serie historikoko IBMWP balio altuenak lortuz udaberrian, egoera ona lortuz lehenengo aldiz. Agorraldiko kanpainari dagokionez, serie historikoko bigarren datu altuena erregistratu da, egoera ertainari dagokiona.

Bestalde, Arrasaten, aurreko urteko antzeko egoera behatu da, uraren kalitatea eskasa izanik, egoera eskasa lortu delarik. Gune horretan, hobekuntza txikia hasi zen nabaritzen 2003. urtean, saneamendua egin izanari esker; ondoren, 2011tik aurrera emaitza hobeak lortu ziren, aldiz, modu nahiko apalean.

Hurrengo gunean, San Prudentzion, hobekuntza nabarmena detektatu zen 2012an, batez ere agorraldian, Epeleko HUA abian jarri izanaren ondorioz; izan ere, Debagoieneko ur zikinak

tratatzen ditu. Hurrengo urteetan antzeko egoera mantendu da, kutsadura maila altu batekin oraindik ere, apalki murriztu den arren. Honela, aurtengo emaitzek egoera ertaina azaltzen dute bi laginketa-kanpainetan.

Matxiategin eta Elgoibar ibaian beherako tartean, funtsezko hobekuntza behatu da aurreko urtearekiko, kasu guztietan egoera ona lortu delarik, Bergara ibaian behera eta Soraluzen eginiko agorraldiko kanpainetan salbu. Aldiz, 2014 urtean egoera ertaina edo eskasa lortu zen tarte honetan. Honela, Epeleko HUA martxan jartzearen ondoriozko hobekuntzak dirauela esan daiteke.

Azkenik, Mendarok, aurreko tarteak baino egoera okerragoa azaltzen du. Honela, udaberrian IBMWP indizeak puntuazio baxua lortu du, egoera biologiko txarrari dagokiona. Agorraldian, egoerak hobera egiten du, nahiz eta egoera ertainean dagoen. Kontuan hartu behar da Mendaroko saneamendua egiteke dagoela.

Laburbilduz, Deba ibaiaren egoerak onera egin du azken urteetan, saneamendu- eta arazketa-azpiegiturei esker: Epeleko HUA, Mekolaldeko HUA eta Apraitzeko HUA. Egoerak bilakaera positiboa izatea aurreikusten da.



69. irudia. Kalitate biologikoaren eboluzio longitudinala Deba ibaian - 2015. urtea.

Debaren ibaiadarretan egindako laginketetan, hauexek izan dira IBMWP indize biotikoaren emaitzak:

				UDABERRIA			AGORRALDIA		
Estazioa	**Kodea**	**Ibaia**	**Mota**	**IBMWP**	**EQR IBMWP**	**Egoera**	**IBMWP**	**EQR IBMWP**	**Egoera**
Aramaio	ARM07700	Aramaio	23	131	0,67	Ona	56	0,29	Ertaina
Arantzazu ib. gora	OIN06700	Oñati	23	101	0,52	Ona	44	0,23	Eskasa
Zubillaga	OIN09500	Oñati	23	99	0,51	Ona	120	0,62	Ona
Tabesa zubia	OIN12500	Oñati	23	93	0,48	Ona	79	0,41	Ertaina
Urkulu ib.beh.	URK05300	Urkulu	23	137	0,70	Ona	97	0,50	Ona
Antzuola	ANL05500	Antzuola	22	76	0,38	Ertaina	65	0,32	Ertaina
Elgeta ib.b.	UBE04200	Ubera	22	60	0,30	Eskasa	49	0,24	Eskasa
Aixola ib.b.	AIX01100	Aixola	22	177	0,88	Oso ona	130	0,64	Ona
Ego	EGO08800	Ego	22	45	0,22	Eskasa	57	0,28	Eskasa

107. taula. Deba ibaiko ibaiadarren kalitate biologikoa - 2015. urtea.

Aramaio ibaian, IBMWP indizeak datu oso altua lortu du udaberrian, serie historikoko altuena, egoera onari dagokiona. Aldiz, agorraldian baldintzek okerrera egin dute, egoera ertaina agertuz.

Oñati ibaiak, emaitza onak bildu ditu udaberrian, egoera ona lortuz estazio guztietan. Agorraldian egoera ona mantendu da Zubillagan, aldiz, Arantzazu ibaian gora eta Tabesa Zubian emaitzak okerragoak dira, egoera eskasa eta ertaina lortuz, hurrenez hurren. Bestalde, Tabesa zubian nabarmen onbideratu ziren urak 2013an, Oñatiko kolektoreak Epeleko HUArekin bat egin izanaren ondorioz; hala, tarte horri jadanik ez diote erasaten kolektore horren isurketek. Hori horrela, egoera ertaina azaltzen da bi laginketa-kanpainetan; emaitzak apalak dira oraindik, baina aurreko urteetan erregistratutakoekin alderatuta askoz altuagoak dira.

Bestalde, Urkulu errekak, ur-araztegian behera dagoen gunean, emaitza ona izan du, egoera biologiko ona atzeman baita bi kanpainatan.

Antzuola errekan, egoera biologiko ertaina izan da laginketa-kanpaina bietan. Aipatu behar da tarte hori Antzuolako herriguneko ur zikinek erasanda dagoela.

Ubera errekan lortutako emaitzak egoera eskasari dagozkie bai udaberrian baita agorraldian ere; honek kutsadura arazoak daudela adierazten du.

Bestalde, Aixolan, oso egoera ona ikusi da, egoera biologiko oso ona lortuz udaberrian eta ona agorraldian.

Azkenik, Ego ibaian, IBMWPak balio txikiak lortu ditu, eta egoera eskasa adierazten dute laginketa-kanpaina bietan. Egoera txarra izan arren, hobekuntza nabarmendu da aurreko urteekin alderatuta. Azken urteetan hobekuntza txikia ikusi da Ego ibaian, kutsatzaileen kontzentrazioa gutxitu delako; hala ere, oraindik egoera ez da ona.

Gainera, aurten, laginketa espezifikoak egin, lortutako emaitzak ondoko taulan azaltzen direlarik:

				UDABERRIA			AGORRALDIA		
Estazioa	**Kodea**	**Ibaia**	**Mota**	**IBMWP**	**EQR IBMWP**	**Egoera**	**IBMWP**	**EQR IBMWP**	**Egoera**
Leintz ib. beh.	DEB04450	Deba	23	119	0,61	Ona	105	0,54	Ona
Ermua ib. beh.	EGO03700	Ego	22	59	0,29	Eskasa	52	0,26	Eskasa
Sallobente bok.	SLO05000	San Lorenzo	29	123	0,68	Ona	97	0,54	Ertaina
Goikola	GOI02600	Goikola	22	146	0,72	Ona	173	0,86	Oso ona

108. taula. Deba arroko laginketa espezifikoen kalitate biologikoa - 2015. urtea.

Leinzen ibaian behera dagoen estazioan, IBMWPak puntuazio altua lortu da, egoera onari dagokiona. Bestalde, Ego ibaiak, Ermuan behera, hobekuntza erakusten du saneamendu obrei esker, nahiz eta oraindik kutsadura maila handia izan. Honela, 2015 urtean egoera eskasa erregistratu da bi laginketa-kanpainetan, aurreko urteetan egoera txarra erregistratu zen bitartean.

Sallobenteko errekan egoera ona behatu da udaberrian, agorraldian egoera okertu eta egoera ertaina lortu delarik. Azkenik, Goikolan emaitza onak lortu dira, egoera ona edo oso ona erregistratuz.

5.1.6.6. EKOIZPEN PRIMARIOA (DEBA)

Ondoren, Deba ibaiko egoera trofikoaren emaitzak azaltzen dira:

	BENTOSA			PLANKTONA		
ESTAZIOAK	**Klorofila (mg/l)**	**Margalef indizea**	**Egoera trofikoa**	**Klorofila (µg/l)**	**Margalef indizea**	**Egoera trofikoa**
Leintz	162,85	2,91	Eutrofia			
Leintz ib. beh.	--	--	--			
Aretxabaleta ib. beh.	104,22	2,59	Eutrofia			
Arrasate	17,25	2,78	Oligotrofia			
San Prudentzio	12,04	3,17	Oligotrofia			
Matxiategi	16,45	3,67	Oligotrofia			
Bergara ib. beh.	32,23	2,61	Mesotrofia	0,94	2,89	Oligotrofia
Soraluze	137,22	2,40	Eutrofia			
Maltzaga ib. beh.	28,18	3,75	Mesotrofia			
Elgoibar ib. beh.	16,18	3,11	Oligotrofia			
Mendaro	35,35	2,25	Mesotrofia	4,09	2,61	Oligotrofia

109. taula. Deba ibaiko ekoizpen primarioa - 2015. urtea.

Klorofila bentonikoari dagokionez, Deba ibaian 4 oligotrofia-egoera topatu dira: Arrasate, San Prudentzio, Matxiategi eta Elgoibar ibaian behera. Horrez gain, 3 kasutan mesotrofia atzeman da: Bergara ibaian behera, Maltzaga ibaian behera eta Mendaron. Azkenik 3 estaziotan eutrofia ikusi da, hala nola Leintz, Aretxabaleta behera eta Soraluzen. Kasu guztietan heltze-fasean dauden alga-populazioak dira. Leintz ibaian behera ez da alga presentziarik behatu.

Gainera, ur-laginak hartu dira 2 gunetan, planktonaren bidez egoera trofikoa aztertzeko: Bergaran ibaian behera eta Mendaron. Bi kasuetan oligotrofia ikusi da, heltze-fasean dauden alga-populazioekin.

Mendaron, gainera, plankton-komunitatea aztertu da. Gune horretan, talde fitoplanktoniko hauek aurkitu dira: Diatomeoak, Klorofizeoak, Dinofizeoak, Zianofizeoak eta Kryptofizeoak. Alga Klorofizeoen presentzia da nabarmentzekoa, talde ugariena izanik, 4 generorekin non *Pediastrum boryanum* eta *Scenedesmus armatus*, biak β- mesosaprobioak, nabarmentzen diren. Diatomeoak maiztasun ertaina azaltzen dute, *Cyclotella, Navicula* eta *Nitzschia* izanik ugarienak. Zenbait indikatzaile eutrofilo behatu dira, *Melosira varians* eta *Nitzschia acicularis* besteak beste, ur α-mesosaprobikoak nahiago dituztelarik. Zianobakterio, Dinoflagelatu eta Krytofizeoak kontzentrazio baxuan aurkitzen dira. Zooplanktonari dagokionez, Rotiferoak nabarmentzen dira maiztasuna dela eta, 6 genero identifikatuz; gainera, Kopepodo eta Protozooak behatu dira.

Debaren ibaiadarretan, emaitza hauek lortu dira:

		BENTOSA			PLANKTONA		
ESTAZIOAK	**IBAIA**	**Klorofila (mg/l)**	**Margalef indizea**	**Egoera trofikoa**	**Klorofila (μg/l)**	**Margalef indizea**	**Egoera trofikoa**
Aramaio	Aramaio	73,22	2,13	Eutrofia			
Arantzazu ib.g	Oñati	0,10	1,17	Oligotrofia			
Zubillaga	Oñati	14,12	2,09	Oligotrofia	0,72	2,50	Oligotrofia
Tabesa zubia	Oñati	12,37	1,00	Oligotrofia			
Urkulu ib. beh.	Urkulu	--	--	--			
Antzuola	Antzuola	17,17	2,45	Oligotrofia	1,90	3,00	Oligotrofia
Elgeta ib. beh.	Ubera	97,54	2,18	Eutrofia			
Aixola ib. beh.	Aixola	159,21	2,30	Eutrofia			
Ego	Ego	0,84	2,20	Oligotrofia			
Ermua ib. beh.	Ego	90,44	2,36	Eutrofia			

110. taula. Deba ibaiko ibaiadarren ekoizpen primarioa - 2015. urtea.

Klorofila bentonikoaren kontzentrazio handiak atzeman dira 4 estazioetan: Aramaio, Elgeta ibaian behera, Aixola ibaian behera eta Ermua ibaian behera. Gainontzeko kasuetan oligotrofia behatu da. Margalef indizearen arabera, alga populazioak heltze-fasean daude kasu guztietan, Arantzazu ibaian gora eta Tabesa zubian salbu, populazioak hazkuntza-fasean daudelarik kasu hauetan.

Bestalde, klorofila planktonikoaren laginak hartu dira Zubillagan eta Antzuolan, eta lagin horiek, kasu bietan, oligotrofia dagoela adierazten dute. Alga-populazio helduak dira.

Deba ibaiaren ardatz nagusiko eta hainbat ibaiadarretako estazioetan intsolazio handia dago, ibaiertzeko landaretzarik ia batere ez dagoelako, bideratze-lan orokortuak egin dira-eta. Ardatz nagusian, Leinzen, Aretxabaletan ibaian behera, Arrasaten eta Elgoibarren ibaian behera itzal asko dago, baina gainerako estazioetan, intsolazio handia. Ibaiadarrei dagokienez, Urkulun eta Aixolan, itzal asko dago, eta Aramaion, Arantzazun ibaian behera, Zubillagan eta Elgetan ibaian behera gutxixeago. Tabesa zubian, Antzuolan eta Egon, intsolazioa ia erabatekoa da.

DEBA IBAIKO ESTAZIOAK		**IBAIADARRETAKO ESTAZIOAK**	
Leintz	0,42	Aramaio	0,36
Leintz ib. beh.	0,81	Arantzazu ib. gora	0,86
Aretxabaleta ib. gora	0,32	Zubillaga	0,79
Arrasate	0,83	Tabesa zubia	0,15
San Prudentzio	0,08	Urkulu ib. behera	0,84
Matxiategi	0,00	Antzuola	0,12
Bergara ib. beh.	0,24	Elgeta ibaian behera	0,22
Soraluze	0,02	Aixola ibaian behera	0,84
Maltzaga ib. beh.	0,09	Ego	0,06
Elgoibar ib. beh.	0,45	Ermua ib. beh.	0,00
Mendaro	0,15		

111. taula. Argi-xurgatzearen koefiziente. Deba arroa.

5.1.6.7. ARRAIN-FAUNA (DEBA)

Deba ibaian, normalean arrain-laginketak egin ohi dira ondoko estazioetan: Soraluze eta Mendaro. Bi kasuetan laginketa kualitatiboak egin dira. Hurrengo lerroetan emaitzak aztertzen dira.

IV.eranskinean, espezieen araberako neurri banaketen grafikak kontsulta daitezke.

Laginketa kualitatiboak	DENTSITATE MINIMOA (ALE KOP./Ha)						
ESTAZIOA	AMUARRAINA	LOINA	EZKAILUA	MAZKARRA	AINGIRA	KORROKOIA	PLATUXA
Soraluze		3.722	2.779	281	199		
Mendaro	16	369	256	144	3.237	304	64

112. taula. Deba ibaiko arrain-faunaren egoera. 2015 urtea.



70. irudia. Arrain-komunitatearen osaera Soraluzen (Deba ibaia) - 2015. urtea.

SORALUZEN loina populazioaren gorakada antzeman da (3.722 N/Ha) aurreko urteko laginketarekin alderatuz (520 N/Ha). Ezkailuak ere dentsitate altua lortu du (2.779 N/Ha). Aldiz, mazkarrak (281 N/Ha) eta aingirak (199 N/Ha) urriak dira. Ez da amuarrainik harrapatu, noizbehinka agertu izan den arren. Arrain faunaren egoera on samarra da, kontuan hartuta ibai-tarte honetako baldintza eskasak. Aipagarria da eremu honek pairatu duen hobekuntza azkeneko urteetan, lehenago bertako arrain fauna oso eskasa edo nulua baitzen.



71. irudia. Arrain-komunitatearen osaera Mendaron (Deba ibaia) - 2015. urtea.

MENDAROKO arrain-komunitatea 7 espeziek osatzen dute: amuarraina, loina, ezkailua, mazkarra, aingira, korrokoia eta platuxa. Aurreko kasuetan bezala, aingira da nagusitzen den espeziea, dentsitate altua lortuz (3.237 N/Ha). Gainontzeko espezieen presentzia murritza da. Amuarrain ale bat arrantzatu zen, noizbehinka agertu izan den espeziea izanik. Egoera ez da oso ona; kontuan hartu behar da ibai-tartearen baldintza eskasak.

Deba ibaiko ibaiadarrei dagokionez, laginketa kualitatiboak burutu dira Oñati (Zubillaga) eta Antzuola ibaietan, eta laginketa erdikuantitatibo bat Aixolan. Emaitzak aztertzen dira hurrengo lerroetan:

Laginketa kualitatiboak		DENTSITATE MINIMOA (ALE KOP./Ha)				
ESTAZIOA	IBAIA	AMUARRAINA	LOINA	EZKAILUA	MAZKARRA	AINGIRA
Zubillaga	Oñati	562	14	1.014	29	29
Antzuola	Antzuola			11.528	1.000	25

113. taula. Deba ibaiko ibaiadarraren arrain-faunaren egoera – 2015. urtea.

Laginketa erdikuantitatiboa		DENTSITATEA (ALE KOP./Ha)		
ESTAZIOA	IBAIA	AMUARRAINA	EZKAILUA	MAZKARRA
Aixola beh.	Aixola	4.607	374	1.370

114. taula. Deba ibaiko ibaiadarraren arrain-faunaren egoera – 2015. urtea.



72. irudia. Arrain-komunitatearen osaera Zubillagan (Oñati ibaia) - 2015. urtea.

ZUBILLAGAN erregistratutako amuarrain dentsitatea ahula da (562 N/Ha), aurreko laginketan behatutakoa baina nabarmenki baxuagoa (1.489 N/Ha). Ezkailuak dentsitate garrantzitsua erakusten du (1.014 N/Ha), aldiz loina (14 N/Ha) eta mazkarrak (29 N/Ha) eskasak dira. Gainera, lehenengo aldia da aingira aleak arrantzatu direla (29 N/Ha). Egoera ez da guztiz ona.



73. irudia. Arrain-komunitatearen osaera Antzuolan - 2015. urtea.

Antzuola ibaian espezie nagusia ezkailua da, dentsitatea oso altuak erakusten dituelarik (11.528 N/Ha). Mazkarraren populazioa baxuagoa da (1.000 N/Ha). Lehenengo aldia da aingira ale bat arrantzatu dela. Ez da amuarrai alerik atzeman, azken aldiko laginketetan arrantzatu diren arren. Egoera ez da oso ona.



74. irudia. Arrain-komunitatearen osaera Aixola ibaian - 2015. urtea.

Amaitzeko, AIXOLAKO puntuan amuarrainak dentsitate oso altuak erakutsi ditu (4.607 N/Ha), aurreko laginketan lortutakoak baino altuagoak (1.482 N/Ha). Mazkarraren populazioa nabarmena da (1.372 N/Ha), aldiz ezkailuarena ahula da (374 N/Ha). Egoera nahiko ona da.

5.1.6.8. SINTESIA (DEBA)

Deba ibaiaren kalitate fisiko-kimikoari dagokionez, kasu batean, Leintzen izokinkideentzako gaitasuna behatu da, gainontzeko estazioetan ziprinidoentzako gaitasuna agertu delarik tenperatura altua dela eta. Bergara ibaian behera amonio kontzentrazio altuak lortu dira, arrain-bizitzarako gaitasun eza erakutsi duelarik. Azken urteetan Deba ibaiaren uraren kalitateak nabarmen egin du hobera, 2012ko udaberrian Epeleko HUA abiarazteari esker (Eskoriatzako, Aretxabaletako, Arrasateko eta Oñatiko ur zikinak arazten ditu); ondoren, urte horretako abenduan, Oñatiko kolektorera konektatu zen. Ondorioz, kutsadura maila nabarmen jaitsi da. Epeleko HUA baino lehen, 2006an Mekolaldeko HUA abiarazi zen (Bergarako, Antzuolako eta Elgetako ur zikinak arazteko) eta 2008an Apraitzeko HUA (Elgoibarko, Eibarko, Soraluzeko, Mendaroko, Ermuko eta Mallabiko ur zikinak arazteko). Ondorioz, uraren kalitatea hobetu zen Deba ibaiaren erdi-behe ibarrean, are gehiago goi-ibarraren saneamendua egin eta gero.

Egoera biologikoari dagokionez, ibai-buruko tartea (Leintz) ondo zainduta eta oso egoera onean dago. Aretxabaleta ibaian gora egoerak hobera egin du aurreko urteekin alderatuta, egoera ona/ertaina erregistratuz. Arrasate eta San Prudentzion egoera eskasa da orokorrean, egoerak hobera egin duen arren, baina kutsadura maila altua da oraindik. Matxiategi eta Elgoibar ibaian beherako tartean hobekuntza behatu da aurreko urteekin alderatuta, egoera ona lortuz ia kasu guztietan. Azkenik, Mendaroko emaitzak ez dira egokiak, egoera txarra lortuz udaberrian eta ertaina agorraldian.

Deba ibaiaren ardatzean, bentosen ekoizpen primarioari dagokionez, eutrofia eta mesotrofia egoerak detektatu dira, baita oligrotrofia egoera ere. Klorofila planktonikoak oligotrofia erakutsi du.

Arrain-fauna aldetik, Soraluzen loina populazioaren gorakada detektatau da aurreko urteekin alderatuta, dentsitate altua lortuz. Ezkailuak ere dentsitate altua lortu du. Aldiz, mazkar eta aingirak urriak dira. Arrain-faunaren egoera on samarra da, kontuan hartuta tarteak dituen baldintza eskasak. Mendaroko arrain-komunitatea 7 espeziez osatua dago: amuarraina, loina, ezkailua, mazkarra, aingira, korrokoia eta platuxa. Aingira da espezie nagusia, dentsitate altua lortuz. Gainontzeko espezieak urriak dira.

Ibaiadarrei dagokienez, **Aramaio** ibaia egokia da ziprinidoentzat, tenperatua altuak direla eta. Kalitate biologikoari begira, egoera ona behatu da udaberrian, aldiz agorraldian egoera okerragoa da, egoera eskasa lortu baitu.

Oñati ibaiak, Arantzazun ibaian gora dagoen estazioan eta Tabesa zubian, ur egokiak ditu ziprinidoentzat, tenperatura altua dela eta; alabaina, Zubillaga izokinkideentzako egokia da. Aipatu beharra dago Tabesa zubiaren egoera nabarmen hobetu dela, Oñatiko kolektorea Epeleko HUAra konektatu baitzen 2012ko amaieran. Gune hori oso kutsatuta zegoen lehen. Emaitza biologikoek adierazten dutenez, udaberriko kanpainan egoera berdintsua da ardatz guztian zehar, egoera ertaina erakutsiz 3 estazioetan, aldiz, agorraldian, egoera okerragoa behatu da Arantzazu ibaian gora, egoera eskasa agertuz. Zubillagan egoera ona lortu da, eta Tabesa zubian ertaina. Ekoizpen primarioko emaitzek oligotrofia erakutsi dute bai bentosean baita planktonean ere. Arrain-faunari dagokionez, Zubillagan amurrain populazioaren beherakada behatu da aurreko urtearekin alderatuta, dentsitatea ahula izanik. Ezkailuaren presentzia aipagarria da, aldiz, loina eta mazkarrak dentsitate minimoak erakutsi dituzte. Lehenengo aldia da aingira aleak arrantzatu direla.

Urkulu errekak, ur-araztegitik behera, nolabaiteko oxigeno urritasuna erakutsi du, gaitasuna erakutsiz ziprinidoentzako. Emaitza biologikoei dagokionez, udaberrian egoera ona erregistratu da, aldiz, agorraldian okerrera egin du, egoera ertaina detektatuz. Oligotrofia egoera erregistratu da.

Antzuola ibaia hain kutsatua dago, ezen ez baita bateragarria arrainen bizitzarekin. Egoera biologikoak adierazten dute egoera eskasa dela. Klorofila bentonikoaren analisiaren arabera, oligotrofia-egoera dago; baita planktonaren arabera ere.

Bestalde, **Ubera** ibaian, datu fisiko-kimikoek adierazten dute ur egokiak direla izokinkideentzat. IBMWParen emaitzak apalak dira eta egoera eskasa adierazten dute. Klorofila bentonikoaren analisiak eutrofia dagoela adierazten du.

Aixola errekako urak kalitate fisiko-kimiko ona du, eta, beraz, egokia da izokinkideentzat. Emaitza biologikoei dagokienez, oso aldeko egoera ikusi da, oso egoera biologiko ona/oso ona atzeman baita. Klorofila bentonikoaren analisiak eutrofia dagoela adierazten du. Iktiofaunaren egoera ona da, amuarrain populazio aipagarri batekin, baita mazkar eta ezkailua ere.

Ego ibaian, kutsadura mailak behera egin du azken urteetan; hala ere, oraindik maila altuei eusten die, eta, beraz, bateraezina da arrainen bizitzarekin. Era berean, emaitza biologikoak ez dira aldekoak eta egoera biologiko eskasa lortu da, aurreko urtearekiko hobekuntza nabaritu arren. Klorofila bentonikoaren datuek oligotrofia adierazten dute.

Bestalde, 3 gune espezifikoak daude: Leintzetik behera Deba ibaian, Ermuan Ego ibaian eta Goikolan. **Leintz beheran** emaitza fisiko-kimikoek ziprinidoentzako gaitasuna erakutsi dute, ocigeno urritasuna dela eta. Emaitza biologikoek egoera ona erakutsi dute udaberrian, aldiz, agorraldian egoera ertaina da. **Ermua beheran**, kutsadurak behera egiten jarraitu du aurreko urteekin alderatuta, nahiz eta oraindik balioak altuak diren, eta bateraezinak dira arrain-bizitzarekin. Emaitza biologikoek egoera hobea erakutsi dute aurreko urteekin alderatuta, nahiz eta oraindik eskasak izan, egoera eskasa azalduz. **Goikolan** emaitzek izokinkideentzako gaitasuna erakutsi dute. Emaitza biologikoek egoera onarekin egiten dute bat, ona/oso ona izanik. Azkenik, Sallobenten kalitate ona erregistratu da egoera fisiko-kimikoari dagokionez. Emaitza biologikoak egoera ona erakutsi dute udaberrian eta ertaina agorraldian.

5.2. URTEZ URTEKO BILAKAERA

Atal honetan, Gipuzkoako Foru Aldundiaren laginketa-sareko 18 estaziok urtez urte izan duten bilakaera aztertzen da. Estazio horiek unitate hidrologiko desberdinetan banaturik daude. Estazio horiek hautatzeko arrazoia izan da nahiko datu osatuak dituztela; izan ere, horri esker, urte guztien konparazioa egin liteke. Horrez gain, guneak hautatzeko orduan, kontuan hartu da non dauden, ur zikinak saneatzeko eta arazteko planen emaitzen jarraipena egin ahal izateko.

5.2.1. BIDASOA IBAIAREN ARROA

Bidasoa ibaian, Endarlatsako tartean, uraren kalitate fisiko-kimikoa handia da serie historikoko ia laginketa guztietan. Ez da detektatu kutsadura organikorik, ez eta metalek eragindakorik ere. Tenperatura- eta oxigenazio-baldintzak egokiak dira oro har; beraz, ur egokiak dira izokinkideentzat ia kasu guzti-guztietan, 2015an bezala.



75. irudia. Kalitate fisiko-kimikoaren denborarekiko eboluzioa (urteko batez bestekoak). Endarlatsa (Bidasoa ibaia).

Uraren kalitate biologikoari dagokionez, serieko laginketetan lortutako IBMWParen puntuazioak handiak dira oro har, eta egoera biologikoa ona edo oso ona dela adierazten dute gehienetan. Edonola ere, inoiz jaso dira datu ezohikoki baxuak, batez ere seriearen lehenengo erdialdean; datu horiek egoera biologiko ertainari edo eskasari dagozkie. Hala, 1989an eta 1997an, 44ko eta 45eko balioak lortu ziren agorraldian, hurrenez hurren; 2001. urtean 66ko datua erregistratu zen udaberrian. Azken urteetan halako goranzko joera ikusi da. Serie historikoaren batez bestekoa 122 da udaberrian, eta 113 agorraldian. 2015. urtean, IBMWPak puntuazio altuak lortu ditu, aurreko urtekoak baino handiagoak: 170 udaberrian, eta 164 agorraldian. Balio horiek adierazten dute egoera biologikoa oso ona dela.



76. irudia. Kalitate biologikoaren denborarekiko-eboluzioa. IBMWP indizea – Endarlaza (Bidasoa)

5.2.2. OIARTZUN IBAIAREN ARROA

UGALDETXOn, uraren kalitate fisiko-kimikoak hobera egin du 1999. urtetik, orduan nabarmen gutxitu baitzen kutsadura organikoa; hala, egokia da izokinkideentzat. Bestalde, Arditurri errekak zink-kontzentrazio handiak ditu serie guztian, meategi zaharretatik baitatoz; egoera horixe bera dago gaur egun ere bai.



77. irudia. Kalitate fisiko-kimikoaren denborarekiko eboluzioa (urteko batez bestekoak). Ugaldetxo (Oiartzun ibaia).

Alderdi fisiko-kimikoa bezalaxe, biologikoa ere nabarmen hobetu da 1999. urteaz geroztik. Izan ere, urte horretan jarri zuten abian kolektore orokorra, Oiartzungo eta Errenteriako isurketa handienak biltzen dituena. Hala, 1998. urtean, IBMWP indizeak balio apal samarrak lortu zituen, 54 eta 65, udaberrian eta agorraldian, hurrenez hurren. Balio horiek egoera biologiko eskasa adierazten dute. 1999. urtean, berriz, indizeak gora egin zuen: 117 puntu lortu zituen udaberrian eta 75 agorraldian, egoera onari eta ertainari dagozkionak, hurrenez hurren. Ondorengo urteetan, egoerak hobetzen jarraitu zuen eta puntuazioak geroz eta altuagoak ziren, nahiz eta batzuetan ohiz kanpoko datu baxuagoak atzeman diren. 2015. urtean, egoera ona da eta IBMWParen puntuazioak 132koa da udaberrian eta 127koa; balio horiek egoera ona adierazten dute.

Oiartzun ibaiaren arroko behealdean, saneamendua ia amaituta dago. Isurketa gehienak jasota daude. Azken urteetan, Lintzirin ibarreko isurketa batzuk jaso dira; horrela, gutxitu egin dira Lintzirin errekaren kutsatzaileak Oiartzun ibaiaren beheko aldean.



78. irudia. Kalitate biologikoaren denborarekiko-eboluzioa. IBMWP indizea – Ugaldetxo (Oiartzun ibaia).

Serie historikoan eman den uraren kalitatearen hobekuntzak arrain faunaren berreskurapena ahalbidetu du, ondorioz, arrain-komunitatea amuarrain, ezkailu, mazkar eta aingira populazio sendoez osatua dago azken urteetan. 2015 urtean amuarrain populazioak dentsitate aipagarria lortu du; ezkailua eta mazkarra ugariak dira; aldiz, aingiraren presentzia ahula da nolabait. Gainera, jatorri naturaleko izokin ale bakanak arrantzatu dira, eta hau datu positiboa da.



79. irudia. Arrain-faunaren denborarekiko eboluzioa. Ugaldetxo (Oiartzun ibaia).

FANDERIAn, kutsadura organikoa pixkanaka gutxitu da, saneamendu aldetik egin diren aurrerapenei esker. Grafikoan ikusten den bezala, 1999. urtean gutxitu zen gehien, kolektore orokorra abian jarri izanaren ondorioz. Horri esker, gune horretako ura izokinkideentzako egokitzat hartzen da; lehen, kutsadura organiko handia zegoenez, ezin zen halakotzat jo. 2015. urtean lortutako emaitzek adierazten dute ur egokiak direla izokinkideentzat, aurreko urteetan bezalaxe.



80. irudia. Kalitate fisiko-kimikoaren denborarekiko eboluzioa (urteko batez bestekoak). Fanderia (Oiartzun ibaia).

Kalitate biologikoak antzeko portaera du. 1999. urtea baino lehen egindako laginketetan, IBMWP indizeak oso balio txikiak lortzen zituen, 40tik beherakoak ia beti. Egoera biologiko txarraren adierazle zen hori. 2000-2004ko epealdian, onbideratze bat ikusi da, eta indize biotikoaren balioak 70 eta 80 artean ibili dira nagusiki –egoera ertaina edo eskasa adierazten dute–, 2003. urtean izan ezik. Orduan, puntuazio txikixeagoak izan ziren, beharbada lehorte bortitza eta tenperatura handiak izan zirelako urte hartako agorraldian, eta, gainera, Lintzirin errekatik ur kutsatuak zetozelako eta ibaiko habitata eraldatuta zegoelako. 2004. urtetik aurrera,

egoera hobea atzeman zen, eta balioak 80-100 artean zebiltzan gutxi gorabehera; hau da egoera ertaina zen gehienetan. Azken urteetan nolabaiteko hobekuntza nabaritu da, Lintzirin errekan egin diren isurketen bilketa dela eta. 2014 urtean IBMWP indizearen balioak gorakada nabarmena eman zen udaberrian aurreko urteekin alderatuta, honek egoera oso ona adierazten zuelarik; aldiz, agorraldiko egoera ertaina zen. 2015 urtean egoera berdintsua da, egoera ona lortuz udaberrian eta ertaina agorraldian.



81. irudia. Kalitate biologikoaren denborarekiko-eboluzioa. IBMWP indizea – Fanderia (Oiartzun ibaia).

5.2.3. URUMEA IBAIAREN ARROA

Urumea ibaian, uraren kalitateak nabarmen egin du hobera seriean zehar. Horren arrazoia izan da saneamendu- eta arazketa-planak abian jarri direla; planok amaiturik daude ia. Isurketen % 95 inguru Urumeako Kolektore Orokorrera konektatuta daude, eta Loiolako HUAn tratatzen dira. Ergobian, isurketa batzuk zuzenean ibaira doaz, baina ari dira lanean hori zuzentzeko. Saneamenduaren prozesuan hiru une nabarmendu behar dira, duten garrantziagatik. Lehenengoa 70eko hamarkadan gertatu zen, papergintzako isurketetako asko jaso baitziren orduan. Bigarrena 1992tik 1997ra bitartean gertatu zen, Hernaniko, Astigarragako eta Donostiako isurketak konektatu ziren garaian; gainera, asko kutsatzen zuten hainbat enpresa itxi zituzten. Eta hirugarrena, Monpaseko itsaspeko hondakin uren ahoa eraikitzea eta 2006ko urtarrilean Loiolako HUA martsan jartzea esanguratsua izan da.

KARABELgo estazioan ikusten da kutsadurak behera egin duela serie historikoan zehar, batik bat lehen erdialdean. Kutsadura organikoaren adierazleen kontzentrazioak gutxitu egin dira, eta gaur egun betetzen dira izokinkideak bizitzeko gaitasunari dagozkion betekizunak. Seriearen hasieran erregistratutako pHaren balio txikiak nabarmentzen dira; izan ere, 6tik beherakoak izan dira, eta 2-3 ingurukoak ere neurtu dira, industrietako isurketen ondorioz. Azken urteetan, parametro guztiek izan dituzte ur garbiei dagozkien balioak, eta 2015. urtean ere bai.



82. irudia. Kalitate fisiko-kimikoaren denborarekiko eboluzioa (urteko batez bestekoak). Karabel (Urumea ibaia).

Kalitate biologikoa ere modu positiboan bilakatu da. Seriearen hasieran, IBMWPak oso balio txikiak lortu zituen, ur oso kutsatuei zegozkienak. Geroago, ikusi zen pixkanaka hobera egiten ari zela, eta 1994. urtean egoera ona zen. Urte horretatik aurrera, hobetzen jarraitu da eta indizeko puntuazio gero eta altuagoak lortu dira; hala, geroz eta ohikoagoa da egoera ona/oso ona izatea. 2015. urtean emaitza onak lortu dira, aurreko urteetan lez, egoera ona erregistratuz udaberrian eta oso ona agorraldian.



83. irudia. Kalitate biologikoaren denborarekiko-eboluzioa. IBMWP indizea – Karabel (Urumea ibaia).

ERGOBIAn, beheranzko joera ikusi da kutsadura-mailetan, saneamendu-proiektuak egin izanari esker. Kutsadura organikoaren adierazleak ere asko jaitsi dira seriean. pHa ere egonkortu egin da; izan ere, seriearen hasieran oso datu txikiak lortu dira, jadanik itxita dagoen enpresa batek papera isurtzen zuelako. Horiek hala, uraren kalitateak hobera egin du pixkanaka, eta azken urteetan izokinkideentzako ur egokitzat jo dira, 2015an ere bai.



84. irudia. Kalitate fisiko-kimikoaren denborarekiko eboluzioa (urteko batez bestekoak). Ergobia (Urumea ibaia).

Uraren kalitate biologiko aldetik ere joera positiboa ikusten da serieak aurrera egin ahala. Seriearen lehenengo urteetan, oso puntuazio txikiak lortu ziren, 5 eta 50 bitartean gutxi gorabehera (balio horiek egoera eskasa/txarra adierazten dute). 90eko hamarkadaren amaieran, hobekuntza txikia izan zen; indizeak geroz eta balio altuagoak lortzen ditu, egoera

ertain/eskasari dagozkionak. 2010. urtetik aurrera hobekuntza nabarmena igarri da aurreko urteekin alderatuta, honela, kasu gehienetan egoera ona edo oso ona izan zen. Aurten, 2015. urtean, emaitza onek diraute, honela, udaberrian serie historikoko baliorik altuena lortu da (IBMWP=148), zeinak egoera oso ona adierazten duen, agorraldian egoera ona lortu den bitartean (IBMWP=112).



85. irudia. Kalitate biologikoaren denborarekiko-eboluzioa. IBMWP indizea – Ergobia (Urumea ibaia).

Era berean, arrain faunaren egoerak eboluzionatu egin du positiboki. 1989an egindako lehenengo laginketan 3 espezie atzeman: korrokoia, platuxa eta aingira, azken hau zelarik nagusia. Hurrengo laginketetan bestelako espezieak joan dira agertzen: ezkailua, mazkarra, amuarraina eta izokina. Zenbait kasutan zamo txikia ere agertu da. 2011. urtea nabarmentzekoa da, aingiraren populazio ugaria dela eta, baita lehenengo aldia izan zelako lanproia agertu zela, galtzorian dagoen espeziea. Espezie honen zitak, Gipuzkoa mailan, gutxi izan dira: Bidasoa ibaian alde batetik, eta Oria ibaian bestetik, non ale heldu bakarra topatu zen. 2015. urtean, arrain komunitatea aingira, amuarraina, ezkailua, korrokoia eta platuxez osatua dago, dentsitate ahulekin.



86. irudia. Arrain-faunaren bilakaera. Ergobia (Urumea ibaia)

5.2.4. ORIA IBAIAREN ARROA

Oria ibaiaren arroan, saneamendua oso aurreratua dago. 2003. urtean, Gaikaoko HUA jarri zuten abian, Legorretan, Oria Garaiko ur zikinak garbitzeko asmoz. Hor biltzen dira Goierriko isurketak, Segura, Idiazabal, Ataun, Lazkao, Ezkio-Itsaso, Ormaiztegi, Beasain, Ordizia eta beste hainbat herritakoak, baina oraindik ere efluente batzuk sartzea falta da. Bestalde, Adunako HUA 2011n jarri zuten abian; han arazten dira Tolosaldeko herrietako ur zikinak: Legorreta, Ikaztegieta, Alegia, Tolosa, Berrobi, Villabona, Andoain, Asteasu, Irura, Anoeta, Zizurkil, Aduna…

Oria ibaiaren arroan, eragin handia izan du paper-industriak, ugari ezarri baitira ibar horretan. Industria mota horrek asko kutsatzen du, baina kutsadura hori asko gutxitu da, arazte-sistemak abian jarri izanaren ondorioz eta zenbait paper-industria itxi izanaren ondorioz, are orain dela gutxi ere; hala, gaur egun arroan 3 paper-industria daude aktibo. Karga kutsatzaileak nabarmen gutxitu dira, ondoko taulan ikus litekeen bezala. Hain zuzen, papergintzako isurketek Oria ibaiaren arroan zer bilakaera izan duten azaltzen da:

Urtea	Emaria (m^3/d)	Sol. Esek. (Kg/d)	DQO (Kg/d)	Paper-industriako enpresak guztira	Araztegiak
1976	78.000	61.000	48.000	17	0
1982	97.000	65.000	62.000	16	2
1989	59.000	29.000	33.000	13	2
1997	25.000	3.500	6.000	11	6
2001	23.000	1.800	5.600	11	9
2007	15.048	533	2.006	5	5
2010	12.000	285	1.000	4	4
2013	10.000	180	900	3	3

115. taula. Papergintza-sektorearen isurien eboluzioa Oria arroan.

ORDIZIAn, emaitza fisiko-kimikoek adierazten dute kutsadura organiko jarraitu bat izan dela seriean zehar; dena dela, kutsadura hori asko gutxitu da azken urteetan, 2003. urtean Legorretan Gaikaoko HUA abian jarri zutenetik, han Oria Garaiko ur zikinak arazten baitira. Hala, saneamendua egin aurreko urteetan, kutsadura organikoaren adierazle diren parametroek (DBO, DQO eta amonio) kontzentrazio handiak zeudela agertu zuten. Amonioaren urteko batez bestekoak 1 mg/l-ko muga gainditu du ia beti, eta lortutako balio maximoa 4,6 mg/l izan da. Era berean, DQO eta DBO_5aren balioak ere handiak izan dira, 70 mg/l eta 12 mg/l urteko batazbesteko maximoekin, hurrenez hurren. Ondoren, kutsatzaileen karga gutxitu egin zen leunki puntu honetan, kutsadura organikoa kontzentrazio baxuetan mantenduz orokorrean. 2015. Urtean amonioaren urteko batazbestekoa 0,13 mg/l-koa da, aurreko urteetan lez. DQO eta DBO_5 10 mg/l eta 2 mg/l-ko baliaok lortu dituzte, hurrenez hurren.



87. irudia. Kalitate fisiko-kimikoaren denborarekiko eboluzioa (urteko batez bestekoak). Ordizia (Oria ibaia).

Kalitate biologikoari dagokionez, IBMWP indizeak oso balio txikiak lortu ditu oro har saneamendua egin aurreko urteetan, gehienak 20tik beherakoak; horrek egoera txarra adierazten du. 2003. urtetik aurrera, hau da, Gaikaoko HUA abian jarri zenetik, joera positibo bat ikusi da, eta puntuazio handixeagoak lortu dira. Horrek adierazten du egoera eskasa dela gehienetan, eta ertaina kasurik onenetan. 2010etik aurrera halako hobekuntza atzeman da, baina oraindik ere maila apalaren barruan; hortaz, laginketa gehienen arabera, egoera ertaina da. 2014. urtean nolabaiteko hobekuntza nabaritu zen, 2015. urtean dirauena, udaberrian egoera ona lortuz, eta ertaina agorraldian.



88. irudia. Kalitate biologikoaren denborarekiko-eboluzioa. IBMWP indizea – Ordizia (Oria ibaia).

ARAXES IBAIAN GORA dagoen estazioan, Araxesekin bat egiten duen lekutik gora, 1990. urtetik uraren kalitateak hobera egin duela detektatu da. Urte hartan, nabarmen hobetu ziren papergintzako isurketak, paper-industria bat itxi zutela-eta. Horren ondorioz, jaitsiera detektatu zen kutsadura organikoaren adierazle diren parametroen kontzentrazioetan, hala nola DQOan, DBOan, eroankortasunean eta solido esekietan. Horrez gain, 2003an Gaikaoko HUA (Oria Garaia) hasi zen martxan, eta berrikiago, 2011n, Adunako HUA jarri dute abian (Oria erdialdea-behealdea). Horren emaitza gisa, ikusi da kutsadurak zertxobait behera egin duela, baina oraindik ere bada halako karga organikoa. 2015. urtean amonioak urteko batazbesteko baxua erregistratu du, 0,14 mg/l, datu puntual altu bat badagoen arren, 0,66 mg/l. Era berean, DQO eta DBO_5 kontzentrazio baxuetan daude orokorrean, salbuespen puntual batzuekin, 12 mg/l eta 3 mg/l urteko batazbekoak lortuz, hurrenez hurren.



89. irudia. Kalitate fisiko-kimikoaren denborarekiko eboluzioa (urteko batez bestekoak). Araxes Goian (Oria ibaia).

Indize biotikoen emaitzek antzeko egoera agertzen dute. 1990a baino lehenagoko urteetan, IBMWP indizeak oso balio txikiak lortu zituen, 6 eta 39 bitartean, hau da, egoera txarra zen. Urte hartatik aurrera, puntuazioek neurriz egin zuten gora, eta nagusiki 40-70 tartearen barruan zeuden; horrek esan nahi du egoera eskasa zela gehienetan. Ibaian gora isurketak zeudenez, uraren kalitatea ezin zen gehiago onbideratu. Horrez gain, litekeena da azken urteetan AHTaren lanek tarte hori gehiago onbideratzeko aukera zaildu izana. 2013. urtean, puntuazio altuxeagoak erregistratu ziren (egoera ertaina). 2014. urtean, egoerak hobera egiten du, lehenengo aldiz egoera ona lortuz, bai udaberrian baita agorraldian ere. Aurten, 2015. urtean, IBMWP balio baxuagoak lortu dira, egoera ertainari dagozkionak.



90. irudia. Kalitate biologikoaren denborarekiko-eboluzioa. IBMWP indizea – Araxes Goian (Oria ibaia).

IRURAn, aurreko gunearen antzeko egoera dago. 1992. urtetik aurrera, uraren kalitatea hobetu egin zen, Amarozko paper-orea fabrikatzeko lerroa itxi zutela-eta. Seriearen hasieran, emaitza fisiko-kimikoak kutsadura handiko egoerari zegozkion. Ordutik aurrera, nabarmen egin dute behera kutsaduraren adierazle diren parametroen kontzentrazioek, hala nola DQOak, DBOak eta solido esekiek; gainera, oxigenazio-baldintzak ere hobetu egin dira. Berriki, beste paper-industria batzuek utzi dute bertan behera beren jarduera; gainera, 2011ko amaieran, Adunako HUA jarri zen abian, eta, horren ondorioz, kutsadura nabarmen gutxitu da, nahiz eta oraindik ere baden zerbait. Hala, urte horretara bitartean, amonio ugari zegoen, eta hori mugatzailea zen arrainak bizitzeko; alabaina, 2012an, parametro hori kontzentrazio txikietan edo detekzio-mailaren azpitik atzeman da, eta, beraz, ziprinidoentzako ur egokitzat har daitezke; tenperatura altua denez, ez dira ur egokiak izokinkideentzat. 2013. urtean, lehenengoz jo dira izokinkideentzako egokitzat; izan ere, parametro guztiek bete dituzte arrain-gaitasunari buruzko 2006/44/EE Zuzentarauan ezartzen diren baldintzak. 2014. urtean egoera mantendu egiten da, baita 2015. urtean ere, 0,08 mg/l-ko urteko batazbestekoarekin, 0,17 mg/l-ko datu maximoarekin. DQO baloreak 11mg/l-ko urteko batazbestekoa lortu du, eta 0,28 mg/l-ko datu maximoa.



91. irudia. Kalitate fisiko-kimikoaren denborarekiko eboluzioa (urteko batez bestekoak). Irura (Oria ibaia).

Kalitate biologikoak kalitate fisiko-kimikoaren antzera eboluzionatu du. 1992. urtea baino lehen egindako laginketetan, IBMWP indizeak oso balio txikiak lortzen zituen, 20tik beherakoak kasurik gehienetan; hau da, egoera txarra zen. Geroago, puntuazioak zertxobait handiagoak izan dira, 40 eta 60 bitartekoak oro har; egoera eskasa izan da, beraz. 2007tik aurrera, nolabaiteko hobekuntza ikusi da, eta indizearen balioak nagusiki 60-90 bitartean ibili dira. 2014. urtean lehenengo aldiz, egoera ona lortu zen udaberrian, agorraldian egoera ertaina mantendu zelarik. 2015. urtean egoera antzekoa da, egoera ona udaberrian eta ertaina agorraldian, baina IBMWP balio altuagoekin.



92. irudia. Kalitate biologikoaren denborarekiko-eboluzioa. IBMWP indizea – Irura (Oria ibaia).

ANDOAINgo datu fisiko-kimikoen seriean, ikusten da uraren kalitateak hobera egin duela 1989-1990. urteetatik aurrera, Orian papergintzako isurketak gutxitu dira-eta. Ordutik aurrera, kutsadura organikoak nabarmen egin du behera, nahiz eta oraindik ere materia organikoa detektatzen den. Berriki, beste paper-industria batek utzi du bertan behera bere jarduera; gainera, 2011ko amaieran, Adunako HUA jarri zuten abian. Aurreko urteetako egoerari dagokionez, 2012an amonio-maila handiak atzeman dira, baina ez dira arrainak bizitzeko mugatzaileak, araudiaren arabera. 2013. urtean, ostera, ikusten da kutsadura organikoak behera egin duela zertxobait; era berean, oxigenazio- eta tenperatura-baldintzak nahiko egokiak dira, eta, beraz, egokitzat jotzen dira izokinkideentzat; hori datu positiboa da. 2015. urtean ere izokinkideentzako egokia dela behatu da; bai amonioak baita DQO-ak ere urteko batazbesteko balio baxuak lortu dituzte: 0,10 mg/l eta 11 mg/l, hurrenez hurren.



93. irudia. Kalitate fisiko-kimikoaren denborarekiko eboluzioa (urteko batez bestekoak). Andoain (Oria ibaia).

Era berean, kalitate biologikoak hobera egin du 1989-1990eko epealditik, eta urte horietan lortu dira IBMWParen baliorik txikienak. Hurrengo urteetan, puntuazio handixeagoak izan dira, baina maila apalekoak oraindik, 40 eta 70 artean nagusiki. Hortaz, egoera eskasa da kasu gehienetan. 2010. urtetik hobekuntza bat ikusi da; hala, 2010eko udaberriko kanpainan lortu da, lehenengoz, egoera biologiko ona. Ondorengo urteetan egoerak hobera egiten jarraitu du, egoera oso ona lortuz 2014ko udaberrian. Aurten, 2015. urtean, emaitzek egoera ertaina adierazi dute udaberrian, aldiz, agorraldian, eta lehenengo aldiz, egoera ona lortu da.



94. irudia. Kalitate biologikoaren denborarekiko-eboluzioa. IBMWP indizea – Andoain (Oria ibaia).

Arrain faunari dagokionez, 1990 urtean egindako lehenengo laginketan Andoain estazioan, loina, aingira eta urrearrain ale gutxi batzuk arrantzatu ziren. Hurrengo laginketan 6 espezie agertu ziren: barboa, loina, ezkailua, mazkarra, aingira eta urrearraina. Ondorengo laginketetan espezie kopurua aldakorra izan da. Loina da espezie nagusia orokorrean, eta barbo, mazkar eta aingira populazio garrantzitsuak ere badaude. Amuarrainaren presentzia ahula da edo ez dago, ezkailua lez. Urrearaina serie historikoaren hasieran soilik agertzen da; aldiz, azken urteetan zarbo aleak atzeman dira. Aipatu behar da 2013. urtean barboaren eta loinaren dentsitatea gutxitu egin dela. Bi espezie hauek lernaeosis gaixotasunak erasan ditu, populazioen beherakadaren eragilea izan delarik. 2015. urtean loina populazioen berreskurapena behatu da, dentsitate garrantzitsua lortuz; aldiz, gainontzeko espezieak (amuarraina, barboa, ezkailua, mazkarra, aingira eta zarboa) murritzak dira.



95. irudia. Arrain-faunaren bilakaera denboran zehar. Andoain (Oria ibaia)

USURBILen, bokaletik gertuen dagoen estazioan, 1990. urtean papergintzako isurketak gutxitu izanaren ondorioz, uraren kalitatea hobetu da. Kutsadura organikoa nabarmen gutxitu da, baina oraindik ere bada karga organikoa. Hala, seriean, hainbatetan gainditu du amonioak 1 mg/l-ko muga; beraz, ez dira ur egokiak arrainak bizitzeko. Ondoren, 2011. urtearen amaieran, Adunako HUA abiarazi zen, honek karga organikoaren beherakada ekarri duelarik azkeneko urteotan; hala ere, nolabaiteko kutsadura organikoa dago oraindik. 2011-2014 urteetako tartean amonioak 0,21 mg/l eta 0,38 mg/l arteko urteko batazbestekoa lortu zuen; kontzentrazio maximoei dagokionez, 0,72 mg/l eta 0,45 mg/l artean egon dira. Bestalde, tenperatura altuak erregistratu dira, 21,5º C gainditzuz, honek ziprinidoentzako urak direla adierazten duelarik, 2014. urtean salbu, non tenperatura baxuagoak bildu ziren, izokinkideentzako gaitasuna adieraziz. 2015. urtean antzeko egoera behatu da, nolabaiteko kutsadura organikoa antzemanez, baina arrain-fauna bizitzeko gaitasuna ez du deusezten. Amonioak 0,23 mg/l-ko urteko batazbestekoa erakutsi du, kontzentrazio maximoa altuagoa delarik, 0,60 mg/l. Aurreko urtean lez, izokinkideentzako gaitasuna erakusten du, tenperatura Zuzentarauak ezartzen duen mugaren aizpitik mantentzen baita.



96. irudia. Kalitate fisiko-kimikoaren denborarekiko eboluzioa (urteko batez bestekoak). Usurbil (Oria ibaia).

Kalitate biologikoari dagokionez, ez dago aldakuntza handirik seriean. IBMWParen batez bestekoa 53 izan da udaberrian, eta 47 agorraldian. Balioak, nagusiki, 30-70 artean egon dira, eta egoera eskasari dagozkio gehienetan. 2013an halako hobekuntza atzeman da, eta serieko emaitzarik onenak lortu dira: IBMWPak lortutako puntuazioa egoera ertainari dagozkie. 2014. urteko balioak baxuagoak izan dira eta egoera eskasari dagozkie. 2015. urtean emaitzak ere apalak izan dira, egoera eskasa lortuz udaberrian eta ertaina agorraldian.



97. irudia. Kalitate biologikoaren denborarekiko-eboluzioa. IBMWP indizea – Usurbil (Oria ibaia).

ARAXES ibaian, bokalean, paper-industriaren araberakoa izan da, hein handi batean, bilakaera. 1992. urtean, paper-orea fabrikatzeko lerroa itxi zen. Aurreko urteetako emaitza fisiko-kimikoek adierazten dute kutsadura handia dela, eta, urte horretatik aurrera, kutsadura maila nabarmen gutxitu da. Hala ere, oraindik badaude uraren kalitatea gutxitzen duten isurketak, eta inoiz arrainak hil ere egin dira horren eraginez. 2011. urtetik aurrera, kutsadura gutxitze bat detektatu da; beherakada aipagarria ikusi da amonio-kontzentrazioetan, baina oraindik ere kasuren batean gainditu da 1 mg/-ko muga, eta, beraz, ez dira ur egokiak arrainak bizitzeko. Hala, 2012. urtean, lortutako datu maximoa 2 mg/l izan da, eta urteko batez bestekoa, 0,31 mg/l. Alabaina, 2013an parametro horrek behera egiten jarraitu du, eta kasurik gehienetan detekzio-mailaren azpitik dago: datu maximoa 0,05 mg/l da, eta urteko batez bestekoa 0,03 mg/l. Horrenbestez, lehenengo aldiz serie historikoan, tartea egokia da izokinkideak bizitzeko, eta hori oso datu positiboa da. 2014 eta 2015. urtean egoera oso antzekoa da. Honela, aurten detektatutako amonio presentzia eskasa da, urteko batazbestekoa 0,03 mg/l izanik eta 0,06 mg/l-ko maximoa. Beraz, izokinkideentzako gaitasuna azaltzen du ibai-tarte honek.



98. irudia. Kalitate fisiko-kimikoaren denborarekiko eboluzioa (urteko batez bestekoak). Araxes ibaia.

Araxes ibaiak, Amaroztik igarotzean, aldaketa bortitza izan du kalitate biologikoan 1992. urtetik. Aurreko urteetan, papergintzako isurketek larri eragiten zioten makroornogabeen bizitzari, eta hori IBMWParen puntuazio txikietan islatu da, laginketa guztietan 10etik beherakoak izan baitira, are zero ere. Horrek egoera biologikoa txarra adierazten du. Paper-orea fabrikatzeari utzi izanari esker, egoera nabarmen onbideratu ahal izan da; baina ez behar beste eta, oraindik ere, egoera ertaina/eskasa bitartekoa da. Kontuan izan behar da aldameneko industrialdeetan araztu gabeko isurketak egiten direla oraindik ere. 2013an, uraren kalitate biologikoa nabarmen hobetu da, batez ere agorraldian, aurreko urteekin alderatuz. Amaroz auzoko ur zikinen saneamendu eta arazketarekin lotuta dago hori. Hala, udaberrian egoera ertaina erregistratu da; agorraldian, berriz, serieko baliorik handiena lortu da alde handiz, alegia, egoera ona. Balio horrek egoera ona dela adierazten du. 2014. urtean hobekuntza egonkortu egin da eta kanpaina bietan lortu da egoera ona, baita 2015. urtean ere.



99. irudia. Kalitate biologikoaren denborarekiko-eboluzioa. IBMWP indizea – Araxes (Araxes ibaia).

Araxesen 1993. urtean hasi ziren arrain-laginketak, non ez zen arrainik atzeman. Ondoren, 1995. urtean, barbo, aingira eta urrearrain ale gutxi batzuk arrantzatu ziren. 1997. urtean amuarraina, ortzadar amuarraina, ezkailua eta mazkarrak gehitu ziren zerrendan. Ondorengo laginketetan atzemandako espezie kopurua aldakorra izan da; aldiz, nagusitzen diren espezieak barboa eta loina izan dira, baita aingira ere, gainontzeko espezieak urriagoak direlarik. 2013. urtean loinaren dentsitatean beherakada nabarmentzen da, eta barbo eta aingira populazioek ere behera egiten dute; aldiz, amuarrainaren presentzia handiagoa antzematen da, aurreko urteetan eskasa izan dena; hau uraren kalitatearen hobekuntzaren ondorioz izan dela ulertu daiteke. 2015. urtean egoerak okerrera egin du. 6 arrain-espezie atzeman dira: amuarraina, barboa, loina, ezkailua, mazkarra eta aingira. Ezkailua da espezie ugariena, nahiz eta dentsitate ahul batean; gainontzeko espezieak oso urriak dira.



100. irudia. Arrain-faunaren bilakaera denboran zehar. Amaroz (Araxes ibaia)

5.2.5. UROLA IBAIAREN ARROA

Urola ibaiaren arroan, saneamendu- eta arazketa-sistema amaituta dago. Herrigune txiki batzuk baizik ez dira geratzen arroko hiru araztegietara lotzeko: Zurigoaingo HUA (Urola Garaia), Badiolegiko HUA (Urola erdialdea-behealdea) eta Basustako HUA (Zumaia). 1991. urtean, Badiolegiko HUA abian jarri zen, Azkoitiko eta Azpeitiko ur zikinak arazteko. Bestalde, Urola Garaiko HUA 2001. urtean jarri zen martxan, eta Legazpiko, Zumarragako eta Urretxuko isurkinak arazten ditu.

Baldintza fisiko-kimikoei dagokienez, LEGAZPIN IBAIAN BEHERA, serie historikoaren lehen erdialdean oso kutsadura-maila handiak ageri dira, eta hori ez da bateragarria arrainen bizitzarekin. 1999. urtetik aurrera, ikusi da kutsadurak nabarmen egin duela behera, saneamendua amaitu izanaren ondorioz. Honela, 2002. urtetik hona, amonioa ez da mugatzailea fauna iktikoarentzat; aldiz, zenbait kasutan izokinkideentzako altuak diren tenperaturak erregistratu dira, ez ordea ziprinidoentzat. Azken urteei dagokionez, 2013 eta 2014. urteetan tenperatura eta oxigeno baldintza egokiak erregistratu dira, baita karga organiko baxua ere, izokinkideentzako ur egokiak bilakatuz. 2015. urtean tenperatura altuak behatu dira, aldiz, oxigenazioa egokia da eta ez dago apenas karga organikorik, hortaz, ur egokiak dira ziprinidoentzako.



101. irudia. Kalitate fisiko-kimikoaren denborarekiko eboluzioa (urteko batez bestekoak). Legazpi Ibaian Behera (Urola ibaia).

LEGAZPIN IBAIAN BEHERA dagoen estazioko IBMWP datuek erakusten dute onbideratze txikia izan dela saneamendu-zerbitzua abian jarri denetik. Lanak 1999. urtean amaitu ziren, eta, beraz, ordutik aurrera hobekuntza nabarmena izan da. Urte hori baino lehen, IBMWParen balioak oso txikiak ziren gune horretan, 10etik beherakoak, eta horrek muturreko kutsadura zegoela adierazten zuen. Halere, egoera biologiko txartzat hartu izan da. 2005etik aurrera halako goranzko joera atzeman da, baina beti maila oso apalean: kasu gehienetan, egoera eskasa izan da udaberrian, eta txarra agorraldian. Aurreko urteetan lez, 2015. urtean datu apalak lortu dira, egoera biologiko eskasa eta txarrarekin lotuta daudenak udaberri eta agorraldian, hurrenez hurren.



102. irudia. Kalitate biologikoaren denborarekiko-eboluzioa. IBMWP indizea – Legazpi Ibaian Behera (Urola ibaia).

URRETXUn, serieak adierazten du urak oso kutsatuta daudela, Legazpi, Zumarraga eta Urretxu herrietako hiri- eta industria-isurketen ondorioz. 1999. urtean, okerrera egin zuen egoerak, batu egin baitziren laginketa-gunean gora egiten diren isurketak. 2001ean, Zuringoaingo HUA jarri zen abian, Urretxun, eta, ordutik, kutsadura organikoa asko gutxitu da, pixkanaka-pixkanaka; hala ere, oraindik badago zerbait. 2009an, ikusi zen amonioak nabarmen egin zuela behera aurreko urteekin alderatuz; izan ere, balioak 1 mg/l-tik oso behera zeuden, eta lehenago muga hori aise gainditzen zen. 2010ean, amonioaren halako presentzia bat ikusi da, baina ez du gainditzen arrainak bizitzeko gaitasun-muga. 2011-2013ko epealdian, maila txikiagoak lortu ziren. Alabaina, 2014. urtean, amonioak behin gainditu du muga, beraz, ez dira ur egokiak arrainen bizitzarako. 2015. urtean amonio kontzentrazio esanguratsuak detektatu dira puntualki; aldiz, arrainen bizitzarako mugaren azpitik mantendu da, beraz, izokinkideentzako gaitasuna erakutsi du.



103. irudia. Kalitate fisiko-kimikoaren denborarekiko eboluzioa (urteko batez bestekoak). Urretxu (Urola ibaia).

Urretxuko estazioak serie okerrenetako bat izan du indize biotikoen puntuazioei dagokienez. 2001era arte, urte hori barne dela, IBMWParen balioak 10etik behera zeuden ia beti; beraz, egoera txarra zen. Gogoan izan behar da tarte horretan isurketa handiak izaten zirela eta horrek muturreko kutsadura sortzen zuela, harik eta 2001ean Urola Garairako Zuringoaingo HUA abian jarri zen arte. Ordutik aurrera, uraren kalitateak hobera egin du, baina oraindik oso maila apalean; horrenbestez, egoera biologikoa eskasa da. 2011tik aurrera, nolabaiteko igoera detektatu da indize biotikoaren balioetan; halere, balio horiek egoera biologiko eskasari dagozkio oraindik ere kasurik gehienetan. 2015. urtean ere balio apalak lortu dira: egoera ertaina udaberrian eta eskasa agorraldian.



104. irudia. Kalitate biologikoaren denborarekiko-eboluzioa. IBMWP indizea – Urretxu (Urola ibaia).

2001. urterarte burututako laginketetan ez da arrain-faunarik atzeman. 2003. urtean uraren kalitatearen hobekuntzak amuarrain, mazkar eta ezkailu aleak agertzea eragin zuen. 2005 urtean espezie berdinak atzeman ziren baina koùru handiago batean. Hurrengo laginketetak egoera antzekoa izan da; ezkailua da nagusitzen den espeziea, dentsitate altuekin, mazkarraren presentzia ez da hain handia, eta amuarrainarena murritza da. Aipatu 2007. urtean aingira ale bat harrapatu zela lehenengo aldiz. 2013. urtean amuarrain gehiago atzeman ziren, baita 2 aingira ale ere, 2007 urtean soilik behatutako espeziea. 2015. urtean ezkailua eta mazkarraren dentsitateak altuak izan dira, aldiz, amuarrainaren presentzia urria da, aurreko laginketetan lez.



105. irudia. Arrain-faunaren bilakaera denboran zehar. Urretxu (Urola ibaia)

AZKOITIAN IBAIAN GORA dagoen gunean, datu fisiko-kimikoen seriea irregularra da lehen erdialdean. Kutsadura-mailak baldintza hidrologikoen arabera aldatzen dira. 1989-1990eko epealdian, gai kutsatzaileen kontzentrazio handiagoak hauteman ziren, lehorte handi baten ondorioz. 1999. urtetik aurrera, beherakada progresiboa detektatu da kutsadura-mailetan –nabarmenagoak izan dira 2001. urtetik aurrera–, orduan jarri baitzuten martxan Zuringoaingo HUA. Hala, azken urteetan, emaitzak onak izan dira; eta urak, egokiak izokinkideak bizitzeko. 2015. urtean emaitza fisiko-kimiko onak lortu dira, uraren tenperatura izan ezik, Zuzentarauak ezartzen duen muga gainditzen baitu, hortaz, ziprinidoentzako gaitasuna erakusten duten urak dira.



106. irudia. Kalitate fisiko-kimikoaren denborarekiko eboluzioa (urteko batez bestekoak). Azkoitia Ibaian Gora (Urola ibaia).

Indize biotikoen datuen serieak erakusten du hobekuntza argia izan dela 2001. urtetik aurrera, hau da, Zuringoaingo HUA abian jarri zenetik, eta hobetzen jarraitzen duela gaur egun. 1986. urtetik 2000. urtera arteko egoera biologikoa txarra izan da ia kasu guztietan. IBMWParen balioak 10 eta 42 artean ibili dira, kutsadura-maila handiaren ondorioz. 2001etik aurrera, Zuringoaingo HUA abiaraztearekin batera, hobekuntza nabarmena detektatu da; halere, egoerak eskasa izaten jarraitu du oro har. 2009. urtetik aurrera, seriearen goranzko joerak jarraitu du, eta indize biotikoaren geroz eta altuagoak dira. Izan ere, 2011ko udaberrian, lehenengoz lortu da egoera ona. 2013 eta 2014. urteetan hobekuntzak jarraitu egiten du, egoera ona edo oso ona lortuz kasu guztietan. Aldiz, 2015. urtean okerrera egin du, egoera ertaina lortuz, bai udaberrrian baita agorraldian ere.



107. irudia. Kalitate biologikoaren denborarekiko eboluzioa (urteko batez bestekoak). IBMWP indizea. Azkoitia Ibaian Gora (Urola ibaia).

AZPEITIko estazioan, 1991. urtean Badiolegiko HUA abian jarri izanaren ondorioz, aldaketa izugarria gertatu zen. Aurreko urteetan ikusitako kutsadura handia nabarmen gutxitu zen. 1989-1990eko epealdian, egoera okerragoa atzeman zen, lehorteak areagotu egin baitzituen kutsadura-arazoak. 1992. urtetik aurrera, kalitate fisiko-kimikoa ona izan da, eta egonkor eutsi dio. Hala, azken urteetan urak egokia izan dira izokinkideentzat, kasuren batean izan ezik, tenperatura altuak mugatzaile izan baitira izokinkideentzat, nahiz eta ez ziprinidoentzat. 2015. urtean, emaitza onak lortu dira, eta tarte egokia izan da izokinkideentzat, arrain-gaitasunari buruzko Zuzentarauaren arabera.



108. irudia. Kalitate fisiko-kimikoaren denborarekiko eboluzioa (urteko batez bestekoak). Azpeitia (Urola ibaia).

Indize biotikoen serieak kalitate fisiko-kimikoaren seriearen antzera eboluzionatu du. 1991. urtera arte (Badiolegiko HUA abian jarri zen urtea), indize biotikoen balioak oso txikiak ziren; egoera txarra zen ia kasu gehienetan. Urte horretatik aurrera, onbideratzen joan da IBMWParen puntuazioa, eta progresiboki egin du gora, nahiz eta beti nahiko maila apalean, egoera biologikoa eskasa izan baita oro har. 2006. urtean lortu dira emaitzarik onenak, egoera ona lortuz udaberrian eta ertaina agorraldian. 2010. urtetik aurrera halako igoera atzeman da indize biotikoaren puntuazioetan, eta egoera ertaina izanik nagusi, baina baita ere egoera ona zenabit kasutan. 2015. urtean egoera ertaina behatu da udaberrian eta ona agorraldian.



109. irudia. Kalitate biologikoaren denborarekiko eboluzioa (urteko batez bestekoak). IBMWP indizea. Azpeitia (Urola ibaia).

Azpeitiako arrain-faunaren egoera Badiolegi HUA martxan jartzearekin dago erlazionatua. 1982. urtean ez da arrainik atzeman, eta 1989.an loina, ezkailu eta aingira ale solte batzuk soilik. 1993. urtean aldaketa izugarria pairatu zen, 6 espezie arrantzatuz: amuarraina, barboa, loina, ezkailua, mazkarra eta urrearraina. Ondoren aingira agertu da, noizbehinka bada ere. Argi dago eremu honetan ziprinidoak direla nagusi. Hemendik aurrera egoera berdintsu mantendu da. Amuarrain eta aingiraren presentzia handiagoa pozgarria izango litzateke. 2013. urtean loinaren dentsitatearen beherakada leuna da aipatzekoa. 2015. urtean populazio hau berreskuratu egiten da. Gainontzekoan, ezkailuak eta mazkarrak dentsitatea altuak lortu dituzte, amuarrain, barbo eta aingirarren kasua kontrakoa delarik, hauen presentzia urria baita.



110. irudia. Arrain-faunaren bilakaera denboran zehar. Azpeitia (Urola ibaia)

OIKINAn, papergintzako isurketen ondorioz, materia organiko ugari dago. Hala, DBOa, DQOa eta fosfatoek kontzentrazio handiak dituzte seriean, eta amonioaren presentzia, ostera, txikia da. Hala ere, azken urteetan egoera asko onbideratu da, papergintzako isurketen tratamendua hobetu izanaren ondorioz, nahiz eta oraindik badituen gabezia batzuk. Modu horren, halako karga organikoa detektatu da, bai eta nolabaiteko oxigeno-gabezia ere; eta, zenbaitetan, izokinkide-espezieentzako mugatzaileak diren tenperatura altuak. 2013. urtean, amonioaren datua ohi baino altuagoa izan da, araudiak ezarritako 1 mg/l-ko muga gainditu baita; beraz, ez da egokia arrainak bizitzeko. Halaber, tenperaturaren muga gainditu da, 21,5 ºC, eta nolabaiteko oxigeno-gabezia detektatu da. Horrez gain, fosfato-kontzentrazio handiak ikusi dira. 2014. urtean, kutsadura organikoaren adierazleak kontzentrazio baxuak dituzte, eta, gainera, tenperatura- eta oxigenazio-baldintzak ez dira mugatzaileak; hortaz, tartea egokia da izokinkideentzat. 2015. urtean tenperatura altuak erregistratu dira, ziprinidoentzako gaitasuna erakutsiz. Gainontzekoan, nolabaiteko karga organikoa detektatu da, nahiz eta ez den bateraezina arrain-bizitzarekin.



111. irudia. Kalitate fisiko-kimikoaren denborarekiko eboluzioa (urteko batez bestekoak). Okilina (Urola ibaia).

IBMWParen serieak adierazten du kutsadura-arazo handiak daudela. Seriearen hasieran, balio nahiko altuak lortu ziren. Baina, berehala, beherakada larria izan zen indize biotikoen puntuazioetan; beherakada hori progresiboki gertatu zen, eta emaitzarik txarrenak 1997tik 1999ra bitartean lortu ziren, hain zuzen ere 3 eta 17 arteko puntuazioak. Era berean, 1989tik 2003ra, IBMWParen batez bestekoa, agorraldian, 19 izan zen, eta balio horrek kutsadura handia dagoela adierazten du. Epealdi horretan, egoera txarra izan zen ia kasu gehienetan. 2004. urtetik aurrera, nolabaiteko hobekuntza ikusi zen, baina oraindik ere puntuazio apalak ziren oro har, eta egoera eskasa adierazten zuten kasu gehienetan. Aipatzekoa da 2009. urtea, IBMWParen puntuaziorik altuenak lortu baitziren orduan: egoera ona udaberrian eta ertaina agorraldian. 2011n ere egoera ona lortu zen udaberrian; agorraldian, aldiz, txarra. 2012-2014 epean emaitzek egoera ertaina eta eskasa agertu zuten. 2015. urtean IBMWP balio altuago erregistratu da udaberrian, egoera oso ona lortuz; aldiz, agorraldian, egoera guztiz aldatzen da, egoera txarra izanik kasu honetan. Emaitza hauek, papergintza industriako isurketek uraren kalitate biologikoan duten eraginaren isaladak dira.



112. irudia. Kalitate biologikoaren denborarekiko eboluzioa (urteko batez bestekoak). IBMWP indizea. Okilina (Urola ibaia).

Oikinako arrain-laginketak 1989. urtean hasi ziren egiten, non soilik aingira arrantzatu ziren, dentsitatea nahiko altuan. Ondoren, atzemandako espezie kopurua aldakorra izan da urteetan zehar, 2-4 artean izanik. Aingira da modu erregularrean agertu izan den espezie bakarra. Arrain-faunaren egoerak okerrera egitea papergintza-industriaren isurketekin dago erlazionatua. 2005. urtean berreskurapen aipagarrian behatu zen, non 8 espezie agertu ziren: amuarraina, barboa, loina, ezkailua, mazkarra, aingira, korrokoia eta platuxa. Ondorengo laginketetan egoera antzekoa da, aingira nagusi delarik, nahiz eta 2009.an ez da amuarrain ezta platuxarik atzeman. 2011. urtean aingiraren populazioan beherakada nabari da, eta ez da barbo ezta loinarik arrantzatu. 2013 eta 2015 urteetan egoerak antzeko dirau, arrain-komunitatea 9 espeziek osatzen dutelarik: izokina, amuarraina, ezkailua, mazkarra, barboa, loina, aingira, korrokoia eta platuxa. Aingira da espezie nagusia, zalantzarik gabe, dentsitate altuekin. Gainontzeko espezieak urriak dira. Gainera, Altzolaratz errekan egindako birpopulaketan jatorria duten izokin aleak arrantzatu ziren. Aipatzekoa da azken urteetan papergintza-industriako isurketetan egindako tratamentuek arrain-faunaren egoeran hobekuntza nabarmena ekarri duela.



113. irudia. Arrain-faunaren bilakaera denboran zehar. Oikina (Urola ibaia)

5.2.6. DEBA IBAIAREN ARROA

Deba ibaiaren arroan, saneamendu- eta arazketa-azpiegiturak egiteko lanak oso aurreratuta daude jadanik. Hondakin-urak arazteko hiru estazio daude martxan:

- Epeleko HUA:
  Debagoiena 1 (Eskoriatza, Aretxabaleta, Arrasate eta Oñati)

- Mekolaldeko HUA
  Debagoiena 2 (Bergara, Antzuola (konektatu gabe oraindik) eta Elgeta)

- Apraizko HUA:
  Debarrena (Elgoibar, Eibar, Soraluze, Mendaro, Ermua (konektatu gabe oraindik) eta Mallabia (konektatu gabe oraindik).

Oraindik, Antzuola, Soraluze eta Mendaro herriak konektatzea falta da, baina luze gabe konektatzea espero da.

Bestalde, Deba ibaiaren arroan uraren kalitatea hobetu da, hain zuzen ere, industriak eragindako toxikotasuna gutxitu delako, batez ere industria metalurgikoak eta azaleko tratamenduen industriak eragindakoa. Bi alderdi hauen ondorio izan da hori:

- Aurreko industria-krisiak eta berrikiago izandakoak: Horren ondorioz, enpresa ugari itxi dira eta beste batzuek jarduera gutxitu dute.

- Abian diren enpresen ingurumen-hobekuntzak:

  · Barruko hobekuntzak, zirkuituak ixtearen ondorioz
  · “Hodi amaierako” banakako araztegiak jarri izana.
  · Hondakin toxiko eta arriskutsuen kudeaketa.

Deba ibaiaren datu fisiko-kimikoen serieak adierazten du urak oso kutsatuta daudela SAN PRUDENTZIOn. Kutsaduraren adierazle diren parametro fisiko-kimikoek kontzentrazio handiak dituzte; bada alderik urte batetik bestera, baina joera zehatz bat dago. Azken urteetan, gune horretatik ibaian gora metatu egiten da Eskoriatzako, Aretxabaletako eta Arrasateko hondakin-urak biltzen dituen kolektorearen isurketa. Horixe da Gipuzkoako ibai-sareko gunerik kutsatuenetako bat. Hala ere, 2012. urtean, Epeleko HUA jarri zen abian, eta kolektorea araztegi horri konektatu zaio. Horren ondorioz, hobekuntza nabarmena izan da, baina oraindik ere kutsadura handia dago. Kutsaduraren adierazle diren parametroek balio altuak dituzte, baina 2011n ikusitakoak baino txikiagoak dira. Izan ere, 2012an amonioaren urteko batez bestekoa 2,63 mg/l izan zen, eta 2011n, ostera, 9,46 mg/l zen. DBO_5-ak eta DQOak ere balio altuak izan zituzten 2012an (urteko batez bestekoak: 8 eta 30 mg/l), 2011rekin alderatuz (urteko batez bestekoak: 18 eta 56 mg/l). Gainera, oxigenazioak nabarmen egin zuen hobera: 2012an urteko batez bestekoa 9,05 mg/l izan zen; eta 2011n, 6,00 mg/l. 2013. urtean beherantz jarraitzen du kutsadura organikoak, eta amonioak behin bakarrik gainditu du 1 mg/l-ko muga; gainerako kasuetan, balio dezente txikiagoak ditu, eta are detekzio-mailatik beherakoak ere (urteko batez bestekoa: 0,18 mg/l). DBO_5 eta DQO ere gutxitu dira (urteko batez bestekoak: 3 eta 12 mg/l). Halaber, ikusi da oxigenazioak hobera egin duela, ia kasu guzti-guztietan gainditu baitira 9 mg/l-ak (urteko batez bestekoa: 10,28 mg/l). 2014. urtean, aurreko urteetan izandako hobekuntzak darrai, eta amonio-mailak jaitsi egin dira; hala, urteko batez bestekoa 0,06 mg/l da eta datu maximoa 0,14 mg/l. Hortaz, serie historikoan lehen aldiz, ur egokiak dira izokinkideentzat. DBO_5-aren eta DQOaren kontzentrazioak ere baxuak dira, eta urte batezbestekoak 2 eta 12 mg/l, hurrenez hurren. Datu oso positiboak, beraz. 2015. urtean egoera antzekoa da, non apenas dagoen jatorri organikoko kutsadura, 0,06 mg/l-ko urteko

batatzebesteko batekin. DQO eta DBO_5 honako emaitzak lortu dituzte, hurrenez hurren: 15 mg/l eta 3 mg/l. Ordea, tenperatura maximo altuak erregistratu dira, 23,5º C, beraz, ziprinidoentzako gaitasuna erakusten dute tarte honetako urek.



114. irudia. Kalitate fisiko-kimikoaren denborarekiko eboluzioa (urteko batez bestekoak). San Prudentzio (Deba ibaia).

Metalei dagokienez, mailak progresiboki gutxitu dira seriean. Lehenengo erdialdean kontzentrazio altuak lortu dira; 2007tik aurrera, ostera, metalen kontzentrazioa minimoa da. 2015. urtean, azken urteetako joerari eutsi zaio, eta kontzentrazio txikiak atzeman dira. Hala, boroari, burdinari, zinkari eta nikelari dagokionez, urteko batez bestekoak 0,06, 0,04, 0,01 eta 0,004 mg/l izan dira, hurrenez hurren.



115. irudia. Metalen kontzentrazioen denborarekiko eboluzioa. Urteko batez bestekoak eta joerak. San Prudentzio (Deba ibaia).

Bestalde, seriean lortutako kalitate biologikoak ere kutsadura handia dagoela adierazten du, Eskoriatzako, Aretxabaletako eta Arrasateko isurketen eraginez. Seriean egoera biologiko txarra atzeman da, eta IBMWParen balioak 10etik beherakoak izan dira ia kasu guztietan. 2012aren hasieran, Epeleko HUA jarri zen martxan –isurketa horiek tratatzen dituen araztegia– eta, horren ondorioz, hobekuntza nabarmena izan zen, agorraldian 80ko balioa ere lortu baitzen, hau ra, egoera ertaina. 2013an, egoera eskasa atzeman da, eta 60-70 arteko puntuazioak lortu dira. 2014. urtean, serieko daturik altuena lortu da agorraldian, 94, eta horrek egoera ertaina dela adierazten du; agorraldian, egoerak txarrera egin du eta 62ko datua lortu da, hau da, egoera eskasa. 2015. urtean 70 eta 71ko balioak lortu dira udaberri eta agorraldian, hurrenez hurren, egoera eskasari dagozkionak.



116. irudia. Kalitate biologikoaren denborarekiko eboluzioa (urteko batez bestekoak). IBMWP indizea. San Prudentzio (Deba ibaia).

BERGARAN IBAIAN BEHERA dagoen estazioak ur oso kutsatuak izan ditu seriean. Kutsaduraren adierazle diren parametroek oso kontzentrazio handiak dituzte. Kutsadura-mailetan dauden aldakuntzak aldaketa hidrologikoekin lotuta daude, itxuraz. 1989-1990eko epealdiko lehorte handiaren ondorioz, kutsatzaileen kontzentrazio handiagoak izan ziren. Hurrengo urteetan ez da atzeman beheranzko joerarik. 2012an, nolabaiteko hobekuntza detektatu arren, oraindik kutsadura-maila handia zen. Hala, 2012. urtean, amonioaren urteko batez bestekoa 1,00 mg/l izan zen, eta 2011n, berriz, 2,66 mg/l-ko datua lortu zen. 2013an, egoerak hobera egin du, eta kutsadura asko jaitsi da aurreko urtearekin alderatuta. Amonioak kontzentrazio txikietan jarraitzen du, maiz detekzio-mailaren azpitik; urteko batez bestekoa 0,08 mg/l izan da. Era berean, DBO_5-ak eta DQOak balio txikiak dituzte: 1 eta 12 mg/l, hurrenez hurren. Oxigenazioa egokia da (urteko batez bestekoa: 10,43 mg/l). Aldiz, tenperatura balio handietara iritsi da, eta 21,5 ºC-ko muga ere gainditu da (max.: 22,8 ºC); beraz, ez da egokia izokinkideentzat, baina bai ziprinidoentzat. 2014. urteko egoera antzekoa da, salbu eta tenperaturaren kasuan; izan ere, tenperaturak 21,5 ºC-tik beherako balioei eusten dienez, ur egokiak dira izokinkideentzat. 2015. urtean amonioak behin gainditu du arrainen-bizitzarako muga. DBO_5 eta DQO ere kontzentrazio altuak izan dituzte, 4 eta 69 mg/l, hurrenez hurren. Honela, uraren tenperatura altuak erregistratu dira, 24,1º C-ko maximekin. Azken urteetako hobekuntza Epeleko HUA-rekin dago erlazionatua.



117. irudia. Kalitate fisiko-kimikoaren denborarekiko eboluzioa (urteko batez bestekoak). Bergara Ibaian Behera (Deba ibaia).

Metalei dagokionez, beherakada nabari da serie historikoan, 1993. urtetik aurrera. Beherakada hau ez da hain nabarmena San Prudentzion, hasierako datuak ez baitira hain altuak izan. Azken urteetan metalak maila baxuan mantendu dira. Honela, 2015. urtean aurreko urteetako antzeko kontzentrazioak erregistratu dira. Hauek dira urteko batazbestekoak hurrengo elementuentzat: Ni (0,007 mg/l), Zn (0,02 mg/l) eta Fe (0,04 mg/l).



118. irudia. Metalen kontzentrazioen denborarekiko eboluzioa. Urteko batez bestekoak eta joerak - Bergara Ibaian Behera (Deba ibaia).



119. irudia. Metalen kontzentrazioen denborarekiko eboluzioa. Urteko batez bestekoak eta joerak - Bergara Ibaian Behera (Deba ibaia).

Kalitate biologikoari dagokionez, oro har oso baxua izan da seriean. Hasieran, IBMWParen puntuazioak oso txikiak dira, 20tik beherakoak, eta 10etik beherakoak ere kasu askotan. 1999. urtetik aurrera, hobekuntza apala ikusten da, balioak 20 eta 40 artean baitabiltza nagusiki; halere, egoera biologikoak txarra izaten jarraitzen du. 2008tik aurrera halako hobekuntza igarri da, eta egoera eskasa atzeman da kasu gehienetan. Kontuan hartu behar da 2008an abiarazi zela Mekolaldeko HUA. 2013an azken urteetan baino puntuazio handiagoak lortu dira, agorraldian serieko daturik altuena lortu baita, alegia, egoera biologiko ertaina. Deba ibaiaren goiko aldean, uraren kalitatea hobetu egin da Epeleko HUA abiarazi zenetik, eta, horri esker, datuak hobeak dira. 2014. urteko datuak apalak dira, eta egoera eskasari dagozkio. Aldiz, aurten, hobekuntza leuna nabari da, emaitza oso onak lortuz, non egoera ona erregistratu den bai udaberrian baita agorraldian ere.



120. irudia. Kalitate biologikoaren denborarekiko eboluzioa (urteko batez bestekoak). IBMWP indizea. Bergara Ibaian Behera (Deba ibaia).

MENDAROn, bokaletik gertuen dagoen estazioan, emaitza fisiko-kimikoek adierazten dute kutsadura organiko handia egon dela seriean. Egoera aldatu egiten da urtearen arabera, baina joera jakin bat ikusten da. 1990. urtean, kutsatzaileen kontzentrazioak handiagoak izan ziren, orduan lehorte handi bat gertatu zen-eta. Gerora, karga organikoa handia izan da ere bai. 2007. urtetik aurrera, kutsadura organikoa zertxobait gutxitu dela ikusi da, baina oraindik ere handia da. 2009. urtetik aurrera, amonioa jadanik ez da mugatzailea arrainen bizitzarako, aurreko urteetan ez bezala; izan ere, 1 mg/l-ko mugatik behera dago, eta egokia da ziprinidoentzat, tenperatura- eta oxigeno-baldintzak eskasak direlako. 2015. urtean, azken urteetako antzeko egoera atzeman da, hau da, halako karga organikoa dago, baina 1 mg/l-ko muga gainditu gabe. Oxigenoa, aldiz, mugatzailea da izokinkideentzat, baina ez ziprinidoentzat. Amonioari dagokionez, urteko batez bestekoa 0,15 mg/l da, 0,84 mg(l-ko kontzentrazio maximoarekin. Tenperatura oso altua izan da, 23,9º C lortuz. Oxigenazio urritasuna ere behatu da, 6,43 mg/l-ko minimo batekin



121. irudia. Kalitate fisiko-kimikoaren denborarekiko eboluzioa (urteko batez bestekoak). Mendaro (Deba ibaia).

IBMWP indizeak puntuazio baxuak lortu ditu seriean: udaberrian, batez bestekoa 39 izan da; eta agorraldian, 37. Goranzko joera ikusten da, baina beti oso maila apalean. Seriearen lehen erdialdean, egoera biologiko txarra da nagusi; halere, 1998tik aurrera egoera eskasa da. Azken urteetan, halako hobekuntza igarri da; 2012an, lehen aldiz, egoera ertaina atzeman da udaberrian. Bestalde, 2013ko udaberrian lortu zen serieko daturik handiena, alde handiz, egoera ona lortuz. 2014. urtean IBMWParen puntuazioak apalak izan dira, egoera ertaina eta eskasa behatuz. 2015. urtean emaitzek egoera txarra adierazi dute udaberrian eta ertaina agorraldian.



122. irudia. Kalitate biologikoaren denborarekiko eboluzioa (urteko batez bestekoak). IBMWP indizea. Mendaro (Deba ibaia).

Mendaroko lehen arrain-laginketa 1991. urtean burutu zen, bideratze lanekin bat eginez, eta soilik aingira eta urrearrain aleak atzeman ziren. 1994. urtean ezkailua, korrokoia. Aingira eta amuarraina ere agertu dira: amuarrainaren presentzia arraroa izan da kutsadura maila altua dela eta. 1997.an burututako laginketan mazkarra atzeman zen, hurrena 2007. urtean harrapatuz. Aipatu behar da 1997.an burututako laginketa egin eta aste batera zianuro isurketa garrantzitsu bat egin zela; honek heriotza ugari eragin zituen, Maltzagatik mareartekо eremura arte. Ondoren, arrain-fauna berreskuratzen joan da, eta soilik ezkailua, korrokoia eta batez ere aingira agertzen dira modu erregularrean. Amuarraina, loina, mazkarra eta platuxa noizean behin soilik agertzen dira. 2013. urtean aingira dentsitate altuak lortu ditu, aldiz, baxuagoa izan da aurreko urteko laginketekin alderatuta. 2015. urtean egoera antzekoa da, aingira izanik espezie nagusia eta dentsitate altuarekin. Gainera, amuarrain, loina, ezkailu, mazkar, korrokoi eta platuxa populazio urriak ere atzeman dira.



123. irudia. Arrain-faunaren bilakaera denboran zehar. Mendaro (Deba ibaia)

EGO ibaia da Gipuzkoako kutsatuenetako bat, eta emaitza fisiko-kimikoek adierazten dute kutsadura handia egon dela seriean. Oszilazioak badira urte batetik bestera, baina kutsatzaileen kontzentrazioa beti da handia. 2007tik aurrera, ikusten da kutsadura-mailak nabarmen egin duela behera, baina oraindik handia da. 2015. urtean, kutsadura organikoa maila handietan da oraindik. Amonioari dagokionez, urteko batez bestekoa 1,19 mg/l da. Bestalde, DBO_5-aren eta DQOaren batez bestekoak 5 eta 20 mg/l dira, hurrenez hurren. Ur horiek beraz, ez dira egokiak arrainak bizitzeko.



124. irudia. Kalitate fisiko-kimikoaren denborarekiko eboluzioa (urteko batez bestekoak). Ego (Ego ibaia).

Metal-kontzentrazioa gutxitu egin da seriean, eta azken urteetan maila txiki samarrak atzeman dira, 2002. urtean izan ezik, urte hartan izan baitziren serie osoko baliorik handienak. 2003. urtean, kontzentrazioak gutxitu eta 2002a baino lehen atzemandakoen antzekoak izan ziren. 2007. urtetik aurrera, ikusten da metal-kontzentrazioak behera egin duela aurreko urteekin alderatuta. 2015. urtean, urteko batez bestekoak honako hauek izan dira: Fe (0,03 mg/l), Zn (0,06 mg/l), Cr (0,003 mg/l) eta Ni (0,002 mg/l).



125. irudia. Metalen kontzentrazioen denborarekiko eboluzioa. Urteko batez bestekoak eta joerak - Ego (Ego ibaia).

Kalitate biologikoa, ostera, oso txikia da Ego ibaiaren gune horretan. Emaitzek mugako kutsadura adierazten dute serie historikoan zehar. IBMWP indizeari dagokionez, balio minimoak aurkezten ditu, 10etik behera orokorrean, zeinak egoera txarra adierazten duen. Azkeneko urteetan, 2008. urtetik aurrera, nolabaiteko hobekuntza nabaritu da; aldiz, egoera oso txarra da oraindik ere, egoera biologiko txarra erregistratuz. 2015. urtean emaitzak leunki hobeak dira, egoera eskasa lortuz udaberrian eta agorraldian.



126. irudia. Kalitate biologikoaren denborarekiko eboluzioa (urteko batez bestekoak). IBMWP indizea. Ego (Ego ibaia).

6. ONDORIOAK

- 1985ean, **GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO** Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentua Gipuzkoako ibaietako uraren kalitateari buruzko jarraipen-lan bat egiten hasi zen. Azterketa horren barnean, honako alderdi hauek ikertu dira: kalitate fisiko-kimikoa, kalitate biologikoa (makroornogabe bentikoetan oinarritutako indize biotikoak erabilita), ekoizpen primarioa (klorofila bentoniko eta planktonikotik abiatuta), diatomeoen azterketa eta arrain-faunaren egoera. 2015. urtean, Gipuzkoako ibai-sarean zehar dauden 87 estazio ikertu dira. Halaber, gipuzkoako ibai eta enbaltseetan zebra muskuilu helduen presentzia jarraipen bat egiten da, baita ere, ibai ubideetan metatutako sedimentuetako metal astunes jarraipen bat.

- **2014-2015** urte hidrologikoan, balantze orokorra ohi baino hezeagoa izan da. Otsaila izan da nabarmenki hilabeterik emaritsuena; erregistratutako emariak ohikoak baino altuagoak izan dira. Era berean, abendua, urtarrila eta martxoa bereziki emaritsuak izan dira. Aldiz, urria izan da hilabeterik lehorrena, ohikoak diren emariak baino baxuagoak lortuz. Azaroan ere ohi baino emari baxuagoak erregistratu dira. Uztaila, abuztua eta iraileko emariak agorraldi-garaikoak izan dira.

- Bai **BIDASOA** ibaian Endarlatsa aldean, eta bai Endara errekan, parametro **fisiko-kimikoek** balio egokiak dituzte, eta, beraz, egokiak dira izokinkideentzat. Bestalde, ornogabeen emaitzek, **egoera biologiko** oso ona dagoela adierazten dute, bai Bidasoan nola Endaran.

  BIDASOA ibaian uraren kalitateak izan duen **denbora-bilakaerak** egoera ona dela adierazten digu, eta beraz, ur horiek, gehienetan, egokiak dira izokinkideentzat. Indize biotikoek ere, oro har, balio altuak ematen dizkigute eta horrek esan nahi du gehienetan egoera ona edo oso ona dela.

- **OIARTZUN** ibaiaren buruak baldintza **fisiko-kimiko** onak ditu. Arditurri errekarekin elkartzen den unetik aurrera, egoera aldatu egiten da, zink-kopuru handia duelako. Horren ondorioz, Ergoiengo tartea eragozpen da izokinkideak bizitzeko, baina ez ziprinidoentzat. Gainontzeko parametroek balio egokiak dituzte. Ugaldetxon eta Fanderian zink asko dagoen arren, ez da mugatzailea izokinkideentzat.

  Bestalde, Oiartzun ibaian **egoera biologikoa** oso ona/ona da ia kasu guztietan; Fanderian agorraldian egindako laginketan izan ezik, egoera ertaina ikusi baita. **Arrain-faunari** dagokionez, Ugaldetxon amuarrain eta aingira populazio ahulak behatu dira; aldiz, ezkailu eta mazkarrak dentsitate altuan daude. Gainera, gehienak jatorri naturalekoak ziren hainbat izokin-ale atzeman ziren, datu positiboa delarik. Egoera on samarra dela esan dezakegu.

  OIARTZUN ibaiaren arroan, saneamendu-lanak ia amaituta daude, eta hori argi islatu da uraren kalitateak izan duen **denbora-bilakaera** positiboan. Hala, ikus daiteke Ugaldetxon uraren kalitateak nabarmenki hobera egin duela 1999. urtean kolektore nagusia zerbitzuan hasi zenez geroztik, eta gaur egun emaitza onak lortzen dira. Fanderian onbideratze hori motelagoa izan da, Lintzirin errekako ekarpen kutsagarrien ondorioz. Nolanahi ere, azken urteetan isurkinen parte bat bildu da; horri esker, egoerak hobera egin du eta, horrenbestez, baita Oiartzun ibaiaren behe-ibarrak ere. Serie historikoan, Oiartzun ibaiak arrain-berreskuratze garrantzitsua izan du. Oiartzun ibaiaren arro osoa onbideratzeko, behe-ibarreko isurketa guztiak ezabatu behar dira; orain gutxi, Lintzirin errekan saneamendu-lanak egin dira. Gainera, Arditurriko metal-ekarpena gutxitu egin beharko litzateke. Beste alde batetik, iragazkortasunari eta ibaiko habitatari dagokienez, Gipuzkoako Foru Aldundiak zenbait ekimen egin ditu. Ildo horri jarraitu behar zaio.

- **URUMEA** ibaian lortutako emaitza fisiko-kimikoek adierazten dute ibaiaren luzera osoan direla urak egokiak izokinkideentzat. Era berean, kalitate biologikoa handia da ardatz osoan barrena; emaitzek adierazten dute **egoera biologikoa** ona edo oso ona dela kasu guztietan. Arrain-faunari begiratuz gero, Fagollagako egoera on samarra da. Aingira da espezie nagusia, dentsitate altuak lortuz. Era berean, jatorri naturaleko izokinaren presentzia nabarmentzekoa da; aldiz, amuarrain, ezkailu eta mazkarra dentsitate ahuletan behatu da. Bere aldetik, Ergobian 5 espezie piszikola atzeman dira, amuarraina, ezkailua, aingira, korrokoia eta platuxa; guzitak dentsitate baxuan. Egoera ez da oso ona.

  Landarbaso **ibaiadarrean**, bai emaitza fisiko-kimikoek eta bai biologikoek uraren kalitatea handia dela erakusten dute, eta egoera biologiko oso ona/ona lortu da. Aurten egindako laginketa espezifikoei dagokionez, Añorgak ziprinidoentzako gaitasuna adierazten du, oxigeno eta tenperatura baldintza eskasak direla eta; egoera biologikoko emaitzek egoera eskasa azaldu dute. Igarako iturburuan emaitzak onak izan dira, egoera biologiko ona behatuz.

  Urumea ibaian, uraren kalitateak **denbora-bilakaera** positiboa izan du, saneamendu-lanak ia guztiz amaituta daudelako. Hala, Karabelen, IBMWP indize biotikoak puntuazio handiak lortu ditu; gainera, izokinek errun ere egiten dute puntu honetan 1994. urtetik aurrera. Ergobian, kalitate kimikoa nabarmen hobetu da, eta, horri esker, azkeneko urteetan egokia da izokinkideak bizitzeko; kalitate biologikoa ere hobetu da azken urteotan, baina, maiz, IBMWParen puntuazioak apalak edo baxuak izan dira, eta horrek esan nahi du zuzeneko isurketak daudela. Adierazi behar da berriki saneamendu-lan batzuk egin direla Urumearen behe-ibarrean inguruan kokatutako herrigune txiki batzuetan. Urumearako aurreikuspenak onak dira. Isurkinak neurri handi batean biltzen dira, eta, gainera, jarraitutasunak hobera egin du, arrain-igarobideak egin eta ur-emariak errespetatu direlako; dena den, hobetu egin beharko lirateke bai iragazkortasuna bai ur-emariaren murrizpena. Egiteke dauden saneamendu-lanekin jarraitu beharra dago. Beste alde batetik, egin diren bideratze-lanen eta etorkizunean egingo diren obren ondorioz, ibaiko habitata eraldatzea kaltegarria da.

- **ORIA** ibaiko emaitza **fisiko-kimikoek** izokinkideentzako gaitasuna adierazten dute 5 estazioetan, goi- eta behe-ibarretan lokalizatuak; erdi-ibarrak ziprinidoentzako gaitasuna erakutsi du tenperatura altuak direla eta. Gainontzekoan, oxigenazioa egokia da, nahiz eta nohizean behin eskasia aurkeztu agorraldian, batez ere Usurbilen. Amonioari dagokionez, ez da mugagarria kasu batean erez. Mantenugaiekin erlazionatuta, fosfatoen presentzia aipatzekoa da Legorretako HUAtik behera, nahiz eta azkeneko urteetan behera egin. Nitratoak kontzentrazio baxuetan mantendu dira.

  Oriaren ardatzeko **egoera biologikoari** dagokionez, udaberrian IBMWP puntuazio altuak lortu dira kasu askotan, honela, egoera oso ona da iturburuan (Zegama) eta ona 5 kasutan (Beasain Igartza, Ordizia, Legorreta HUA ibaian behera, Beasain ibaian gora, Araxes ibaian gora eta Andoain). Azkenik, Usurbilek lortu ditu emaitzarik txarrenak, egoera biologiko eskasa baitu. Agorraldian, espero den moduan, IBMWP indizeak balio baxuagoak lortu ditu. Zegama egoera onean mantendu da, egoera oso ona lortuz, aldiz gainontzeko kasutan egoera ertaina izan da, Andoain salbu, non egoera ona lortu den.

  Arrain-faunari dagokionez, Beasain ibaian gora loina, mazkar eta ezkailu populazio ugariak behatu dira, baita amuarrain populazio ahul bat ere. Ikaztegietan, loina eta mazkarrak dentsitate altua azaldu dute; aldiz, barbo, ezkailu eta aingirak urriak dira. Azkenik, Andoaineko arrain-komunitateak 7 espezie ditu: amuarraina, barboa, loina, ezkailua, mazkarra, aingira eta zarboa. Loina populazioen egoeraren hobekuntza nabaritu da aurreko laginketekin alderatuta, dentsitate garrantzitsua lortu baitu. Aldiz, gainontzeko espezieak urriak dira.

Ibaiadarrei dagokienez, Agauntza ibaiak egoera biologiko ona/oso ona du. Estanda ibaia asko hobetu da saneamendua egin zenetik, aurten egoera biologiko ona/oso ona lortu duelarik. Santa Lutzia bokalean, emaitzak apalak dira, egoera ertaina aurkeztuz. Arriaran erreka egoer ona erakutsi du, baita Leitzaran ibaiak ere. Amundarain ibaian hobekuntza nabaritu da Zaldibian egindako saneamenduari esker, honela, egoera oso ona lortu du udaberrian eta ertaina agorraldian. Araxeseko bokalean, egoerak hobera egin du nabarmen azken urteetan, egoera ona lortuz, aurreko urtean lez. Berastegi eta Amezketa ibaiek egoera ona/ertain lortu dute, Asteasuko behe ibilguko egoera ertaina den bitartean.

ORIA ibaian uraren kalitateak izan duen **denbora-bilakaera** positiboa da, nabarmenki gutxitu baita kutsadura-maila. Hainbat faktorek lagundu dute uraren kalitatea onbideratzen: papergintzako isurketak nabarmenki gutxiagotu dira; saneamenduko zenbait fase martxan jarri dira; eta ur-emariak handitu dira, urtegiak erregulatu izanari esker. 2003. urtean Legorretan Gaikaoko HUA abian jarri izanak hobekuntza esanguratsua ekarri zion goi-ibarrari; hala eta guztiz ere, uraren kalitatea oraindik ez da behar bezain ona, hainbat isurketa zuzenean egiten baitira ibaira. Era berean, erdi-beheko tartean kutsadura nabarmenki gutxitu da, nahiz eta oraindik ere baden halako karga bat. Egoera horrek laster hobera egitea espero da, saneamendu-lanak ia guztiz amaituta daudelako; izan ere, 2011. urte bukaeratik martxan dago Adunako HUA. Oria ibaiaren arrorako aurreikuspenak onak dira. Saneamendu- eta arazketa-planak gauzatze-fase oso aurreratuan daude, eta herrigune txiki batzuk eta industrialdeak geratzen dira konpontzeko; udal saneamendu-sareak ere hobetzeke daude. Kontuan hartu behar da egoera trofikoa; izan ere, tenperatura altuek eta intsolazio handiak, mantenugaien presentziarekin batera, eutrofizazio-fenomenoak sor ditzakete. Hori dela eta, HUAek mantenugaien tratamendua optimizatu behar dute, eta zehazki fosforoarena. Horrez gain, beste plan osagarri batzuk ezarri beharko dira habitata, itzala, oztopoen ezabatzea eta bestelako alderdiak hobetzeko. GFA jadanik ari da horretan. Gainera, kontuan izan behar da alde horretako abeltzaintza ere, jarduera horren hondakinak ondo kudeatu behar baitira.

- **UROLA** ibaiko emaitza **fisiko-kimikoek** adierazten dute tenperatua altuak daudela, eta hau mugagarria da izokinkideentzako, ez ordea ziprinidoentzako, Brinkola, Legazpi ibaian behera, Urretxu, Azpeitia eta Zestoa ibaian behera, non izokinkideentzako gaitasuna erakutsi duten. Gainera, nolabaiteko karga organikoa behatu da, honela Aizpurutxo eta Lasaon amonioaren 1 mg/l-ko muga gainditu da, arrain-bizitzarako gaitasun eza erakutsiz. Baita, oxigenoaren nolabaiteko urritasuna detektatu da agorraldian eta fosfato kontzentarzio altuak ardatz guztian zehar.

  Goi-ibarreko **egoera biologikoa** ona da iturburuan, eta egoera oso onean/onean dago. Aldiz, Legazpi ibaian behera eta Urretxu artean dagoen tartean egoerak nabarmen egin du txarrera; ertaina/eskasa da udaberrian, eta txarra/eskasa agorraldian. Erdiko tarteko emaitzak apalak dira oro har, egoera ertaina lortuz kasu askotan, baita egoera ona edo eskasa zenbait kasutan. Lasao eta Aizarnazabalgo tarteak egoera egokia erakutsi du udaberrian, egoera ona/oso onarekin. Aldiz, agorralgian kutsadura arazoak behatu dira Zestoa ibaian behera eta Oikinan, abeltzaintza eta nekazaritzaren eraginagatik lehenengo kasuan eta papergintza-industriagatik bigarren kasuan, egoera eskasa eta txarra, lortuz hurrenez hurren.

  Arrain-faunari dagokionez, Urretxun ezkailu eta mazkar populazio ugariak behatu dira, amuarrain populazio eskasaz gain. Era berean, Aizpurutxon, ezkailua eta mazkarrak ugariak dira, amuarraina urria eta aurreko urtean baino baxuagoa den bitartean. Azpeitian, loina, ezkailu eta mazkar dentsitate altuak atzeman dira, aldiz, barbo, amuarrain eta aingirak urriak dira. Zestoa ibaian behera espezie berdinak agertu dira, nahiz eta guztiak dentsitate ahulean. Azkenik, Oikinan 9 arrain-espezie detektatu dira: izokina (birsartzapenekoak),

amuarraina, barboa, lina, ezkailua, mazkarra, aingira, korrokoia eta platuxa, aingira izanik espezie nagusia, dentsitatea altu batekin; gainontzeko espezieak urriak dira.

Ibaiadarrei dagokienez, Barrendiola errekako urak kalitate fisiko-kimiko ona du, egoera biologikoa ona/ertaina den bitartean. Bestalde, Ibaieder ibaiean Landetan ezohikoa den amonio kontzentazio altua erregistratu da, hortaz, ez da egokia arrain-bizitzarako; aldiz, egoera ekologikoa ona da.

UROLA ibaiaren arroan saneamendu-lanak egin izanari esker, kutsadura neurri handi batean jaitsi da, eta, horrenbestez, uraren kalitatearen **denbora-bilakaera** positiboa da. Goi-ibarrean, 2001. urtean Zuringoaingo HUA abiarazi izanak nabarmenki murriztu zuen kutsadura-maila, eta, horri esker, onbideratu egin zen kalitate biologikoa, baita arrain-fauna ere, ordura arte ez baitzegoen. Bestetik, erdiko tartean, 1991. urtean jarri zuten martxan Badiolegiko HUA, eta, une horretatik aurrera, uraren kalitateak nabarmen egin zuen hobera. 2009. urtean, ikusi zen ibaiaren behe-ibarrean egoerak hobera egin zuela, papergintzako isurketen tratamenduak hobetu egin ziren-eta; nolanahi ere, hurrengo urteetan emaitzak ez dira izan guztiz egokiak. UROLA ibaiaren arroan amaituta daude saneamendu-lanak, eta, horrenbestez, egoerak bilakaera positiboa izan du. Hala eta guztiz ere, tarte batzuetan onbideratze hori espero zena baino txikiagoa da, zuzeneko isurketa batzuk daudelako; alderdi horiek konpondu ahala egoerak hobera egitea espero da. Gainera, beste faktore batzuen eragina ere aztertu behar da, esate baterako, mantenugaiena, ibaiko habitataren egoerarena eta oztopoen presentziarena, eta horrekin loturik esan behar da GFAk zenbait ekintza eta proiektu burutu dituela dagoeneko.

- **DEBA** ibaiaren kalitate **fisiko-kimikoari** dagokionez, kasu batean, Leintzen, izokinkideentzako gaitasuna erakutsi du. Gainontzeko estazioetan ziprinidoentzako gaitasuna behatu da, tenperatura altuak direla eta. Bergara ibaian behera, gainera, amonio kontzentrazio altuak erregistratu dira, hortaz, mugagarria da arrainen bizitzarako. Hala ere, aipatzekoa da azken urteetan eman den uraren kalitatearen hobekuntza, Goi Debako hondakin urak jasotzen dituen Epeleko HUAri esker.

  Egoera biologikoari dagokionez, ibai-buruko tartea (Leintz) ondo zainduta eta oso egoera onean dago. Aretxabaleta ibaian gora hobekuntza nabari da aurreko urteekin alderatuta egoera ona/ertana lortuz. Arrasate en San Prudentzioko emaitzek egoera eskasa adierazi dute orokorrean, tarte honetan hobekuntza eman arren, kutsadura altua baita oraindik. Matxiategi eta Elgoibar ibaian beherako tartean hobekuntza behatu da aurreko urtearekin alderatuta, egoera ona lortuz kasu guztietan. Azkenik, Mendaron emaitzak ez dira egokiak izan, egoera txarra erregistratuz udaberrian eta ertaina agorraldian.

  Arrain-faunari dagokionez, Soraluzen loina populazioaren gorakada behatu da aurreko laginketarekin alderatuta, dentsitate altua lortuz. Ezkailua ere dentsitate handian atzeman da; aldiz, mazkarra eta aingira urriak izan dira. Arrain-faunaren egoera on samarra da, kontuan hartuta tartearen baldintzak. Mendaroko arrain-komunitatea 7 espeziek eratzen dute: amuarraina, loina, ezkailua, mazkarra, aingira, korrokoia eta platuxa. Aingira da espezie nagusia, dentsitate altu batekin, gainontzeko espezieak urriak diren bitartean.

  Ibaiadarrei dagokienez, Aramaio ibaiaren egoera ona da udaberrian, aldiz agorraldian egoera ertaina erregistratu da. Oñati ibaian Zubillagan egoera ona/ertaina erregistratu da. Bokalean hobekuntza nabaritu da 2012. urtearen amaieran, Oñatiko kolektorea Epeleko HUAra konektatu zenetik; aurten egoera ertaina aurkeztu du. Urkuluko erreka, edateko uren araztegitik behera, erasanda dago agorraldian, egoera ertaina aurkeztuz. Antzuola ibaiak kutsadura arazoak pairatu ditu ur-hondakinen isurketa dela eta, bere egoera eskasa delarik. Ubera ibaian ere egoera ez da ona, eskasa baita. Aldiz, Aixolan egoera ona behatu da.

Azkenik, Egoko bokalean isurketek behera egin dute azkeneko urteetan, baina oraindik ere kutsatzaileen maila altua da, egoera biologiko eskasa erregistratuz.

DEBA ibaian uraren kalitateak izandako **denbora-bilakaerak** erakusten du metalen proportzioa progresiboki murriztu egin dela, bertako industriek arazketa-sistemak jarri zituztelako eta hondakin toxiko eta arriskutsuak kudeatzen hasi zirelako. Halaber, azken urte hauetan, kutsadura asko gutxitu da, saneamendu- eta arazketa-azpiegiturak egin direlako, baina oraindik ere ez da nahikoa. Saneamendu-lanak oso aurreratuta daude. 2012. urtean Epeleko HUA jarri zen martxa, Goi Debako hongakin-urak tratatzen dituelarik. Hau baino lehen, Mekolaldeko HUA eta Apraitzekoa jarri ziren martxan 2006. urtean, behe ibarreko isurketak tratatzen dituztenak. DEBA arroko aurreikuspena ona da uraren kalitateari dagokionez. Bestalde, aipatzekoa da Deba ibaiko habitat flubialaren narriadura, ibarbaso oso eraldatuekin eta oztopo ugarirekin, bere berreskurapena zailtzen dutenak.

7. AURREIKUSPENAK ETA PROPOSAMENAK

7.1. LEGE ESPARRUA - 2000/60/EE ESPARRU-ZUZENTARAUA

2000ko urriaren 23an, 2000/60/EE Zuzentaraua onartu zen, Uraren Esparru Zuzentaraua (UEZ) deitzen dena. Zuzentarau horrek esparru berri bat sustatzen du urari buruzko politikaren eremuan. Zuzentarauaren helburu nagusia da ekosistema urtarren egoera babestea eta hobetzea eta narriadura gehigarrietatik begiratzea. Horretarako, ***egoera ekologikoa*** kontzeptua erabili da, eta "lurrazaleko urei atxikitako ekosistema urtarren funtzionamenduaren eta egituraren kalitatearen adierazle" gisa definitu da. Azaleko ur-masen egoera ekologikoa zehazteko, Zuzentarauak adierazle hauek ezartzen ditu:

- **Adierazle biologikoak:** (fitoplanktona, makrofitoak eta organismo fitobentonikoak, makroornogabeen fauna bentonikoa eta fauna iktiologikoa).

- **Kalitate hidromorfologikoaren adierazleak:** adierazle biotikoetan eragina dutenak (erregimen hidrologikoa, ibaien jarraitutasuna, ezaugarri morfologikoak).

- **Kalitate fisiko-kimikoaren adierazleak,** adierazle biotikoetan eragina dutenak: orokorrak (tenperatura, oxigeno disolbatua, mantenugaiak…) eta kutsatzaile espezifikoak.

Nabarmendu behar da adierazle biologikoak nagusitzen zaizkiela adierazle morfologikoei eta fisiko-kimikoei egoera ekologikoaren definizioan. Adierazle horien arabera, egoera ekologikoaren bost sailkapen ezartzen dira:

- Egoera oso ona
- Egoera ona
- Egoera ertaina
- Egoera eskasa
- Egoera txarra

Esparru Zuzentaraua onartu aurretik, irizpide fisiko-kimikoak soilik erabiltzen ziren uraren kalitatea zehazteko. Zuzentarau hau indarrean sartzearekin bat, adierazle biologikoek garrantzi handiagoa hartu dute, eta orain balio kualitatibo eta kuantitatibo itxuraz zorrotz batzuk bete behar dituzte, adierazle fisiko-kimikoez gain.

Horrela, Europar Batasuneko estatu kideek saihestu egin beharko dute beren urak etorkizunean narria ez daitezen, eta ur horiek hauek babestu, hobetu eta onbideratu ere egin beharko dituzte, 2015. urterako egoera ekologiko "on" bat lortzeko. Ur masa artifizialen edo oso eraldatuen kasuan ahalmen ekologikoaz hitz egiten da. Helburu horiek lortzeko, UEZk ezartzen du beharrezkoa dela arroen plan hidrologikoak idaztea; hain zuzen, plan horiek izango dira Zuzentaraua aplikatzeko tresnak. Plan horiek Uraren Esparru Zuzentarauaren helburu nagusia bete behar dute, hau da, sistema urtarren egoera ona lortzea, batetik, eta, bestetik, eskariei behar bezala erantzutea, ura modu arrazional eta jasangarri batean kudeatuz eta, horrez gainera, lehorte eta uholdeen eraginak gutxitzen saiatuz.

Hala, ekainaren 7ko 400/2013 Errege Dekretuaren bidez, Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoaren Plan Hidrologikoa onartu zen. Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoa definitzen duen 29/2011 Errege Dekretuan ezarritakoarekin bat etorriz, plan honetan modu harmonikoan batu dira bi eskumen-eremutako plan hidrologikoak. Batetik, Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumen-eremua, barruko arroak, zeintzuen plangintza Uraren Euskal Agentziak

egiten baitu, eta, bestetik, Estatuaren eskumen-eremua, erkidego arteko arroak, zeintzuen plangintza Kantauriko Konfederazio Hidrografikoak egiten baitu.

Uraren Esparru Zuzentarauaren mandatuari jarraiki, zeina Espainiako legegintzara egokitu baita, planifikazio-prozesu iteratiboa 6 urteko ziklotan gauzatuko da. UEZan xedatutakoarekin bat eginez, planifikazioko bigarren zikloari dagokion (2015-2021) Kantauri Ekialdeko MHaren Plan Hidrologikoa berrikusi eta onartu egin da iada, urtarrilaren 8ko 1/2016 Errege Dekretuaren bitartez.

Gipuzkoako Foru Aldundiak Zuzentarauak ezartzen dituen adierazle gehienen jarraipena egiten du, ibai-ibilguen egoera ekologikoa zein den zehazteko. Makroonogabe bentikoak eta arrain-fauna eskuarki erabiltzen dituzte administrazioek uraren kalitatearen jarraipena egiteko lanetan, metodologiak ondo zehaztuta baitaude. Landaretza urtarra, ordea, ez da hainbeste erabiltzen, eta, beraz, horri buruzko lanak urriagoak dira. Hurrengo taulan, adierazleak gaur egun zenbateraino ezagutzen diren azaltzen da:

Adierazlea	Mota	Gipuzkoako egoera	Zailtasun espezifikoak
Biologikoak	Landaretza urtarra	Gipuzkoako Foru Aldundiak klorofila bektonikoa eta plaktonikoa zehazten ditu. Horrez gain, fitoplanktonaren konposizio eta ugaritasunari eta diatomeoen zehaztapenari buruzko azterlanak egin dira. Makrofitoak aztertzea falta da.	Ez dago oinarrizko ikerketarik. Ez dago gure ibaiei aplikatutako indizerik eta eredurik. Adituak behar dira analisia egiteko. Kostua handi samarra Gipuzkoako ibai-sarerako.
	Ornogabeak	Gipuzkoako Foru Aldundiak laginketak egiten ditu, aldizka, ibai-sareko 75 puntu baino gehiagotan, eta ornogabeak sailkatu eta indize biotikoak kalkulatzen ditu. Etenik gabeko seriea 1987. urtetik. Horrez gain, puntu espezifikoetan ere egiten dira laginketak.	
	Arrainak	1989az geroztik etenik gabe egiten dira arrainen laginketak aldizkako laginketa-sarean.	Zailtasun teknikoak lurraldeko zenbait ibaitan inbentario kuantitatiboak egiteko. Oso garestia izango litzateke laginketa estazio guztietan espezie guztien adina zehaztea.
Hidromorfologikoak	Erregimen Hidrologikoa	Gipuzkoako Foru Aldundiak neurketa-estazioen sare bat ustiatzen du ibai nagusietan. Horrez gain, zuzeneko neurketak ere egiten dira zenbait gunetan.	
	Jarraitutasuna	Gipuzkoako ibaiadar garrantzitsu eta ibai nagusietarako, oztopoen inbentario bat dugu, Gipuzkoako Foru Aldundiak eginikoa, eta zenbait ekintza ere egin dira iragazkortasuna hobetzeko helburuarekin. Gainera, alderdi honekin zerikusia duten proiektu ugari daude. Halaber, arrainen igarotze sistemen funtzionamenduari buruzko azterketak egin dira eta badira azterketa gehiago egiteko proiektuak ere.	
	Baldint. morfologikoak	Gipuzkoako Foru Aldundiak lan espezifiko batzuk egin ditu. Erreferentziazko balioen ikerketa Oiartzun eta Oria ibaien morfologia flubiala lehengoratzeko. 2013-2014 urteak. GFA	Komenigarria litzateke era horretako azterketak sistematizatzea ornogabeen, alderdi fisiko-kimikoen eta arrainen laginketa-guneetan, ehunka metroko tarte adierazgarriak hartuta.

Adierazlea	Mota	Gipuzkoako egoera	Zailtasun espezifikoak
Fisiko-kimikoak	Orokorrak	Gipuzkoako Foru Aldundiak aldizkako laginketak egiteko sare bat du ibai sareko 75 puntu baino gehiagotan. Horrez gain, kalitatearen alorrean, 13 estazio automatikoz osaturiko sare bat du.	
	Kustatzaile espezif.	Kalitate fisiko-kimikoa ebaluatzeko guneetako askotan, Gipuzkoako Foru Aldundiak metal pisutsuak eta beste kutsatzaile batzuk neurtzen ditu.	

116. taula. Gipuzkoan ibaiei buruzko 2000/60/EE zuzentarauko adierazleak zenbateraino ezagutzen diren azaltzen duen laburpen taula.

7.2. SANEAMENDUAREN GAUR EGUNGO EGOERA GIPUZKOAN (2015)

Jarraian, arroetan gaur egun saneamenduaren egoera zein den adierazten da:

ARROA	SISTEMA	SANEAMENDUAREN EGOERA
Bidasoa	Txingudiko Mank.	Ibaiko, erreketako eta estuarioko hodi biltzaileak: gauzatuak. Itsasorako tunela eta hustubidea: gauzatuak. HUA martxan.
Oiartzun	Añarbeko Mank.	Badiako hodi biltzaileak: gauzatuak. Oiartzungo eta hipermerkatuen inguruko kolektorea: gauzatuak. Loiolako HUAra konektatzea: gauzatua.
Urumea	Añarbeko Mank.	Ibaiko eta erreketako hodi biltzaileak: amaituak. Lotura-kolektoreak: gauzatuak. Itsaspeko hustubidea: gauzatua eta martxan. Loiolako HUA martxan.
Oria	Gipuzkoako Uren Partzuergoa Oria Garaia Erdialdeko Oria Oria Behea Añarbeko Mank.	 Amaituak Idiazabal-Segurako eta Ataun-Lazkaoko kolektoreak. Beasain-Ordiziako kolektoreak: gauzatuak. Gaikaoko HUA: martxan. Bukatuak: Legorreta-Alegia, Asteasu-Villabona, Irura-Villabona, Andoain-HUA, Alegia-Tolosa, Villabona-HUA, Tolosa-Irura. Adunako HUA: martxan. Uraldeko HUA martxan. Lasarte-Usurbilgo kolektoreak: lanak egiten.
Urola	Gipuzkoako Uren Partzuergoa Urola Garaia Erdialdeko Urola Urola Behea	 Kolektoreak: gauzatuak. Zuringoaingo HUA: martxan. Kolektoreak gauzatuta. Badiolegiko HUA martxan. Kolektoreak gauzatuta eta HUAk (Iñurritza, Basusta eta Sanantonpe) martxan.

ARROA	SISTEMA	SANEAMENDUAREN EGOERA
Deba	Gipuzkoako Uren Partzuergoa	Eskoriatza, Aretxabaleta, Arrasate eta Oñati: gauzatuak.
	Debagoiena	Epeleko HUA: martxan. Bergara: Kolektoreak bukatuta eta Mekolaldeko HUA martxan.
	Erdialdeko Deba	Ermuko eta Mallabiko saneamendua: gauzatzen. Elgoibarko hodi biltzailea: gauzatua. Apraizko HUA: martxan. Debako HUA eta Mutrikuko saneamendua gauzatuak. Mutrikuko HUA: amaitua.
	Deba Kosta	

117. taula. Saneamenduaren gaur egungo egoera (2015).

Azken batean, saneamendu- eta arazketa-planak gauzatze-fase oso aurreratuan daude, eta azpiegitura nagusiak jadanik eginda daude. Orain, herriren bat konektatzea falta da, hala nola Aizarnazabal, Aia, Antzuola eta Mallabia. Bestalde, herrigune autonomo eta industrialde ugaritako saneamendua konpontzea falta da, bai eta udal sareak hobetzea ere.

7.3. ARROEN GAINEKO AURREIKUSPENAK ETA PROPOSAMENAK

Lehen aipatu den bezala, 2000ko urriaren 23ko 2000/60/EE Zuzentaraua onartu izanak funtsezko aldaketa ekarri zuen uraren kudeaketan Europar Batasunean. Zuzentarau horren bidez, erkidegoko esparruan uraren politikaren arloan nola jardun ezarri zen. Lehen, kudeaketa eskariari erantzuteko egiten zen; Zuzentarau horrek, ordea, uraren kontsumo jasangarria sustatzen du, ura erabiltzeak dituen ondorio ekologikoak eta ingurumen-inpaktuak kontuan hartuta. Beraz, UEZk ezartzen duenaren arabera, estatu kideek, zuzentarau hau onartu zenetik beranduenez hamabost urteko epean, neurriak ezarri behar dituzte azaleko uren eta urpeko uren egoera ona lortzeko. Halaber, ingurumen-helburu orokorrak ezartzen ditu urak behar bezala babesteko.

Helburu orokor horiek helburu espezifiko bihurtu behar dira ur-masaren egoeraren adierazgarri diren adierazleetarako, baldintza naturaletatik asko ez aldentzeko, hau da, egoera ekologiko on bat lortzeko. Hala, ingurumen helburu espezifikoak hiru epigrafe hauetan sailkatzen dira:

- Adierazle biologikoekin zerikusia duten ingurumen-helburuak
- Adierazle fisiko-kimikoekin zerikusia duten ingurumen-helburuak
- Adierazle hidromorfologikoekin zerikusia duten ingurumen-helburuak

Oso eraldatuak dauden ur-masen kasuan helburuak ahalmen ekologiko ona lortzeko ezartzen dira.

Helburu horiek lortzeko UEZk plan hidrologikoak idatzi behar direla ezartzen du, aldizka berrikusi beharrekoak. Hori dela eta, osorik berrikusi behar izan da estatu kideek ordura arte egin izan duten plangintza-prozesua. Alde horretatik, estatu mailan UEZ estatuko legedira ekartzeko, ordura arte uraren esparruan zegoen estatuko legedia (TRLA) aldatu eta moldatu egin behar izan zen, eta, hala, Plangintza Hidrologikoaren Araudia (RPH) eta Plangintza Hidrologikoaren Instrukzioa (IPH) egokitu ziren.

EAEko plangintza hidrologikoari dagokionez, urtarrilaren 14ko 29/2011 Errege Dekretuak ezartzen duenarekin bat, Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoak EAEko barne arroak (autonomia-erkidegoaren eskumenekoak) eta EAEko itsasertzean isurtzen duten autonomia-erkidegoen arteko arroak (estatuaren eskumenekoak) hartzen ditu. Halaber, aipatutako Errege Dekretu honek ezartzen du Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoa administrazio publiko eskudunen plan hidrologikoak eta neurrien programak modu harmonikoan bateratuz egingo dela.

Hala, ekainaren 7ko 400/2013 Errege Dekretuaren bidez, Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoaren Plan Hidrologikoa onartu zen. Plan horren barruan, Neurrien Programa Bateratu bat dator, eta hor zehazten da zer lan egin beharko diren UEZk ezarritako helburuak lortzeko. Gainera, burutu da UEZak 6 urteroko zikloan egitera behartzen duen berrikuspena, hortaz, onartuta dago planifikazioaren bigarren zikloa (2015-2021) urtarrilaren 8ko 1/2016 Errege Dekretuaren bitartez.

Neurrien Programa Bateratu honek barne hartzen ditu besteak beste aldaketa fisiko-kimikoek eta aldaketa hidromorfologikoek ingurune hidrikoan izaten dituzten eraginekin loturiko neurriak. Aldaketa fisiko-kimikoen kasuan, EAEko Saneamendu eta Arazketa Plana (2015) garatzea proposatzen du; plan horretan kontuan hartzen da UEZren kalitate-helburuen ikuspegi berria eta *hirietako ur zikinen tratamenduari buruzko 1991ko maiatzaren 21eko* 91/271/EEE Zuzentarauaren arabera definitutako saneamendu-plangintzak eta oraindik burutu gabeak berrikusteko betebeharra. Hala, plan honetan oraindik egiteko dauden oinarrizko azpiegiturak identifikatu eta horien aurrekontua egiten da, baita Uraren Esparru Zuzentarauak ezarritako ingurumen-helburuak lortzeko neurri osagarriak ere.

Aldaketa hidromorfologikoei dagokienez, Neurrien Programak barne hartzen ditu ur-emari ekologikoen erregimenak betetzeko jarduketak, azaleko ur-masak hobetzeko eta onbideratzeko neurriak eta ibai-konektagarritasuna hobetzeko neurriak. Horretarako, EAEko Ekosistema Urtarrak Lehengoratzeko Plan Zuzentzailea idaztea aurreikusten du, ekosistema horiek babestea eta lehengoratzea helburu duten plan eta programetarako etorkizuneko erreferentzia-esparru gisa.

Ondoren, Gipuzkoko arro hidrologikoen gaur egungo egoera eta aurreikuspenak aztertzen dira, eta proposamenak egiten dira, Esparru Zuzentarauak ezartzen dituen jarraibideen arabera. Horretarako, egoera lau ataletan aztertzen da:

- Uraren kalitatea
- Erregimen hidrologikoa
- Ibaiaren luzetarako jarraipena
- Baldintza hidromorfologikoak

7.3.1. URAREN KALITATEA

Orain dela gutxi arte, hiri- eta industria-isurketak zuzenean Gipuzkoako ibaietara joaten ziren, inolako tratamendurik egin gabe eta modu orokorrean. Horren ondorioz, toki batzuk kutsatuta edo oso kutsatuta egon dira, eta ibai-tarte batzuetan kutsadura organikoa, toxikoa edo mistoa uretako bizitzarekin bateraezinak ziren mailetara iritsi da. Hiriek eta industriek eragindako kutsadura horrek ibai-ardatz nagusi gehienei eragin die aurreko hamarraldietan; ibaiadar batzuk eta goi-ibarrak bakarrik geratu dira araztu gabeko isurketa horietatik libre. Egoera hori bereziki larria da izan ibai batzuetan, hala nola Deba ibaian (industriak eragindako kutsadura toxiko handia), Oria ibaian (papergintzagatik), Urola Garaian eta Urumea ibaiaren beheko tartean, bai eta horien ibaiadar batzuetan ere. Hala eta guztiz ere, egoera hori aldatu egin da saneamendu- eta arazketa-lanak egin izanari esker, kutsadura eragiten zuten enpresak itxi izanari esker (papergintzako eta metalgintzako sektoreetakoak nagusiki) eta industria askotan ingurumen-neurriak hartu izanari esker. Une hauetan, saneamendu eta arazketarako oinarrizko azpiegiturak gauzatze-fase oso aurreratuan daude. Eskualdeetako hondakin uren araztegi guztiak eraikita eta martxan daude; hala, kolektore-sarea egiteko lanak oso fase aurreratuan daude. Herrigune autonomo eta industrialde ugaritako saneamendua konpontzea falta da, bai eta udal sareak hobetzea ere.

Gipuzkoan horniduraz eta saneamenduaz arduratzen diren erakunde kudeatzaileak hauek dira:

ARROA	HORNIDURAREN ETA SANEAMENDUAREN ERAKUNDE KUDEATZAILEAK
BIDASOA	TXINGUDIKO UREN MANKOMUNITATEA (BIDASOA BEHEA) NAFARROAKO FORU ERKIDEGOKO UDALERRIAK FRANTZIA ALDEKO UDALERRIAK
OIARTZUN	AÑARBEKO UREN MANKOMUNITATEA
URUMEA	AÑARBEKO UREN MANKOMUNITATEA NAFARROAKO FORU ERKIDEGOKO UDALERRIAK
ORIA	GIPUZKOAKO UREN PARTZUERGOA AÑARBEKO UREN MANKOMUNITATEA UR PARTZUERGOAREN BARRUAN EZ DAUDEN GIPUZKOAKO UDALERRIAK NAFARROAKO FORU ERKIDEGOKO UDALERRIAK
UROLA	GIPUZKOAKO UREN PARTZUERGOA
DEBA	GIPUZKOAKO UREN PARTZUERGOA BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO UDALERRIAK ARABAKO LURRALDE HISTORIKOKO UDALERRIAK

118. taula. Gipuzkoako horniduraren eta saneamenduaren erakunde kudeatzaileak.

Kantauriko Konfederazio Hidrografikoak, Eusko Jaurlaritzak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak eskumenak dituzte alor honetan, eta lankidetza-hitzarmen batzuk finkatuak dituzte hornidura eta saneamendurako proiektuak gauzatzeko. Horien ustiapena arestian aipatutako erakundeei dagokie.

Ondoren, arro bakoitzaren egoera zein den azaltzen da:

BIDASOA ibaiak kalitate handiko urak ditu. Ibai honetan, beste arro batzuetan baino isurketa dezente gutxiago egiten dira; gainera, Irun eta Hondarribiko hondakin-urak Atalerrekako HUAn bildu eta tratatzen dira. Nolanahi ere, oraindik ere herrigune horietako eremu batzuek beren isurketak zuzenean Bidasoa ibaira edo Irungo Belaskoenera –Zubimusu errekarekin loturikoa– egiten dituzte, eta hori positiboa da.

OIARTZUN ibaiaren arroak egoera ona du, eta ia isurketa guztiak jasotzen dira. Gainera, azkeneko urte hauetan Lintziringo eremuko isurketa batzuk jaso dira, eta horrek hobekuntza bat ekarri du Lintzirin errekaren uraren kalitatean, baita Oiartzun ibaiaren behe-ibilguko tartean ere. Beste alde batetik, Arditurri errekan zink-kopuru handia topatu dugu, garai bateko meategietatik datorrena. Esterilen putzu batzuk estaltzeko, landareberritzeko eta egonkortzeko lanak egin dira, eta, horri esker, errekaren kalitate biologikoa hobetu da; nolanahi ere, oraindik ere metal horren kontzentrazio handiak atzematen dira.

Bestalde, **URUMEA** ibaian urek kalitate handia dute ia luzera osoan, saneamendu-lanak ia amaituta daudelako eta Loiolako HUA martxan dagoelako. Behe-ibilguan uraren kalitatea okerxeagoa da, zenbait isurketa zuzenean ibilgura egiten direlako; hala ere, azken urteetan hobekuntza txiki bat ikusi da, alde horretako hondakin-urak eta industria-urak biltzeko jarduketa batzuk egin direla eta.

ORIA ibaiaren arroari dagokionez, 2003. urtean Gaikaoko HUA martxan jarri izanaren ondorioz, kutsadura organikoa asko gutxitu da Oriaren goi-ibarrean; hala, uraren kalitatea nabarmen hobetu zen, eta gaur egun hala jarraitzen du. Bestalde, 2011. urtearen amaieran Adunako HUA jarri zuten martxan, eta bertan arazten dira erdiko eta beheko ibai-tarteari eragiten dioten isurketak, kutsaduraren nolabaiteko beherakada behatu delarik. Gainera, hondakin-urak biltzeko zenbait jarduketa egiten ari dira herrigune txiki batzuetan, hala nola Lizartzan, Altzon, Abaltzisketan eta Gaintzan, eta, beraz, egoera nabarmen hobetzea espero da. Beste alde batetik, papergintzako isurketek eragindako arazoak asko gutxitu dira, zenbait enpresa itxi egin direlako eta neurri zehatz batzuk hartu direlako; hala ere, oraindik badira zenbait arazo Amezketa eta Berastegi ibaietan.

UROLA ibaiaren arroan, saneamendua ia amaituta dago. Zuringoaingo HUAn (Urola Garaia) eta Badiolegiko HUAn (Erdi-behe Urola) arro horretan ditugun udalerrietako hondakin-urak arazten dira. Era horretan, kutsadura nabarmen gutxitu zen, eta arrain-fauna dezente onbideratu zen; hala eta guztiz ere, ibai-tarteren batean kalitate eskasa atzeman da, isurketa batzuk zuzenean egiten direla eta, esate baterako, Legazpin ibaian behera dagoen tartean. Beheko tartean hobetu egin da papergintzako isurketen tratamendua, baina, dena den, funtzionamendu irregularra du eta aldizka ibaiak horren ondorioak jasaten ditu.

DEBA ibaian saneamendu-lanak oso aurreratuta daude. 2012. urtean jarri zuen abian Epeleko HUA Deba ibaiaren goi-ibarrean; hori dela eta, uraren kalitatea nabarmen hobetu da Deba ibaiaren tarte horretan. Beste alde batetik, Bergarako eta Apraizko HUAk martxan daude, eta, horri esker, kutsadura nabarmen gutxitu da, nahiz eta oraindik ere badagoen. Beste alde batetik, metalaren industrian arazketa-sistemak eta azaleko tratamenduak hobetu izanari esker, toxikotasun mailek behera egin dute.

Jarraian, Gipuzkoako ibaietan uraren kalitatearen egoera hobetzeko beharrezkoak diren proposamenak azaltzen dira:

- Lehendabizi, sare nagusiko arazketa- eta saneamendu-lanak osatu eta amaitu, industrialde eta herrigune berriak arazketa-sistemetara konketatzeko. Halaber, herrigune txiki eta industrialde ugarik konpondu behar dute beren uren saneamendu eta arazketaren alderdia.

- Gaur egunean martxan dauden arazketa-sistemak hobetu, Uraren Esparru Zuzentarauak ezarritako ingurumen-kalitatearen helburu berrien eskakizunetara moldatu ahal izateko.

- Ibai-ibilgura egiten diren isurketen inbentarioak egin behar dira arro bakoitzean, eta, horrez gain, isurketa horien ezaugarriak zehaztu eta beharrezko neurriak hartu, esate baterako, kolektore orokorrarekin lotu edo arazketa-sistema espezifikoak finkatu.

- Industria-isurketei dagokienez, efluentea egokitu beharko da, tratamendu espezifikoen bitartez kolektorearekin lotu ahal izan dadin. Gainera, kontuan hartu behar da elementu toxikoen presentziak negatiboki eragin diezaiokeela araztegien tratamendu biologikoari.

- Oria ibaiaren arroko Amezketa eta Berastegi ibaietan, bai eta Urola ibaiaren behe-ibilguan ere, paper-fabrikek egiten dituzten isurketen arazoa konpondu egin behar da.

- Hiri- eta industria-jatorria duten isurketez gain, badira nekazaritza eta abeltzaintzatik datozen isurketak ere, eta uraren kalitate ekologikoari nabarmen eragin diezaiokete. Horrelako isurketak eragozteko irtenbideak jarri behar dira.

- Kutsadura zehaztugabeak sortzen dituen arazoak ekiditeko neurriak hartu behar dira; izan ere, arazo hori gero eta gehiago ari da agertzen, saneamendu eta arazketarako oinarrizko azpiegiturak egin ahala.

- Arditurri errekaren kasuan (Oiartzun ibaiaren arroa), Arditurriko meategietatik datorren zink-ekarpena murrizteko beharrezkoak diren neurriak hartu beharko dira (toxikoa da uretan bizi diren organismoentzat).

- Araztegietako efluenteen mantenugai-kopurua ere murriztu egin behar da, eutrofia-arazorik gerta ez dadin.

- Herrietako saneamendu-sarea hobetu egin behar da, hiri-isurketen bilketa optimizatzeko eta kanpoko euri-urak udal eremu urbanizatura ez sartzeko.

7.3.2. ERREGIMEN HIDROLOGIKOA

Ur-emarien erregimena egokia izatea funtsezkoa da ibaietako ekosistemak ondo funtzionatzeko; ibaietako ekosistema artikulatzen eta egituratzen duen elementua da. Erregimen hidrologikoaren urte barruko eta urte arteko aldakuntza-tarte osoa, bai eta horri atxikitako urtarokotasun, iraupen, maiztasun eta aldaketa-tasaren ezaugarriak ere, erabakigarriak dira biodibertsitate naturalari eta ekosistema urtarren osotasunari eusteko. Aldagai hidrologiko eta hidraulikoek eta prozesu biologikoek elkarri eragiten diote, eta, hala, ekosistema zer espeziek osatzen duten eta osagai bakoitzak zer funtzionaltasun duen kontrolatzen da; beraz, ur-emarien erregimen naturalaren funtsezko alderdiak babestu edo lehengoratu behar dira ibaietako biodibertsitatea eta funtzionaltasuna kontserbatzeko.

Gipuzkoan, aprobetxamendu ugari daude ibai-sarean banatuak; horien helburua da, batik bat, hirietako eta industrietako hornidura, ekoizpen hidroelektrikoa (zentral txikiak) eta indar eragilea (errotak).

GFAk egindako inbentarioen arabera, Oria ibaiaren arroan beste inon baino aprobetxamendu gehiago dago martxan: guztira 66, eta horietatik 63 oraindik ere martxan daude. Horren atzetik

Deba ibaiaren arroa dago, hor ere aprobetxamendu kopuru handia baita, guztira 55; Urola ibaiaren arroan, berriz, 21 daude. Beste alde batetik, Urumea eta Oiartzun ibaien arroetan 13 eta 6 ikusi dira, hurrenez hurren.

Zentral hidroelektrikoek alterazio larriak eragiten dizkiote erregimen hidrologikoari oro har, bideratutako ur-emariaren arabera eta bideratze horrek erasandako ibai-luzeraren arabera. Aprobetxamendu horiek ur-emarian eragindako urritze horrek ur-ibilguan dabilen emaria larri murriztea dakar; izan ere, kasu askotan ibaiaren ur-emari naturalaren oso azpitik egon ohi da, eta horrek eragozpen nabarmenak eragiten dizkio ibaiko ekosistemaren funtzionamenduari. Gipuzkoan zentral hidroelektriko asko dago martxan, guztira 63.

Erabilera hidroelektrikorako erabiltzen den ur-emaria oso handia da, are urteko batez besteko ekarpena baino handiagoa; zentral hidroelektrikoak seriean kokatuta daudelako gertatzen da hori, hots, ibaian gora kokatutako beste zentral-txiki batek turbinetatik igaroarazitako emaria erabiltzen dutelako. Horrela, Urumea ibaiaren arroan, ur-baliabidearen erabilera-portzentajea, urteko batez besteko ekarpenarekiko, % 151 da, Deban % 108, eta Oria eta Urola arroetan % 86 eta % 53, hurrenez hurren; Oiartzun ibaiaren arroan, berriz, % 7 besterik ez da. Zentral gehien duten arroak Oria (23), Deba (14) eta Urumea (12) dira, eta gero datoz Urola (10), Oiartzun (2) eta Bidasoa (2). Azpimarratzekoak dira Leitzaran, Añarbe eta Arantzazu ibaiak, izugarri eragiten baitzaie bideratutako ibai-luzerari dagokionez, hain zuzen ere, % 60tik gora; Urumea eta Araxes ibaiek ere portzentaje handiak dituzte, % 30 eta % 40 bitartean.

Bestalde, arro batean hiri-hornidurarako erabilitako urteko batez besteko ekarpenaren portzentajeak aldakorrak dira: minimoa % 2 da, Oria ibaiaren arroan, eta maximoa % 10, Urumea ibaiaren arroan. Industria-hornidurari dagokionez, portzentaje horiek % 1 eta % 4 artean dabiltza, Deba ibaiaren arroan eta Oiartzun ibaiaren arroan, hurrenez hurren.

Erregimen hidrologikoaren alterazioa hobetzeko eta ibai-tarte askotan sortzen den ur-emariaren eskasia konpontzeko, ibaiaren erregimen hidrologiko naturaletik ahalik eta hurbilen dauden emari-baldintzak sortzera jo behar dugu. Horretarako, ondorengo oharrak hartu beharko dira kontuan:

- Zentral hidroelektrikoek errespetatu egin behar dute finkatutako emari ekologikoa. Emari ekologikoek ibaiaren hidrograma naturalera egokitu behar dute. Alde horretatik, indarrean dagoen Plan Hidrologikoak, aurreko plan hidrologikoetan barneratutako emari ekologikoen ereduaren ordez, eredu dinamikoagoak ezartzen ditu, UEZk ezarritako egoera ekologiko onaren helburuak lortzeko. Modu horretara, gutxieneko emari batzuk ezartzen ditu, Emari Ekologiko Modularraren metodologiatik abiatuta. Hori aplikatuko zaie bai etorkizuneko aprobetxamenduei eta bai jadanik martxan dauden aprobetxamenduei.

- Aprobetxamendu hidroelektrikorako emaria erabiltzeko jarduera desegokiak ezabatu egin behar dira, hala nola “enbolatuak”.

- Hondakin-uren araztegiak abian jartzeak ur-emari eskaseko egoerak eragin ditzakete, batez ere goi-ibarretan. Eskasia hori ur-emaria emanez konpentsatu beharko da. Irtenbide bat ibaian gora dagoen HUAren efluentetik ura ponpatzea da, Urola ibaiaren goi-ibarrean Zuringoaingo HUAn egiten den moduan. Kasu hauetan kontuan hartu behar da efluente horrek zenbateko mantenugai edukia duen eta ahal den neurrian hori murriztu, eutrofizazio-arazoak eragozteko.

- Kudeaketa-eredu zehatzak egin beharko lirateke urtegietan, agorraldian gutxieneko ur-emariak bermatuko dutenak eta Kantauri isurialdeko arroetan ohikoak diren ur-emari handiak simulatuko dituztenak. Kasu honetan indarrean dagoen Plan Hidrologikoan ezarritako emari minimo eta maximoak ustiapen mota hauei ere zuzendua dago.

7.3.3. IBAIAREN LUZETARAKO JARRAITUTASUNA

Ekosistema urtarren kalitateari eragiten dioten faktoreetako bat, hain zuzen ere, ibaien jarraitutasuna da, hau da, espezie urtarrek libreki gorantz nahiz beherantz ibili ahal izateko ibaiek duten gaitasuna; era berean, sedimentuen zirkulazioak ere librea izan behar du.

Oztopoen presentzia eragozpen handia izaten da ibaietako ekosistemarekin loturiko espezie batzuen mugimendu eta migrazioetarako, esate baterako, arrain-faunarentzat. Gipuzkoako ibaietan 5 espezie ditugu migrazio anfihalinoak egiten dituztenak: kolaka, izokina, itsas amuarraina, aingira eta lanproia. Horiez gain, badira beste arrain-espezie batzuk ere mugimendu garrantzitsuak egiten dituztenak, ugalketa-garaian batik bat, hala nola amuarraina, baina berez migrazio izatera iristen ez direnak. Goranzko mugimendu eta migrazioei eragiten dieten oztopoaz gain, beheranzko mugimenduetan dituzten ondorioak ere garrantzitsuak dira. Zenbait aprobetxamendutako ekipamendu-emari handiak oso erakargarriak dira beheranzko migratzaileentzat, eta, kanalean sartzen den emariak eragiten duen xurgatze-indarraren ondorioz, bertan sartu eta gero ziurrenik turbinetaraino iritsiko dira, bertan hiltzeko arrisku handia dutela. Halaber, oztopo horiek ur-pilaketak sortzen dituzte ibaian gora, eta ibaietako ekosistemaren dinamika eraldatzen dute.

Gipuzkoako Lurralde Historikoan oztopo ugari dago. Horietako asko presak dira, eta horietatik gehienak ez dira erabiltzen gaur egun. GFAk arro bakoitzean dauden oztopoen inbentarioa egin du, eta, hala, ardatz eta ibaiadar nagusietan 700 bat inguru erregistratu dira. Horrekin batera, GFA iragazkortze-plan bat prestatzen ari da; oztopoa eraisteko edo iragazkortzeko (arrainentzako eskalak, aldapak...) proiektu ugari daude jada idatziak eta, halaber, jada jarduera asko egin dira, 50 inguru.

Bestalde, Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrofrafikoari dagokion indarrean dagoen Plangintza Hidrologikoak proposatutako Neurrien Programa Bateratuak ibaiaren konektagarritasuna hobetzeko neurriak ezartzen ditu, presak eraistea eta iragazkortasuna bermatzea, esaterako.

Oiartzun ibaiaren arroan 38 oztopo jaso dira inbentarioan (22 presa txiki: 7 erabiltzen ari dira), eta horietatik gutxi gorabehera erdiek iragazkortasun txarra dute. GFAk 6 jarduera egin ditu interes handieneko izendatutako presa txikietan, eta, horri esker, arroaren iragazkortasuna nabarmenki hobetu da. Gainera, jada hainbat proiektu idatzita dauzka.

Urumea ibaiaren arroan 99 oztopo erregistratu dira (60 presa txiki: 15 erabiltzen ari dira), eta horietatik erdiek baino zertxobait gehiagok iragazkortasun txarra dute, eta 20 inguruk iragazkortasun ertaina. Ardatz nagusian dauden 7 presa txikiek arrainentzako eskala dute; halere, horren funtzionaltasuna ez da egokia, egindako iragazkortasun-azterketetatik ondorioztatu den moduan. Beste alde batetik, orain berriki Mendarazko presa txikia eraitsi da, eta, horren bidez, Urumeako tarte garrantzitsu baten jarraitutasuna berreskuratu da. Egun, arro honetako iragazkortasuna hobetzeko helburuarekin zenbait proiektu idazten ari dira.

Oria ibaiaren arroan egindako inbentarioan 221 oztopo topatu zituzten (172 presa txiki: 63 erabiltzen ari dira). Oztopoen erdiak ez dira iragazkorrak, eta % 20k iragazkortasun ertaina dute. Arrainentzako eskala duten 30 presa txiki inguru daude (gehienak zentral hidroelektrikoenak, baita beste industria batzuenak ere), baina, dena den, denek ez dute funtzionaltasun egokia. Gainera, GFAk 16 iragazkortze-jarduera inguru egin ditu, eta, era berean, beste 20 bat proiektu ditu jada idatzita. Beste alde batetik, Uraren Euskal Agentziak 2 iragazkortze-jarduera egin ditu eta Kantauriko Konfederazio Hidrografikoak 6 iragazkortze-jarduera egin dituzte. Aipatzekoa da Leitzaran ibaian eginiko lana, Inturiako presaren eraistearekin, non 12 metro baino altuagoko oztopoa ezabatu den, baita beste presa batzuk ere; honekin, iragazkortasuna nabarmeki hobetu da, aldiz, honelako ekintzak burutzen jarraituko da.

Urola ibaiaren arroari dagokionez, 78 oztopo identifikatu dira (58 presa txiki: 20 erabiltzen ari dira), eta horietatik erdiek baino gehiagok iragazkortasun txarra dute. GFAren Iragazkortze Planaren barruan 18 jarduera burutu dira, eta irtenbideak askotarikoak izan dira: arrainentzako eskala, aldapa, dikeak, presa txikia eraistea, alboko kanala. Gainera, gutxienez 10 proiektu ditu idatziak, eta, beraz, alde horretatik aurreikuspenak oso onak dira.

Azkenik, **Deba** ibaiaren arroan 233 oztopo daudela egiaztatu zen (169 presa txiki: 51 erabiltzen ari dira), eta horietatik erdiek baino gehiagok iragazkortasun txarra dute. Arrainentzako eskalak dituzten 5 presa txiki daude, eta horietatik bat bakarrik jotzen da funtzionaltzat. Egun, arro honen iragazkortasuna hobetzeko zenbait proiektu daude martxan.

Ibaiaren luzetarako jarraitutasuna hobetzeko proposamenei dagokienez, hauek izango genituzke:

- Aurrera jarraitzea Gipuzkoako Foru Aldundia oztopoak suntsitzeko edo arrain-faunarentzako igarobideak eraikiz horiek egokitzeko egiten ari den planarekin (ondoz ondoko artesen eskalak, aldapak, dikeak, alboko kanalak...).

- Iragarkortze-lehentasun batzuk finkatzea, lehenik eta behin eta ahal den neurrian, onbideratzeko interesik handiena duten tarteak iragazkortzeko helburuarekin. Egun, GFAak ekosistema flubialen Lehengoratze Plana prestatu du, non Jarduketa Plana garatu den Gipuzkoako ibaietan, GFAak hurrengo urteetan burutuko dituen berreskurapen planak biltzen dituena, horietako asko ibaietako iragazkortasuna hobetzera bideratuak.

- Erabiltzen ari diren aprobetxamenduak izanez gero, titularrak arduratu beharko du arrainentzako igarobideetako baliabideak eraikitzeaz eta mantentzeaz. Era berean, emakidaren baldintzak bete beharko dituzte.

- Erabiltzen ari ez diren aprobetxamenduak izanez gero, emakiden iraungipena sustatu beharko da, eta, hala egokituz gero, oztopoa suntsitzeko/iragazkortzeko aukera aztertu.

- Goranzko igarotze-sistemez gain, beheranzko migraziorako sistema eraginkorrak instalatu beharko dira (saretak, hesi elektrikoak, soinu-hesiak...), uretako fauna bideratze-kanaletan sar ez dadin.

- Arrainentzako igarotze-sistemek espezie guztietara egokitu behar dute, bai izokinkide eta ziprinidoetara eta bai angilidoetara ere, igarobide berezien bitartez (alboko kanalak, zati baten suntsitzeak...) edo igarobide bereziak egokituz, aingira igarotzeko esate baterako, “eskuila” moduko bideekin.

- Arrainentzako eskalak eta horietan instalatutako baliabideak (saretak eta abar) mantentzeko eta garbitzeko lanak egin behar dira, une oro horien funtzionaltasuna bermatzeko.

- Egun dauden igarotze-sistemen (arrainentzako eskalak...) eraginkortasuna balioetsi beharko da, eta, iragazkorra ez baldin badira, fauna urtarraren lekualdaketak bermatzeko beharrezkoak diren neurriak hartu beharko dira. Alde horretatik, hainbat iragazkortasun azterketa egin dira Urumea eta Oria ibaien arroetan dauden arrainentzako eskaletan; kasu batzuetan iragazkortasun txarra detektatu da, eta hori zuzendu egin behar da.

7.3.4. IBAIAREN BALDINTZA HIDROMORFOLOGIKOAK

Gipuzkoako ibaien aldameneko ibar gehienetan urbanizazioak, industrialdeak eta azpiegiturak kokatu dira. Hori dela eta, birgertatze-aldi laburreko uholdeek kalte larriak eragin izan dituzte, eta, horren ondorioz, bideratzeko eta babesteko obra batzuk egin behar izan dituzte ibaietako habitata nabarmenki eraldatu dutenak (ibilguan eta ibai-bazterretan); hobetu ez ezik, alderdi horrek okerrera egin du azkeneko urte hauetan eta etorkizuneko aurreikuspenak ez dira oso aldekoak. Baldintzarik zorrotzenak eskatzen dituzten arrain-espezieentzat eragozpen garrantzitsuak dira; dena den, oraindik ere ibai-tarte asko ditugu habitataren aldetik kontserbazio-egoera egokia gorde dutenak.

Ibaietan egin diren jarduera antropikoek (babesak eraikitzea, bideratze-lanak, ibilgua zabaltzekoak, ibai-bazterreko landaretza desagertzea...) eragin negatiboak izan dituzte ibaietako ekosistemen gainean, eta, horrenbestez, ekosistema horien degradazioa ekarri dute.

Jarduera horiek ibaietako ekosistemaren gainean, osoki hartuta, eragin desegituratzailea dute. Horren ondorioetako bat, hain zuzen ere, korridore biologikoaren eginkizuna galtzea da; Euskal Autonomia Erkidegoa bezain gizatartua dagoen lurralde batean, ibaiak espezieen lekualdaketarako bide garrantzitsu izan daitezke. Era berean, ibai-bazterreko landaretza suntsitzeak eta babesak eraikitzeak ibaietako habitataren funtzionaltasuna galtzea eragiten die espezie askori, bai zehatz-mehatz urtarrak direnei eta bai ibai-bazterreko giroetara loturik daudenei ere (amuarraina, izokina, iberiar muturluzea, bisoi europarra, zuhaitz-igel arrunta, martin arrantzalea, ur-zozoa...), babeslekuak desagertzen direlako, erregimen termikoa aldatzen delako, argiaren intzidentziagatik...

Era berean, ibaiaren funtzionamendu trofikoaren alterazio bat gertatzen da, zuhaitz-estalkia ezabatzeak materia eta energia hori sartzea eragiten duelako, eta horrek uretako faunari eta landaretzari aldaketak ekartzen dizkiolako. Azkenik, ibai-bazterreko landaretzak iragazki modura jokatzen du sistema urtarrera iristen diren mantenugaiekin, baita sedimentuen tranpa modura ere, eta, horregatik, ibai-bazterreko landaretza suntsitzeak uretara mantenugai gehiago iristea eragin dezake nekazaritza inguruetan, eta horrek kutsadura-arazoak sorraraz ditzake. Gainera, higadura - garraio - sedimentazio sistemaren orekan ere aldaketak gertatzen dira, eta horrek aldaketak ekar diezazkioke komunitate urtarrari, tarte horretan berezkoak diren espezie jakin batzuk urrituz edo desagertuz edo bertan ohikoak ez diren beste batzuk agerraraziz. Azken batean, ibaietako habitataren pobretze bat eta biodibertsitatearen galera bat gertatzen da, eta ondorioz, kalitate urriko ekosistema bat dugu.

Bide batez, ibai-bazterreko landaretzarik ez egoteak edo horren eskasiak zuzeneko eragina du uraren tenperaturan. Ibai-bazterreko basoa degradatzen edo galtzen denean, handitu egiten da eguzki-erradiazioa, eta horrek uraren tenperatura igotzea eragiten du. Hori, aldi berean, uretan disolbatuta dagoen oxigeno-kontzentrazioarekin lotua dago, tenperaturak gora egin ahala gutxitu egiten baita oxigenoa. Gainera, igoera termiko batek bizkortu egiten ditu eutrofizazio-prozesuak. Horrek guztiak organismo urtarren bizitzarako baldintza kaskarrak ekartzen ditu, batez ere baldintza zorrotzenak behar dituztenentzat.

Ibaietako habitataren kontserbazio-egoera aldatu egiten da arro batetik bestera; dena den, eragin-maila, oro har, nahiko handia da. Horrela, Bidasoa, Oiartzun eta Urumea ibaien arroak dira egoera onenean daudenak, nahiz eta eragin garrantzitsuak dituzten. Urumea ibaiak, beheko tartean, alterazio hidromorfologiko handi bat du hainbat lan eta bideratzeren ondorioz, eta, gainera, hainbat azpiegitura egitea aurreikusten da, hala nola AHTa eta bideratze-lanak. Azpimarratu beharra dago Urumearen behe-ibilguak garrantzi handia duela espezie migratzaileentzat, hala nola izokinarentzat eta lanproiarentzat (orain berriki egiaztatu dute espezie mehatxatu honek baduela presentzia), espezie horien goranzko eta beheranzko migrazioan igarobide eta girotze-gune delako. Beste alde batetik, Deba, Oria eta Urola ibaien arroak oso kaltetuak daude, Deba eta Oria bereziki. Gainera, ibilguan eta ibai-bazterretan

kalteak eragin ditzaketen obra batzuk egiteko arriskua dago. Beste alde batetik, espezie exotiko inbaditzaileen presentziaren inguruko arazo bat ere badago (Robinia pseudoacacia, Fallopìa japonica, Buddleja davidii, Cortaderia selloana nagusiki), ibaietako ekosistemaren ohiko funtzionamendua eraldatzen dutelako.

Jarraian, proposamen batzuk egiten dira, ibaietako hidromorfologiarekin loturiko egoera hobetzeko helburuarekin:

- Ibai-tarteak egoera onean kontserbatu behar dira, Europar Batasuneko Uren Zuzentarauak dioen moduan, onbideratzen joaten diren aldeak birkolonizatu ditzaketen “haztegi naturalak” direlako.

- Etorkizuneko obrek ahalik eta ondoriorik txikienak eduki behar dituzte ibaietako habitatean. Gainera, ibaietako habitataren aldaketa ahalik eta txikiena izan dadin, beharrezkoak diren babes-neurriak eta neurri zuzentzaileak finkatu behar dira. Proiektu berriek segurtasuneko premia hidraulikoak ibaietako habitataren babesarekin edo are hobekuntzarekin uztartu behar dituzte.

- Jatorrizko ibai-bazterreko basoa (haltzadia-lizardia) onbideratzeko jarduerak sustatu behar dira ahal den neurrian, eta horren barruan sartuko litzateke luzetarako jarraitutasuna, zabalera, osaera eta landaretzaren egitura berreskuratzea.

- Hidromorfologia lehengoratzeko proiektuak eta jarduerak egin behar dira ingeniaritza biologikoko teknikak erabiliz, ibaietako habitata lehengoratzeko, hobetzeko eta dibertsifikatzeko xedez, eta, era horretan, ekosistemari egitura-konplexutasun handiagoa eskainiz. GFAk zenbait jarduera burutu ditu horri begira. GFAk zenbait azterketa egin ditu horri begira.

- Espezie aloktonoen landaketek okupatutako eremuak baso natural bihurtu daitezela sustatu behar da.

- Landare-espezie exotiko inbaditzaileei (*Robinia pseudoacacia*, *Fallopìa japonica, Buddleja davidii, Cortaderia selloana* nagusiki) jarraipen bat egin eta errotik erauzi behar dira, habitat naturalen degradazioa dakartelako. GFAk hainbat jarduera egin ditu.

GFAk hainbat jarduera egin ditu ildo honetan, ikuspuntu hidromorfologikotik ibai-tarteak leheneratzeko, eta, horretarako, esku-hartzeak egin ditu ibai-bazterretan eta ur-ibilguan. Gainera, nabarmendu behar da GFAak berriki burututako Ekintza Plana, Gipuzkoako ibaietarako, hurrengo urteetan berreskurapen ekintzak antolatzeko helburuarekin.

Bestalde, Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrofrafikoari dagokion Plangintza Hidrologiko berriak proposatutako Neurrien Programa ibai-bazterrak kontserbatzeko eta lehengoratzeko neurriak dakartza.



2 Mapa.- Arrainentzako uren gaitasuna:

2006/44/CE/Zuzentaraua

2015. Urtea

- APTO PARA SALMÓNIDOS
- APTO PARA CIPRÍNIDOS
- NO APTO PARA LOS PECES

E: 1/200.000
DIN-A3

0 2,5 5 10 15 Km

Gipuzkoako Foru Aldundia
Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentua

Diputación Foral de Gipuzkoa
Departamento de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas

ekolur
Asesoría Ambiental · Ingurumen Aholkularitza



3 Mapa.- Egoera biologikoa. IBMWP indizea

2015ko Udaberria

KOLOREA	EGOERA
	Oso ona
	Ona
	Moderatua
	Eskasa
	Txarra

Tipologiak

- [29] Kantauri-Atlantiar ibai ardatz karetxu nagusiak
- [32] Kantauri-Atlantiar ardatz txiki karetsuak
- [22] Ibai karetsu Kantauri-Atlantiarrak
- [30] Kostaldeko ibai Kantauri-Atlantiarrak
- [26] Mendi-Heze karetsuko ibaiak
- [23] Euskal-Pirinear ibaiak

E: 1/200.000
DIN-A3

0 2,5 5 10 15 Km

Gipuzkoako Foru Aldundia
Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentua

Diputación Foral de Gipuzkoa
Departamento de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas

ekolur
Asesoría Ambiental · Ingurumen Aholkularitza



4 Mapa.- Egoera biologikoa. IBMWP indizea.

2015ko Agorraldia

KOLOREA	EGOERA
	Oso ona
	Ona
	Moderatua
	Eskasa
	Txarra

Tipologiak

- [29] Kantauri-Atlantiar ibai ardatz karetxu nagusiak
- [32] Kantauri-Atlantiar ardatz txiki karetsuak
- [22] Ibai karetsu Kantauri-Atlantiarrak
- [30] Kostaldeko ibai Kantauri-Atlantiarrak
- [26] Mendi-Heze karetsuko ibaiak
- [23] Euskal-Pirinear ibaiak

E: 1/200.000
DIN-A3

0 2,5 5 10 15 Km

Gipuzkoako Foru Aldundia
Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentua

Diputación Foral de Gipuzkoa
Departamento de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas

ekolur
Asesoría Ambiental · Ingurumen Aholkularitza

I. ERANSKINA

ZEBRA MUSKUILUAREN EGOERAREN TXOSTENA

AURKIBIDE OROKORRA

1. SARRERA - AURREKARIAK 1

2. AZTERKETA-EREMUA ETA LAGINKETA-DATAK 4

3. METODOLOGIA 7

3.1. ZEBRA MUSKUILUAREN PRESENTZIAREN KONTROLA UBIDEETAN 7

3.2. IBAIETAN IPINITAKO TESTIGUEN KOKAPENA 7

3.3. URTEGIETAN IPINITAKO TESTIGUEN KOKAPENA 7

4. EMAITZAK ETA EZTABAIDA 8

4.1. ZEBRA MUSKUILUAREN PRESENTZIAREN KONTROLA UBIDEETAN 8

4.2. IBAIETAN IPINITAKO TESTIGUEN EMAITZAK 9

4.3. URTEGIETAN IPINITAKO TESTIGUEN EMAITZAK 9

5. ONDORIOAK 10

I Eranskina. Argazki Bilduma

1. SARRERA - AURREKARIAK

Zebra muskuilua (*Dreissena polymorpha*) Itsaso Beltzeko eta Kaspiar Itsasoko molusku inbaditzailea da. Molusku espezie txikia, 3 cm-ko luzera izaten duena, hiruki formakoa eta marra argi eta ilunak ditu sigi-sagan. Tenperatura eta gazitasunean bat-bateko aldaketak jasateko gai da, eta hainbat egunean iraun dezake bizirik uretatik kanpo, baita 10 egun ere. Ur lasaiak gustuko ditu, ur laster gutxirekin. Tamaina mikroskopikoa duen larba fasea du, baita substratura itsatsia bizi den fase bentoniko heldua ere. Larba faseak sakabanatzeko gaitasun handia du. Hazkunde tasa nabarmena du eta baldintzak egokiak izanez gero oso ugalkorra da, dentsitate handiak lortuz.

Zebra muskuiluaren sarrera ekosisteman, kasu gehienetan larbak dituzten uren sarrerari zor zaio. Sakabanatze bideak aisialdi eta komertzio nabigazioarekin erlazioan daude, hala nola, kirol edo aisialdirako erabilera (arrantza, bainua...), beste espezie batzuk ekosisteman sartu eta/edo leku batetik bestera mugitu, ibai inguruko ikerketa lanak, arroen arteko ur aldaketak...

Zebra muskuiluak fitoplanktona du elikagai, hots, ekoizpen primarioan eta mantenugaien balantzean aldaketak eragiten ditu. Honek guztiak, gainontzeko bizidunetan eragina du ekosisteman aldaketak sortuz eta espezie batzuen biziraupenerako mehatxu larria izanez. Ibai-hondoa eta beste substratu batzuk (hodiak, kanalak, urtegiak...) guztiz estali ditzake arazo ekonomiko eta ekologiko larriak eraginez.

Dirudienez, espezie honen hedapena Europan XIX. mendean hasi zen, bektorea ibai nabigazioa zelarik. XX. mendean hedapena jarraitzen du Europako estatu gehienetara iritsiz eta Ipar Ameriketara iristen da itsas garraioaren laguntzaz, bertan oso azkar hedatzen da. Iberiar Penintsularen kasuan Llobregat arroan igarri zen 80ko hamarkadan eta uholde batzuen eraginez naturalki desagertu zen. Ondoren, 2001. urtean lehendabiziko populazio iraunkorrak Ebro ibaiko beheko zatian eta Ribarrojako urtegian agertu ziren. Geroztik, espeziea arroko leku gehienetara hedatu da; 2004. urtean Mekinentzan eta 2006. urtean Sobron urtegian, Ebroko goiko zatian ikusi da. Bestalde, 2005. urtean Jucarren eta 2006an Segura arroetan ikusten da. Duela gutxi, 2009. urtean Guadalkibirreko arroan agertzen da. 2010ean Kantauri isurialdean antzeman eta bere presentzia egiaztatzen da. Azkenik, 2011an Katalunia barneko arroetan atzematen da.

Euskal Autonomi Erkidegoari dagokionez, 2006. urtean Ebro ibaian atzematen da, Puentelarra ibaian behera (Araba), Inglares ibai-ahoetan (Araba) eta Arabar Errioxako ibai txikietan. Urte honetan Ebro arroaren goiko zatian atzeman zen, Sobron urtegian (Burgos) hain zuzen ere. 2007. urtean, molusku honen presentzia baieztatzen da.

Ondoren, 2008. urtean larba gutxi batzuk Ullibarri-Ganboa (Araba) urtegian azaldu ziren; 2009 eta 2010 urteetan ere larba ale batzuk hartu ziren, emaitza “positibotzat” ulertzeko behar besteko ugaritasunaren azpitik, alegia. Bestalde, 2011. urtean Undurraga (Bizkaia) eta Urrunaga (Araba) urtegietan larba zein ale helduen presentzia ikusten da. Azkenik, 2012. urtean urtegi hauen azpi-aldera hedatu da, hau da, Arratia, Santa Engrazia eta Zadorra ibaietara. Espezie inbaditzaile honen presentzia, espezie helduekin Ullibarri-Ganboa urtegian baieztatu eta Mendikosolo urtegian enklabe bat agertzen da, hau, Undurragako urtegiarekin hodiez elkartuta dagoenez, horren gaitik kutsatua izan dela uste da. 2013. urtean, Santa Engrazia ibaian, Ulibarri-Ganboa, Urrunaga, Undurraga eta Mendikosolo urtegietan zebra muskuiluaren larbak baieztatzen dira. Gainera, gune hauetan ale helduak agertzen dira eta Nerbioi eta Ibaizabal ibaietan positibo berriak.

2014. urtean, lehen aipatutakoez gain bi urtegi berrietan detektatu da larba presentzia, Gorostiza eta Lekubaso urtegietan hain zuzen ere, gainera, espeziea lehendabiziko fasean kokatua dagoela ematen du. Honetaz gain, Undabe ibaiadarrean, Urrunaga urtegiaren uren

gainetik, beste emaitza positibo bat antzeman da. Hala nola, espezie inbaditzaile honen zabaltzea baieztatu da Nerbioi, Ibaizabal, Arratia eta Santa Engrazia ibaietan.

2015. urte honetan, Gorostiza eta Lekubasoko positiboak 2014. urtean atzemandakoak ez dira baieztatzen, honek espezieak asentatzeko duen nolabaiteko zailtasuna adierazten du. Ibaiei dagokionez, Ega ibaian, Santikurutze Kanpezun lokalizazio berri bat atzematen da, Udabe ibaian ordea ez da muskuiluaren presentziarik atzematen, non aurreko urteetan helduen presentzia aurkitu zen. Gainontzean, espeziea Ullibarri-Ganboa, Undurraga, Urrunaga eta Mendikosolo urtegietan kokatua dago. Gainera, Arratia (Undurragako urtegiaren uren azpitik), Santa Engrazia (Urrunagako urtegiaren uren azpitik), Zadorra (Ullibarri-Ganboa urtegiaren uren azpitik), Nerbioi eta Ibaizabal (Mendikosolotik datorren errekastoaren elkargunetik behera, marearteko gunean), ibaietan baieztatzen da.

Azken finean, zebra muskuilua hedapen egoera garbi batetan aurkitzen da, hasiera batetan, urtegietan garatutako populazioetatik, ibai-korridoreetan zehar, ibaiko espezie edo ingurune hauekin erlazionatutako (gizakia barne) mugimendu naturala jarraituaz zabaltzen da.

Zebra muskuiluak espezie inbaditzaile bezala izan duen arrakasta zenbait ezaugarriren araberakoa da: ugaltzeko gaitasun handia eta fase planktonikoan sakabanatzeko gaitasun eta malgutasun fisiologiko handia, non habitat eta egoera trofiko ezberdinetan ugaltzeko eta bizitzeko gaitasun handia duen. Hala ere, ale berriak inguru berrietara iristeak ez du esan nahi leku berri horretan hedatuko denik. Kolonizazioa gertatzeko zenbait ezaugarri bete behar dira:

- Ur masan propagulu edo espezie aleak sartu (normalean zenbait sarrera behar dira). Zebra muskuiluaren larba faseak heriotza tasa altua du, alabaina, bere tamaina txikia eta sakabanatzeko gaitasuna direla eta fase arriskutsuena hau da.

- Populazioaren iraunkortasunerako ur masaren baldintza aproposak, parametro fisiko kimikoei dagokienez (pHa, kaltzio kontzentrazioa, uraren abiadura, uhertasuna...).

Irizpide hauen arabera ur masa batek zebra muskuiluarekin kolonizatzeko duen suszeptibilitatea ezarri daiteke. Hortaz, *Gipuzkoako ibai eta ur masen suszeptibilitate indizearen eguneratzea, 2010ko uztaila* (Gipuzkoako Foru Aldundia) eta *Euskal Autonomi Erkidegoko ur masek zebra muskuiluarekiko duten suszeptibilitatea, 2011ko abendua* (URA) lanen arabera, Gipuzkoako eta EAEko ibaiek orokorrean ez omen dituzte habitat ezaugarri egokiak espezie inbaditzaile hau finkatzeko, non ur-azalen abiadurak eta uhertasunak, ibaien laburtasunak, aldizkako uholdeak eta ezaugarri fisiko-kimiko deserosoak, bere biziraupena mehatxatzen duten. Halere, ibaien erdiko eta beheko zatietako ur geldoak ezin dira baztertu, habitat egokiak izan daitezke eta.

Bestalde, urtegiak ezaugarri egokiagoak dituzte. Horregatik, Aixola, Urkulu (Deba UH), Ibiur, Lareo (Oria UH) eta Ibaieder (Urola UH) urtegiak eta Troia Meategiko urmaelak (Oria UH) suszeptibilitate handia dute. Aitzitik, ezaugarri fisiko-kimikoak desegokiak direla eta, Barrendiola urtegiaren kasuan suszeptibilitatea baxua da; Endara, Urtatza eta Añarbe urtegien kasuan, suszeptibilitatea ezezkoa da.

Espeziearen arriskugarritasuna eta gertutasuna kontuan izanik, Gipuzkoako Foru Aldundiak 2008an Gipuzkoako ibaietan eta urtegietan ale helduen jarraipena hasi zuen, 2006ko abenduan sortutako EAEko zebra muskuilua kontrolatzeko Koordinazio eta Jarraipen Batzordeko administrazio ezberdinen laguntzaz (URA, Konfederazioak, Foru Aldundiak, Kontsorzioak, EHU, Eusko Jaurlaritza, AMVISA, Iberdrola). 2009-2015 denboraldian zaintza lan hauekin jarraitu da. Alde batetik, Gipuzkoako ibai sareko ibaietan zebra muskuiluaren ale helduen presentziaren kontrola egin da, ibaia eta ibai-ertzetan zehaztasunezko behaketa lanak eginez laginketa sareko behin betiko 30 puntutan. Halaber, testiguak jarri dira ibai

sareko 15 puntutan. Beste aldetik, Gipuzkoako Uren, Txingudiko Uren eta Añarbeko Uren lankidetzarekin testiguak ipini dira 9 urtegietan.

2. AZTERKETA-EREMUA ETA LAGINKETA-DATAK

Ondoren, behaketa lanaren jarraipena arro ezberdinetan kokatutako 30 puntuak azaltzen dira. Puntu hauek, arro hidrologiko ezberdinetan banatuak, 2008. urtean aukeratu ziran zebra muskuilua izateko aukera handia baitzuten. Puntu hauek Gipuzkoako Foru Aldundiaren ibai sareko behin betiko puntu iraunkorrak dira. Ondorengo kanpainetan puntu berdinak aztertu dira.

Nº	ESTAZIOA	EST. KOD.	IBAIA	ARROA	X*	Y*
1	Endarlatsa	BID00000	Bidasoa	Bidasoa	603081	4794281
2	Ugaldetxo	OIA09500	Oiartzun	Oiartzun	591155	4794578
3	Fanderia	OIA11000	Oiartzun	Oiartzun	590010	4795819
4	Pagoaga	URU28800	Urumea	Urumea	587355	4786268
5	Karabel	URU38800	Urumea	Urumea	583611	4790877
6	Ergobia	URU40200	Urumea	Urumea	584717	4792040
7	Segura	ORI11200	Oria	Oria	561000	4762890
8	Ordizia	ORI21800	Oria	Oria	567521	4768261
9	Irura	ORI40300	Oria	Oria	575621	4779414
10	Andoain	ORI49000	Oria	Oria	579099	4786641
11	Lazkao Zubia	AGA20200	Agauntza	Oria	566629	4764413
12	Ormaiztegi	EST10000	Estanda	Oria	563588	4766697
13	Arriaran Ib. Beh.	ARR03700	Arriaran	Oria	562485	4766877
14	Alegi	AME13200	Amezketa	Oria	573508	4772325
15	Araxes	ARA23700	Araxes	Oria	574854	4775173
16	Berastegi	BER13200	Berastegi	Oria	575710	4775877
17	Billabona	AST07900	Asteasu	Oria	576777	4782348
18	Urretxu	URO15700	Urola	Urola	555420	4773093
19	Azpeitia	URO35000	Urola	Urola	560203	4782572
20	Lasao	URO39600	Urola	Urola	560239	4786141
21	Oikina	URO51800	Urola	Urola	562807	4792100
22	Barrendiola Ib. Beh.	BAR05800	Barrendiola	Urola	554194	4762889
23	Ibai-Eder presa Beh.	IED07400	Ibai-Eder	Urola	562426	4775884
24	Bergara Ib. Beh.	DEB28700	Deba	Deba	547050	4775378
25	Maltzaga Ib. Beh.	DEB38000	Deba	Deba	546012	4782946
26	Aramaio	ARM07700	Aramaio	Deba	539112	4768607
27	Zubillaga	OIN09500	Oñati	Deba	545574	4767762
28	Urkulu Ib. Beh.	URK05300	Urkulu	Deba	543556	4763813
29	Antzuola	ANL05500	Antzuola	Deba	549513	4772270
30	Aixola Ib. Beh.	AIX01100	Aixola	Deba	540142	4780129

* UTM ETRS89 Koordenatuak.

1. Taula Behaketa bidez jarraitutako estazioak. 2015. Urtea.


OIA11000
E. A. Oiartzun
OIA09500
Endarlaza
BID00000
San Antón
Ergobia
URU40200
URU38800
URO51800
E. A. Aizarnazabal
E. A. Lasarte
E. A. Altzola
URU28800
Añarbe
ORI49000
URO39600
Ab. EDAR Badiolegi
E. A. Olazar
DEB38000
URO35000
AST07900
E. A. Ibaieder
AIX01100
Aixola
ORI40300
IED07400
Ibaieder
BER13200
ARA23700
Amaroz
DEB28700
URO15700
ANL05500
E. A. Alegi
AME13200
Ibiur
ARM07700
OIN09500
E. A. Oñati
Arriaran
ORI21800
Arrasate
ARR03700
EST10000
AGA20200
E. A. Amundarain
URK05300
Urkulu
BAR05800
Barrendiola
ORI11200
E. A. Agauntza
Lareo
Zebra-muskuiluaren ale helduak antzemateko laginketa-estazioen kokapena.
2015. Urtea
Urtegietan jarritako testiguak
Ibaietan jarritako testiguak
Ikusmen azterketa
E: 1/300.000
DIN-A4
0
2,5
5
10
15
Km
Gipuzkoako Foru Aldundia
Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentua
Diputación Foral de Gipuzkoa
Departamento de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas
ekolur
Asesoría Ambiental · Ingurumen Aholkularitza

Kanpo lanak, 2015eko abuztuak 24 eta irailak 24 artean burutzen dira.

Hurrengo taulan testiguak ipini diren ibaietako estazioak azaltzen dira:

Nº	ESTAZIOA	IBAIA	ARROA	X*	Y*
1	Endarlatsa	Bidasoa	Bidasoa	603081	4794281
2	Oiartzun Aforo Est.	Oiartzun	Oiartzun	590450	4795472
3	Ergobia	Urumea	Urumea	584717	4792040
4	Agauntza Aforo Est.	Agauntza	Oria	567005	4762956
5	Amundarain Aforo Est.	Amundarain	Oria	569163	4764673
6	Amaroz	Araxes	Oria	574854	4775173
7	Olazar Aforo Est.	Leitzaran	Oria	579978	4784422
8	Alegi Aforo Est.	Oria	Oria	572941	4772270
9	Lasarte Aforo Est.	Oria	Oria	579431	4789118
10	Ibaieder Aforo Est.	Ibaieder	Urola	560460	4780334
11	Badiolegi Araztegia Ib. Behera	Urola	Urola	560957	4784211
12	Aizarnazabal Aforo Est.	Urola	Urola	561331	4789316
13	Oñati Aforo Est.	Oñati	Deba	545771	4767676
14	Arrasate	Deba	Deba	541102	4766573
15	Altzola Aforo Est.	Deba	Deba	548875	4787305

* UTM ETRS89 Koordenatuak.

2. Taula Ibaietako testigu sarea. 2015. urtea.

Hurrengo taulan ibaietako testiguen berrikusketa datak azaltzen dira:

Zkº	IBAIAK	BERRIKUSKETA DATAK			
1	Endarlatsa	23.03.15	01.06.15	13.10.15	
2	Oiartzun Aforo Est.	28.05.15	22.06.15	17.08.15	13.10.15
3	Ergobia	28.05.15	22.06.15	17.08.15	13.10.15
4	Agauntza Aforo Est.	28.05.15	22.06.15	17.08.15	19.10.15
5	Amundarain Aforo Est.	28.05.15	22.06.15	17.08.15	19.10.15
6	Amaroz	28.05.15	22.06.15	17.08.15	19.10.15
7	Olazar Aforo Est.	28.05.15	22.06.15	17.08.15	19.10.15
8	Alegi Aforo Est.	28.05.15	22.06.15	17.08.15	19.10.15
9	Lasarte Aforo Est.	28.05.15	22.06.15	17.08.15	13.10.15
10	Ibaieder Aforo Est.	28.05.15	23.06.15	03.08.15	26.10.15
11	Badiolegi Araztegia Ib. Behera	28.05.15	23.06.15	03.08.15	26.10.15
12	Aizarnazabal Aforo Est.	28.05.15	23.06.15	17.08.15	26.10.15
13	Oñati Aforo Est.	29.05.15	23.06.15	03.08.15	26.10.15
14	Arrasate	29.05.15	23.06.15	03.08.15	26.10.15
15	Altzola Aforo Est.	29.05.15	23.06.15	03.08.15	26.10.15

3. Taula Ibaietako testiguen berrikusketa datak. 2015. urtea.

Azkenik, testiguak ipini diren urtegiak azaltzen dira:

ZK.	URTEGIA	ARROA	X*	Y*
1	San Antón	Bidasoa	599510	4792311
2	Añarbe	Urumea	591387	4785003
3	Ibiur	Oria	571157	4770259
4	Arriaran	Oria	561932	4768797
5	Lareo	Oria	572428	4758526
6	Ibaieder	Urola	562894	4775400
7	Barrendiola	Urola	553496	4762296
8	Urkulu	Deba	543135	4763443
9	Aixola	Deba	539877	4778892

* UTM ETRS89 koordenatuak.

4. Taula Urtegietan kokatutako testigu sarea. 2015 urtea.

Hurrengo taulan urtegietako testiguen berrikusketa datak azaltzen dira:

Nº	URTEGIA	BERRIKUSKETA DATAK			
1	San Antón	01.06.15	13.07.15	24.08.15	19.10.15
2	Añarbe	04.05.15	17.08.15	13.10.15	
3	Ibiur	07.07.15	01.09.15	07.10.15	27.10.15
4	Arriaran	03.05.15	25.08.15	29.09.15	20.10.15
5	Lareo	03.03.15	12.05.15	30.06.15	25.08.15
6	Ibaieder	20.05.15	26.08.15	30.09.15	02.12.15
7	Barrendiola	07.07.15	01.09.15	07.10.15	27.10.15
8	Urkulu	05.05.15	23.06.15	18.08.15	14.10.15
9	Aixola	05.05.15	18.08.15	15.09.15	14.10.15

5. Taula Urtegietako testiguen berrikusketa datak. 2015. urtea.

3. METODOLOGIA

Ondoren, Gipuzkoako ibai eta urtegietan zebra muskuiluaren ale helduen presentzia aztertzeko metodologia azaltzen da.

3.1. ZEBRA MUSKUILUAREN PRESENTZIAREN KONTROLA UBIDEETAN

Aurretik aipatu den bezala, Gipuzkoako Foru Aldundiaren ibai sareko 30 puntu aztertu dira. Puntu bakoitzean 15 minututik gorako denbora tartea egon da laginketa estazio azalera osoan zehar ale helduak bilatzen. Lan hau laginketa biologikoen agorraldi garaiarekin batera egin da.

3.2. IBAIETAN IPINITAKO TESTIGUEN KOKAPENA

Kasu honetan Gipuzkoako ibai sarean banatutako 15 puntu aukeratu eta bertan testiguak erabiltzea erabaki da, hauetako askok aforo estazioetan jarri direlarik. Testigu hauek PVC materialez egindako zulodun kaxa batez eginda daude. Hauen barnean ibaian bertan hartutako substratua, uharriak bereziki, sartu eta sare batez estaltzen dira. Bide batez, kaxa itxia geratu arren, ura arazorik gabe mugi daiteke honen barnetik. Kaxa ibai-hondoan ondo finkatu eta urtean lau alditan berrikusten da.

3.3. URTEGIETAN IPINITAKO TESTIGUEN KOKAPENA

9 urtegietan: Aixola, Urkulu, Barrendiola, Ibai-eder, Lareo, Arriaran, Añarbe, San Anton eta Ibiur, dagokion testigua jartzen da. Kasu honetan polietileno zuriz egindako 0,35 x 0,35 metroko xaflak jartzen dira. Xafla hauek erresistentzia handiko nylonezko soka zuri batean ondo lotu eta sakonera ezberdinetan jartzen dira: 2, 5, 10 eta 15 metroko sakoneran hain zuzen ere. Gainera, aingura jartzen zaio soka finko heldu eta xafla ezberdinak lerrokatuak manten daitezen. Egitura hau 240 mm diametroko buia bati lotuta dago testiguak finko manten daitezen. Buia hau urtegiko sakonera handieneko lekuan jarri eta aingura jartzen zaio mugi ez dadin. Berrikustapena, urtean lau alditan egiten da.

4. EMAITZAK ETA EZTABAIDA

4.1. ZEBRA MUSKUILUAREN PRESENTZIAREN KONTROLA UBIDEETAN

Ibaietako kontrol puntuetan, behaketa bidez egindako jarraipenean lortutako emaitzak hauek dira:

ZK.	ESTAZIOA	EST. KOD.	IBAIA	ARROA	Presentzia	Absentzia
1	Endarlatsa	BID00000	Bidasoa	Bidasoa		X
2	Ugaldetxo	OIA09500	Oiartzun	Oiartzun		X
3	Fanderia	OIA11000	Oiartzun	Oiartzun		X
4	Pagoaga	URU28800	Urumea	Urumea		X
5	Karabel	URU38800	Urumea	Urumea		X
6	Ergobia	URU40200	Urumea	Urumea		X
7	Segura	ORI11200	Oria	Oria		X
8	Ordizia	ORI21800	Oria	Oria		X
9	Irura	ORI40300	Oria	Oria		X
10	Andoain	ORI49000	Oria	Oria		X
11	Lazkao zubia	AGA20200	Agauntza	Oria		X
12	Ormaiztegi	EST10000	Estanda	Oria		X
13	Arriaran Ib. Behera	ARR03700	Arriaran	Oria		X
14	Alegi	AME13200	Amezketa	Oria		X
15	Araxes	ARA23700	Araxes	Oria		X
16	Berastegi	BER13200	Berastegi	Oria		X
17	Billabona	AST07900	Asteasu	Oria		X
18	Urretxu	URO15700	Urola	Urola		X
19	Azpeitia	URO35000	Urola	Urola		X
20	Lasao	URO39600	Urola	Urola		X
21	Oikina	URO51800	Urola	Urola		X
22	Barrendiola Ib. Behera	BAR05800	Barrendiola	Urola		X
23	Ibai-Eder urtegian Behera	IED07400	Ibai-Eder	Urola		X
24	Bergara Ib. Behera	DEB28700	Deba	Deba		X
25	Maltzaga Ib. Behera	DEB38000	Deba	Deba		X
26	Aramaio	ARM07700	Aramaio	Deba		X
27	Zubillaga	OIN09500	Oñati	Deba		X
28	Urkulu Ib. Behera	URK05300	Urkulu	Deba		X
29	Antzuola	ANL05500	Antzuola	Deba		X
30	Aixola Ib. Behera	AIX01100	Aixola	Deba		X

6. Taula Ibaietako kontrol puntuetan, zebra muskuilu helduen behaketa bidezko jarraipenean lortutako emaitzak. 2015. Urtea.

Agorraldi garaian, 30 estazioetan burututako behaketetan ez da zebra muskuilu heldurik ikusi.

4.2. IBAIETAN IPINITAKO TESTIGUEN EMAITZAK

Emaitzak hauek dira:

ZK.	ESTAZIOA	IBAIA	ARROA	Presentzia	Absentzia
1	Endarlatsa	Bidasoa	Bidasoa		X
2	Oiartzun Aforo Est.	Oiartzun	Oiartzun		X
3	Ergobia	Urumea	Urumea		X
4	Agauntza Aforo Est.	Agauntza	Oria		X
5	Amundarain Aforo Est.	Amundarain	Oria		X
6	Amaroz	Araxes	Oria		X
7	Olazar Aforo Est.	Leitzaran	Oria		X
8	Alegi Aforo Est.	Oria	Oria		X
9	Lasarte Aforo Est.	Oria	Oria		X
10	Ibai-eder Aforo Est.	Ibaieder	Urola		X
11	Badiolegi Araztegia Ib. Behera	Urola	Urola		X
12	Aizarnazabal Aforo Est.	Urola	Urola		X
13	Oñati Aforo Est.	Oñati	Deba		X
14	Arrasate	Deba	Deba		X
15	Altzola Aforo Est.	Deba	Deba		X

7. Taula Ibaietako kontrol puntuetan kolokatutako testiguetan ikusitako emaitzak. 2015.urtea.

Ibaietako 15 estazioetan ipinitako testiguetan ez da zebra muskuilu heldurik ikusi.

4.3. URTEGIETAN IPINITAKO TESTIGUEN EMAITZAK

Urtegietan ipinitako testiguen berrikuspenean lortutako emaitzak hauek dira:

ZK.	URTEGIA	ARROA	Presentzia	Absentzia
1	San Anton	Bidasoa		X
2	Añarbe	Urumea		X
3	Ibiur	Oria		X
4	Arriaran	Oria		X
5	Lareo	Oria		X
6	Ibaieder	Urola		X
7	Barrendiola	Urola		X
8	Urkulu	Deba		X
9	Aixola	Deba		X

9 urtegietan ipinitako testiguetan ez da zebra muskuilu heldurik ikusi.

5. ONDORIOAK

Laburbilduz, ez da zebra muskuilu heldurik ikusi. Lekuan bertan egindako behaketetan zein ibaietan eta urtegietan jarritako testiguetan emaitzak negatiboak izan dira. Beraz, oso datu positiboa da.

2006. urtean EAEn azaldu zenetik, espeziea leku berrietan agertu da, hots, bere jarraitasuna beharrezkoa da hurbileko mehatxua baita. Molusku espezie honen detekzio goiztiarra ez eragindako uretan derrigorrezkoa da; horrela, neurriak hartzeko epeak laburragoak dira, masa horrek duen efektu barreiatzailea murriztuz.

I ERANSKINA

ARGAZKI BILDUMA

IBAIETAKO TESTIGUAK	
ENDARLATSA. Bidasoa Ibaia. 2015 Apirila.	ERGOBIA. Urumea Ibaia. 2015 Urria.
AGAUNTZA AFORO EST. Agauntza Ibaia. 2015 Otsaila.	AMUNDARAIN AFORO EST. Amundarain Ibaia. 2015 Maiatza.
AMAROZ. Araxes Ibaia. 2015 Maiatza.	OLAZAR AFORO EST. Leitzaran Ibaia. 2015 Urria.

IBAIETAKO TESTIGUAK	
ALEGI AFORO EST. Oria Ibaia. 2015 Maiatza.	LASARTE AFORO EST. Oria Ibaia. 2015 Maiatza.
IBAIEDER AFORO EST. Ibaieder Ibaia. 2015 Otsaila.	BADIOLEGI ARAZTEGIA IB. B.. Urola Ibaia. 2015 Maiatza.
AIZARNAZABAL AFORO EST. Urola Ibaia. 2015 Apirila.	OÑATI AFORO E. Oñati Ibaia. 2015 Uztaila.

ARRASATE. Deba Ibaia. 2015 Apirila.	ALTZOLA AZORO EST. Deba Ibaia. 2015 Apirila.

URTEGIETAKO TESTIGUAK

SAN ANTON URTEGIA (Otsaileko laginketa)

AÑARBEKO URTEGIA (Otsaileko laginketa)

URTEGIETAKO TESTIGUAK

IBIURREKO URTEGIA (Iraileko laginketa)

ARRIARANGO URTEGIA (Martxoko laginketa)

URTEGIETAKO TESTIGUAK

LAREOKO URTEGIA (Maiatzeko laginketa)



IBAIEDERREKO URTEGIA (Abenduko laginketa)



URTEGIETAKO TESTIGUAK

BARRENDIOLAKO URTEGIA (Urriko laginketa)

URKULUKO URTEGIA (Ekaineko laginketa)

AIXOLAKO URTEGIA (Urriko laginketa)

II. ERANSKINA

SEDIMENTUEN TOXIKOTASUNAREN TXOSTENA

AURKIBIDE OROKORRA

1. SARRERA 1

2. AZTERKETA-EREMUA ETA LAGINKETA-DATAK 2

3. METODOLOGÍA 3

4. EMAITZAK ETA EZTABAIDA 4

4.1. BIDASOA ARROA 4
4.2. OIARTZUN ARROA 5
4.3. URUMEA ARROA 8
4.4. ORIA ARROA 11
4.5. UROLA ARROA 15
4.6. DEBA ARROA 20

5. ONDORIOAK 27

1. SARRERA

Gipuzkoako Lurralde Historikoan hirigintza eta industria garapen nabarmena eman da, bereziki metalurgia esparruan. Hau guztia ibai sareak jasaten duen kutsaduran ikusten da, industria jarduera ezberdinetan jatorria duten kutsatzaile toxikoak baitaude.

Azken urteotan uraren kalitatea hobetzen doa, saneamendu eta arazketa planak aurrera doazen heinean. Industria batzuen jarduera gelditu izanak eta beste batzuek martxan jarritako neurriak, ibaien kalitatearen hobekuntzan lagundu dute.

Gipuzkoako ibaiak jasan duten kutsaduraren ondorioetako bat, ibai-hondoetan gertatu den elementu toxikoen metaketa izan da. Elementu hauek urte askoan irauten dute eta egunen batean mugituak eta disolbatuak gertatzen badira, kate trofikoan sartu eta ondorioz organismo bizidunetan metatu daitezke.

Egoera ezagutzeko helburuarekin, Gipuzkoako Foru Aldundiak 2008. urtean sedimentu laginketa sare bat martxan jarri zuen, urtero egiten duen *Gipuzkoako Ibaietako Uraren Kalitateari buruzko Azterketa* lanaren barnean, alegia.

2. AZTERKETA-EREMUA ETA LAGINKETA-DATAK

Sedimentuen analisirako, ibai sare nagusiko 23 puntuetan laginak hartu dira.

SEDIMENTUEN LAGINKETARAKO PUNTUEN ZERRENDA. 2015. URTEA.						
ZK.	**ESTAZIOA**	**EST. KOD.**	**IBAIA**	**ARROA**	**X**	**Y**
1	Endarlatsa	BID00000	Bidasoa	Bidasoa	603081	4794281
3	Aritxulegi	OIA04200	Oiartzun	Oiartzun	595713	4792734
6	Fanderia	OIA11000	Oiartzun	Oiartzun	590010	4795819
7	Arditurri	ARD02400	Arditurri	Oiartzun	595780	4792821
8	Pagoaga	URU28800	Urumea	Urumea	587355	4786268
9	Fagollaga	URU33800	Urumea	Urumea	585067	4788947
12	Ergobia	URU40200	Urumea	Urumea	584717	4792040
14	Zegama	ORI05500	Oria	Oria	557431	4757636
17	Ordizia	ORI21800	Oria	Oria	567521	4768261
20	Irura	ORI40300	Oria	Oria	575621	4779414
22	Usurbil	ORI57400	Oria	Oria	576674	4790853
34	Brinkola	URO03500	Urola	Urola	554347	4762361
36	Legazpia Ib. Behera	URO09800	Urola	Urola	554347	4768658
38	Aizpurutxo	URO21100	Urola	Urola	552756	4775694
40	Azpeitia	URO35000	Urola	Urola	560203	4782572
45	Oikina	URO51800	Urola	Urola	562807	4792100
49	Leintz	DEB03100	Deba	Deba	535331	4759006
50	Arrasate	DEB14000	Deba	Deba	541102	4766573
52	Bergara Ib. Behera	DEB28700	Deba	Deba	547050	4775378
54	Maltzaga Ib. Behera	DEB38000	Deba	Deba	546012	4782946
56	Mendaro	DEB48100	Deba	Deba	550543	4790175
59	Tabesa Zubia	OIN12500	Oñati	Deba	545007	4769917
64	Ego	EGO08800	Ego	Deba	545297	4782289

Laginketak urriaren 13an egin dira.


OIA11000
BID00000
ARD02400
OIA04200
URU40200
ORI57400
URO51800
DEB48100
URU33800
URU28800
DEB38000
EGO08800
URO35000
ORI40300
DEB28700
URO21100
OIN12500
URO09800
ORI21800
DEB14000
URO03500
DEB03100
ORI05500
Sedimentu laginketen kokapena.
2015. Urtea
Laginketa estazioak
E: 1/300.000
DIN-A4
0 2,5 5 10 15
Km
Gipuzkoako Foru Aldundia
Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentua
Diputación Foral de Gipuzkoa
Departamento de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas
ekolur
Asesoría Ambiental · Ingurumen Aholkularitza

3. METODOLOGÍA

Ahal den kasuetan, laginak ubideko ardatz nagusian eta ur geldoetan hartzen dira. Lagina jasotzeko draga bat erabiltzen da, beti ere ahalik eta sedimentu fin gehien hartzen saiatuz. Gutxi gora behera 500 gramoko laginak hartu eta polietilenozko poltsa hermetikoan jasotzen dira. Laginak zuzenean Gipuzkoako Foru Aldundiko Berrikuntza, Landa Garapena eta Turismo sailaren menpean dagoen Fraisoroko Laborategira eramaten dira, bertan frakzio fina aztertu (63 mikra azpitik) eta metal astunak detektatzen dira.

Emaitzen analisirako LONG et al. (1995) ikerketak emandako metal kontzentrazioen erreferentzia hartzen da, toxikotasun bi maila ezartzen ditu:

- ERL (Effect Range Low): toxikotasun maila txikia (10 pertzentila), honen azpitik efektu biologikoak eskasak dira.

- ERM (Effect Range Médium): toxikotasun maila ertaina (50 pertzentila), honen gainetik efektu biologikoak sarriak dira.

Metalak	Kadmioa	Kromoa	Kobrea	Merkurio	Nikela	Beruna	Zinka
ERL (mg/kg)	1,2	81	34	0,15	21	47	150
ERM (mg/kg)	9,6	370	270	0,71	52	220	410

Erreferentzi balioak, Long et al. (1995)

Burdina eta manganesoak ez dute toxikotasun daturik.

Metalaren kontzentrazioa ERL mugatik beherako kasuan, toxikotasun baxuko egoera da. Metalaren kontzentrazioa ERL eta ERM mailen arteko balioa hartzen duenean, toxikotasun ertaineko egoera bezala ulertzen da. Azkenik, ERM muga gainditzen duenean, toxikotasun maila altua da.

4. EMAITZAK ETA EZTABAIDA

Ondoren laginen analisietatik lortutako arro hidrologiko bakoitzeko emaitzak azaltzen dira:

4.1. BIDASOA ARROA

Bidasoako beheko zatian kokatutako Endarlatsa estazioan, 2009-2015 denboraldian emaitza hauek lortu dira:

SEDIMENTUENTAN DAUDEN METALEN EMAITZAK (mg/kg). BIDASOA ARROA. ENDARLATSA ESTAZIOA. 2009-2015 DENBORALDIA.							
	2009	**2010**	**2011**	**2012**	**2013**	**2014**	**2015**
Kadmioa (Cd)	<0,80	1,25	0,94	< 0,70	0,84	0,70	<0,70
Kromoa (Cr)	28,2	35,8	15,9	16,2	28,2	14,1	47,0
Kobrea (Cu)	41,6	60,4	58,5	51,5	58,8	31,8	37,0
Merkurioa (Hg)	<1	<1	<0,40	<0,40	<0,40		<0,40
Nikela (Ni)	22,5	30,9	29,1	34,1	23,1	21,7	34,0
Beruna (Pb)	27,6	68,6	49,1	98,1	44,2	23,8	58,2
Zinka (Zn)	107	237	207	215	246	151	176
Artsenikoa (As)	14,0	16,3	10,8	12.00	10,6	12,7	11,9
Burdina (Fe)	43500	38400	37.930	39200	33700	23600	40000
Manganesoa (Mn)	1530	1890	1.830	1150	640	392	1200

ERL azpiko balioak (toxikotasun maila baxua)
ERL eta ERM tarteko balioak (toxikotasun maila ertaina)
ERM gorako balioak (toxikotasun maila altua)



Bidasoa ibaiko **Endarlatsako** estazioan 2015an aurreko urteekin alderatuz kontzentrazio maila baxuagoa neurtzen da, toxikotasuna gutxituaz. Modu honetara, kobre, nikel, beruna, zink eta artsenikoak gainditu egiten dute toxikotasun maila baxua. Burdina eta manganesoak beraien balioak aurreko urtekoekin alderatuz, igo egiten dira.

Kobrea, nikela, beruna, zinka eta artsenikoa segida luzaro guztian toxikotasun maila altuena azaldu duten metalak izan dira, urte gehienetan, toxikotasun maila baxuaren gainetik kokatuta egon baitira. Kobre eta berunak 2013 eta 2014 urteetan pairatutako beherakada eten egiten da, 2015 urtean igo eta 2012 urteko balioak lortu dituztelarik. Kromo eta kadmioak berriz toxikotasun baxua agertzen dute. Era berean, burdin eta manganeso balioak 2012 urteko berdintsuak izan dira aurten.

4.2. OIARTZUN ARROA

Oiartzungo arroan lortutako emaitzak hauek dira:

SEDIMENTUENTAN DAUDEN METALEN EMAITZAK (mg/kg). OIARTZUN ARROA. ARITXULEGI ESTAZIOA. 2009-2015 DENBORALDIA.							
	2009	**2010**	**2011**	**2012**	**2013**	**2014**	**2015**
Kadmioa (Cd)	<0,80	1,56	0,93	0,88	1,39	0,90	1,10
Kromoa (Cr)	38,1	39,9	34,6	35,0	35,5	32,7	47,0
Kobrea (Cu)	19,7	29,8	52,1	31,4	51,6	55,0	28,0
Merkurioa (Hg)	<1	<1	<0,40	<0,40	<0,40		<0,40
Nikela (Ni)	11,8	19,8	29,3	19,6	23,7	25,1	27,0
Beruna (Pb)	95,3	84,9	86,5	91,1	81,2	78,2	126
Zinka (Zn)	192	325	314	329	335	287	411
Artsenikoa (As)	3,30	8,67	4,82	8,67	7,92	13,20	8,20
Burdina (Fe)	32900	33200	33000	35000	40100	31800	43700
Manganesoa (Mn)	1320	910	1180	856	1440	827	1350

ERL azpiko balioak (toxikotasun maila baxua)

ERL eta ERM tarteko balioak (toxikotasun maila ertaina)

ERM gorako balioak (toxikotasun maila altua)





Aritxulegin aurten ere, aurreko urtean bezala, toxikotasun maila garrantzitsua ikusten da. Honela, kobre, nikel, berun eta artseniko metalek, toxikotasun maila baxua gainditzen dute, eta zinkak balio altuagoak eman ditu, toxikotasun maila altura iritsiaz. Kadmio, kromoa eta merkurioak ordea balio baxuagoetan mantentzen dira. Burdin eta manganesoaren kontzentrazio maila, aldiz, handitu egiten da, duela bi urteko balioekin berdinduz.

2014an egoera nahiko berdintsua da, aldaketa txiki batekin; toxikotasun maila altura iristen diren elementuei zinka gehitu behar zaie. Aurreko urteetan ordea, toxikotasun maila txikiagoa atzematen da. Segida guztian zehar, beruna eta zinka dira elementu toxikoenak. Kromoak bestalde merkurioak bezala, ez du toxikotasunik azaltzen.

SEDIMENTUENTAN DAUDEN METALEN EMAITZAK (mg/kg). OIARTZUN ARROA. FANDERIA ESTAZIOA. 2009-2015 DENBORALDIA.							
	2009	**2010**	**2011**	**2012**	**2013**	**2014**	**2015**
Kadmioa (Cd)	2,81	8,53	2,37	7,30	7,23	3,56	7,82
Kromoa (Cr)	46,9	57,8	15,2	28,8	50	40,8	70,0
Kobrea (Cu)	53,8	143	53,8	98,7	162	86,4	109
Merkurioa (Hg)	<1	<1	<0,40	<0,40	0,57		0,701
Nikela (Ni)	24,7	34,3	23,3	39,8	36,2	27,5	35,0
Beruna (Pb)	231	239	176	314	426	254	382
Zinka (Zn)	524	1620	1260	2190	2480	1500	2940
Artsenikoa (As)	16,7	17,0	5,66	17,30	18,8	27,60	19,0
Burdina (Fe)	50900	31500	30050	42100	61400	31600	46500
Manganesoa (Mn)	2230	1650	1130	2590	3320	966	1990

ERL azpiko balioak (toxikotasun maila baxua)

ERL eta ERM tarteko balioak (toxikotasun maila ertaina)

ERM gorako balioak (toxikotasun maila altua)





Oiartzun ibaiko beheko zatian, **Fanderian**, goiko puntuarekin alderatuz (Aritxulegi) egoera okertu egiten da, toxikotasun maila nabarmena izanik. Honela, 2015. urte honetan, zink eta berunak, toxikotasun maila altua lortzen dute. Nikel, kobre, kadmio, merkurio eta artsenikoak bere aldetik, maila ertaina agertzen dute, kromoak ordea maila baxuari heltzen dio. Burdina eta manganesoaren kasuan, aurreko urtearekin alderatuz, balioa handitu egiten da.

Segida guztian zehar, egoera nahiko antzekoa ikusten da, zink eta berunak toxikotasun handiarekin eta nikel, kadmio, kobre eta artsenikoa ertainarekin. Kromoak toxikotasun kontzentrazio maila baxua agertzen du. Merkurioaren kasuan segida aldatzen da, atzemate maila azpian kokatzetik, toxikotasun maila ertainera pasaz.

SEDIMENTUENTAN DAUDEN METALEN EMAITZAK (mg/kg). OIARTZUN ARROA. ARDITURRI ESTAZIOA. 2009-2015 DENBORALDIA.							
	2009	**2010**	**2011**	**2012**	**2013**	**2014**	**2015**
Kadmioa (Cd)	19,4	21,5	14,1	8,99	20,4	15,0	12,6
Kromoa (Cr)	59,8	54,0	19,7	25,8	28,1	39,6	67,0
Kobrea (Cu)	186	228	177	75,8	198	109	113
Merkurioa (Hg)	<1	2,33	1,37	1,02	1,86		1,496
Nikela (Ni)	27,5	39,1	48,4	33,8	46,5	47,4	49,0
Beruna (Pb)	1310	2480	1670	748	2140	924	1320
Zinka (Zn)	511	3840	4950	2910	11300	3770	4980
Artsenikoa (As)	27,7	57,0	22,6	20,30	44,4	33,10	31,5
Burdina (Fe)	65900	52600	45030	34500	63400	33800	57200
Manganesoa (Mn)	5010	3660	2750	1470	3590	1210	1820

ERL azpiko balioak (toxikotasun maila baxua)

ERL eta ERM tarteko balioak (toxikotasun maila ertaina)

ERM gorako balioak (toxikotasun maila altua)





Arditurri errekaren kasuan, serie guztian zehar sedimentuetan metal astunen presentzia altua ageri da, hau da, toxikotasuna nabaria da. Honen atzean inguruetan kokatutako antzinako meatze-ustiapena dago. Modu honetan, 2015an, kadmio, berun, zink eta merkurioak, toxikotasun balio altuak lortzen dituzte, kasu gehienetan bezala. Kobre, nikel eta artsenikoa toxikotasun maila ertainean mantentzen dira eta kromoak, aurreko urteetan bezala, toxikotasun maila txikia dauka. Burdin eta manganesoari dagokionez, kontzentrazioak aurreko urteekin alderatuz, balio altuagoak lortu dira.

4.3. URUMEA ARROA

Urumea arroko sedimentuetan dauden metalen emaitzak hauek dira:

SEDIMENTUENTAN DAUDEN METALEN EMAITZAK (mg/kg). URUMEA ARROA. PAGOAGA ESTAZIOA. 2009-2015. DENBORALDIA.							
	2009	**2010**	**2011**	**2012**	**2013**	**2014**	**2015**
Kadmioa (Cd)	<0,80	1,82	1,23	1,41	1,48	0,86	1,01
Kromoa (Cr)	27,5	52,3	14,7	14,9	26,3	15,5	40,0
Kobrea (Cu)	37,9	80,7	96,1	65,8	134	50,2	60,0
Merkurioa (Hg)	<1	<1	<0,40	<0,40	<0,40		<0,40
Nikela (Ni)	27,8	48,5	41,5	30,3	76,1	25,1	37,0
Beruna (Pb)	220	342	338	601	352	278	464
Zinka (Zn)	392	683	642	656	618	412	521
Artsenikoa (As)	27,3	31,8	17,6	30,30	25,7	30,90	31,4
Burdina (Fe)	32800	41600	32000	35300	52300	28300	39600
Manganesoa (Mn)	792	2260	2150	2180	2400	1250	1410

ERL azpiko balioak (toxikotasun maila baxua)

ERL eta ERM tarteko balioak (toxikotasun maila ertaina)

ERM gorako balioak (toxikotasun maila altua)





Urumea ibaiko goiko zatian, **Pagoaga**, toxikotasun garrantzitsua aurkitzen da. Honela, zink eta beruna toxikotasun handia edukitzera heltzen dira, nikel, kobre eta artsenikoak ordea, toxikotasun maila ertaina agertzen dute. Besteak ez bezala, kromo, merkurio eta kadmioak balio baxuak erakusten dituzte. Beste alde batetik, manganeso eta burdinak, aurreko urtearekin alderatuz, kontzentrazio altuagoak neurtzen dira. Badirudi egoera honek, goi-arroan kokatuta dauden antzinako Nafarroako meategiekin zerikusia daukala.

Segida guztian zehar, toxikotasun maila nahiko antzekoa ikusten da, zink eta beruna nabarmentzen dira toxikotasun maila altuen gaitik. Honela, nikel, kobre eta artsenikok kontzentrazio garrantzitsuak lortzen dituzte. Bestalde, kromoaren presentzia eskasa den bezala, merkurioa atzemate maila azpian kokatzen da.

SEDIMENTUENTAN DAUDEN METALEN EMAITZAK (mg/kg). URUMEA ARROA. FAGOLLAGA ESTAZIOA. 2009-2015. DENBORALDIA.							
	2009	**2010**	**2011**	**2012**	**2013**	**2014**	**2015**
Kadmioa (Cd)	<0,80	1,49	0,87	1,50	1,58	1,13	1,08
Kromoa (Cr)	33,0	34,6	12,2	15,6	17,3	24,3	26,0
Kobrea (Cu)	34,4	57,1	68,6	61,2	89,9	52,4	58,0
Merkurioa (Hg)	<1	<1	<0,40	<0,40	<0,40		<0,40
Nikela (Ni)	24,8	30,3	33,1	33,5	46	33,1	38,0
Beruna (Pb)	194	222	263	452	313	265	337
Zinka (Zn)	339	529	489	616	584	442	503
Artsenikoa (As)	28,6	25,0	16,8	22,40	28,2	30,20	24,6
Burdina (Fe)	37200	38400	34720	31300	51300	28000	40300
Manganesoa (Mn)	901	1170	1640	2430	2790	1500	1320

ERL azpiko balioak (toxikotasun maila baxua)

ERL eta ERM tarteko balioak (toxikotasun maila ertaina)

ERM gorako balioak (toxikotasun maila altua)





Hurrengo puntuan, **Fagollaga**, Pagoagan adierazitako egoera oso antzekoa ikusten da. Aipagarriak dira zink eta beruna, gehienetan toxikotasun handia erakusten baitute. Kobre, nikel eta artsenikoak toxikotasun maila ertainean agertzen dira. Kadmioa balio ertain eta baxuetan mugitzen da. Kromo eta merkurioak ordea, lortzen dituzten balioak, maila baxuan kokatzen dira. Beste alde batetik, 2015. urte honetan, aurreko urtearekin alderatuz burdinaren toxikotasun maila handitu egin den bezala, manganesoaren kontzentrazioa txikiagotu egiten da.

SEDIMENTUENTAN DAUDEN METALEN EMAITZAK (mg/kg). URUMEA ARROA. ERGOBIA ESTAZIOA. 2008-2015 DENBORALDIA.								
	2008	**2009**	**2010**	**2011**	**2012**	**2013**	**2014**	**2015**
Kadmioa (Cd)	0,95	<0,80	1,76	0,76	0,73	1,52	0,70	<0,70
Kromoa (Cr)	77,7	50,0	95,5	14,0	16	33,5	17,0	57,0
Kobrea (Cu)	97,7	48,9	99,5	72,6	56,6	151	66,9	73,0
Merkurioa (Hg)	0,87	<1	<1	<0,40	0,70	0,56		0,56
Nikela (Ni)	42,2	25,5	43,1	31,7	27,7	43,2	30,6	41,0
Beruna (Pb)	542	136	202	185	291	286	241	190
Zinka (Zn)	443	308	543	374	389	719	383	394
Artsenikoa (As)	29,3	14,7	21,9	16,6	17	21,5	31,00	20,4
Burdina (Fe)	40.300	35500	46600	31970	32300	52100	38200	45400
Manganesoa (Mn)	1.920	1040	1980	914	1220	2500	1270	1270

ERL azpiko balioak (toxikotasun maila baxua)

ERL eta ERM tarteko balioak (toxikotasun maila ertaina)

ERM gorako balioak (toxikotasun maila altua)





Azkenik, Urumea arroaren beheko zatian, **Ergobia**, toxikotasun maila garrantzitsua atzematen da. Aurreko kasuetan bezala, hemen ere toxikotasun maila ertain-altuarekin, zink eta beruna nabarmentzen dira. Bere aldetik, nikel, kobre, merkurio eta artsenikoa toxikotasun ertainera heltzen dira. 2014 eta 2015 urteetan zinka balio ertainetan aurkitzen da. Kadmio eta kromo balioak, orokorrean, toxikotasun baxua agertzen dute. Urte honetan, aurreko urtearekin alderatuz, burdin kontzentrazio mailaren igoera bat atzeman da eta manganesoak kontzentrazio bera mantentzen jarraitzen du.

Beste alde batetik, 2008, 2012, 2013 eta 2015 urteetan merkurioak agertutako balio altuak azpimarratu behar dira, nahiz eta Urumeako erdi eta goi ibilguan ez azaldu.

4.4. ORIA ARROA

Ondoren, Oria arroko sedimentuetan dauden metal pisutsuen emaitzak azaltzen dira:

SEDIMENTUENTAN DAUDEN METALEN EMAITZAK (mg/kg). ORIA ARROA. ZEGAMA ESTAZIOA. 2009-2015 DENBORALDIA.							
	2009	**2010**	**2011**	**2012**	**2013**	**2014**	**2015**
Kadmioa (Cd)	<0,80	0,93	<0,70	<0,70	<0,70	0,7	<0,70
Kromoa (Cr)	32,0	23,4	23,3	16,7	14,2	19,2	31,0
Kobrea (Cu)	30,0	37,5	36,5	24,7	16,7	21,2	14,0
Merkurioa (Hg)	<1	<1	<0,40	<0,40	<0,40		<0,40
Nikela (Ni)	35,0	26,0	29,1	22,8	19,1	30,2	22,0
Beruna (Pb)	35,0	35,8	37,1	29,2	24,3	23,7	36,4
Zinka (Zn)	143	199	135	124	99,4	125	108
Artsenikoa (As)	25,0	14,4	9,43	8,93	7,86	11,10	7,80
Burdina (Fe)	51300	26000	25390	19500	22400	17300	31400
Manganesoa (Mn)	580	418	319	298	255	215	175

ERL azpiko balioak (toxikotasun maila baxua)

ERL eta ERM tarteko balioak (toxikotasun maila ertaina)

ERM gorako balioak (toxikotasun maila altua)





Espero bezala, **Zegaman**, goi-ibarreko puntuan, metal astunen kontzentrazio balio baxuenak neurtzen dira. Nikela da toxikotasun handiena erakusten duen metala, toxikotasun ertaina duelarik; kadmioa, kromoa, kobrea, merkurioa, beruna, artsenikoa eta zinkak, aldiz, toxikotasun maila baxua erakusten dute kasu gehienetan. Manganesoaren kasuan, aurten lortzen dira serie osoko baliorik baxuenak, burdinaren balioak ordea handitu egiten da.

SEDIMENTUENTAN DAUDEN METALEN EMAITZAK (mg/kg). ORIA ARROA. ORDIZIA ESTAZIOA. 2009-2015. DENBORALDIA.							
	2009	**2010**	**2011**	**2012**	**2013**	**2014**	**2015**
Kadmioa (Cd)	<0,80	1,87	0,85	0,74	2,14	1,10	0,74
Kromoa (Cr)	111	76,3	61,9	43,5	47,2	58,4	66,0
Kobrea (Cu)	183	202	202	102	133	124	111
Merkurioa (Hg)	<1	<1	<0,40	<0,40	<0,40		0,427
Nikela (Ni)	56,5	47,9	90,6	34,6	33,9	92,1	51,0
Beruna (Pb)	125	83,8	71,1	58,7	74	79,5	66,9
Zinka (Zn)	499	419	418	383	358	400	309
Artsenikoa (As)	24,9	13,4	5,55	6,85	6,75	14,20	9,10
Burdina (Fe)	59900	40700	22810	24100	32200	29600	29100
Manganesoa (Mn)	1320	1020	685	520	1120	853	466

ERL azpiko balioak (toxikotasun maila baxua)

ERL eta ERM tarteko balioak (toxikotasun maila ertaina)

ERM gorako balioak (toxikotasun maila altua)



Hurrengo puntua, **Ordizian**, goi ibarrean baino, metal astunen presentzia handiagoa ikusten da. 2015. urtean, nikelaren toxikotasuna ertaina da, kobre, beruna, zink eta artsenikoaren maila berean jarriaz. Kadmio eta kromoa ordea, maila baxuan geratzen dira. Aurreko urteetan ez bezala, merkurioaren presentzia agertzen da, maila ertaineko toxikotasunera iritsiaz. Bere aldetik, burdina eta manganesoa aurreko urteekin alderatuz gutxitu egiten dira.

Serie osoa kontutan hartuta, toxikotasun maila orokorrean antzekoa da. 2015. urtean nabarmendu beharrekoa da, inongo kasuetan ez dela ERM toxikotasun maila alturik lortzen. Ala eta guztiz ere, ERL toxikotasun maila ertaineko balioak handitu egin dira.

SEDIMENTUENTAN DAUDEN METALEN EMAITZAK (mg/kg). ORIA ARROA. IRURA ESTAZIOA. 2008-2015 DENBORALDIA.								
	2008	**2009**	**2010**	**2011**	**2012**	**2013**	**2014**	**2015**
Kadmioa (Cd)	< 0,80	<0,80	1,01	<0,70	<0,70	<0,70	0,7	<0,70
Kromoa (Cr)	66,5	88,0	55,5	35,4	17,9	19,3	25,5	34,0
Kobrea (Cu)	131	619	236	81,5	47,9	42,4	39,4	104
Merkurioa (Hg)	0,27	<1	<1	0,94	<0,40	< 0,40		<0,40
Nikela (Ni)	41,7	55,2	37,1	33,6	16,5	17,2	28,5	29,0
